



# GENEROA ETA TRANTSIZIOZKO JUSTIZIA

Emakumeen mugimenduak  
zigorgabetasunaren aurka

Irantzu Mendia Azkue  
Gloria Guzmán Orellana  
Iker Zirion Landaluze  
(arg.)





# GENEROA ETA TRANTSIZIOZKO JUSTIZIA

Emakumeen mugimenduak  
zigorgabetasunaren aurka

Irantzu Mendia Azkue  
Gloria Guzmán Orellana  
Iker Zirion Landaluze  
(arg.)



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL  
INSTITUTU IZARRA ETXERAKO GAIENAKIEN IZARRA IZARRA IZARRA

Argitalpen hau Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatu duen *Egia, justizia eta erreparazioarako eskubidearen aldeko ekintza feminista eta internazionalista indartzea*, 2015, proiektuaren emaitza da.



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Gizarte Politikako Departamentua  
Departamento de Política Social

Generoa eta trantsiziozko justizia. Emakumeen mugimenduak zigorgabetasunaren aurka

Edizioa: Irantzu Mendia Azkue, Gloria Guzmán Orellana, Iker Zirion Landaluze

Autoretza: Amandine Fulchiron, Gloria Guzmán Orellana, Iker Zirion Landaluze, Irantzu Mendia Azkue, Itziar Mujika Chao, Marina Gallego Zapata, Nadia López Ruiz, Sara Hernández Pérez

2017



[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)

[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

UPV/EHU

Zubiria Etxea

Lehendakari Agirre etorbidea 81 • 48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU

Campuseko Liburutegia, 138. posta-kutxa

Nieves Cano 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxa: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaría

Elhuyar plaza 2 • 20018 Donostia

Tel.: 943 01 74 64 • Faxa: 94 601 70 40

Azaleko marrazkia: Sergio Daneri M. Guzmán

Itzultzaileak: Maku Florentino Garbizu eta Iñigo Gallastegi Zorrilla

Imprimatzailea: Lankopi S.A.

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Lege gordailua: BI-862-2017

ISBN: 978-84-16257-21-8



Agiri hau Creative Commons en lizentziapean dago. Lan hau askatasunez kopiatu, banatu eta jendaurrean komunikatu ahal izango da, betiere, autoretza aitortzen bada eta helburu komertzialeterako erabiltzen ez bada. Ez dago lan honetan oinarritutako lana aldatzerik, eraldatzerik edo sortzerik.

Lizentzia horren kopia ikusteko: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

# Aurkibidea

<b>Sarrera. Emakumeen ekintza politikoa egia, justizia, erreparazioa eta berriro gertatuko ez delako bermerako eskubidearen alde</b> <i>Irantzu Mendia Azkue</i>	<b>15</b>
<b>I. Kapituluua. Kosovoko indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilean, gerran eta gerraostean ekintza feminista</b> <i>Itziar Mujika Chao</i>	<b>33</b>
1. Sarrera	35
2. Indarkeriarik gabeko erresistentzia zibila, gatazka armatua eta bake eraikuntza Kosovon	36
2.1. Gatazkaren egiaz eta memoriaz jabetzeko eztabaida	41
3. Gatazka genero-ikuspegitik	43
4. Kosovoko emakumeen gerraosteko aktibismoa	48
4.1. Sexu indarkeriaren biktimentzako laguntza juridiko-legala Jugoslavia ohirako Nazioarteko Auzitegi Penalaren aurrean	50
4.2. Emakumeen Bake Koalizioa	51
4.3. Emakumeen Auzitegia	52
4.4. Sexu indarkeria biziraun duten emakumeen eskubideen aldeko borroka berrindartzea	55
5. Ondorioak	56
Bibliografia	58

<b>II. Kapituluua. Actoras de Cambio Guatemalan: emakumeen gorputza eta bizitza justiziaren xede</b> <i>Amandine Fulchiron</i>	<b>63</b>
1. Sarrera	65
2. Sexu-bortxaketa: maia emakumeak gerran masakratzeko arma	66
2.1. Sexu-bortxaketa, maia emakumeen aurkako gerra eta suntsiketa politika: feminizidioa edo emakumeen genozidioa	66
2.2. Sexu-bortxaketa, genozidioa	72
3. Sexu-bortxaketa genozidaren ondorioak emakumeen bizitzan: “heriotza bizirik egonda”	74
3.1. Alderantzikatze maltzurra: biktimak erantzule dira	74
3.2. Izatearen urraketa	76
3.3. “Sustoa”: gorputza oihuka	77
4. Emakumeen gorputzaren aurkako gerrak badirau oraindik: feminizidioa eta lurraz gabetzea gaur egun	78
5. Actoras de Cambio: emakumeen arteko justiziaren proposamen feminista eta komunitarioa	82
5.1. Emakumeen gune soziala isiltasuna apurtzeko: egia argitzeko eskubidea	82
5.2. Sendatzea justizia da: erreparazio-eskubidea	85
5.2.1. Sentitzea norberarena izendatzeko	85
5.2.2. Gorputzean bizitzea errua desegituratzeko	86
5.2.3. Landareekiko, suarekiko eta arbasoekiko konexioa: autoafirmazio kolektiboa	89
5.2.4. Emakume taldearen boterea: indar kolektiboa, maitasuna eta bizitza eraikitzea sexu-bortxaketa genozidaren ondorioz hondamendia, gorrotoa eta heriotza nagusi diren tokietan	89
5.3. Memoria egitea, emakumeentzako justizia sozialaren proposamena	91
5.3.1. Memoriaren aldeko Jaialdietan lana egituratzen duten printzipioak	92
5.3.2. Egia berrestea, kaltea aitortzea, duintasuna ematea	93

5.3.3. Historiaren berri izatea emakumeen ahotsak eta esperientziak entzunda	94
5.3.4. Emakumeen historia ikasbide	96
5.4. Ez errepikatzea justiziaren xede: bakearen, askatasunaren eta bizimodu egokiaren lurraldeak eraikitzea emakume guztientzat	97
5.5. Espetxea al da bortxatzaileak zigortzeko modu bakarra?	98
5.5.1. Sepur Zarco-ko q'eqchi emakumeek hautatutako zigorbideak	98
5.5.2. Komunitatean “emakumeen legea” sortzea: mam eta chuj emakumeen esperientzia Actoras de Cambiorekin batera	103
6. Ondorioak	108
Bibliografia	109

### **III. Kapitulua. Emakumeak zigorgabetasunaren aurka El Salvadorren**

*Gloria Guzmán Orellana eta Irantzu Mendia Azkue* **117**

1. Sarrera	117
2. Gerra eta horren aurrekariak	118
2.1. Bake-akordio ondokoak: zigorgabetasunaren erabateko babesa	121
3. Gatazkaren inguruko genero begirada bat	123
3.1. Emakumeen parte-hartze altua	123
3.2. Sexu-indarkeria: oraindik ebatzi gabeko gaia	125
4. Emakumeen protagonismoa egia, justizia eta erreparazioaren aldeko borrokan	128
4.1. Bizi izandako esperientziaren alderdi komunak	128
4.2. Gerraostean paper estrategikoa	131
4.2.1. Amnistia Orokorrerako Legea indargabetzeko eragitea	131
4.2.2. Erreparazioaren aldeko politika publikoaren bultzada	133
4.2.3. Memoria-guneak sortzea	136

4.2.4. Justizia Leheneratzaileko Auzitegietan presentzia	138
4.2.5. Memoria historikoa berreskuratzea	140
5. Ondorioak	142
Bibliografia	144

**IV. Kapituluak. Duinak eta errebeldeak. Emakumeen eskubideen aldeko aktibismoa Chiapasen, Mexiko**  
*Nadia López Ruiz eta Sara Hernández Pérez* **149**

1. Sarrera	151
2. Gatazkaren testuingurua	152
3. Gatazkaren genero-ikuspegia	160
3.1. Zapatismoa: emakumeek parte hartzeko moduak EZLNren baitan	160
3.1.1. Emakume gerrillariak	160
3.1.2. Emakumeak laguntza-oinarri zapatistak: funtsezko gaia	162
3.2. Emakumeen eskubideen urraketa	163
3.2.1. Sexu-indarkeria: ebazteke dagoen justizia	163
3.2.2. Nahitaezko desplazamendua	166
3.2.3. Militarizazioa	166
3.2.4. Paramilitarismoa	168
3.3. Gerraren eragina emakumeen bizimoduan	169
3.3.1. Prostituzioaren fenomenoak	169
3.3.2. Osasun arazoak	169
3.3.3. Ama ezkongabeak	170
4. Chiapaseko emakumeen ekintza kolektiboa	170
4.1. Aurrekariak: EZLNren sorrera eta Emakumeen Lege Iraultzailea	170
4.2. San Andreseko Akordioak: emakumeen parte-hartzea bake-elkarrizketetan	174
4.3. Emakumeen ibilaldi eta pelegrinajeak	174



4.4. Emakumearen Eskubideen Zentroa eta Emakumeen Mugimendu Independentea	175
4.5. Chiapaseko emakumeen sarea, indarkeriaren aurka eta bakean bizitzeko eskubidearen alde	177
4.6. Herrien Auzitegi Iraunkorra	177
4.7. Segurtasun gerriko eta bake-lokarriak	179
4.8. Emakumeen kontrako Indarkeriaren eta Feminizidioaren aurkako Herri Kanpaina	179
5. Ondorioak	180
Bibliografia	182
<b>V. Kapituluak. Kolonbiako Ruta Pacifica de las Mujeres: emakumeen egiaren aldeko ibilbide luzea</b> <i>Marina Gallego Zapata</i>	<b>189</b>
1. Sarrera	191
2. Gatazka armatuaren bilakaeraren eta arrazoien gaineko begiradak	192
3. Emakumeak eta trantsiziozko justizia	197
3.1. Emakumeen erreparazioa: Konstituzio Gortearen oinarrizko eskubideetatik erreparazioei buruzko legeetara	199
3.2. Emakumeak egiaren, justiziaren eta erreparazioaren aldeko aktibismoan	201
4. Ruta Pacífica de las Mujeres-en esperientzia: emakume biktimentzako justiziatzako bakearen aldeko mugimendu nazionala	204
4.1. Oinarri teorikoak	205
4.2. Ekintza-estrategiak	207
4.3. Emakumeen Egiaren Batzordea: ekintza bat bakearen alde, zigorgabetasunaren aurka eta emakumeen eskubideen alde	208
4.3.1. Ekimenaren jatorria eta jarraitutako prozesua	208
4.3.2. Hartutako ikuspegiak	210
4.3.3. Testigantzak eman dituzten emakumeentzako itzulerako bidea	212

4.3.4. Bestelako itzulketa: hedapena eta eragin soziala	213
4.3.5. Irakaspenak eta lorpenak	214
4.4. Gobernuaren eta FARCen arteko negoziazio mahaian eragitea: aukera berriak markatzen dituen mugarrria	215
4.5. Herrialdean bakea eta justizia lortzeko bestelako ekintza batzuk	217
4.5.1. Zigorgabetasunaren aurkako auzitegi sinbolikoak	217
4.5.2. Kasuen dokumentazioa	217
4.5.3. Emakumeen babesa	218
4.5.4. Laguntza psikosozial eta juridikoa	218
4.5.5. Emakumeen eskubideen aldeko legeen eta politika publikoen sustapena	218
4.5.6. Emakumeen mobilizazio soziala	219
5. Ondorioak	219
Bibliografia	222

## **VI. Kapitulua. Emakume aktibistak Mendebaldeko Sahara okupatuan**

*Irantzu Mendia Azkue eta Gloria Guzmán Orellana* **225**

1. Sarrera	227
2. Testuinguraketa laburra	229
3. Emakume sahararren giza eskubideen urraketa eta horren ondorioak	232
3.1. Eskubide zibil eta politikoak	233
3.1.1. Atxiloketa bidegabeak, desagertze behartuak eta tortura	233
3.1.2. Sexu-indarkeria	236
3.1.3. Elkartzeko, adierazteko, manifestatzeko eta ibiltzeko eskubideen murrizketa	240
3.2. Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak	240
3.2.1. Bazterketa ekonomikoa eta lanekoa	240
3.2.2. Eskolako diskriminazioa eta indarkeria	242
3.2.3. Identitate kulturala ukatzea	243
4. Emakumeen erresistentzia lurralde okupatuetan	244

4.1. Parte-hartzea gatazkan	244
4.2. Borroka politikoaren dimentsioak	247
4.2.1. Bizirik irautea eta taldeko lana	247
4.2.2. Autodeterminazioaren erreibindikazioa eta okupazioa salatzea	247
4.2.3. Identitate kulturala eta nazionala babestea	248
4.2.4. Giza eskubideen aldeko erakundeetan parte hartzea	249
4.2.5. Baliabide naturalen defentsa	250
4.2.6. Preso politikoekiko elkartasuna	251
4.3. Indarkeriari aurre egiteko moduak	252
4.3.1. Kaltea kolektiboa bezala onartzea eta elkarri laguntzea	252
4.3.2. Belaunaldien arteko aliantza	253
4.3.3. Identitate eta konpromiso politikoa	254
4.3.4. Emakumeen espazioa sortzea	255
5. Ondorioak	256
Bibliografia	261

<b>VII. Kapituluua. Trantsiziozko justizia Kongoko Errepublika Demokratikoan. Bakearen aldeko eta zigorgabetasunaren aurkako emakumeen erakundeak Ipar Kivun eta Hego Kivun iker zirion landaluze</b>	<b>267</b>
1. Sarrera	269
2. Gatazka armatuak eta trantsiziozko justizia Kongoko Errepublika Demokratikoan	271
2.1. Gatazka armatuen sorburua eta garapena	271
2.2. Gaur egungo gatazka armatuen ezaugarriak eta dinamikak	274
2.3. Trantsiziozko justizia mekanismoak eta Ipar Kivun eta Hego Kivun haien inguruan duten iritzia	276
2.3.1. Barkamenezko ereduak: Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea	277

2.3.2. Ahanzturazko eredia: amnistia legeak	278
2.3.3. Justiziazko eredia: justiziaren sektorearen erreforma, Nazioarteko Zigor Auzitegia eta justizia leheneratzailea	279
<b>3. Gatazka armatuen genero-ikuspegia</b>	<b>280</b>
3.1. Emakumeen kontrako indarkeriaren <i>continuum</i> -a	280
3.2. Indarkeria generizatua gatazkaren testuinguruan	284
3.3. Emakumeen parte hartzea gatazka armatuetan	285
3.3.1. Emakume biktimizatuak	286
3.3.2. Bakearen aldeko aktibistak diren emakumeak	287
3.3.3. Emakumeak talde armatuetan	288
<b>4. Emakumeen ekintza kolektiboa bakea eraikitzearen eta trantsiziozko justiziaren alde</b>	<b>289</b>
4.1. Emakumeen aktibismoaren karakterizazioa	289
4.2. Lehentasunezko ekintza estrategiak	291
4.2.1. Intzidentzia politikoa	292
4.2.2. Sentsibilizazioa	293
4.2.3. Salaketa	294
4.2.4. Laguntza eta boteretzea	296
4.3. Beste eragile sozial eta politikoezko aliantza	297
4.4. Oztopo eta zailtasun nagusiak	300
<b>5. Ondorioak</b>	<b>301</b>
<b>Bibliografia</b>	<b>303</b>

## Autoretza

**Amandine Fulchiron.** Aktibista feminista, Guatemalako Actoras del Cambio kolektiboko fundatzailea eta Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko (UNAM) Ikasketa Latinoamerikarren Graduondoko Programaren doktoregaia. Hauek dira bere ikerketa lerroak: feminismoak, sexu bortxaketa eta gerra, gorputza, sexualitatea, emozioak, memoria eta justizia. Hauek dira bere argitalpen batzuk: *Poner en el centro la vida de las mujeres mayas sobrevivientes de violación sexual en la guerra: una investigación feminista desde una mirada multidimensional del poder* (2014), *Tejidos que lleva el alma: memoria de las mujeres mayas sobrevivientes de violación sexual durante el conflicto armado*, Olga Alicia Paz eta Angélica López-ekin batera (2009), eta *El carácter sexual de la cultura de violencia contra las mujeres* (2005), Yolanda Aguilar-ekin batera.

**Gloria Guzmán Orellana.** Hezkuntza Zientzietan lizentziatua El Salvadorreko Unibertsitatean. Genero ikasketetan espezializatua Fundació Universitat de Girona Innovació i Formació Fundazioaren bitartez eta Globalizazioa, Garapena eta Nazioarteko Lankidetzako Goi Mailako Ikasketetan diplomatua Euskal Herriko Unibertsitatean. UPV/EHUko Hegoa, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko kidea da. Aktibista feminista eta El Salvadorreko Comité Pro-Monumento a las Víctimas Civiles de Violaciones de los Derechos Humanos batzordearen fundatzailea da. Horrek El Salvadorren dagoen memoria gune nagusia bultzatu zuen. Hauek dira bere argitalpen batzuk: *En tierra ocupada. Memoria y resistencia de las mujeres en el Sáhara Occidental* (2015) eta *Mujeres con memoria. Activistas del movimiento de derechos humanos en El Salvador* (2013), Irantzu Mendia Azkuerekin batera.

**iker zirion landaluze.** Nazioarteko Ikasketetan doktorea eta Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean. Honako hauetako kidea da: UPV/EHUko Hegoa, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua eta euskal unibertsitate sistemako Giza Segurtasun, Tokiko Giza Garapena eta Nazioarteko Lankidetzaren inguruko Ikerketa Taldea (2016-2021) (IT1037-16). Hauek dira bere ikergai batzuk: bakegintza eta genero-ikuspegia, borrokalari ohien desarme, desmobilizazio eta gizarteratze prozesuak eta maskulinitate berriak. Hauek dira bere argitalpen batzuk: *Críticas al modelo de construcción de “paz liberal” en contextos posconflicto en el África Subsahariana* (2017) eta *Los procesos de desarme, desmovilización y reintegración de excombatientes desde la perspectiva de género* (2012). (Bere izen-abizenak letra xehez agertzen dira egileak berak horrela eskatu duelako).

**Irantzu Mendia Azkue.** Garapen Ikasketetan Doktorea eta Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean. Honako hauetako kidea da: UPV/EHUko Hegoa, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua eta euskal unibertsitate sistemako Giza Segurtasun, Tokiko Giza Garapena eta Nazioarteko Lankidetzaren inguruko Ikerketa Taldea (2016-2021) (IT1037-16). Hau da bere ikerketaren ardatza: gatazka armatu, bakegintza, trantsiziozko justizia eta memoria historikoaren ikerketa feminista. Hauek dira bere argitalpen batzuk: *La división sexual del trabajo por la paz. Género y rehabilitación posbélica en El Salvador y Bosnia-Herzegovina* (2014) eta *Justicia transicional: dilemas y crítica feminista* (2012).

**Itziar Mujika Chao.** Kazetaritzan lizentziatua eta Nazioarteko Ikasketetako masterra Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) eta Emakume, Genero eta Herritartasun Ikasketetako masterra Bartzelonako Unibertsitatean. Bere doktore tesia Kosovoko emakumeen mugimenduak erresistentzia zibilean eta bakegintzan izan duen rolaaren inguruan egin du. Hauek dira bere ikergaiak: segurtasun ikasketa feministak eta indarkeriarik gabeko erresistentzia zibila, gatazka armatuak eta bakegintza ikuspegi feminista batetik. Hauek dira bere argitalpen batzuk: *Emakumeak eta indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilak. Parte hartzearen zergatiak, ezaugarriak eta ondorioak* (2014) eta *Kosovoko emakume mugimendua, gatazka eraldaketarako oinarrizko giltzarri* (2013).

**Marina Gallego Zapata.** Kolonbiako Ruta Pacífica de las Mujeres mugimenduaren fundatzailea eta gaur egungo koordinatzailea. Abokatu, Giza Eskubide, Nazioarteko Zuzenbide Humanitario eta Nazioarteko Auzitegieta masterra. 20 urte baino gehiagoko esperientzia du Kolonbiako emakumeen mugimenduan eta bakearen aldeko mugimenduan. Honetan duen trebeziagatik da ezaguna: Nazio eta Nazioarteko mailan giza eskubideen eta bakegintzaren inguruko intzidentzia politikoa emakumeen ikuspegitik. 2017an “Policarpa Salviatierra” saria jaso zuen honako hauetan izan duen pertseberantzia eta erabakigarritasunagatik: gatazken konponbide negoziatua, emakumeen bizitzetan eta gorputzetan markatutako indarkeria eta emakumeen giza eskubideen babesa.

**Nadia López Ruiz.** Txiapasekin, Chiapasekiko Elkartasun Plataformako kide da 2011. urtetik. Antropologia Sozial eta Kulturean lizentziatua Elxeke Miguel Hernández Unibertsitatean eta Erizaintzan diplomatua Alacanteko Unibertsitatean. Garapen eta Nazioarteko Lankidetzako Masterra UPV/EHUko

Hegoa, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuan. Horren bitartez Mexikoko Chiapas estatuan egin zituen bere praktikak. Bi urtez komunitate zapatistetan lan egin zuen, emakume eragileak sexu eta ugalketa osasunean trebatuz. San Cristobal de las Casas hirian preso politikoei laguntza eman eta jarraipena egiten dieten kolektiboetako kide izan zen.

**Sara Hernández Pérez.** Erizaintzan diplomatua Rovira i Virgili Unibertsitatean eta Garapen eta Nazioarteko Lankidetzako Masterra UPV/ EHUko Hegoa, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuan. Chiapasen lankidetzeta proiektu desberdinetan lan egin du, EZLNren oinarri zibil diren osasun eragileekin, osasun arretan trebatuz eta lagunduz, bereziki emakume kolektiboekin sexu eta ugalketa osasuna landuz. Emakume zapatistekin elkartasuna lantzen duten mugimendu internazionalista eta feminista hauetako kide da, besteak beste: Txiapasekin eta Lumaltik Herriak.







**Sarrera.**

**Emakumeen ekintza politikoa  
egia, justizia, erreparazioa  
eta berriro gertatuko ez delako  
bermerako eskubidearen alde**

*Irantzu Mendia Azkue*



XX. mendeko laurogeitamarreko hamarkadaz geroztik, Gerra Hotza eta Latinoamerikako eta Afrikako hainbat diktadura eta gatazka armatu amaitutakoan, interes handia piztu du trantsiziozko justiziaren ideiak eta jardunak. Oro har, trantsiziozko justiziak gizarteak gerratik bakera eta erregimen zapaltzaileetatik demokrazietara igarotzeko darabilten prozesu politiko eta soziala da. Hori hala izateko, trantsiziozko justiziak aipatzen du beharrezkoa dela iraganean gertatu diren giza eskubideen urraketa larriak tratatzea, ontzat emanez indarkeria berregitea saihesti nahi bada, ezin direla gertaera horiek ahaztu.

Igarobide horretarako ez dago formula unibertsalik, baina badira mekanismo batzuk, Bigarren Mundu Gerraren amaieraz geroztik diseinatu eta hainbat herrialdeetan aplikatu direnak eta, oro har, lau jarduera-ildoren inguruan egituratzen direnak: indarkeria-gertaerei buruzko egiaren bilaketa, zigor-erantzukizunak ebazteko ekintza judiziala, biktimen erreparazioa eta giza eskubideen urraketa berriro gertatzeko arriskuak minimizatzeke erreforma politikoak eta erakundeek egin beharrekoak.

Trantsiziozko justiziaren definizio gehienetan interpretatzen da badagoela indarkeriaren aurretik eta ondorengo garai bat; esaterako, aurrez aurre zeuden bi alderdiek akordio politikoak lortu dutelako edo diktadura-erregimen baten ordeztatu gobernua demokratiko edo demokratiko izan nahi duen gobernua jarri delako. Ikuspegi horretatik, trantsiziozko justizia lotu izan da “eskala handiko gehiegikeriazko iragan batetik ondorioztatutako arazoak konpontzeko eta arduradunek egindakoa ordaintzeko, justizia bete dadin eta adiskidetzea lortzeko, gizarte batek egiten dituen ahaleginekin” (Nazio Batuak, 2004: 6). Horrekin batera, trantsiziozko justiziaren denbora-marakoak zabalago ulertzeko, iragandakoaz gain egungo indarkeria kolektiboaren aurrean justizia horrek bete dezakeen egitekoa ulertu behar dugu, indarkeria amaitzeko urratsak emateko bide izan beharko lukeela, alegia.

Trantsiziozko justiziaren kontzeptuen eta jardunaren garapena laurogei eta hamarreko urteetatik aurrera, eta gero eta irekiago egotea azterketa juridiko, politiko, historiko, soziologiko, antropologiko eta psikologikoetara, lotuta dago mundu osoan, zigorgabetasunaren aurkako eta biktimen eta giza eskubideen aldeko mugimenduen ekimen eta dinamismo berrituarekin.

Trantsiziozko justiziarako mekanismoak generoarekiko neutrotzat jotzen diren arren, gatazka armatuek eta zapalkuntzak emakume eta gizonenengan duten eragin desparekoan ez ezik, egia, justizia, erreparazio eta errepikatuko ez delako bermeetarako biktimek dituzten eskubideak erabiltzeko orduan ere

eragiten dute faktore batzuek. Hau da, trantsiziozko justiziak baditu genero-joerak, eta emakumeen aurka egindako krimenak gizonen kontra eragindakoak baino are zigorgabeago gera daitezten da emakumeengan horrek duen ondorioa: eskubide-urraketak azpi-ordezkatuak egoten dira egiaren bilaketa-prozesuetan eta emakumeek justizia eta aintzatespena lortzeko, gizarteen antolamendu patriarkalean ohikoak diren muga kulturalak, psikosozialak, politikoak eta ekonomikoak dituzte (Mendia Azkue, 2012).

Emakumeen eta, oro har, gizarte zibilaren aurka eragindako giza eskubideen urraketa larrien zigorgabetasunaren aurka antolaturiko emakumeen ekintza politikoaren esperientziak aurkezten dira liburu honetan; zenbait herrialderen kasuak jaso dira, gatazka armatu eta zapalkuntza-giroetan egon direnak edo oraindik ere bizi dituztenak. Lehenengoen artean El Salvador, Guatemala eta Kosovo daude, 1990eko hamarkadan amaitu ziren bertan gerrak; bigarren multzoan ditugu Kongoko Errepublika Demokratikoa (RDC), oraindik ere ekialdean gatazkak bizi dituztelarik, Mendebaldeko Sahara, Marokoren okupaziopean dagoena, eta Mexiko hegoaldeko Chiapaseko estatua, Intentsitate Txikiko Gerran. Gainera, Kolonbiako kasua ere jaso dugu; izan ere, mende Erdiko gatazka armatuaren ondoren, berriki bake-akordioa lortu dute gobernuaren eta gerrilla nagusiaren artean, baina beste talde armatu batekiko negoziazioa egiteke dago oraindik.

Kasu guztietan, euren erreibindikazioak egia, justizia, erreparazio eta berriro gertatuko ez delako berme-prozesuetatik kanpo uzteari uko egiten dioten emakumeen mugimendu bat dago. Gehien-gehienak ere indarkeriaren biktima diren eta euren burua halakotzat hartzen duten arren, ezaugarri hori gainditu eta bakeranzko, suntsituriko gizarte-ehuna berreskuratzeko, gatazkei irtenbide negoziatua bilatzeko, justizia eskaera eta giza eskubideen defentsaranzko trantsizioetan ezinbesteko subjektu politikotzat berresten dute euren burua, eta ez soilik euren hurbileko erkidegoetan soilik, bai eta estatu eta nazioartean ere. Ekintza kolektiboa da, antolatua eta kontzientea, gatazka armatuetan emakumeen biktimizazioari buruzko ikuspegi estereotipatuak gainditzen dituena eta erresistentzia eta bizitzen jarraitzeko, indarkeriaren aurrean bere buruaz jabetzeko eta gizarte justu eta berdinkideagoak eraikitzeko borroka-ibilbide luzeetatik datorrena.

Lehenengo kapituluan Kosovoko emakumeen mugimenduen esperientzia jaso dugu. Kosovo, Europako hego-ekialdeko Balkanetako herrialdea, 1989. urtearen amaieratik aurrera gatazka eta giza eskubideen urraketa larriak bizi izan zituen eta, azkenik, Serbiako Indar Armatuen eta Kosovo Askatzeko Armadaren (UCK) arteko gatazka irekia eragin zuena 1998 eta 1999

artean. Gatazka horrek 12.000 hildako baino gehiago eta milioi erdi inguru iheslari eragin zituen. Gaur egunera arte, 4.000 gorpu aurkitu dituzte hobi-komunetan, eta beste 2.000 lagun inguru desagertuta daude oraindik. Gatazka armatuak iraun zuen bitartean, eskubide-urraketa larri eta masiboenetakoa emakumeen aurkako sexu-bortxaketa izan zen, eta biktimak 20.000 eta 30.000 inguru izan daitezkeela zenbatesten da. Gatazka amaituta, gerra osteak ezaugarri izan ditu gertaeren inguruko isiltasun politikoa, banaketa etniko sakona, langabezia eta ustelkeria handia eta emakumeen bizimodua berriro ere tradizionalizatzea, nazioarteko militar eta diplomaziaren presentzia eta eragin handi baten testuinguruan. Kapitulu honetan, Kosovoko emakume albaniarrek trantsiziozko justiziaren bideko aktibismoaren hiru ekimen azpimarratzen ditu egileak: gatazka armatuan sexu-indarkeriaren biktima izan zirenen laguntza juridiko-legezkoa, Kosovoko emakume albaniarrek eta emakume serbiarrek osaturiko Emakumeen Bakerako Koalizioa, eta Emakumeen Auzitegia, erregio mailakoa, sortu izana, Jugoslavia ohi osoko gerretatik bizirik irten ziren emakumeak ardatz dituen justizia leheneratzailerako neurri gisa.

Bigarren kapituluaren Actoras de Cambio Guatemalako erakundeak zigorgabetasunaren aurka egindako ekintzak nabarmenduko dira. Gatazka armatuak iraun zuen 36 urteetan (1960-1996) biztanleria maiak pairatu zituen gerra eta genozidio politikaren parte gisa, sexu-bortxaketak izan duen egitekoa aztertzen du egileak nagusiki. Guatemalako Historia Argitzeko Batzordearen txosten baten arabera, indarkeria horren biktimen %88,7 emakume maiak izan ziren, eta horrek argi uzten du haren logika arrazista eta asmo genozida garbikoa. Izan ere, gatazka armatuak iraun zuen bitartean, emakume maien kontrako sexu-bortxaketa sistematikoa eta Armadak zehatz-mehatz planifikatua izan zen. Era berean, gaur egun ere, nazioz gaindiko eta nazioko enpresek euren lurak espoliatzeari aurre egiten dioten erkidego indigenen kontrako errepresioaren esparruan errepikatzen den indarkeria da. Guatemalan osatuz joan da sexu-indarkeria eta horren ondorioak ikusarazteko eta salatzeo ahalegin handia egin duten emakumeen antolakuntza-ehuna. Actoras de Cambio kolektiboa da horren adibide argia, eta horien lanaren oinarria da laguntza psikosoziala eskaintzea eta bizirik irten direnen definizio, beharrian eta bizi-testuinguruetatik abiatu eta haietara egokituko diren justizia eta erreparazio mekanismoak bilatzea.

Hirugarren kapituluaren El Salvadorreko kasuari dagokio; herrialde horrek hamabi urteko (1981-1992) gerra bizi izan zuen, eta, egoera horren ondorioz, 75.000 eraildako eta 9.000 pertsona desagerrarazi izan ziren. Gerraostearen ezaugarriak izan dira neurri ekonomiko neoliberaletan sakontzea, pobrezia eta desparekotasuna handitzea eta zigorgabetasunaren eta indarkeriaren kultura

sustatu duen “berriro hutsetik hastearren” filosofian oinarrituriko adiskidetzepolitika ofiziala. Nahiz eta gatazka armatuak iraun zuen bitartean egindako giza eskubideen urraketek buruz Egiaren Batzordeak 1993an egin zuen txostenean Estatuak adierazten zen erantzule nagusi gisa, gobernuak amnistia orokorra eman zuen eta horrek etenarazi egin zituen biktimek justizia eta erreparazioa bilatzeko ahaleginak. 23 urte geroago, 2016an, amnistia hura indargabetu egin zen, konstituzioaren kontraketat jo baitzuten. Salatutako kasuen ikerketan eta judizializazioan Estatuak jardun dezan biktimek egindako erreibindikazio historikoak indartu egin ditu horrek. El Salvadorreko alderdi nabarmengarri bat da hainbat erakundetako emakumeak –berezi biktimen eta giza eskubideen aldekoak, baina bai eta mugimendu feministakoak ere– izan direla lehen lerroan egon direnak giza eskubideen urraketan, desagerrarazitako pertsonen bilaketan, kasuen dokumentazioan, gorpuak hobitik ateratzen, erreparazio ekimenetan, gatazkaren memoria historikoa berreskuratzen, eta abarren, eta hala eta guztiz ere, gatazkak iraun zuen bitartean izandako emakumeen eskubideen urraketek presentzia hutsala daukate herrialdean sustatzen den trantsiziozko justiziaren agendan.

Laugarren kapituluak Chiapasera eramango gaitu, Mexikoko hegoaldera; han, 1994ko urtarrilaren 1ean, Nazio Askapenerako Armada Zapatistaren (EZLN) altxamendua izan zen. Chiapaseko herri indigenak Mexikoko armadaren presentzia nabarmenaren mende bizi dira, eta gobernuaren hainbat mailatik (tokikoa, estatukoa eta federala) aktibatutako kontraintsurgentziako estrategien eraginen pean. Estrategia horiek Intentsitate Txikiko Gerra esparruan gauzatzen dira; izena halakoa izan arren, berez, oso intentsitate handiko eragin bortitza dauka antolatutako gizarte zibilentzat: sarraskiak egin dituzte, desplazamendu behartuak, xaxatzeak eta bestelako giza eskubideen urraketak gertatu dira lurraldea eta bertako biztanleak kontrolatu nahi horretan, eta erregio horretan diharduten nazioz gaindiko korporazio askoren erauzketa-jarduera errepresioaz baliatzen den testuinguru batean. Chiapaseko herri indigenen antolamendu autonomorako prozesuan, espazio publikoan eta erabakiak hartzen diren tokietan emakumeek parte hartzea funtsezkoa izaten hasi da. Kapitulu honetan mugimendu zapatistaren barruko emakumeen erakundeak aztertu dira, Emakumeen Lege Iraultzailearen bidez haien erreibindikazioak nola adierazten diren, eta bestelako ekimenak, hala nola indarkeriaren aurkako emakumeen sareak eta Herrien Auzitegi Iraunkorraren aurreko entzunaldiak, non Chiapasen gertatutako genero-indarkeriari eta feminizidioari eman zitzaion garrantzia.

Bosgarren kapituluak Kolonbian kokatuko gaitu. Kolonbian 50 urtez bizi izan dute gatazka armatua, eta milaka eta milaka hildako eta desagertu utzi

ditu, bai halaber, biztanleria desplazatu eta iheslari nazioarteko kopururik altuenetako bat ere. 2016an *Gatazka Amaitzeko eta Bake Egonkor eta Iraunkorra eraikitzeko Bukaerako Akordioa* sinatu zuten gobernuak eta Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileak-Herriaren Armadak (FARC-EP). Akordio horretan, biktimei dagokienez, Egia, Justizia, Erreparaziorako eta Ez Errepikatzeko Sistema Integrala sortzea ezartzen da, eta horren xedea da zigorgabetasunaren aurka borrokatzea hainbat mekanismo bateratuz; alde batetik, mekanismo judizialak, giza eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren urraketa larriak ikertzea eta zigortzea ahalbidetuko dutenak, eta bestetik, mekanismo estrajudizialak, gertatutakoaren egia argitzeko osagarriak. Kolonbian, emakumeen mugimenduak egiteko estrategikoa izan du gatazkak iraun duen bitartean emakumeen aurka erabilitako indarkeria aztertzeko eta salatzeko, eta Genero Azpibatzerde bat sortzea lortu du, bake-negoiazioetan genero-ikuspegia akordioetan txertatzeko. Kapitulu honek Ruta Pacífica de las Mujeresen esperientzia hartzen du ardatz. Ekimen horrek bi hamarkada daramatza gatazkaren amaiera negoziatua eskatzen, eta herrialde osoan zehar ikerketa zabal eta zehatza egin du emakume kolonbiarren giza eskubideen urraketari eta haien justizia eta erreparazio-eskaerei buruz.

Seigarren kapituluaren Mendebaldeko Sahararen kasua aztertuko dugu, 1975. urteaz geroztik Marokoren okupaziopean dagoen herrialdea. Okupazioaz geroztik, saharar gehienak Aljeriako basamortuko eremu batean bizi dira aterpetu legez; hala ere, beste asko eta asko euren herrialdean bertan bizi dira, nazioarteko erkidegoaren *de facto* onarpenarekin jarduten duen Marokoko Estatuaren zapalkuntza gogorraren pean. Marokok egindako giza eskubideen urraketan zerrenda historikoan daude atxiloketak, tortura, emakumeen eta gizonen kontrako sexu-indarkeria, desagertze behartuak, exekuzio estrajudizialak, bombardaketak, lapurreta, autodeterminazio eskubidearen urraketa, etab. Kapitulu honetan, lurralde okupatuetan, Aaiun hirian hain zuzen, bizi diren emakume sahararren esperientzia jasotzen da; erresistentzia eta indarkeria salatze lan handia egiten baitute. Besteak beste, haien erreibindikazioetako batzuk dira autodeterminazio eskubidea eta okupazioarekin amaitzea; Marokok ilegalki ustiatzen dituen sahararren baliabide naturalen defentsa, preso politikoen askapena eta sahararren identitate kultural eta nazionala babestea. Emakume horiek memoria kolektiboa berreskuratzeko prozesuari ekin diote, alde batetik haien aurkako giza eskubideen urraketak dokumentatzeko eta justizia eskatzeko, baina bai eta duela hamarkada askotatik hona egiten ari diren lan politikoa posizionatzeko eta balioesteko ere.

Azkenik, zazpigarren kapituluak emakumeek Kongoko Errepublika Demokratikoan, zigorgabetasunaren aurka darabilten ekimena du hizpide.

Erregio hartako gerra 2003an *Bake Akordio Global eta Inklusiboa* sinatuta amaitu zen arren, Kongoko Errepublika Demokratikoan hainbat gatazka daude oraindik piztuta, batez ere Ipar Kivun eta Hego Kivun, eta hainbat eta hainbat eragile armatu daude horietan inplikaturik. Indarkeriaren giza kostua ikaragarria da; zuzenean nahiz zeharka, gutxienez 3 milioi hildako eragin dituela kalkulatu da, eta milioika lagun desplazatu beharrean egon dira, beste herrialde batzuetan aterpea bilatzeko. Gainera, Nazio Batuen arabera, 200.000 emakume inguru sexu-indarkeriaren biktima izan dira azkeneko 12 urteetan. Herrialdean, nazioarteko laguntzarekin batera abian jarritako trantsiziozko justiziarako bideek giza eskubideen urraketa larrien egileen amnistia lehenesten ari dira mekanismo horrek bakeari mesede egin diezaiokeela arrazoi hartuta, eta hori ez dator bat inola ere, gaur egun herrialdean dagoen segurtasunik eza eta pairatzen duten indarkeria gogorrek. Kapitulu horretan, batez ere Hego Kivun eta Ipar Kivun emakume talde batzuek egiten ari diren lana jasotzen da; bakearekin, desmilitarizazioarekin, segurtasunarekin eta egia, justizia eta erreparaziorako eskubidearekin estu lotutako erreibindikazio batzuk bateratzen dituzten agendak zehaztu baitituzte.

Azaldutako kasu bakoitzaren azterketak berez balioa duen arren, nolabaiteko konparazio-ukitua eman nahi izan diogu argitalpen honi, testuinguru bakoitzaren zehaztasunen gainetik, bai emakumeen kontrako indarkeriaren patroietan bai zigorgabetasunaren aurkako emakumeen aktibismoan alderdi komunak errazago identifikatzeko. Hori dela eta, kapituluek antzeko egitura bati jarraitzen diote, jarraian azalduko dugun edukien-garapena egiteko.

Lehenik eta behin, tokian tokiko gatazka armatuak testuinguruan kokatuko ditugu labur, haien ezaugarriak eta bertan dauden zigorgabetasunerako faktoreak ulertzeko. Testuinguruan kokatze hori beharrezkoa da, aztertuko ditugun gatazkek alderdi nahiko desberdinak dituztelako, hala nola: kokapena, jatorria, izaera, iraupena eta egungo fasea (gerratik bakerako bidean, aktibo edo akordio politikoak bilatzeko negoziazioetan), inplikaturik dauden eragileen kopurua eta mota, edo ezarrita dauden trantsiziozko justiziarako neurriak.

Azken horri dagokionez, zenbait kasutan, trantsiziozko justiziarako mekanismoak bake-akordioak sinatu ondoren hasi ziren garatzen, hala nola El Salvador eta Guatemalako egiaren batzordeak, edo Kosovoko krimenak epaitzeko ezarri ziren auzitegiak. Beste kasu batzuetan gatazka armatuen erdian ere jarri dira abian zenbait neurri. Esaterako Kolonbian, Estatuak Justiziaren eta Bakearen Legea (975 Legea) eman zuen 2005ean; lege hori dela bide, 200.000 biktima baino gehiago erregistratu ziren erreparazio-eske; Kongoko Errepublika Demokratikoan, berriz, akordio politikoak lortu zituzten



2006an giza eskubideen urraketen egileei amnistia emateko herrialde hartako ekialdean gatazka gordintzen ari zen aldi berean. Chiapas eta Mendebaldeko Sahara kasu bereziak dira; Chiapasen kasuan, Mexikoko gobernuak ez du barne gatazka armaturik dagoenik onartzen eta ez da trantsiziozko justiziarako inolako mekanismo ofizialik abiarazi. Mendebaldeko Saharari dagokionez, Marokok Ekitate eta Adiskidetze Instantzia (IER) sortu zuen 2004an; herrialdean, 1956tik 1999ra egindako giza eskubideen urraketa larriak ikertzeko batzordea; zeinak, hala ere, biktima sahararrei buruzko informazioa isiltzen duen eta data horrez geroztik Marokoko Estatuak eragindako indarkeriari buruzko ikerketak ukatzen dituen.

Bigarrenik, deskribaturiko gatazken genero-azterketa egiten da kapituluan, emakumeen parte-hartze politikoari eta indarkeriak haiengan eragindako ondorioei arreta eginda. Azterketa horiekin, indarkeria politiko-armatuaren eta aldi berean emakumeen kontra, gerra bitartean eta gerraostean, gauzatzen diren bestelako indarkeriaren arteko loturak ulertzeko bidea egin nahi da.

Aztertu ditugun herrialdeetako emakumeen esperientziek komunean duten elementuetako bat da haien bizi-inguruak guztiz militarizatuta eta “sekurizitatuta” daudela, eta horrek zuzenean eragiten du emakumeen osotasun fisiko eta psikologikoan eta haien eskubideak gauzatzeko aukeretan. Egutero egin behar (izan) diete aurre militar taldeei, militarren destakamentu edo kanpamentuei, armada eta segurtasun indar publiko eta pribatuen erasoaldiei, hainbat eragile armaturen zirikei, eta abarri. Kasu guztietan, emakumeen bizi-testuinguruen ezaugarria da indarkeria eta segurtasunik eza, balio militaristen goraipatzea eta gero eta zapaltzaileagoak eta pribatizatuagoak diren segurtasun-politikak.

Mundu osoko emakumeen esperientzia historikoan, militarizazioak eta militarismoak zuzen-zuzenean eragiten dute emakumeen aurkako indarkeria handitzea eta genero-rol tradizional eta hierarkizatuena sendotzea. Cynthia Enloe militarizazioaren funtzionamendua eta eragina aztertzen eman du bere lanaren parte handi bat, eta berak hala definitzen du militarizazioa: zerbait Armadaren –erakunde gisa– edo irizpide militarren kontrolpean, edo haren mende, edo hark ematen dion balioaren arabera izatera igarotzen deneko urratsez urratseko prozesua da (2000). Gainera, ohartarazten du hainbat mailatan gertatzen den prozesua dela, herri-kultura, egunerokoa blaitzen duelako (Enloe, 2012). Hori egiaztatu ahal izan da aztertutako kasuetan; ikusi ahal izan dugulako inposaketa eta menderatzearekin identifikatzen den eta emakumeen kontrako eraso bidez indartzen den indarkeriarekiko, armekiko eta gizontasun misogino mota batekiko kultura gailentzen den testuinguru

kulturalak konkistatzen dituela militarizazioak eta haietan aurkitzen duela adierazpidea.

Duela hogeitau urte baino gehiago, Beijing-en egin zen Emakumeei buruzko Munduko Laugarren Konferentziaren Adierazpen eta Ekintza Plataformak (Nazio Batuak, 1995), halako konferentzietan emakumei eta gatazka armatuei buruzko lan-mahai zehatz bat osatu zen lehen aldia izanik gainera, espresuki aipatu zituen militarismoaren eta emakumeen eskubideen urraketaren arteko erlazioa, eta gastu militarren eta armen ekoizpen eta merkataritzaren ondorio kaltegarriak. Hala ere, nazioartean horri buruzko neurririk ez hartzeaz gain, gastu militarra eta militarizazioa handituz joan dira, eta emakumeen mugimenduak sendotzeko eta indarkeria desagerrarazteko baliabideak, aldiz, gero eta gutxiago.

Munduko ia herrialde guztietan areagotu da azkeneko hamarkadetan Indar Armatuetakoko kideen kopurua. Liburu honetan aztertu ditugun herrialdeei erreparatuz gero, ikusiko dugu areagotze hori nabarmena dela ia denetan. Militarren kopurua murriztea bake-akordioetako puntu bat izan zen herrialdeetan ere—El Salvadorren, kasu—inboluzioa gertatzen ari da gai horretan, eta segurtasun publikoaren birmilitarizazioan islatzen da. Joera hori bereziki kezkarria da, batez ere kontuan hartzen badugu Estatuena dela emakumeen giza eskubideen urraketengatiko erantzukizun handiena, bai iraganeko gatazka armatu eta indarrean daudenetan, bai errepresio- eta okupazio-politikak irautarazteagatik.

Indar Armatuetakoko kide kopurua 1985etik 2014ra				
Herrialdea	1985	1995	2005	2014
Kolonbia	66.200	233.400	336.000	455.750
Mexiko <sup>1</sup>	129.100	189.000	204.000	336.050
Maroko <sup>2</sup>	149.000	237.500	251.000	245.800
RDC	48.000	65.100	65.000	134.250
Guatemala	31.700	56.500	48.000	43.050
El Salvador	41.700	38.500	16.000	41.500
Kosovo <sup>3</sup>	–	–	–	–
Mundua	22.209.230			27.309.630

Iturria: Egileak landua, Ikerketa Estrategikoen Nazioarteko Erakundearen datuen arabera.

- 1 1995ean, Chiapasen, guztira, 40.850 militar zeuden (Sierra Guzmán, 2003: 156-157).
- 2 Ez dago daturik Mendebaldeko Sahara okupatuan dauden Marokoko militarren kopuruari buruz.
- 3 Ez dago daturik Kosovorik buruz.

Garatu ditugun kapituluetan nabarmen geratzen da Indar Armatuak eta segurtasun publikoko indarrek, nahiz egitura paramilitarretako kideek emakumeen aurka eragindako indarkeria ez direla gertaera isolatu edo noizbehinkakoak, aitzitik, sistematikoki gertatzen dira, planifikatuta eta eskala handian. Emakumeak zuzenean kaltetzea eta emakumeak kide diren talde eta erkidegoetan desegituraketa sozial ahalik eta handiena eragitea dira indarkeria horren xedea, beraz, eragin kolektibo handia dauka. Gainera, estatuaren indarkeriak gertatzen den baldintza sozial eta politikoez larriagotzen duten kaltea eragiten du; “ingurua eraldatzen duelako eta erakunde guztiak erabiltzen dituelako segurtasunik ez, izu, konfiantzarik ez eta polarizazio sozialeko giro orokorra sortzeko. Zigorgabetasuna ezaugarri duen testuinguru soziopolitikoan gertatzen da, eta horrek handitu egiten du herritarren urrakortasun eta babesgabetasun sentazioa eta ekintza bortitzak berriro gertatuko direlako izua. Egoera horrek mugagabeki berregiten du eragindako kaltea, baina horrez gain, sakondu ere egiten du eta biktimen bizitzako alderdi guztiak (ekonomikoa, politikoa eta soziala) hartzen ditu, norbanako gisa nahiz kolektibo gisa, psikikoki eta sozialki (Lira [1991], Paz Bailey-n aipatua, 2012: 87).

Aztertutako kasuetan, emakumeen aurkako indarkeria ez da sexismoaren ondorioa soilik, klasismoaren eta arrazakeriaren ondorioa ere bada, eta hala erakusten du giza eskubideen urraketa larriek gehien kaltetu dituzten emakumeak emakume txirotuak, nekazariak, indigenak eta/edo talde etniko gutxiagotuak izateak eta izaten jarraitzeak. Erro historiko eta egiturazkoak dituen indarkeria da, kasu guztietan gatazka armatuaren aurretik eta ostean irauten duena, etengabe gertatzen dena eta feminizidioetan duena islarik lazgarriena; baina bai eta emakumeen bizitzen, gorputzen eta lurraldeen esklabotzan, salerosketan, ustiapenean, gabetzean, diskriminazioan eta kolonizazioan eta desjabetzean ere.

Emakumeen kontrako krimenak gauzatzen direneko zigorgabetasun maila da liburu honetako kapituluetan nabarmentzen den beste elementu komun bat. Bereziki aipatu behar dira kasu guztietan sexu-indarkeriak dituen ondorio latzak, nahiz eta gizonei ere eragiten dien, bereziki eta gehienbat emakumeen aurka erabiltzen den kontrol patriarkaleko tresnetako bat baita. Horri dagokionez, delitu horren hedapena eta norainokoa neurtzeko eragozpenetan bat datoz, halaber, delitu horiek egiten direneko zigorgabetasun erabatekoa ere.

Batez ere 1990eko hamarkadatik aurrera, azterketa feminista askok nabarmenarazi dute sexu-indarkeria eskala handiko estrategia edo gerra armatzat, helburu askorekin: emakumeak kontrolatzea, mendea hartzea eta

ahultzea, ahalik eta pertsona gehienak kaltetzea (ez soilik zuzeneko biktimak, bai eta haien familiak eta erkidegoak ere), izua zabaltzea, gizarte-ehuna eta kohesioa suntsitzea eta etsaiaren adorea zapuztea “beraien emakumeak” babesteko gai ez direla erakutsita. Azken hori gizarte-iruditerian oso errotuta dagoen ideia da, hainbestekoa baita emakumeak eta beraien gorputzak gizonen jabetzapekoak –eta ondorioz, “gudalekuaren” parte– balira bezala jartzen dituen antolamendu patriarkalaren indarra.

Emakumeen aurka gerra-arma gisa sexu-indarkeria erabili duten eta erabiltzen duten kaltegileen artean, liburuko kapituluetan zehar sarritan agertzen dira Estatuaren mende dauden segurtasun indarrak, legezkoak eta legez kanpokoak. Aipatu dugun bezala, armaden eta ideologia militaristaren oinarria den osagai misoginoak ahalbidetu egiten du emakumeen aurkako indarkeria, baina horri gehitu behar zaio indarkeria horren azpian dagoen suntsipen kolektiborako nahitasun politiko-militarra. Horregatik, hain zuzen, mugimendu feministak sustatu du indarkeria gerra-arma gisa erabiltzearen salaketa, “saihetsezina”, “naturala” edo “kontrolaezina” delako ideia leheneratzeko, eta aurretik planifikatutako estrategien parte dela egiaztatzeko. Hori funtsezkoa da erantzukizun penalak ez ezik, politikoak ere non kokatzen diren kontuan hartzeko.

Gainera, sexu-indarkeria emakumeen kontrako gerra-armatzat erabiltzen den beste zentzu bat ere gehi dezakegu. Gatazkan dauden eragileen –estatukoak zein ez– artean ohikoa da indarkeria hori erabiltzen dutela elkarri leporatzea; etsaiaren irudia kaltetzea eta legezkontasuna kentzea eta, aldi berean, norberaren kausarako atxikimenduak eta sinpatiak lortzea beste helbururik gabe. Eragile armatuek “etsaiaren” sexu-indarkeria aurkezten eta salatzen dute gaitzesgarria eta zehagarria den gertaera gisa; eta bitartean, ez dute ezer egiten hori saihesteko ez eta bizirik irten diren emakumeen kaltea onartu eta erreparatzeko, eta emakume horiei, aldiz, bai kaltegileek bai “aldeko” taldekotzat jotzen direnek ere krimen horren gaineko isiltasuna ezartzen diete. Era berean, Nazio Batuek, OTAN edo Europar Batasuna eta antzeko nazioarteko erakundeetan, emakumeen eskubideen urraketa-egoera argudio nagusitzat erabili izan da beste hirugarren herrialde batzuetan esku-hartze armatuak justifikatzeko. Hots, emakumeen kontrako indarkeriak, sexu-indarkeriak bereziki, jendartearen iritzia kanpoko esku-hartzeen aldera manipulatzeko argudio gisa balio izan du. Kasu hauetan guztietan, gatazka armatuetan, emakumearen babesaren izenean, emakumeak berak, haien gorputza eta haien sufrimendua benetan emakumeen eskubideen bermearekin edo berreskuratzearekin zerikusirik ez duten xedeetarako erabiltzen dituen genero-politika da nagusi.

Gatazka armatuetan eta errepresio-erregimenetan emakumeen aurkako indarkeriak dituen ondorioen artean, kapitulu hauetan argi ikusten da ondorio fisiko, psikologiko eta sozial sakon eta latzak uzten dituela bizirik irteten diren emakumeengan. Gainera, ondorio horiek kroniko bihurtzeko joera dute, batez ere emakumeek berehala eta epe ertain eta luzera arreta medikoa eta laguntza psikosoziala jasotzen ez badituzte, eta familia-inguru eta inguru sozial bat lagun ez badute. Sexu-indarkeriaren kasuan, bereziki larriak izan daitezke ondorio sozialak, indarkeria mota horri lotzen zaion estigmaren indarraren arabera; estigma horrek emakumeak gertatutakoaren errudun bihurtzen ditu, seinalatu egiten dituzte eta baztertu. Ohikoa da indarkeriak sare familiar eta sozialak haustea eta lanerako aukerak eta jatorrizko erkidegoetan zuten posizio edo estatusa aldaraztea, eta horren guztiaren ondorioa izan daiteke txirotze ekonomiko eta soziala.

Azkenik, kapituluetan atal nagusi bat garatu da herrialde bakoitzean trantsiziozko justiziarako ekintzetan emakumeen mugimenduak izan dituen esperientziak aurkezteko. Horretarako kontuan hartu dira haien motibazioak, oinarriak, estrategiak, beste eragile sozial eta/edo politiko batzuekiko aliantzak, eragozpenak eta zigorgabetasuna hausteari dagokionez izandako lorpen nagusiak. Hau da, emakumeen aurkako indarkeriaren antzekotasunak eta ondorioak identifikatzeaz batera, emakumeak, subjektu kolektibo diren aldetik, indarkeria horri aurre egiteko, haien kontra egindako krimenen gaineko egia azaleratzeko, haien eskubide politiko, ekonomiko eta sozialak babesteko eta egia, justizia eta erreparazioak duten esanahiri buruzko parametro propioetan oinarritutako trantsiziozko justizia inklusibo baterantz jotzeko gauzatzen ari diren erresistentzia-ekintzak aztertzeak garrantzi berezia dauka liburu honetan.

Aztertutako kasuetatik abiatuta, egiazta dezakegu esparru horretan ez dela aurrerapausorik ematen, hala izan dadin, emakumeak taldean eta modu antolatuan borrokatzen ez badira. Herrialde horietan une honetara arte ezarri diren trantsiziozko justiziarako neurriak, bereziki ofizialak, tokikoak edo nazioartekoak, ez daude genero-ikuspegia txertatuta daukan azterketa batean oinarrituak. Horren ildoan, liburu honetan jaso ditugun esperientziak gauzatu dituzten emakumeak jakitun izan dira estrategikoa zela erakunde autonomoak eratzea, autonomoak alderdi politikoekiko edo bestelako erakunde sozialekiko, eta erabaki hori berebizikoa izan da erreibindikazio politiko eta sozialetan aurrerapausoak emateko. Beste hainbat zentzutan, horri esker egin ahal izan dute emakume antolatuek “iraultza iraultzaren baitan” eta euren termino propioetan berretsi dute euren burua subjektu politiko gisa.

Kapitulu hauetan hainbat ekimen aurkezten dira, eragozpenak eragozpen, emakumeentzat positiboak izaten ari direnak eta haien berri edukitzeak, potentzialki, gerra, gerraoste edo errepresio-egoera antzekoetan dauden beste emakume batzuentzat lagungarri izan daitezkeenak. Kaltea salatzeko, gainditzeko eta erreparatzeko, justizia egiteko eta inguratzen dituen zigorgabetasuna leheneratzeko estrategiak dira, eta trantsiziozko justiziaren berezko jarduera-ardatz guztiekin, hots; gertakariaren ikerketa, justiziaren ekintza –zigorrei eta sariei dagokienez–, emakumeei euren bizitzak positiboki aldatzen lagunduko dieten aintzatespena eta erreparaziorako formulak bilatzea, eta indarkeria errepika dadin saihesteko eragin politiko eta sozialarekin zerikusia daukate. Izan ere, kapitulu horietatik ondorioztatzen da justiziaren esanahiak indarkeriaren biktima izan diren emakumeen ikuspuntutik ikertzea eta sakontzea ezinbesteko elementua dela agenda honetan aurrera egiteko.

Zenbait emakumerentzat, errudunak zein diren adieraztea, epaitzea eta zigortzea, hein batean behinik behin, euren burua erreparatzeko modu bat da. Beraz, helburu hori lortzera bideratu dira liburu honetan aurkeztu diren eta indarkeria salatzea lortzen duten emakumeen ekintza judizialarekin eta lege-akonpainamenduarekin erlacionatuta dauden ekintza feministetako batzuk. Zigor-prozesuetarako errekurtsioetan aurrerapauso gutxi baina garrantzitsuak eman dira. Esaterako, gaur egun Nazioarteko Zuzenbidean sexu-indarkeria gerra-krimen, gizateriaren kontrako krimen eta genozidio-krimenez jasotzen da. Horretan oinarrituta, jaso berri ditugu nazio epaitegi batzuetan eman diren zigor-epaiak, Guatemalako esaterako (Rios Montt –gerora indargabetu egin zena– eta Sepur Zarco kasuak), karguen artean sexu-indarkeria jasotzen zutenak. Era berean, laurogei eta hamarreko urteetatik aurrera hainbat zigor-epai eman dira nazioarteko auzitegietan aurkeztutako kasuen gainean; hala nola Jugoslavia ohiko Nazioarteko Zigor Auzitegia, Ruandako Nazioarteko Zigor Auzitegia edo Giza Eskubideen Gorte Intereamerikarra.

Emakumeen justiziarako eskubidea gauzatzeko halako neurriekin batera, ekintzaren arreta errudunak zigortzean ez ezik, arauzko salaketak egon zein egon ez, bizirik irten diren emakumeen errehabilitazioa –banakakoa, erkidegokoa eta soziala– lortzeko ekintza feministek garrantzi berezia daukate. Hori, baina lehenik eta behin egiaztatuta tokiko eta nazioarteko ohiko justiziasistemen mugak, emakumeen kontrako indarkeriaren larritasunari erantzuna emateko gaitasunik ez edukitzeaz gain, sistema horien prozedurak genero-desparekotasunak blaituta daude eta eragin handia izaten dute emakumeengan eta birbiktimizatu egiten dituzte, besteak beste, emakumeen lekukotzak zalantzan jartzen direlako etengabe, gehienetan bete ezin diren probak

eskatzen dizkietelako eta ez dietelako beti bermatzen kaltegileen aurrean babestuko dituztenik.

Gainera, giza eskubideen nazioarteko legeriak askotan talka egiten du nazioan aplikatzeko legeekin (Zigor Kodeak, Familia Kodeak, etab.), eta kasu guztietan, araua aplikatzerakoan, aurreiritzi patriarkalak gailentzen dira. Errealitate horren aurrean, zenbati herrialdetako emakumeen mugimendua – Guatemala eta Chiapas, kasu– sormenez jotzen ari da justiziarako ordezkotako bitartekoak eta kaltegileen zigor soziala lortzeko bitartekoak bilatzen, eta justiziaren mendebaldeko kontzeptiotik urruntzen diren eta, gehienetan, proposamen feminista indigena, erkidegoko eta historikoki mendekoetatik abiatzen diren ekintzak egiten ditu.

Bigarrenik, biktimen errehabilitaziorako ahalegin handi horren arrazoia da ohiko justiziaren ordezkotako mekanismoak sortu behar direla indarkeriak eragindako kaltea oso osorik leheneratu edo konpontzeko. Hemen justizia leheneratzaileko ekintzak sartzen dira, emakumeak berak protagonista bihurtzen dituztenak, eurak izanik zer, nola, noiz, norekin eta noraino eramango dituzten prozesuak, etab. erabakiko dutenak. Erabaki horietan, klasea, etnia, adina eta bestelako faktore batzuk erabakigarriak izan daitezke erreparazioa ulertzeko moduan eta horren inguruan emakumeek egituratzen dituzten erreibindikazioetan.

Indarkeriatik bizirik irten diren emakumeen laguntzarako ekintza feministen esparruan, liburu honetan aztertu ditugun herrialdeetan nabarmena da indarkeriaren aurreko erresistentzia eta suspertzeko moduek izaera erabat kolektiboa dutela; hau da, taldean eta erkidegoan eta emakumeen elkartasun sareetan oinarritua dagoela batik bat. Elkarrenganako laguntza hori funtsezkoa da emakumeen bizimodua aldarazteko, osatzeko, ahalduntze pertsonal eta kolektiborako, norberaren estimua, eta gizartean duen posizioa eta begirunea sustatzeko.

Emakumeen arteko laguntza sozial eta psikologikoak prozesu-logika bat dauka, eta indarkeria egoera oso larri eta traumatizatzaileetatik bizirik irten direnek aukeratu dituzten denborak eta hitz egiteko moduak errespetatzen ahalegintzen da. Gainera, entzutea eta konfiantzaren eraikuntza errazten duen epai moralik gabeko ingurua eskaintzen duten espazioetan gertatu ohi dira, eta suspertzea, duintzea eta emakumeen arteko elkartasuna ahalbidetzen ditu. Espazio horiek eta bertan gertatzen diren prozesuei esker, emakumeek hainbat gai jorratu eta sakon ditzakete; besteak beste, indarkeriak izan dituen eragin emozionalak, afektiboak, psikosozialak, familiakoak, ekonomikoak,

etab., kaltetutako norberaren gorputzarekiko harremana, gatazkaren ondorioz “etsaitzat” jo izan diren beste emakume batzuekiko harremana, aktibismo politiko eta soziala bizitzeko moduak, etab.

Azkenik, eta trantsiziozko justiziaren agendaren atal gisa, liburu honetan jasotzen diren esperientziek gatazken memoria kolektiboa berreskuratzeari emakumeek ematen dioten garrantzia nabarmentzen dute. Memoria hori azpitik gora eraikitzen da, historiaren periferiatik, identitate komun batean nor bere burua ezagutzeko eta bai gatazken konponbide negoziatu bat lortzeko bai indarkeriak suntsitutakoa berreraikitzeko, norberaren ekarpen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalak balioesteko premiatik. Gainera, une horretara arte ezarri diren trantsiziozko justiziarako neurriak guztiz askiezak direla erakutsi duten testuinguruan, justizia egin eta emakumeei erreparazioa emateko tresna politiko bihurtu den memoria da. Hortaz, emakumeen memoriak haien aurkako indarkeriagatiko zigorgabetasun politiko eta juridikoari ez ezik hura babesten duen zigorgabetasun patriarkalari ere egiten dio erronka.

Sarrera honi amaiera emateko, garrantzitsua da azpimarratzea aurkezten dugun argitalpen hau talde lanaren emaitza dela, eta garatutako gaian egiteko akademikoari eta aktibismo sozialari nola edo hala atxikiriko pertsonak hartu dutela parte. Zenbaitentzat harremana zuzena eta norberaren esperientzian oinarritutakoa da, aztertutako zigorgabetasunaren kontrako borroka-ekimenetako partaide diren heinean, hala nola Kolonbiako kasuan (Marina Gallego Zapata, Ruta Pacífica de las Mujeres erakundearen koordinatzailea), Guatemala (Amandine Fulchiron, Actoras de Cambio kolektiboaren sortzaileetako bat) eta El Salvador (Gloria Guzmán Orellana, mugimendu feminista eta giza eskubideen aldeko mugimenduko aktibista). Beste pertsona batzuen kasuan, atxikimendua elkartasun internazionalistako aktibismotik dator, Chiapasen kasuan esaterako (Nadia López Ruiz eta Sara Hernández Pérez, Txiapasekin Plataformako kideak). Azkenik, beste pertsona batzuk eremu akademikoan dihardute, eta gai honi, herrialde hauei eta aztertzen dituzten esperientzia horiei ikerketa lanen bidez atxiki zaizkie; hori da Kosovoko kasua (Itziar Mujika Chao), RDC (Iker Zirion Landaluze) eta Irantzu Mendia Azkue (El Salvador eta Mendebaldeko Sahara).



## Bibliografia

- Enloe, Cynthia (2000): *Maneuvers. The International Politics of Militarizing Women's Lives*, University of California Press, Berkeley eta Los Angeles, California.
- Mendia Azkue, Irantzu (2012): “Justicia transicional: dilemas y crítica feminista”, *Lan-Koadernoak Hegoa*, 59, <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/300>>.
- Munduko Bankua (2015): *Personal de las fuerzas armadas, total* (Ikasketa Estrategikoen Nazioarteko Erakundearen datuen arabera, *The Military Balance*), <<http://datos.bancomundial.org/indicador/MS.MIL.TOTL.P1>>.
- Nazio Batuak (2004): *El Estado de derecho y la justicia de transición en las sociedades que sufren o han sufrido conflictos*, Informe del Secretario General al Consejo de Seguridad, abuztuaren 3an (S/2004/616), <<http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/2004/616>>.
- Nazio Batuak (1995): *Informe de la Cuarta Conferencia Mundial sobre la Mujer*, Beijing, irailaren 4tik 15era (A/CONF.177/20/Rev.1), <<http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/pdf/Beijing%20full%20report%20S.pdf>>.
- Paz Bailey, Olga Alicia (2012): “Peritaje psicosocial”, Mendia Azkue, Irantzu eta Gloria Guzmán Orellana (arg.): *Ni olvido, ni silencio. Tribunal de conciencia contra la violencia sexual hacia las mujeres durante el conflicto armado en Guatemala*, Hegoa Institutua (UPV/EHU) eta UNAMG, Bilbo eta Ciudad de Guatemala, 86-92, <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/279>>.
- Schouten, P. eta Dunham, H. (2012): “Theory Talk #48: Cynthia Enloe on Militarization, Feminism, and the International Politics of Banana Boats”, *Theory Talks*, <<http://www.theory-talks.org/2012/05/theory-talk-48.html>>.
- Sierra Guzmán, Jorge Luis (2003): *El enemigo interno. Contrainsurgencia y fuerzas armadas en México*, Universidad Iberoamericana, Centro de Derechos Humanos Miguel Agustín Pro Juárez, Centro de Estudios Estratégicos de América del Norte, eta Plaza y Valdés, Mexiko D.F. eta Bartzelona.





## **I. Kapitulua.**

# **Kosovoko indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilean, gerran eta gerraostean ekintza feminista**

*Itziar Mujika Chao*



## 1. Sarrera

Kapitulu honen helburua Kosovoko gatazka armatuan bertako emakumeen giza eskubideen urraketen aurrean hauek egiaren, justiziaren eta erreparazioaren alde egindako aktibismoa aztertzea da. Gehienbat, albaniar jatorriko emakumez arituko naiz; ez haiek borrokan parte hartutako bakarrak direlako, gaur egun, Kosovoko biztanle gehienak albaniarrek direlako baizik. Beraz, emakume erakunde eta talde gehienak ere jatorri horretako emakumeek osatzen dituzte.

Kosovoko gatazka armatua 1998an piztu zen, Kosovo Askatzeko Armada (UCK) eta Serbiako Indar Armatuen arteko liskarrak okerrera egitearen ondorioz. Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundeak (NATO) Serbiaren kontrako ofentsibari ekin zionean, Serbiak Kosovoko biztanle albaniarren kontrako erasoak areagotu zituen. Horren ondorioz, giza eskubideen urraketak hazi egin ziren, eta emakumeen kontrako sexu indarkeria gerrako arma gisa erabili zen. Urte askoz isiltasuna nagusitu da gai horren inguruan baina, azkenean, sexu indarkeria jasan zuten emakumeak gatazkaren biktimatzat hartzearekin batera urrats garrantzitsua egin da herrialdeko trantsiziozko justizia prozesuan.

Dena den, gertakari horiek ikuspegi historiko zabal batetik aztertu behar ditugu, lotura zuzena baitute gerra aurretik serbiar errepresioaren aurrean izandako erresistentzia zibilarekin, orduan hasi baitzen giza eskubideen eta, bereziki, emakumeen eskubideen ideia hedatzen. Emakumeen eskubideen urraketak ez ziren gatazkan bakarrik eman; aitzitik, erresistentzia zibil prozesuan ere dinamika hori bazen. Gatazkarekin emakumeen kontrako indarkeriak gora egin zuen, muturretara iritsiz, eta honek jarraitu egin du gerora ere, gatazka osteko bake eraikuntza prozesuan.

Gerraosteak emakumeen bizitzaren birtradizionalizazioa ekarri zuen: gizonak espazio publiko osoa hartu zuten bitartean, emakumeak espazio pribatuan zokoratu zituzten. Aldi berean, Kosovora heldutako nazioarteko erakundeek ez ikusi egin zuten emakumeek indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilean eta gatazkan izandako parte hartze sozio-politikoak. Testuinguru horretan, emakumeen mugimenduak borroka bikoitz bati ekin zion: alde batetik, emakumen giza euren eskubideak babestuz eta, bestetik, emakumeek erresistentzia zibilean eta gatazka armatuan subjektu aktibo gisa izan zuten parte hartzea aintzat hartua izan zedin. Emakumeek, beren aktibismoan, espazio publiko eta pribatuaren artean eta, aldi berean, tokiko eta nazioarteko eremuen artean mugitzen ikasi behar izan dute.

Kosovoko emakumeen ekintza kolektiboa aztertzeko asmoz, kapitulu hau bi iturri desberdin hauetan oinarritzen da: tokiko eta eskualdeko iturrien azterketa bibliografikoan eta Kosovo Women's Network (KWN) sareko zein Belgradeko Beltzeko Emakumeak erakundeko hainbat aktibistari egindako elkarrizketa erdiegituratueta. Elkarrizketen bitartez, gatazka armatua eta bake eraikuntza prozesua genero-ikuspegitik aztertu ahal izan ditut.

Kapitulua egiturari dagokionez, lehenik, gatazkaren testuinguru historiko eta politikoa aztertuko dut; bigarrenik, gatazka genero-ikuspegitik aztertuko dut, honen inpaktuak identifikatuz eta emakumeek izandako paperak aztertuz; azkenik, emakumeen erakunde eta taldeek egiaren, justiziaren eta erreparazioaren alde egindako aktibismoa aztertuko dut.

## **2. Indarkeriarik gabeko erresistentzia zibila, gatazka armatua eta bake eraikuntza Kosovon**

Kosovoko gatazka armatuaren inguruko ikerketa gehienek 1990eko hamarkadaren amaieran kokatzen dute horren hasiera. Baina gatazkaren sorburua 1980ko hamarkadako azken urteetan aurki dezakegu. Izan ere, Kosovon XX. mende osoa izan da gatazkatsua eta bertan bizi diren komunitateen (handienak albaniarra eta serbiarra baina roma, ashkalia eta egiptoarra ere) arteko harremanak tentsiozkoak izan dira<sup>1</sup>, baina mende horretako azken herenean egoerak apurka-apurka txarrera egin zuen.

1980ko hamarkadan albaniar komunitatearen eskubideen aldeko eta Kosovo Jugoslavia barruan errepublika independentea izateko protesta jendetsuak antolatu ziren<sup>2</sup>. Serbiako Indar Armatuak errepresio handiz erantzun zieten protesta horiei eta, horren ondorioz, egoera larriagotu zen. Hamarkada horretan, Serbiako Estatu indarkeriaren aurrean unibertsitate

---

1 Kosovoko historiari buruzko informazio gehiagorako, ikus: Ramet, 2012; Poulton eta Vickers, 1997; Clark, 2000; Maliqi, 1998; Taibo, 1998; Biserko, 2012; Biserko, Simkys eta Listhaug, 2015; Malcom, 1999, eta Judah, 2000.

2 Jugoslaviako Errepublika Federal Sozialista sei errepublika hauek osatzen zuten: Serbia, Kroazia, Eslovenia, Bosnia-Herzegovina, Mazedonia eta Montenegro. Serbiaren barruan, Kosovo-Metohija eta Vojvodina probintzia autonomoak ziren.

ikasleak antolatu zituen *Illegalja* albaniar mugimendu klandestinoaren sortu zen<sup>3</sup>.

Serbiar Indar Armatuaren errepresioa eta Kosovoko albaniarren protestak nagusi izan ziren 1980ko hamarkadan. Hala ere, 1989an Kosovori probintzia autonomo estatusa kendu zitzaionean, garai berri bat hasi zen. Milosevic-ek Jugoslaviar federazioaren baitan Kosovo Serbiari gehitzeko asmoz, bere autonomia baliogabetu zuen. Sevdije Ahmeti emakumeen eskubideen aldeko aktibistaren arabera, erabaki horrekin batera albaniar biztanleen kontrako indarkeria areagotu zen; indarkeria zuzenaz gain, milaka pertsona beren lanpostuetatik bota egin zituzten eta albaniar hizkuntza espazio publikotik ezabatu zen (albaniar ikasleei Pristinako eskoletara eta Unibertsitatera sartzeari ere debekatu zitzaion). Neurri horiek ondoez handia sortu zuen Kosovoko populazio albaniarrearen, zeinak mobilizatzen jarraitu zuen.

1980ko hamarkada amaierako gertaeren testuinguruan, Kosovoko albaniarrek indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren sorrera eta garapenari heldu zioten, zeinak 1990eko hamarkadaren zati handi batean herritar albaniarren bizirautea ahalbidetu zuen. Mugimendu hori lau faktore hauen eraginez sortu zen; Trepçako meatzarrien protestak<sup>4</sup>; erregimen komunistaren erorialdiarekin batera sortu ziren aukera politikoak; erakunde eta alderdi politiko berrien sorrera; eta “odol feudo”-en abolizioaren aldeko kanpaina<sup>5</sup>. Egoera guztiz aldatu zen eta Kosovoko albaniar biztanleen nortasuna “indarkeria ezarekin identifikatzea” heldu zen (Clark, 2000: 46).

---

3 Elkar ezagutzen ez zuten zelula txikiek (normalean, bizpahiru pertsonekin) osatutako mugimendua zen. Serbiaren indarkeriaren kontrako ekintzak antolatzen zituzten baina helburuak ez ziren oso argiak; zelula batzuek Kosovorentzat errepublika estatusa eskatzen zuten Jugoslavia barruan, beste batzuek Albanian sartzeari defendatzen zuten.

4 Kosovoko iparraldeko Mitrovica hirian kokatutako meatzaritza gunea.

5 “Odol feudo”-ek *Kanun*-ari dagozkie. Mendetan zehar, albaniar gizartearen indarrean egon den ohiturazko zuzenbideko testu folklorikoa da. *Lekë Dukajgini* albaniar kulturako pertsonai historikoak idatzi zuela uste da. Testu horren arabera, gizonen euren senideen hilketa menderatzeko -batzuetan desohorea ere bai- honen erantzuleak erahil behar zituzten. Etxea zen mendekua hartzea debekatuta zegoen leku bakarra. “Odol feudo”-ek ehunka familia jarri zituzten elkarren aurka eta 17.000 gizon inguru ez ziren etxetik irteten erahilak izateko arriskuagatik. Informazio gehiagorako, ikus: Clark, 2000: 60-64.



Iturria: Nazio Batuak.

1989an, Trepça-ko meatzariak egindako protesta jendetsuetan, 7.000 gizon inguru itxi ziren mehatzeetan (horietatik 1.200 bat gose greban), Kosovok Jugoslaviako federazioan zuen autonomia berreskuratzearen alde eta kaleratze masiboen kontra (besteak beste, meatzariak berenak eta Jugoslaviako liga komunistako Kosovoko bi buruzagi albaniarrenak)<sup>6</sup>. Protestak lurralde osora hedatu ziren, indarkeriarik gabe (Maliqi, 1994), eta 400.000 pertsona baino gehiago batu zitzaizkien. Azkenean, Kosovoko buruzagi albaniarren ordezkari Milosevicek izendatutako pertsonak dimititu behar izan zuten, eta larrialdi egoera ezarri zen. Protestak Kosovoko albaniarren “gizarte-maila erabat desberdinak” mobilizatu zituen (Pula, 2004: 803) eta idazle askorentzat “albaniar intifadaren hasiera” izan zen (Maliqi, 1993: 180), hau da, herritar guztiek Serbiako estatuari aurre egitea halabeharrezkotzat jo zuten momentua (Clark, 2000: 53).

6 Azem Vllasi eta Kaqusha Jashari.



1989an ere, Europako ekialdeko erregimen komunistak erortzearekin batera, Kosovon, “udaberri demokratiko” baten itxaropena piztu zen (Pula, 2004: 804; Taibo, 1999: 88). Hala, bada, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren garapena gidatuko zuten bi erakunde politiko sortu ziren: Kosovoko Liga Demokratikoa eta Giza Eskubideen eta Askatasunen Defentsarako Kontseilua. Kosovoko Liga Demokratikoa komunista ez zen Kosovoko lehenengo alderdia izan zen. Sortu eta gutxira 700.000 atxikimendu lortu zituen, Kosovoko albaniarren “erreferendum” edo “adierazpen politiko” bezala jo izan dena (Clark, 2000: 65). Erakunde horrek, buru zuen Ibrahim Rugova-ren eskutik, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren estrategia eta prozesua kudeatu zuen. Horretarako, Giza Eskubideen eta Askatasunen Defentsarako Kontseiluarekin (GEADK) elkarlanean aritu zen. GEADKk giza eskubideen urraketa guztiak identifikatu, dokumentatu eta salatzen zituen. Erakunde bi horietatik gertu, Ama Teresa erakundeak laguntza humanitarioa eta mediku zerbitzuak eskaintzen zizkien herritarrei, bizi baldintza gero eta okerragoen aurrean.

Kosovoko biztanle albaniarrek indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren inguruan batzen hasi ziren. Prozesu horretan, “odol feudo”-en abolizioa gakoa izan zen, etsai bihurtutako 2.000 familia inguru adiskidetzen lagundu baitzuen (Clark, 1999: 59-103). Honek, Serbiako Indar Armatuaren erasoaren aurrean indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren hedapenean lagundu zuen, independentzia estrategia baten defentsa eta garapen tresna gisa, Erresistentzia zibil proiektua estatu paralelo baten eraikuntzaren inguruan antolatu zen, bere instituzio, ministerio eta zerbitzuekin. Hezkuntza sistema bat ere sortu zuten eta horri esker, milaka haur eta gazte albaniarrek beren hizkuntzan eta berezko curriculumarekin ikasi ahal izan zuten.

Dena den, erresistentzia mugimenduaren beste ezaugarri nagusi bat pasibotasuna izan zen. 1995ean, Kosovoko albaniar asko Serbiako erregimenaren erasoaren eta nazioarteko komunitatearen axolagabetasunaren aurrean erresistentzia aktiboago baten alde agertu zen. Indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilezko proiektua sostengua galduz joan zen eta, horren aurrean, borroka armatuak indarra hartu zuen gatazkaren konponbide bezala. Aldi berean, Daytoneko Akordioek (1995)<sup>7</sup> -eta horietan Kosovoko gatazka ez aipatzeak- eragin handia izan zuten armak erabiltzearen aldeko apustuan. 1996an, Kosovo Askatzeko Armadak (UCK) lehenengo erasoak egin zituen Serbiako polizia kuartelen aurka. Ondorioz, Serbiaren eraso

---

7 Akordio horien bitartez 1992an Bosnia-Herzegovinan hasitako gerrari amaiera eman zitzaion.

bortitzak ere areagotu ziren. Gatazkak okerrera egin zuen eta milaka hildako eta behartutako lekualdatze egon ziren. 1999ko martxoan, nazioarteko komunitateak, NATOren bitartez, gatazkan esku hartu zuen serbiarren posizioak bonbardatuz<sup>8</sup>.

Gatazka armatuaren eta NATOren esku hartzearen ondorioz, 1998 eta 1999 artean 10.000 pertsona baino gehiago hil eta 2.000 baino gehiago desagertu<sup>9</sup> ziren. Era berean, biztanle gehienek desplazatu behar izan zuten, Kosovon bertan zein inguruko herrialdeetan zeuden errefuxiatuentzako kanpamentuetan (gehienbat, Albanian eta Mazedonian). Serbiako Indar Armatuak Kosovotik atzera egin zutenean, serbiar jatorriko pertsona askok ihes egin zuten eta albaniarrek pilaka itzuli ziren.

Nazio Batuen Erakundearen 1244 Ebazpenaren ondorioz (1999ko ekainean onartua), Kosovo nazioarteko protektoratu<sup>10</sup> bilakatu zen eta bere kudeaketa politikoa eta segurtasunekoa Kosovorako NBERen Misioren (UNMIK) eta NATOk sortutako Kosovoko Segurtasun Indarren (KFOR) esku geratu zen. 1999 eta 2008 artean, nazioarteko erkidegoak gatazkaren alderdi bien eskaerak betetzen zituen konponbide bat bilatzen saiatu zen: alde batetik, Kosovoren independentzia eta, bestetik, Serbiaren lurralde osotasuna babestea. Bide batez, bilatzen ari ziren konponbide horren bitartez, herrialde biak Europan integratu nahi zituzten. Alabaina, azkenean ez zen inolako akordiorik lortu.

Gatazka armatua amaitu zenean, nazioarteko erakunde asko herrialdera heldu ziren bertako indar politikoen aldeko botere transferentzia bultzatzeko asmoz. Gerra osteko lehenengo urteetan, agertoki politikoa honako bi alderdi hauek okupatu zuten nagusiki: aipatutako Kosovoko Liga Demokratikoak (LDK) eta UCKren desarmearen ostean sortutako Kosovoko Alderdi Demokratikoa (PDK). Gaur egun, beste alderdi politiko batzuek ere eragin handia dute agertoki politikoan, besteak beste, *Leviza Vetevendosje!*<sup>11</sup> alderdiak.

---

8 Operazio horrek eztabaida sakona sortu zuen nazioartean, NATOk, NBEko Segurtasun Kontseiluaren baimenik gabe, Kosovon esku hartu eta Belgrad bonbardatu baitzuen.

9 1.700 pertsona inguruk desagerturik jarraitzen dute. Informazio gehiagorako, ikus: Halili, 2015, Pantovic, 2016 eta HLC, 2001.

10 Legalki Serbiak Kosovoren gainean inolako botererik ez bazuen ere, garai hartan, lurraldeak Serbiaren barruan jarraitzen zuen.

11 Bozei dagokionean hirugarren alderdi handiena da. Indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil garaian ikasleen mugimenduan aktibista ospetsu izandako Albin Kurti buru zuela, alderdiak 2003 eta 2004 artean ekin zion bere bideari gizarte mugimendu gisa.

Horrek atzerriko estatuen eta nazioarteko erakundeen esku hartzearekin eta LDK eta PDKko zenbait buruzagiren ustelkeriarekin amaitu nahi du<sup>12</sup>.

2008ko otsailaren 17an Kosovok alde bakarreko independentzia deklaratu zuen<sup>13</sup>. Ordutik aurrera, lurraldearen gobernuan erakunde desberdinen ekintzak gainjarri dira. Kudeaketa, mailaka, tokiko indar politikoei eman zitzaizen arren, UNMIKek, KFORek eta Europar Batasunaren Legearen Inperiorako Misiok (EULEXek), nazioarteko beste hainbat erakunderen artean, lurraldean jarraitu dute, politikak eta eskumenak gainjarriz eta “kaos pragmatiko”-ko egoera bat sortuz (Deimel, 2015: 138).

## 2.1. Gatazkaren egiaz eta memoriaz jabetzeko eztabaida

Gaur egun, Kosovoko serbiarren eta albaniarren artean tirabira ugari dira gatazka armatuaren, bere sorburuen eta ondorioen inguruan. Justizia ulertzeko modua ere aldatzen da talde etniko bakoitzaren ikuspegiaren arabera eta horrek bakearen eraikuntza oztokatzen du. Aldi berean, 1999ko justizia ikuspegia eta 2008ko independentzia deklarazioaren ostekoa ez dira berdinak. Albaniar komunitatearentzat justizia Serbiaren agindupean berriz egotearen mehatxua ezabatzea da. Serbiarrentzat, ordea, justizia mendekuzko edozein eraso ezabatzea da (Kipred, 2008).

Era berean, gatazka armatuan egindako gerrako krimenen inguruan egia bilatzearen esanahia desberdina da albaniar eta serbiar komunitateentzat. Albaniar komunitatearentzat krimen horien epaiketa legala da egia hori identifikatzeko biderik fidagarriena. Serbiar komunitatearentzat, berriz, epaiketek ez dute egia topatzen lagunduko. Ildo beretik, albaniarrentzat funtsezkoa da desagertutako pertsonen eta serbiarren gerrako krimenen auziari heltzea; aitzitik, serbiarren kezka nagusia segurtasun eza eta albaniarrek egindako krimenen zigorgabetasuna da (Rother, 2007: 12). Desadostasun horiek gatazkaren inguruko memoriaren zatikatzea areagotzen dute.

---

12 Gaur egun, alderdi politiko gehiago dago Kosovon, esaterako, Ramush Haradinaj UCKko borrokalari ohia buru duen *Alliance for the Future of Kosovo*, edo UCKko beste borrokalari ohia den Fatmir Limaj buru duen *Initiative for Kosovo*. *Serb List* Serbiako alderdi politiko nagusietako bat da.

13 Herrialde asko dira independentzia babestu zutenak, esaterako, hauek: AEB, EBko herrialde gehienak (Espainia, Grezia, Zipre, Eslovakia eta Errumania izan ezik) eta Kosovo inguruko herrialdeak (Serbia izan ezik). 2017an, 113 Estatuk babesten Kosovoren independentzia, ikus, besteak beste: Cocozzelli, 2009.

Kosovon, trantsiziozko justizia prozesua errazteko asmoz ezarritako erakunde nagusiak nazioartekoak dira, haien eskumenak tokiko erakundeei mailaka eman bazaizkie ere. Hala, bada, Jugoslavia ohirako Nazioarteko Auzitegi Penal<sup>14</sup> Balkanetako eskualdeko trantsiziozko justiziarako mekanismo nagusia izan da baina, horrez gain, tokiko auzitegiak eta tresna judizial hibridoak daude, tokiko eta nazioarteko osaera dutenak. Gerra ostean, hasiera batean, Kosovoko sistema judiziala UNMIKek eta Europako Segurtasunerako eta Lankidetzarako Erakundeak kudeatu zuten. Gaur egun, hori EULEXek kudeatzen du baina, gehienbat, tokiko epaitegietan garatzen da<sup>15</sup>.

Epaiketa prozesuen ezaugarri nagusia hauek duten atzerapen handia da: 200.000 kasu baino gehiago itxarote zerrendan edo erreserban daude. Zentzu horretan, Kosovoko Epailen Kontseiluak, 2010eko azaroan *Atzeratutako Kasu kopurua Murrizteko Estrategia Nazionala* sortu zuen baina bere aplikazioak ez ditu emaitza nabariak ekarri. Gainera, presio politikoak, tokiko epaile eta fiskal falta, eta arduradun judizialek profesionala ez den era batean jokatzeari oztupo handiak dira justizia administrazioan (HLC, 2012: 5). Azkenaldian, gerrako krimenak epaitzeko epai organo berri bat sortu da, hain zuzen ere, Hagan lanean hasi den<sup>16</sup> *Kosovo Relocated Specialist Judicial Institution*. Auzitegi hori Europar Batasunak finantzatu du, gehienbat, UCKren krimenak epaitzeko.

Kosovoko epai sistemaren berezko oztopoez gain, maila politikoan justizia ez da ekintza ardatz zentralizat hartu, eta beraz, ez zaio gerrako giza eskubideen urraketa masiboen gaiari aurrez aurre heldu. Hala, biztanle askorentzat “justiziaren sakrifizioa bakearen eraikuntzaren izenean” gailentzen da (Kipred, 2008). Eskualde mailako RECOM (Jugoslavia ohian egindako gerrako krimenak eta giza eskubideen urraketa larriak argitzeko eskualdeko komisioa) bezalako trantsiziozko justizia ekimena tokiko mailan ezartzeko dauden erreparoa borondate falta horren erakusgarri dira. Jugoslavia ohiko

---

14 Jugoslavia ohirako Nazioarteko Auzitegi Penalak Kosovorekin zerikusia duten bost kasu besterik ez ditu epaitu eta bere jarduera amaitu badu ere, zenbait kasu utzi ditu epaitu gabe. Informazio gehiagorako, ikus: <http://www.icty.org/>. Kosovon, auzitegi hori ordezkatzeko tokiko eremuan Gerra eta Krimen Etnikoetarako Auzitegia sortzeko ekimena baztertu zen. Izan ere, Albaniar jatorriko abokatu eta epaile askok presioa egin zuten erakunde bi horiek independenteak izateko eta auzitegiaren nortasun bikoitzaren ondorioz -tokikoa eta nazioartekoa- zailtasun legalak ager zitezkeen (Kipred, 2008).

15 Mekanismo hauen inguruko informazio gehiagorako, ikus: Periello eta Wierda, 2006.

16 Holandan kokatzeko arrazoiertako bat lekukoen babesa zen; izan ere, ordura arte hau oso ahula zen. Auzitegi honi buruzko informazio gehiagorako, ikus: Ristic, 2015 eta Ristic, 2016.

lurralde guztietako erakundeen arteko negoziazio prozesu luze baten ondoren, 2011ko martxoan erakunde hori ofizialki sortu zen. Bere helburua 1990ko hamarkadako Balkanetako gatazken indarkeriazko gertaerak dokumentatzea eta memoria desberdinak erregistratzea zen, bakerako eta adiskidetzeko oinarri komuna ezarri ahal izateko. Ekimenak trantsiziozko justiziaren eztabaida sakondu eta zabaldu du, baina tokiko errezeloak tarteko, ezin izan du bere hasierako helburua erdietsi, hau da, egiaren komisia sortu (Di Lellio, 2013: 1).

Kosovori dagokionez, eskualde mailan (edo, kasua emanda, maila nazionalen) egiaren komisia bat sortzeko asmoak ez du babes handirik (*Ibid.*: 15). Tokiko eragile gehienek “ez dute RECOMrekin konpromisorik hartzen edo zuzenean bere kontra agertzen dira” (Di Lellio eta MeCum, 2012). Gainera, errezelo politikoen gain, gizartean “iragana kudeatzeko” baldintza urri dago. Orokorrean, krimenen erantzuleak “heroi”-tzat hartzen dituzte euren komunitateetan (Zupan, 2006: 337) eta horrek sakonki mintzen ditu biktimak.

### 3. Gatazka genero-ikuspegitik

Kosovon ematen den emakumeen aurkako diskriminazioak tradizio patriarkal luze bati erantzuten dio, gatazkaren etapa desberdinek, hau da, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilak, gatazka armatuak eta gerraosteak indartu dutena.

Ikusi dugun bezala, 1990eko hamarkadako indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilaren helburu nagusia Jugoslaviako federazioan Kosovorentzat errepublika estatusa lortzea zen. Hasieratik eta maila guztietan, emakumeak parte hartze aktiboa izan zuten prozesuan, bai biolentzia eza bultzatu zuten erakunde nagusien bidez (LDK, GEADK eta Ama Teresa), bai sasoi horretan sortutako emakume erakunde independenteen bidez ere.

1990ean, LDK sortu aurretik, hainbat emakumek Emakumeen Elkarte Independentea (EEI) sortu zuten emakumeen eskubideak babesteko eta lurraldeko aldaketa politikoen esparruan eragina izateko helburuz. 1.300 emakume inguruk bat egin zuen ekimenarekin. Alabaina, erakundea ez zen ofizialki erregistratu, Pristinan 30 emakume inguruk parte hartutako batzar batean zenbait ordezkari LDKrekin bat egitearen alde bozkatu baitzuten<sup>17</sup>.

---

<sup>17</sup> LDKn sartzearen kontra bozkatu zuten emakumeen artean Emakumeen Elkarte Independentea sortuko zutenak zeuden.

Ondorioz, EEIn parte hartzea erabaki zuten emakume guztiak LDKren Emakumeen Foroan (*Women's Forum*) sartu ziren, eta hortaz, alderdi politiko horretan ere bai.

Emakumeek LDKren bitartez indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilean izandako parte hartzea zaila izan zen: alderdiak “bigarren mailako” bezala identifikatutako ardurak eman zizkion Emakumeen Foroari. Bitartean, batez ere gizonek osatutako alderdiaren zuzendaritzak erresistentzia zibilaren mugimendua eta estatu egitura paraleloak kudeatzen zituen. Emakumeen Foroaren zuzendaritzak, Edita Tahiri liderraren salbuespenarekin, ez zuen alderdiaren zuzendaritzan parte hartzen. Beraz, LDK erresistentzia zibilaren oinarri nagusien lehentasunen hierarkizazio patriarkala jarraitu zuen; lehentasuna independentzia zen eta emakumeen eskubideak gero etorriko ziren.

LDKrekin batzearen kontra agertu ziren emakume haiiek, eta geroago, emakumeei zuzendutako politikekin ados ez egoteagatik alderditik irten zirenek, talde eta erakunde independente desberdinak osatu zituzten. Honek errebeldia eta erresistentzia ekintza suposatu zuen LDK eta bere proiektuaren aurrean.

Talde eta erakunde independente horietan jardun zuten emakumeen aktibismoa euren ibilbidea ezaugarritu duen oinarritzko hiru auzi hauen inguruan antolatu zen: emakume eta nesken hezkuntza maila baxua; giza eskubideen urraketan dokumentatzerakoan zegoen sexismoa, emakumeen eskubideen urraketari ezikusia egiten ziena; eta emakumeentzako eta neskentzako osasun zerbitzuak, ordura arte ia hutsalak zirenak.

Lehenik eta behin, analfabetismo maila oso altua zen emakume eta nesken artean, batez ere landa eremuan. Haien hezkuntza maila eta, orokorrean, biztanle guztiena handitzearen, emakume talde batzuk arazo horri aurre egiteko lan egiten hasi ziren.

Bigarrenik, gizonen zein emakumeen giza eskubideen urraketak etengabeak ziren baina horiek salatzeko ekimenek gizonen kontrakoak bakarrik aintzat hartzen zituzten. Artxiboetan emakumeak ez ziren euren izen-abizenekin agertzen, gizonen arreba, alaba edo ama bezala baizik. Hala, emakume talde eta erakunde independenteak emakumeen eskubideen urraketak erregistratzen hasi ziren. Horri esker, emakumeek zentzu desberdinetan jasaten zuten indarkeria maila ezagutzera eman ahal izan zen. Adibidez, Emakume eta Haurren Babeserako Zentroak egindako ikerketa baten datuen arabera, jakin

ahal izan zen emakumeen %50k Serbiako Indar Armatuaren indarkeria pairatu zuen euren etxean bertan (euren senideak atxilotzera joan zirenean) baina baita emakumeen %30k familiaratean eta etxean indarkeria pairatzen zuela ere. LDKk zalantzan jarri zuen ikerketa hori eta emakume taldeei haien eskubideak Kosovoko independentziaren aurretik jartzea leporatu zien.

Azkenik, emakume talde eta erakundeak emakume eta neskentzako osasun zerbitzuak eskaintzen hasi ziren. Izan ere, landa eremuetan, ez ziren zerbitzu horiek eskaintzen eta eskaintzen baziren oso modu eskasean egiten zen. Lan horri esker hainbat emakumek Pristina hiriburura bidaiatu ahal izan zuten osasun azterketak egiteko,aldi berean beste emakume batzuekin informazioa trukatu, hitz egin edota haien aktibismoa garatzeko espazioak topatuz.

Hala, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilezko prozesuan emakumeek izan zuten parte hartzea ez zen soilik kritikatu izan, genero/nazio dikotomiak ere zeharkatu zuen. Alde batetik, LDKn emakumeen presentzia haundia zen, baina bigarren mailako rolak zituzten. Albaniar nortasuna eta helburu nazionalak lehenetsi zituzten genero nortasunaren aurrean. Erresistentzia zibilaren jomuga independentzia zela onartu zuten, emakumeen eskubideak eta haien egoeraren hobekuntza horrekin batera edo horren ostean etorriko zirela onartuz.

Beste alde batetik, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilean erakunde independenteen bitartez parte hartu zuten emakumeek genero nortasuna lehenetsi zuten nortasun nazionalaren aurrean. Ez zeuden independentziaren helburuaren kontra, baina prozesu horretan emakumeen eskubideak babestu behar zirela uste zuten. LDKk alderdiaren eta proiektu nazionalaren traidoretzat hartu zituen emakume horiek. Dena den, auzi nazionalak lurralde osoko eta, bereziki, landa eremuetako emakumeengana heltzeko zuen garrantzia ulertzen zuten: *“Emakumeengana nazio kontzeptuaren bitartez heldu behar izan genuen”*; *“Nazio kontzeptua erabili genuen, baina gure lehentasuna emakumeen eskubideak ziren”*.

UCKren agerpenak eta gatazka armatuaren areagotzeak ordura arte bi espazio berezietan banatutako emakumeek -independentziaren aldeko proiektuan batzuk eta emakumeen eskubideen babesean besteak- indarrak batu zituzten gerrari aurre egin eta indarkeriarik gabeko erresistentzia zibila indartzeko. Gatazkaren leherketak eragin zuzena izan zuen emakumeen ekintza kolektiboan, baina ez zuen gelditu: emakumeek gogor lan egin zuten herrialdean zein herrialdetik kanpo (errefuxiatuen kanpamentuetan edo atzerrian).

Kosovoko gatazka armatuan emakumeek izan duten irudi nagusia biktimarena da eta, neurri handi batean, haien genero rolak zaintzaren ingurura mugatu dira (Luci, 2002: 5), baina lurraldean iraun zuen emakume askok parte hartze aktiboa izan zuten gerran, bai UCKko borrokalari eta laguntzaile gisa eta baita bakearen aldeko aktibista gisa ere.

Emakumeek parte hartze txikiagoa izan zuten UCKn gizonen aldean, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa. Emakume borrokalarien kopurua ezezaguna bada ere, UCKren artxiboen arabera 300 emakumek izena eman zuten ofizialki (KGSC, 2008: 108). Beste iturri batzuen arabera, 857 emakume izan ziren izena eman zutenak, hau da, UCKren %3,33 (IOM [2000], hemen aipatua: KWN, 2011:73). Armak hartzeaz gain, emakumeen parte hartzea gerrillan beste modu batzuetan ere garatu zen; askok informazio eta komunikazio zerbitzuetan, arreta medikoan, elikagaien banaketan, edota babes lekuak eskaintzen jardun zuten, landa eremuetan batez ere.

Aldi berean, emakume askok jarrera aktiboa izan zuten bakegintzan, su-tena defendatuz eta aurkarien arteko elkarrizketa sustatuz. Testuinguru horretan nabarmena da emakumeek errefuxiatuen kanpamentuetan egindako lana (Luci eta Krasniqi, 2006: 217), emakumeen beharrak zein zirenen inguruan inposatu zen ikuspuntu maskulinoaren aurrean. Esaterako, nazioarteko presentzia handia izan arren, kanpamentuen segurtasun gabeziaren eta pairatzen zituzten erasoen aurrean protesta egiteko antolatu ziren<sup>18</sup>.

Emakumeek gerra garaiko emakumeen aurkako sexu indarkeriaren biktima izandako emakumeen defentsan ere jardun zuten, Jugoslavia ohiko beste gatazketan eta, bereziki, Bosnia-Herzegovinako gatazkan gertatu zen bezala, Kosovoko gerran ere emakumeen kontrako sexu indarkeria gerrako arma gisa erabili izanagatik ezaugarritu baitzen (HRW, 2000). Indarkeria horren biktima izandako emakumeen kopurua ezezaguna da oraindik (Wareham, 2000: 67): bertako zenbait erakunderen arabera, 20.000 emakume izan ziren (Ahmeti, 2010: 77) baina beste erakunde batzuen arabera, 10.000 eta 45.000 inguru izan ziren (HRW, 2000; KWN, 2008: 14)<sup>19</sup>.

---

18 Protesta deigarrienetarikoa batek Michael Jacksonen abesti ezagunetik eratorritako honako lelo hau erabili zuen: *"You don't really care about us"*.

19 Ia ezinezkoa da sexu indarkeriaren biktimen kopuru zehatza jakitea, asko erahil egin baitzituzten eta bizirik iraun zutenek ez baitzuten gertatutakoa salatu. Wareham-en arabera (2000: 67), jaiotza, abortu eta jaioberrien abandonu datuak erabiliz kalkulu bat egin zitekeen, baina hori ere ez zen guztiz zuzena izango.



Datu falta hau azaltzen duen arrazoietakoa bat da indarkeria mota honen biktimek pairatzen duten ostrazismo soziala. Tokiko kulturaren emakumeen kontrako sexu bortxaketa emakumeen kontrako erasoak izateaz gain komunitate osoaren kontrako erasoak ere bada. Ideia hau zuzenean erlazionatuta dago gatazka armatu testuinguruetan beste talde etnikoen genero identitatearengan erabilitako indarkeriak duen eraginarekin. Gatazkan, emakumeak ez ziren soilik beste talde etnikoko gizonen euren eta euren gorputzen aurka egindako eraso biktima; gizonen ere biktimatzen hartu zuten euren burua, beste etnia bateko gizonen “euren emakumeak” erasotu zituztelako eta ezin izan zituztelako babestu, euren “maskulinitatearen kontrako” erasotzen ere ulertuz (Luci, 2002: 5-6). Beraz, emakumeen kontrako indarkeria familien (Ahmeti, 2010: 78) eta komunitate etnikoaren ohorearen kontrako erasotzen hartu zen. Ondorioz, kasu gehienetan krimen hori isilean gorde zen eta, horregatik, ez dago krimen horien inguruko datu zehatzik.

Kosovoko emakumeen kontrako sexu indarkeriak honako ezaugarri hauek izan zituen (Wareham, 2000: 61-66): a) helburu nagusia albaniar jatorriko biztanleen garbiketa etnikoa zen; b) identifikatutako erantzule gehienak Serbiako polizia eta/edo paramilitarrak ziren; c) emakumeak gizonengandik banatu eta, normalean taldeka, fabriketan, meskitetan, eskoletan edo bestelako eraikin publikoetan giltzapetzen zituzten. Hala, emakumeek, etengabeko sexu bortxaketak jasateaz gain, soldaduentzat janaria prestatu eta garbitu behar izaten zuten; d) normalean, sexu bortxaketak 2tik 12ra arteko gizon taldeek egiten zituzten; eta e) bortxaketak “basatiak” izaten ziren: taldekako bortxaketez gain, drogak erabiltzen zituzten biktimek gertatutakoa gogora ez zezaten; emakumeen gorputz atalak (bularrak, genitalak, aurpegia, etab.) erre, zauritu, ebakiak egin edo serbiar irudi nazionalistekin tatuatzen zituzten, eta beste hainbat kasutan zuzenean erahil egiten zituzten. Emakumeen kontrako sexu indarkeria alde aurretik pentsatua eta planifikatua izan zen (HRW, 2000; Ahmeti, 2010) eta, ondoren, frogak guztiak ezabatzen saiatu ziren: “Krimenen frogak guztiak erre zituzten ‘lur erre’ operazioaren bitartez ebidentzia guztiak suntsituz”<sup>20</sup> (Ahmeti, 2010: 78).

Gerra osteko lehenengo hamarkada ia osoan, Kosovoko gizarteak emakumeen kontrako sexu indarkeriaren inguruan “itxurazko amnesia kolektibo”-ko estrategia hartu zuen (Di Lellio, 2016: 13). Tradizio patriarkal indartsuak eragin handia izan zuen horretan: alde batetik, bizirik iraun zuten emakumeak isilik geratu ziren eta konfiantza handiko eremu oso pribatuetan

---

20 Ingelesez “*Schorched earth*”. Kontzeptu horrek edozein frogak suntsitzeko militar edo paramilitarrek krimenak egindako lurra erretzeari dagokio.

eta konfidentzialtasun akordioekin bakarrik hitz egin zuten horri buruz; bestetik, urte askoz, elite politiko berriak -tokikoa zein nazioartekoa- ezikusi egin zuen gaia, isiltasun orokorra sendotuz eta zabalduz. Gainera, gerra amaitu zenean familia testuinguruko indarkeriak (Corrin, 2003: 190; KWN, 2007: 5; Kelmendi, 2014: 18) eta emakumeen trafikoak gora egin zuten (Istrefi eta Qosaj-Mustafa, 2009). Aldi berean, emakumeek zailtasun handiagoak izan zituzten ekonomia formalean sartzeko eta, orokorrean, baliabide sozialak lortzeko. Testuinguru horretan, gerraostea emakumeentzat “bake oso ahul” batek ezaugarritu zuen (Corrin, 2003: 190).

Indarkeri armatuaren osteko espazio sozio-politiko berri horretan, lurraldearen berreraikuntzan eta bakegintzan gizonak izan dira protagonista ofizialak. Tokiko buruzagiak, Ibrahim Rugovaren LDK eta Hashim Thaçi eta UCKko beste zenbait kidek osatutako PDKren artean banatuta (esan bezala, ia osorik gizonak), espazio publiko osoa bereganatu zuten (Krasniqi, 2009)<sup>21</sup>, eta bere jarduera balore maskulinoak goraipamenean eta balore femeninoen pribatizazioan ezaugarrituz.

Nazioarteko instituzioek eta erakundeek Kosovon izan duten eraginaren eta alderdi berrien sorreraren ondorioz, Emakumeak, Bakea eta Segurtasuna izenburupeko NBERen 1325 Ebazpena (2.000. urtekoa) emakume mugimenduaren tresna nagusia izan da genero berdintasunaren defentsa egin eta berreraikuntza prozesuan euren parte hartze aktiboa aldarrikatzeko (Eifler eta Seifert, 2009; Lynne, 2009). Dena den, praktikan, gobernuko eta nazioarteko erakunde bakar batek ere ez du ebazpen hori kontuan hartu: tokiko instituzio berriak nazioarteko eskakizunak betetzeko lanean ari ziren bitartean, nazioarteko erakundeetako langile askok ez zuten ebazpenaren edo honen edukien berririk, edo bestela, ez zekiten nola aplikatu (KWM, 2001).

#### **4. Kosovoko emakumeen gerraosteko aktibismoa**

Gerraosteko testuinguruetan ikuspegi feminista eta generozkoa trantsiziozko justizia prozesuetatik baztertu ohi da (Mendia Azkue, 2012). Orokorrean, emakumeak bigarren maila batean geratzen dira gerratik bakerako trantsizioan eta, zentzu horretan, Kosovo ez da salbuespena izan.

Gerraostean emakumeek euren parte hartze politiko eta sozialarekin jarraitu dute, baina zailtasun handiei aurre egin behar izan dizkiete. Aipatutako genero

---

21 Hemen *Leviza Vetevendosjë!* alderdi politikoa ere sartzen dugu.

rolen birtradizionalizazioak eragina izan du emakumeen egunerokoan, baita haien aktibismoan ere (Luci eta Gusia, 2014: 207). Lehen esan bezala, gizonen espazio publikoa monopolizatu zuten eta emakumeak eremu pribatuan zokoratu zituzten. Nazioarteko komunitateak, bere aldetik, gerraosteko berreraikuntza prozesua zuzendu du, baina ez ikusi egin ditu emakumeek euren eskubide politikoen inguruan egindako eskaerak, eta ez da gai izan emakumeen kontrako indarkeria patroiak identifikatzeko eta aldatzeko. Hortaz, gerraostean ere patro horiek iraun dute. Tokiko agintariek, hedabideek eta nazioarteko erakunde gehienek emakumeak biktimatzat besterik ez dituzte hartu eta, beraz, ez dituzte hartu agentzia propioa duen subjektu politikotzat.

Emakumeen eskubideen, eta batez ere euren parte hartze politikoaren eta egia, justizia eta erreparazio eskubidearen aldeko ekintza kolektiboa, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibil garaian lan egiten hasitako talde eta erakunde independente beretsuek burutu dute.

Euren borrokan estrategia desberdinak erabili dituzte. Adibidez, Di Lelliok (2016) azpimarratzen duen bezala, erresistentzia zibilaren garaian, Serbiako Indar Armaturen eskutik, Kosovoko emakume albaniarren kontrako sexu indarkeriako lehenengo kasuak agertu zirenean, emakume taldeek indarkeria hori identifikatu eta dokumentatu zuten eta biktimei laguntza eskaini zieten. Gatazka armatuan, berriz, lan horrekin jarraitzeaz gain sexu indarkeriaren salaketa ere egiten hasi ziren, zeina Kosovoko albaniarren kausa nazionalaren aldeko argudio bezala ere erabili zen.

Dena den, gerra amaitutakoan, emakumeak berreraikuntza prozesu ofizialestatik baztertu dituzte eta ez da landu oinarririk emakumeek herrialdean abian jarritako egia, justizia eta erreparaziorako mekanismoetarako sarrera izan dezaten. Edonola ere, emakumeek lanean jarraitu dute gerraostean. Hala, *Kosovo Women's Network* (KWN) erakundeak rol nagusia izan du. 80 emakume taldek baino gehiagok osatutako erakunde hau bakearen eraikuntzaren subjektu nagusienetako batean bihurtu da<sup>22</sup>.

KWNren jarduera lau ardatz nagusitan garatu da: a) emakumeen parte hartze sozio-politikoaren sustatzea; b) emakumeen trafikoaren kontrako borroka; c) emakumeentzako kalitatezko osasun sistema baten defentsa; eta d) tokiko, eskualdeko eta nazioarteko aliantzak sortzea. Horretarako, sareak hainbat ekimen bultzatu du. Sarea hainbat ekimenen sustatzaile izan da, zeinak jarraian

---

22 Erakundea, ofizialki, 2003an, hau da, gerraostean sortu bazen ere, KWNren buru ziren eta hau osatu zuten emakumeak gatazka aurreko erresistentzia zibiletik izan ziren aktiboak.

aztertuko ditugun: sexu indarkeriaren biktimezako laguntza juridiko-legala Jugoslavia ohirako Nazioarteko Auzitegi Penalaren aurrean; Emakumeen Bake Koalizioa (*Women's Peace Coalition*); eta Emakumeen Auzitegia.

#### **4.1. Sexu indarkeriaren biktimezako laguntza juridiko-legala Jugoslavia ohirako Nazioarteko Auzitegi Penalaren aurrean**

KWNren ekintza nagusietako bat gatazka armatuan sexu indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzendutako laguntza juridiko-legala izan da. Akonpainamendu hau emakume aktibista horien lehenengo erronka izan da gerraosteko trantsiziozko justiziaren eremuan. Izan ere, ez Jugoslavia ohirako Nazioarteko Auzitegi Penalak ez bertako epai sistema berriak ez dituzte Kosovoko emakume albaniarren eskubideak kontuan hartu. Jugoslavia ohirako Nazioarteko Auzitegi Penalak sexu indarkeria larritasun handiko delitu gisa tipifikatu zuen Ruandarako Nazioarteko Auzitegiarekin batera, zeina nazioarteko zuzenbidearen aurrerapausotzat jo izan den. Dena den, kritikak ere jaso ditu, biktimek zailtasunak dituztelako haien justizia eskubidea erabiltzeko. Hala gertatu da Kosovoko sexu indarkeriaren biktimekin ere.

Eskualde osoan, Jugoslavia ohirako Nazioarteko Auzitegi Penalak 32 pertsona epaitu ditu emakumeen kontrako sexu indarkeria leporatuta. Kosovoren kasuan, gerrako krimenei dagokienez, auzitegiak hamaika kasu izan ditu (Amnistia Internacional, 2012: 9-10) eta, horietatik, lautan emakumeen kontrako sexu indarkeria ageri da, hain zuzen ere, Milosevic kasuan, Milutinovic *et al.* kasuan, Djordjevic kasuan eta Haradinaj *et al.* kasuan (*Ibid.*: 84)<sup>23</sup>. Auzitegiaren estatutuek Kosovo aipatzen badute ere, ondorengo dokumentuetan ez da aipatzen bertako gerran emakumeen kontra izandako genero indarkeria eta sexu indarkeriaren inguruko aipamenik (KWN, 2011: 82) eta ez da inor atxilotu eta epaitu krimen hori leporatuta<sup>24</sup>.

---

23 Milosevic epaitua izaten ari zenean hil zen; Haradinaj eta Milutinovic ez ziren kartzelara joan eta Djordjevic honako krimen hauengatik kartzelatu zuten, baina ez sexu indarkeriagatik: jazarpen politikoa, arragatikoa edo erlijiosoa, hilketa eta deportazioa, besteak beste.

24 Jugoslavia ohirako Nazioarteko Auzitegiaren ostean UNMIKek gerrako krimen desberdinak ikertu zituen, besteak beste, emakumeen kontrako sexu indarkeria. Dena den, kasu horien inguruko informazioa ez da jakitera eman. 2009an EULEXek Jugoslavia ohirako Nazioarteko Auzitegiak eta UNMIKek ikertu ez zituzten 1.187 gerra krimen kasu hartu zituen bere gain. Abuzturako, EULEX 50 kasu ikertzen hasi zen baina beste 1.009k itxaron zerrendan zeuden. Gainera, beste 158 frogak faltagatik baztertu zituzten. 2009 amaierarako, EULEXek lau gerrako krimen epaitu zituen. Hala ere, horietan ez zen emakumeen kontrako sexu indarkeria Serbiako armadari edo UCKri leporatzeko moduko gerrako krimen gisa agertzen (KWN, 2011: 88-89).

Biktimek auzitegi horren aurrean krimenak salatzeke zailtasun handiak izan zituzten, besteak beste, auzitegiaren egoitzara zegoen distantziagatik, salaketak onartzeko jartzen zituen baldintzengatik, zein epai prozesuek berek biktimengan zuten “birbiktimizazio” efektuagatik. Gainera, beharrezkoa da Jugoslavia ohirako Nazioarteko Auzitegi Penalarekin erlazioa zailtzen zuten beste faktore batzuk aipatzea ere: biktimen eta lekukoaren babes falta, eta sexu indarkeriaren biktimen ezintasuna gertaera hauek publiko egin gabe salatzeke<sup>25</sup>.

Orokorrean, sexu indarkeriaren biktima diren emakumeek gertatutakoa salatzeke errezeloak izan dituzte, horri lotutako estigma oso handia delako. Kasu gehienak ez dira salatuak izan, eta salatuak izan diren kasuetan, prozesuak ez dira amaitu.

Bizirik iraun duten emakume askorentzat, KWN oinarri leial bat izan da, izan ere, biktimen egoera oso ahula izanik, sare horrek salaketak kudeatu eta akonpaniatu ditu. Bertako emakume taldeek biktimei lagundu, aholkatu eta babesteko lana hartu dute euren gain, epaiketa prozesuak eurak ere, askotan, segurtasun ezazko egoera larriak sortzen baitzituzten. Sexu indarkeriaren ikuspegi kulturalaren ondorioz, bizirik iraun eta krimen hau salatu duten emakumeek ostrazismo soziala jasateko arriskuari aurre egin behar izan diote (baita euren familien gaitzespena eta kanporaketa ere). Salatu ez dutenek (gehienek), ordea, trauma horren ondorioei egunerokotasunean, isilean eta laguntzarik gabe aurre egin behar izan die.

## 4.2. Emakumeen Bake Koalizioa

2006an Serbiak eta Kosovok azken horren estatus ofiziala eztabaidatzeko negoziazio ofizialak hasi zituzten. Horietan eragina izateko asmotan, KWNk harremana indartu zuen Serbiako hainbat emakume erakunderekin, Belgradeko Beltzeko Emakumeekin, besteak beste. Emakumeen Bake Koalizioaren bitartez, Serbiako eta Kosovoko hainbat emakumek Pristina eta Belgradeko agintariak kritikatu zituzten, emakumeak negoziazioetatik baztertzea eta euren parte hartzea eragozteko leporatuz. Koalizioak negoziazioen jarraipena egin zuen genero-ikuspegitik eta eskualdeko emakumeen arteko elkartasuna landuz eta muga nazional eta etnikoen gainetik (Zagović, 2006: 26).

---

25 Biktimek eta lekukoek Belgradera bidaiatu behar zuten, auzitegiaren egoitzara. Bertan epaimahaiaren itaunketei eta, kasu batzuetan, erasotzaileei ere aurre egin behar zieten eta, orokorrean, ez zuten aldeko epaia lortzen. Gainera, ehunka emakumerentzat prozesu hori ezinezkoa izan da, inolako azalpenik gabe Belgradera bidaiatzeko askatasunik ez zutelako.

Hasiera batean, ekimenaren ardatz nagusia emakumeen parte hartze politikoa sustatzea eta eskualdean 1325 Ebazpena aplikatzen laguntzea bazen ere. Emakume talde horien arteko lankidetzak Belgrad eta Pristinaren arteko negoziazioetan eragitean oinarritu zen. Adibidez, negoziazioak barne hartu zituen eraikinaren kanpoko aldetik, horien jarraipen egin zuten eta, eskutitz bidez, kritikak eta zuzenketa bidaltzen zizkieten bi gobernuetako agintariei.

Aldi berean, ekimen hau serbiar eta albaniar komunitateek trantsiziozko justiziaren kontzeptu eta praktika ikuspuntu feminista eta generozkoarekin izandako lehen kontaktua ere izan zen. Adibidez, bere lehenengo batzar orokorrean, Emakumeen Bake Koalizioak lehenengo urrats bat egin zuen justizia leheneratzailearen esparruan. Serbiarren eta albaniarren arteko harremanak berreraikitze helburuarekin, emakume serbiarrek herrikideek euren izenean egindako krimenengatik barkamena eskatu zieten emakume albaniarrei. Era berean, Serbiako gobernuak publikoki eta ofizialki barkamena eskatu behar zuela adierazi zuten<sup>26</sup>.

Denborarekin, bi faktorek eragin dute Koalizioaren funtzionamenduaren gainbehera: alde batetik, ekimena mantentzeko finantzamendu falta eta, bestetik, emakume albaniarren dokumentazio ofizialarekin zituzten arazoak, zeinak zaildu egiten zuen euren parte hartzea Koalizioaren batzarretan<sup>27</sup>. Aldi berean, ekimenaren lehentasunak aldatu behar zirela erabaki zen, negoziazioetan eragitetik trantsiziozko justizia prozesuan eragiteko. Honek proiektu berri baten sorrera bultzatu zuen zen, Emakumeen Auzitegia.

### 4.3. Emakumeen Auzitegia

Emakumeen Auzitegia (*Women's Court*)<sup>28</sup> auzitegi sinbolikoa da, 1990eko hamarkadan Jugoslavia ohiko errepubliketan izandako gerretan emakumeen kontra egindako krimenak epaitzeko sortuatakoa. Auzitegia

---

26 Komunitate bietako emakumeek egoera desberdinak bizi izan zituzten euren lurraldera bueltatutakoan: emakume albaniarrek heroitzat hartu zituzten eta serbiarrek jazarpena eta erasoak pairatu zituzten.

27 Albaniar herritar gehienek ez dute pasaporte ofizialik haien agiriak gerran suntsitu baitzituzten. Batzuek UNMIKek egindako pasaporteak dituzte eta horiek herrialde batzuetan balio dute, baina ez Serbian. Beraz, ondoko herrialdeak onartzen dituzten agiri ofizialak ez dituzten pertsonak ezin dute Kosovotik legez irten.

28 Ekimenak bere izena *Women's Court* dela azpimarratzen du, eta ez *Women's Tribunal*, lehenengo forma horrek proiektuari justiziarekin lotutako ikuspegi zabalagoa ematen diolakoan. Ikus: <<http://www.zenskisud.org>.

Emakumeen Bake Koalizioaren dinamiketarik jaio zen, eta neurri handi batean, Belgradeko Beltzeko Emakumeek zuzendu zuten. *Justiziaren ikuspegi feminista* lelopean, ekimenak abiapuntuztat hartu zuen tokiko edo eskualdeko prozesu bakar batek ere ez zituela emakumeen kontrako indarkeria forma desberdinak kontuan hartu, eta, era berean, prozesu batek ere ez zituela aintzat hartu emakumeek trantsiziozko justiziaren esparruan egindako ekarpenak (Zagovic, 2015: 13).

Emakumeen Auzitegiak emakumeek eremu publikoan zein pribatuan jasaten duten indarkeria ikusgai jartzeko bidea zabaldu du. Horretarako milaka biktima eta lekukoren testigantzak bildu ditu, eta emakumeen ahotsak entzunak eta euren erresistentziak aintzat hartuak izan daitezten, emakumeen lekukotasunentzat espazio bat sortu nahi izan du (Women in Black Belgrade, 2015: 4).

Emakumeen Auzitegia, ofizialki, 2010ean sortu zen, zazpi erakunde osatuta. Gaur, ordea, 10 erakunde osatzen dute eta Belgradeko Beltzeko Emakumeek koordinatzen dute. Harreman dinamika horizontalen bitartez antolatzen da eta “pedagogia feminista” (Bennoune, 2015) jarraitzen du, Jugoslaviako ohiko gatazka armatuen eta trantsiziozko justiziaren ikuspegi feminista eta anitza birpentsatuz.

Kontuan hartuta trantsiziozko justiziarako erakunde ofizialek emakumeen esperientziak alboratu izan dituztela, bere hasieratik, ekimen hau auzitegien kontzeptuaren eta praktikaren “berrirudikatze feminista” gisa definitu da (*Ibid.*), non biktimak justizia prozesuaren oinarria eta muina diren, kontutan hartuta ofizialki trantsiziozko justiziarako ezarritako erakundeek emakumeen esperientziak bazterrean utzi dituztela. Hortik abiatuta, emakume biktimei zuzendutako zaintzaren etika feminista gakoetako bat izan da, eurentzako espazio libre eta seguru bat lortzeko helburuz (Zagovic, 2015: 16).

Marieme Helie Lucasen (2015) arabera, Emakumeen Auzitegiak baditu beste auzitegi batzuetatik bereizten dituen ezaugarriak: alde batetik, prestaketa eta antolaketa prozesuak bost urte eta eremu ikerketa sakon eta zabala behar izan ditu Jugoslavia osoan biktimak eta lekukoak topatzeko eta haien lekukotasunak biltzeko<sup>29</sup>; bestetik, biktimek bere egin dute prozesua eta eurek identifikatu dituzte honen helburuak, egitura, jardunbidea eta ezaugarriak. Hala, bada, Helie Lucasen hitzetan, “ez da aurreko emakume auzitegien esperientzietatik inportatutako eredu predeterminatu baten aplikazioa izan”.

---

29 Aurreko prestaketari buruzko informazio gehiagorako, ikus: Zagović, 2015.

Beste alde batetik, ekimenak gatazka armatuan egindako krimenen erantzukizunaren aurrean dagoen onarpen ezari aurre egin behar izan dio. Orokorrean, herritarrek ez dute ikuspegi hori. Izan ere, Jugoslavia ohiko lurralde desberdinetan bizirik dirauten nazionalismoen ondorioz, erantzukizunak “beste” nazioei eta estatuei leporatzen zaizkie eta norberaren komunitateari leporatzen zaizkion krimenak ukatzen dira edo garrantzia kentzen zaie.

Emakumeen Auzitegiaren lehenengo entzute publikoa Sarajevon egin zen, 2015eko maiatzaren 7tik 10era. Hemen, hainbat emakumek euren lekukotza eman zuten gatazka armatuetan eta horien ostean pairatutako indarkeria mota desberdinen inguruan. Kosovoko emakumeek, Kosovoko Emakumeen Sarearen (KWN) bitartez, parte hartze zuzena izan zuten Emakumeen Auzitegiaren sorreran. Izan ere, aipatu bezala, Emakumeen Auzitegia KWNk eta Belgradeko Beltzez jantzitako Emakumeek bultzatutako Emakumeen Bake Koaliziotik eratorri baitzen<sup>30</sup>. Sarajevon ospatutako Emakumeen Auzitegiaren lehenengo entzunaldian Kosovoko bost emakumek parte hartu zuten guztira. Vjollca Krasniqi (2015: 2) irakasle eta ikertzaile kosovarrak honela deskribatzen du parte hartze hori:

*“Gerrako indarkeriatik bizirik irtendako emakume gisa zutitu ziren. Kosovoko eta beste zenbait lekuko ehun milaka emakume ordezkatu zituzten. Horientzat guztientzat emakume horien lekukotzak gerran eta indarkerian bizi izandako esperientzia erakusten du. Lekukotza horiek estigma, isiltasuna eta amnesia baino indartsuagoak dira. Deskribatutako indarkeria ohiko justiziak irudikatutakoa baino askoz ere konplexuagoa da. Lekukotzak norberarenak dira baina indarkeria metodo instituzionalak erakusten dituzte, gerrako ekonomia politiko eta kriminaltasun sistema baten parte diren metodoak eta konpromiso larro lausoak dituzten eragile asko hartzen dituenak, indar militar, polizial, paramilitar, mertzenarioak eta mafiak tarteko, gehien bat populazio zibilaren aurka: emakumeak, neska-mutilak, gizon gazteak eta nagusiak”.*

Emakumeen Auzitegian Kosovoko emakumeen presentzia eskasa izan dela esan daiteke, eta honek nagusiki bi faktoreri erantzuten dio: lehenik,

---

30 Auzitegia Belgradeko Beltzeko Emakumeek koordinatu dute ekimenari eskualdeko ikuspegia emateko.



prozesuaren hizkuntza nagusia serbiarra izan da, hortaz, hizkuntza menperatzen ez duten biktimentzat zaila izan da bertan parte hartzea<sup>31</sup>; eta, bigarrenik, eremu ikerketa zabala egin bada ere -Kosovoko hiriak eta, bereziki, landa eremuak barne hartu dituen-, arrazoi desberdinengatik (lekukotza emateko errezeloak, bertaratzeko zailtasunak, etab.) zaila izan da auzitegian parte hartzeko gogoia edo ahalmena zuten emakume biktimak aurkitzea.

Aldi berean, kontuan hartu behar da gatazka armatuan Kosovoko emakumeek pairatutako indarkeriaren inguruan dagoen isiltasuna, zeina artean indarrean zegoen Auzitegiaren antolakuntza prozesuan. Lurraldeko hainbat tokitan, eremu pribatuko indarkeria legitimatuta dago, eta, beraz, emakume askorentzat zaila da oso hau bidegabetzat hartzea. Indarkeria hori zapalkuntzatzat jotzen denean, maiz emakume hauek ez daude hori salatzeko edo Emakumeen Auzitegia bezalako prozesuetan parte hartzeko prest, horrek izan ditzakeen ondorioengatik.

#### **4.4. Sexu indarkeria biziraun duten emakumeen eskubideen aldeko borrokaren berrindartzea**

Kosovoko emakumeek hamarkada bat baino gehiago eman dute egia, justizia eta erreparazioa eskatzen, eta hori genero ikuspegi batetik egiteko aldarrikatzen. Dena den, borroka hori oraintsu hasi da tokiko eta nazioarteko begiradak erakartzen, eta hau emakumeen lanari zor zaio, neurri handi batean.

Adibidez, 2014an, Biktimen Legea onartu zen, Kosovoko trantsiziozko justizia mekanismo berri gisa, baina lege horrek ez zituen emakumeak aipatzen, ez gatazka armatuko biktima zuzen bezala eta ezta zeharkako biktima gisa ere. Honen aurrean, emakumeek biktimen eskubideen aldeko borroka berpiztu zuten. KWNk legea aldatu eta honen baitan gerrako sexu indarkeria pairatutako emakumeak aintzat hartzeko kanpaina hasi zuen. Azkenean, 2014ko martxoan aldaketa hori lortu zen eta sexu indarkeriaren biktimak lege kategoria desberdin batean sartu ziren, zeinak kategoria aitorten juridiko eta soziala eman zien.

Biktimen Legea aldatu ondoren, artean Kosovoko presidente zen Atifete Jahagak Sexu Indarkeriaren Biktimen Batzorde Nazionala (*National Council*

---

31 Kosovoko albaniarrek indarkeriaren biktima nagusia izan ziren Kosovon 1990eko hamarkadan. Hauek Balkanetako beste errepublikan desberdinak diren ezaugarriak dituzte, besteak beste, hizkuntza eta kultura desberdinak.

on *Wartime Rape Survivors*) osatu zuen 2016. urtean<sup>32</sup>. Horren bitartez, Jahagak KWNren ekintza gobernu mailan sendotzen lagundu zuen. Batzordeak, hasiera batean, bost urtez luzatuko du bere egitekoa. Organismo horri esker, biktimek ez dute lekukorik edo frogarik aurkeztu beharko salaketaren momentuan eta bizirik iraun duten biktimen errehabilitazioa lortzeko pausoak ematea aurreikusten da, besteak beste, justizia, pentsio bat -biktimen legeak aipatzen ez badu ere-, lan merkatuak sarbidea eta mediku arreta eta psikologikoa.

Azken urteotan, kanpaina berriak garatu dira, bai tokiko zein nazioarteko mailan, gatazka garaian sexu indarkeria pairatutako emakumeen defentsarako. Kanpaina horien artean bik garrantzi handia izan dute, biak 2016ko udan egindakoak: gerrako indarkeria sexuala salatzen duen *Mendoj për ty* (*zuga pentsatzen* albanieraz) instalazio artistikoa eta *Heroinat* (*Herioiak* albanieraz) memoriala, emakumeen sufrimendua eta ekarpenak aintzat hartzea helburu duena.

*Mendoj për ty* ekintzarako 5.000 soineko eta gona baino gehiago eskegi zituzten Pristinako estadioa alderik alde gurutzatuz jarritako soketatik. Horren bitartez, sexu indarkeria pairatu eta bizirik iraun zuten emakumeak gogorarazi nahi zituzten. Instalazioa prestatzeko arropak herrialde osoan eta diasporan bildu ziren. Bere aldetik, *Heroinat* memoriala Ingurumen eta Espazioaren Planifikazio Ministerioak eraiki zuen hiriburuaren erdigunean, eta emakumeek gerran izandako rola gogorarazten duen lehenengo monumentua da.

Ekintza bi horiek gerra garaiko emakumeen kontrako sexu indarkeriaren inguruan hamarkada bat baino gehiagoko isiltasuna hausten lagundu dute. Ez dira soilik mesedegarriak izan emakumeen eskubideen defentsarako, sexu indarkeria eta bere ondorio larriak gerrako arma gisa erabili direla onartzen ere lagundu dute.

## 5. Ondorioak

Trantsiziozko justiziarri dagokionez, Kosovo “kasu zail”-tzat kalifikatu da eskualdean (Rother, 2007: 8). Jugoslavia ohiko beste herrialdeekin alderatuta, gatazka lehenago hasi zen eta giza eskubideen urraketa masiboak gehiago luzatu dira. Hala ere, gerra irekiko garaia laburragoa izan da. Albaniar jatorriko 3.000 pertsona inguruk desagerturik jarraitzen dute eta atzerrian edo

---

32 Batzordea martxan jartzeko beharrezkoak diren arauak 2016ko otsailean zuzendu eta onartu dira baina oztopoz beteriko prozesu luzea izan da.

desplazaturik bizi diren pertsonen kopurua oso handia da oraindik. Horiei eta giza eskubideen beste urraketeki dagokienez, inpunitate handia dago, eta salatutako kasuen atzerapen judiziala handia da. Horrek guztiak kaltetutako emakumeen biktimizazioa areagotzen du.

Emakumeen parte hartzeari dagokionez, subjektu aktiboa izan ziren 1990eko hamarkadan garatutako indarkeriarik gabeko erresistentzia zibilean, gatazka armatuan eta gerraosteko bake eraikuntzan. Baina parte hartze hori ez dute aintzat hartu; aitzitik, emakumeak erabaki politikoak hartzeko espazioetatik baztertu dituzte. Hori dela eta, tresna propioak sortu eta garatu dituzte emakumeek, eta horien bitartez trantsiziozko justizia prozesuan duten eragina areagotu dute. Tresna horiek gakoak izan dira Kosovoko emakumeek egia, justizia eta erreparazio eskubidearen defentsan aurrera egin dezaten.

Lan hau alderdi politikoetatik independenteak diren emakume talde eta erakundeek egin dute gehienbat, eta hemen, KWN emakume talde sarea ardatz nagusietako bat izan da, zeina erresistentzia zibiletik martxan dagoen eta gatazkako biktimei laguntza eta arreta zuzena eskaintzeaz gain, Kosovoko emakumeen eskubideen babesa sustatu duen tokiko, eskualdeko eta nazioarteko eremuetan. Hemen, Emakumeak, Bakearen eta Segurutasunaren inguruko NBEren 1325 Ebazpena bere tresna nagusienetakoa izan da.

Kapitulu honetan Kosovoko emakumeen aktibismoak trantsiziozko justiziaren inguruan egindako hiru ekimen nabarmen aurkeztu ditugu: Jugoslavia ohirako Nazioarteko Auzitegi Penalaren aurrean gatazka armatuko sexu indarkeriaren biktimei emandako laguntza juridiko-legalak; Serbiako eta Kosovoko Emakumeen Bake Koalizioaren sorrera; eta eskualde mailako Emakumeen Auzitegia. Lehenengo prozesuaren bitartez biktimei, bereziki auzitegiaren aurrean salaketak egin zituzten emakumeei, babesa, zaintza eta laguntza eskaini zitzaizkien estigma sozialaren eta birbiktimizazioaren aurrean. Bigarren ekimenarekin, hainbat emakume serbiar eta kosovarrek indarrak batu zituzten subjektu politiko gisa Kosovo eta Serbiaren arteko negoziazioetan eragiteko. Hau ondoren sortuko zen Emakumeen Auzitegiaren erroa izan.

Emakumeen Auzitegiak gerraren eta bere ondorioen inguruan emakumeen egia eta memoria berreskuratu eta kontatzeko beharrari erantzuna eman zion, ikuspuntu feministatik. Kosovoko emakumeek auzitegi horretan izan zuten parte hartzea txikia izan bada ere, bertako emakume biktimeen egoera eta emakumeek beren eskubideen defentsan egindako ekintza kolektiboaren indarra eta eragina argitzen lagundu du. Gerrak emakumeen bizitzetan dituen

ondorioak ezagutzera eman ditu (Krasniqi, 2015), eta haien erresistentzia ahalmena aintzat hartu. Bakearen eraikuntzan genero ikuspuntua txertatzearen erakusgarria izan da, bai eta justiziarako eta egiarako esku hartze bat ere.

Azkenik, 2016an bi ekimen nagusik egiaren, justiziaren eta erreparazioaren aldeko emakumeen borroka sustatu dute: gobernu mailan, gerrako indarkeria sexualaren biktimen batzorde nazionalak emakume biktimei laguntza zuzena eskaini nahi die; eta, *Mendoj për ty* eta *Heroinat* ekimenei biktimak ikusgai jartzen eta emakumeen borrokaren oroimena sustatzen lagundu dute.

Egindako aurrerapausoak gorabehera, gatazka armatuan sexu indarkeria pairatu eta bizirik iraun duten emakumeen egoera kritikoa da, oraindik ere. Auzia kolektiboki ekitea oztopatzen duten traba sozial eta kulturalen ondorioz, emakume gehienek ez dute gertatutakoa salatu. Hortaz, biktimek ezin dituzte dauden laguntza mekanismo urriak erabili. Aldi berean, Kosovoko emakumeek euren parte hartze sozial eta politikorako eskubidea oztopatzen duten muga historikoei aurre egiten jarraitzen dute.

## Bibliografia

Ahmeti, Sevdije (2010): “Beyond Nationalism: Ten Years after the Balkan Wars – The situation of Women in the States of Former Yugoslavia”, Heilberger, Irmgard eta Barbara Lochbihler (arg.): *Listen to Women for a Change: 25 Years after the Beijing Conference on Women – 15 years after the Peacetrain: Balances and Outlooks*, Greens/EFA Europako Parlamentuan eta WILPF, Brusela eta Berlin, 73-80.

Amnesty International (2012): *Kosovo: Time for EULEX to Prioritize War Crimes*, Londres.

Bennoune, Karima (2015): “The Women’s Court: A Feminist Approach to Justice”, *Popular Resistance*, <<https://www.popularresistance.org/the-womens-court-a-feminist-approach-to-justice/>>.

Biserko, Sonja (2012): *Yugoslavia’s Implosion. The Fatal Attraction of Serbian Nationalism*, The Norwegian Helsinki Committee, Belgado.

Clark, Howard (2000): *Civil Resistance in Kosovo*, Pluto Press, Londres.

Cocozzelli, Fred (2009): “Critical Junctures and Local Agency: How Kosovo Became Independent”, *Southeast European and Black Sea Studies*, 9(1), 191-208.

- Corrin, Chris (2003): "Developing Policy on Integration and Re/Construction in Kosova", *Development in Practice*, 13(2-3), 189-207.
- Deimel, Johanna (2015): "The International Presence in Kosovo, 1999-2008", Ramet, Sabrina P., Simkus, Albert eta Ola Listhaug (arg.): *Civic and Uncivic Values in Kosovo: History, Politics, and Value Transformation*, Central European University Press, Budapest eta New York, 119-141.
- Di Lellio, Anna (2016): "Seeking Justice for Wartime Sexual Violence in Kosovo: Voices and Silence of Women", *East European Politics and Societies and Cultures*, 20(10), 1-23.
- Di Lellio, Anna (2013): *Transitional Justice Entrepreneurs and Victims' Agency. The Case of Kosovo*, Paper, ECPR 7. Konferentzia Orokorra, Bordele, <<https://ecpr.eu/Events/PaperDetails.aspx?PaperID=4974&EventID=5>>.
- Di Lellio, Anna y Caitlin McCum (2012): "Engineering Grassroots Transitional Justice in the Balkans: The Case of Kosovo", *East European Politics and Societies*, 27(1), 129-148.
- Eifler, Christine y Ruth Seifert (arg.) (2009): "Gender Dynamics and Violent Conflict", *Gender Dynamics and Post-Conflict Reconstruction*, Peter Lang, Frankfurt am Main, 13-20.
- Halili, Dafina (2015): *Missing Closure*, abuztuaren 30ean, <<http://kosovotwopointzero.com/en/missing-closure/>>.
- Humanitarian Law Center (HLC) (2012): *Transitional Justice in Post-Yugoslav Countries. Report for 2010-2011*, Belgrado.
- Humanitarian Law Center (HLC) (2001): *Kosovo Memory Book. 1998-2000*, <[http://www.kosovskaknjigapamcenja.org/?page\\_id=29&lang=de](http://www.kosovskaknjigapamcenja.org/?page_id=29&lang=de)>.
- Human Rights Watch (2000): *Kosovo: Rape as a Weapon of 'Ethnic Cleansing'*, New York.
- Istrefi, Remzije eta Ariana Qosaj-Mustafa (2009): "Trafficking of Women in Post-Conflict Regions: The Case of Kosovo", Eifler, Christine eta Ruth Seifert (arg.): *Gender Dynamics and Post-Conflict Reconstruction*, Peter Lang, Frankfurt am Main, 115-133.
- Judah, Tim (2000): *Kosovo, War and Revenge*, Pluto Press, Londres.
- Kelmendi, Kaltrina (2014): "Domestic Violence Against Women in Kosovo: A Qualitative Study of Women's Experiences", *Journal of Interpersonal Violence*, 1-23.

- Kosovo Gender Studies Centre (2008): *History is Herstory. The History of Women in Civil Society in Kosovo 1980-2004*, Pristina.
- Kosovo Women's Network (2011): *1325 Facts and Fables: A Collection of Stories about the Implementation of United Nations Security Council Resolution 1325 on Women, Peace and Security in Kosovo*, Pristina.
- Kosovo Women's Network (2008): *Explanatory Research on the Extent of Gender-Based Violence in Kosovo and Its Impact on Women's Reproductive Health*, Pristina.
- Kosovo Women's Network (2007): *Monitoring Implementation of United Nations Security Council Resolution 1325 in Kosova*, Pristina.
- Krasniqi, Vollca (2015): *Women's Court for the Former Yugoslavia: Seeking Justice, Truth, and Active Remembering*, <[http://www.zenskisud.org/en/pdf/Vjollca\\_Krasniqi\\_eng.pdf](http://www.zenskisud.org/en/pdf/Vjollca_Krasniqi_eng.pdf)>.
- Krasniqi, Vollca (2009): "The Gender Politics of Post-War Reconstruction in Kosova", Eifler, Christine eta Ruth Seifert (arg.): *Gender Dynamics and Post-Conflict Reconstruction*, Peter Lang, Frankfurt am Main, 155-168.
- Luci, Nita (2002): "Endangering Masculinity in Kosova: Can Albanian Women Say no?", *Anthropology of East Europe Review*, 20(2), 71-79.
- Luci, Nita y Linda Gusia (2015): "Our Men Will Not Have Amnesia: Civil Engagement, Emancipation, and Transformations of the Gendered Public in Kosovo", Ramet, S., Simkus, Albert eta Ola Listhaug (arg.): *Civic and Uncivic Values in Kosova: Value Transformation, Education, and Media*, Central European University, Budapest, 199-219.
- Luci, Nita y Vollca Krasniqi (2006): *Politics of Remembrance and Belonging: Life Histories of Albanian Women in Kosova*, Centre for Research and Gender Policy, Pristina.
- Lynne, Alice (2009): "The UN's Global Gender Agenda and Post-Conflict Reconstruction: The Implementation of the United Nations Security Council Resolution 1325 in Kosovo", Eifler, Christine eta Ruth Seifert (arg.): *Gender Dynamics and Post-Conflict Reconstruction*, Peter Lang, Frankfurt am Main, 49-70.
- Malcom, Noel (1999): *Kosovo, a Short History*, New York University Press, New York.
- Maliqi, Shkëlzen (1998): *Separate Worlds: Reflections and Analyses 1989-1998*, Dukagjini&MM, Pristina.

- Maliqi, Shkëlzen (1994): “Self-Understanding of the Albanians in Nonviolence”, Janić, Dušan eta Shkëlzen Maliqi (arg.): *Conflict or Dialogue: Serbian-Albanian Relations and Integration of the Balkans*, European Civil Centre for Conflict Resolution, Subotica, 237-247.
- Maliqi, Shkëlzen (1989): “The Kosovan Intifada”, Magas, Branka (1993): *The Destruction of Yugoslavia: tracking the Breakup 1980-1992*, Verso, Londres eta New York, 180-186.
- Mendia Azkue, Irantzu (2012): “Justicia Transicional: Dilemas y crítica feminista”, *Lan-Koadernoak Hegoa*, 59, <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publicaciones/300>>.
- Perriello, Tom eta Marieke Wierda (2006): *Lessons from the Deployment of International Judges and Prosecutors in Kosovo*, International Center for Transitional Justice, New York.
- Poulton, Hugh eta Miranda Vickers (1997): “The Kosovo Albanians: Ethnic Confrontation with the Slav State”, Poulton, H. y Suha Taji-Farouki (arg.): *Muslim Identity and the Balkan State*, Hurst&Company eta The Islamic Council, Londres, 139-169.
- Pula, Besnik (2004): “The Emergence of the Kosovo ‘Parallel State’ 1988-1992”, *Nationalities Papers*, 32(4), 797-826.
- Ramet, Sabrina (2012): *Balkan Babel: The Disintegration of Yugoslavia from the Death of Tito to the Fall of Milosevic*, Westview Press, Boulder (Colorado).
- Ramet, Sabrina, Albert Simkus eta Ola Listhaug (2015): *Civic and Uncivic Values in Kosovo: History, Politics, and Value Transformation*, Central European University Press, Budapest eta New York.
- Ristic, Marija (2016): *Can the New Kosovo Court Keep Witnesses Safe?*, *urtarrilaren 20an*, <<http://www.balkaninsight.com/en/article/can-the-new-kosovocourt-keep-witnesses-safe--01-20-2016>>.
- Ristic, Marija (2015): *Kosovo’s New War Court: How Will It Work?*, *abuztuaren 6an*, <<http://www.balkaninsight.com/en/article/how-will-special-kosovo-courtwork--08-05-2015>>.
- Rother, Tanja (2007): *Remembering the Past to Live the Future. Approaches and challenges for the Civil Peace Service in Kosovo*, Forum ZFD, Belgrado.

Taibo, Carlos (1999): *Para entender el conflicto de Kosova*, Los Libros de la Catarata, Madril.

Wareham, Rachel (2000): *No Safe Place: UNIFEM Commissioned Assessment of Violence against Women in Kosovo Albanian Community*, UNIFEM, Pristina.

Women in Black Belgrade (2015): *Women's Court: About the Process*.

Pantovic, Milivoje (2016): *Over 10,000 Still Missing from Yugoslav Wars*, abuztuaren 30ean, <<http://www.balkaninsight.com/en/article/over-10000-peoplestill-missing-in-former-yugoslavia-08-30-2016>>.

Zagović, Stasa (2015): “The Women’s Court – A Feminist Approach to Justice: Review of the Process of Organizing of the Women’s Court”, Women in Black Belgrade (arg.): *Women's Court: About the Process*, 6-67.

Zagović, Stasa (2006): *Always Disobedient*, Women in Black Belgrade.

Zupan, Natascha (2006): “Facing the Past and Transitional Justice in Countries of Former Yugoslavia”, Fischer, Martina (arg.): *Peacebuilding and Civil Society in Bosnia-Herzegovina. Ten Years after Dayton*, Lit Verlag, Münster, 327-342.





## **II. Kapituluua.**

# **Actoras de Cambio Guatemalan: emakumeen gorputza eta bizitza justiziaren xede**

*Amandine Fulchiron*



## 1. Sarrera

Kapitulu honetan, Guatemalako emakumeak justizia lortzeko egiten ari diren borrokari buruzko hainbat ideia azalduko ditut, eta ideia horiek Actoras de Cambio erakundearen esparruan burututako hausnarketa kolektiboen ondorio dira<sup>1</sup>. Sexu-bortxaketa genozida euren gorputzetan bizi izan duten eta bizirik atera diren emakumeen ahots eta esperientziez elikatutako hausnarketak dira; emakume horiek isiltasuna hautsi eta errua aldea batera uztea lortu dute, euren historia jendaurrean azaldu nahi izan dute emakume gehiagok berdina jasan behar izan ez dezan, eta emakumeen artean antolatzen hasi dira horrelakorik ez errepikatzeko baldintzak sortzearen beren komunitateetan eta herrialdean. Justiziari buruzko teorizazioa egiteko ahalegina da, maia emakumeen bizimodu errealean oinarrituta, bizi izan dituzten bidegabekeria sakonetan oinarrituta eta emakume horientzat justizia eta erreparazioa ekarri dituzten prozesu sozial zehatzetan oinarrituta.

Historian argi eta garbi ikusi izan da behin eta berriro justizia-sistema bidegabea dela emakumeekin, eta are gehiago maia emakume nekazari analfabetoekin. Horregatik, erronka zera da, mendebaldeko Estatu modernoak garatu duen justiziaren ikusmolde hegemoniko horretatik deszentralizatzea. Sexu-krimenek gizartearen eta erakundeen zigorgabetasunaren babesa izaten dute sistematikoki, eta horren ondorioz, feministok ikuspegia aldatzera behartuta gaude; emakumeen bizitza eta gorputza bihurtu behar ditugu justiziari buruzko gure proposamen filosofiko eta politikoen ardatz, ez Estatu feminizida eta kolonial baten arau eta prozesuak. Actoras de Cambio erakundeak hausnarketa egin eta bideari ekin dio Guatemalako gerran sexu-bortxaketa jasan eta bizirik atera diren maia emakumeekin batera, eta nik jarraian garatuko ditut hausnarketa eta bide horiek; izan ere, justiziaren bide osagarriak eraikitzeko prozesuan emakumeen sentipenak txertatzen dituen pedagogia egingarri bihurtzen dira; justizia erreparatzaile eta duintzailea da; sexu-bortxaketa genozidaren ondoren

---

1 2004. urteaz geroztik, Actoras de Cambio prozesu politiko, sozial eta komunitarioa bultzatzen ari da Guatemalako maia emakumeen aurka politika kontrainsurgente genozidaren esparruan sistematikoki eta modu masiboan egin diren sexu-krimenen inguruan isiltasuna urratu eta justizia egiteko. Kolektibo horrek memoria historikoko, sendatzeko eta autokontzientziako lan komunitarioa egiten du, bizirik atera diren emakumeen larruazalean inprimatutako izua eta lotsa desegituratzeko asmoz, gorputza errehabilitatu eta bizimodua berreraikitze asmoz, eta historiari beste esanahi bat emateko asmoz maia emakumeen ahotsetatik eta esperientzietatik abiatuta. Horretaz gain, emakumeen arteko antolaketa komunitarioa sustatzen du, horrelakorik berriro ez errepikatzeko bermeak sortzearen prebentzio-ekintza kolektiboen bitartez, sexu-indarkeria zigortzeko ekintza kolektiboen bitartez, elkarri lagunduta eta gorputza, bizitza eta lurraldea defendatuta. Ikus: <[www.actorasdecambio.org.gt](http://www.actorasdecambio.org.gt)>.

gorputza, bizitza eta komunitatea berriz bizitzea ahalbidetzen du beste toki batetik, toki duin, libre eta bidezko batetik, eta gizartea eraldatzeko aukera ere ematen du, emakumeen gorputzaren aurkako gerra desagerrarazteko.

Lehenik, laurogeiko hamarkadako Guatemalako gerra- eta genozidio-politikan sexu-bortxaketak eta maia emakumeen gorputz-suntsiketak zer eginkizun bete zuten aztertuko dut, baita gaur egungo proiektu neoliberal militarizatuetan zer nolako egitekoa betetzen duten ere, emakumeen bizitzak, gorputzak eta lurraldeak okupatu, gabetu eta ustiatzeko helburuarekin. Bigarrenik, sexu-krimenek maia emakumeen bizitza pertsonal, afektibo eta komunitarioan zer nolako hausturak eragiten dituzten jarriko dut ikusgai, eta emakume horiek desagerrarazteko asmo politikoa agerian utziko dut. Azkenik, Actoras de Cambio erakundeak bizirik atera diren emakume horiekin batera garatu dituen antolaketako bideak eta bide komunitarioak azalduko ditut, betiere emakumeak izanik beren egiaren, justiziaren eta erreparazioaren prozesuko subjektu; hamabi urtean, emakumeen artean eraikitako proposamen komunitarioak dira, *“bizitzara itzultzeko”* irrika biziari eta *“ez beren alabei, ez beren bilobei”* horrelakorik berriro ere ez gertatzeko irrikari erantzuteko.

## **2. Sexu-bortxaketa<sup>2</sup>: maia emakumeak gerran masakratzeko arma**

### **2.1. Sexu-bortxaketa, maia emakumeen aurkako eta gerra eta suntsiketa politika: feminizidioa edo emakumeen genozidioa**

1954. urtean, Guatemalako oligarkiak estatu-kolpea egin zuen Jacobo Arbenz-en aurka Estatu Batuetako inteligentzia-zerbitzuarekin batera; estatu-kolpe horrek barne-gatazka armatu luze eta odoltsua abiarazi zuen

---

2 Sexu-bortxaketa izena erabiliko dut sexu-indarkeria izen generikoaren ordez, sexu-bortxaketa ez delako genero-indarkerien zerranda luze bateko indarkeria soil bat. Sozietate patriarkalek antolatzen duten gizonen arteko itunaren muina da sexu-bortxaketa. Ikus sexu-kontratuaren terminoa, Carole Pateman-ek (1995) darabilena. Emakumeen aurkako zapalkuntzaren sintesi politikoa da; izan ere, ekintza horretan sintetizatzen baitira nagusitasun maskulinoa, gizonen emakumeak jabetzan izateko eskubidea baliatzea eta emakumeen sexu-erabilera (Lagarde, 1997: 259-260). Ekintza horretan, patriarkatuaren politika kolonial eta kapitalista sintetizatzen da, maia emakumeen mundu-ikuskerara, lurraldeak, bizitzak eta gorputzak suntsitzea, ustiatzea eta horietaz gabetzea dakarren aldetik. Ikus: Federicci (2004). Eta aldi berean, herriak suntsitu eta makurrarazi egiten ditu, umiliazio kolektiboaren bitartez. Gizonen arteko gerra da, emakumeen lurralde-gorputzaren gainean egiten duten gerra.

Guatemalan, eta 36 urte baino gehiago iraun zuen (1960-1996). Arbenzen ordeztarritako gobernu militarrek nekazaritza-erreforma geldiarazi zuten, baina kontuan izan behar da erreforma horrek milioi-erdi nekazariri mesede egin ziola, gehienak indigenak izanik<sup>3</sup>; horren ordezt, gizartea aldatzea xede zuen edozein antolakunde eta edozein adierazpide gogorki zapaldu zuten. Hirurogeita hamarrek hamarkadaren amaieran, herri indigenak antolatzen hasi ziren lurra izateko eskubidea eta lan-baldintza duinak aldarrikatzeko eta, horren aurrean, maia herria “barne-etsai” bihurtu zuen Estatuak, Segurtasuneko Doktrina Nazionalaren esparruan borrokatu beharreko etsai. Maia nekazari eta pobretu guztiak gerrillaren alde zeudelako susmopean, Guatemalako Estatuak lur errearen politika<sup>4</sup> ezarri zuen; erabateko genozidioa izan zen. Historia Argitzeko Batzordearen<sup>5</sup> arabera, 200 mila lagun erail zituzten, 45 mila oraindik desagertuta daude, milioi bat pertsonak bortxazko desplazamenduak jasan zituzten, 600 sarraski baino gehiago dokumentatu ziren eta 440 herrixka suntsitu zituzten (CEH, 1999, III. liburukia). Emakume eta neskatxak modu masiboan eta jendaurrean bortxatu zituzten, eta horrelako ekintzak sistematikoak izan ziren Romeo Lucas Garcíaren eta Efraín Ríos Montt-en gobernu militarrek ezarritako lur errearen politikaren esparruan.

Denbora luzez, politika kontrainsurgentearen alderdi feminizida ezkutuan geratu zen gatazka armatuaren azterketetan. 2005-2008 aldian ikerketa-ekintza bat egin genuen Actoras de Cambio partzuergoak sexu-bortxaketa biziraun zuten emakumeei laguntzeko proiektuaren esparruan: *Tejidos que lleva el alma: memoria de las mujeres mayas sobrevivientes de violación sexual durante el conflicto armado* (Fulchiron, Paz eta López, 2009)<sup>6</sup>; lan

---

3 1952. urtean, nekazaritza-erreforma dekretu bidez ezarri zen urtean, nekazaritzarako luraren %70 inguru latifundisten esku zegoen; lur-jabe handi horien lursailetan, batez beste lurren %19 lantzen zen (Paz Cárcamo, 1997: 124), eta lurren guztizkoaren % 81 alfer-lurrak ziren.

4 1978. urtean, Romeo Lucas Garcíaren diktadura militarren garaian agindutako Panzós-eko sarraskiak sarraskien aldi iluna abiarazi zuen Guatemalan. Efraín Ríos Montt-en *de facto* gobernu militarrek areagotu egin zuen lur errearen estrategia 1982-1983 aldian, eta ehunka herrixka desagerrarazi zituen mapatik –batik bat, goi ordokian–. Ikus: Memoria Historikoa Berreskuratzeko Elizbarrutiarteko Proiektua (REMHI, 1998).

5 1994. urtean, gatazkan zeuden aldeak, Guatemalako gobernu eta Unidad Revolucionaria Nacional Guatemalteca (URNG) alderdia ados jarri eta Egiaren Batzordea sortu zuten barne-gatazka armatuan izandako giza eskubideen urraketak eta krimenak argitzeko. Nazio Batuetako kide bat, “portaera gaitzesezineko” guatemalar bat eta akademiko bat izan ziren Batzordeko kide.

6 Actoras de Cambio 2003. urtean sortu zen, feminista autonomoek –besteak beste, Amandine Fulchiron eta Yolanda Aguilar sortzaileak– eta bi erakundek –UNAMG eta ECAP– osatutako partzuergo moduan. Actoras de Cambiok partzuergo izateari utzi eta kolektibo autonomo bihurtu zen 2008. urtean, kolektibo bakoitzak bere kabuz jarraitzea erabaki zuenean.

horren bitartez, gerra- eta genozidio-politikan sexu-bortxaketak zenbateko garrantzia izan zuen agerian geratu zen, eta Guatemalako gerran egindako sexu-krimenei buruzko egiaren txosten bihurtu zen<sup>7</sup>. Sexu-bortxaketaren *modus operandia*, dimentsioa eta ankerkeria-maila aztertu genituen, eta argi ikusi genuen albo-kaltea baino gehiago, Guatemalako armadak jarraitutako politika kontrainsurgentearen ardatzetako bat izan zela. Herraldeko landa-eremuetan eta indigenen eremuetan, batik bat, egin zituzten sarraskiak; sarraskietan honako hauek egiten ziren: hasierako ekitaldi moduan, bortxaketa anizkoitz, kolektibo eta publikoak; emakumeak beren etxean bertan bortxatzea, senitartekoan aurrean; biktimei bizirik iraunaraztea neskame izateko; eta hil aurreko bortxaketak, hobien inguruan eta publikoki (Diez, 2006: 35).



Iturria: Nazio Batuak.

7 Kapitulu honetan agertzen diren emakumeen lekukotasun guztiak *Tejidos que lleva el alma* (2009) lanean daude. 2005. urtetik 2008. urtera bitarte bizirik atera ziren emakume horiekin egindako autokontzientziako, sendatzeko eta prestakuntzako taldeetan azaleratutako bizi-historiak dira. Lekukotasun bakoitzaren erreferentzia lan horretako zenbatgarren orrialdean aurki daitekeen adierazten du.

*Tejidos que lleva el alma* (Fulchiron, Paz eta López, 2009) lanean, Chimaltenango-n, Huehuetenango-n eta Polochic-en bortxaketak eta sexu-esklabotza sistematikoak izan zirela frogatu dugu. Krimen horiek askotariko testuinguruetan gertatu ziren: etxeetan, elizetan, eskoletan edo destakamentu militarretan, sarraskietan, errepresio selektiboko egoeretan, komunitateak okupatzean edo bortxazko desplazamenduetan. Chimaltenango-ko kaqchikele emakume gehientsuenak etxean bortxatu zituzten, senarrak falta zirelarik:

*“Norbaitek soldaduei esan zien nik egiten nuela jatekoa gerrillarienzat, eta nire etxea zein zen esan zieten, baina bi etxe ditudanez, beste aldekoa zela esan zieten. Han zaintzen ditut gerrillariak, eta horregatik harrapatu eta bortxatu egin ninduten. Hurrengo egunean, egunsentian soldaduak etxeetan sartu ziren, atea puskatu zituzten eta nire ama makil baten kontra lotu zuten, eta behiak eraman zituzten. Ezin genuen ezer egin, heriotzaren zain geunden, besterik gabe” (160).*

Polochic-eko q’eqchi emakume alargunak sexu-esklabo bihurtu zituzten destakamentu militarretan, komunitateak okupatzen egon ziren urte guztietan; beste emakume batzuk sarraskietan bortxatu zituzten, baina mendialdera ihes egitea lortu zuten, bizirik irauteko:

*“Nire senarra eramanzutenean, haien esku geratu nintzen. Orduan, jatekoa prestatu behar genien, eta hemen, destakamentuan, mantenua eman behar izaten genien. Otorduak prestatzen genizkien, tortillak, eta han bortxatu gintuzten. Bortxatu egin gintuzten, eta esaten zigutenez, inork ez zuen gure alde egingo. Harrezkero ez genuen senarrik. Halaxe izan gintuzten denbora hartan guztian. Eta honako hau esaten ziguten: ‘Nola ordainduko duzue bizileku duzuen lur hori?’ Animaliak bezala tratatzen gintuzten; oiloak ginen haientzat. Haien esku geunden. Ezin genuen ezer egin” (172).*

Colotenango-ko mam emakumeen bortxaketak zigorra izan ziren, “gerrillariei jaten emateagatik”, eta inguru hartako gerrillarien erresistentzia haustea zuen helburu:

*“Armada San Juan [Atitán]-etik zetorren, egun hartan eskolara iritsi zirenean. Neskatxa handienak ateratzeko eskatu zieten irakasleei, bortxatzeko. Mehatxu egin zieten: ez bazituzten neskak ateratzen,*

*eskolari su emango zioten eta denak barruan erreko ziren. Orduan irakasleak atera egin gintuen, eta kanpora joan ginen. Lau ginen. Dena galdetu zidaten, dena, gerrillariak non dauden. Eta halako batean heldu, mendipera eraman eta bortxatu egin gintuzten. Bostek bortxatu gintuzten, eta gehiagok neska handiagoen kasuan; soldadu guztiak pasa ziren handik” (177).*

Huehuetenango-ko zenbait emakumek Mexikora ihes egitea erabaki zuten bizitza salbatzeko, baina ihesbide horretan ere sexu-bortxaketak izan zituzten:

*“Nire alabatxoekin ihes egin nuen mendiz mendi, Mexikoren muga dauden aterpeetaraino. Baina bidean armadak harrapatu gintuen eta nire alabatxoengandik bereizi ninduten. Nire alabak alde batetik, eta neu bestetik. Gerrillariak izatea leporatzen ziguten, eta armekin jo gintuzten. Egun haietan, bortxatu egin ninduten eta pentsatzen dut nire alabatoak ere bortxatuko zituztela, baina haiek ez dute ezer esaten” (166).*

Sexu-krimenak ez ziren egintza isolatuak izaten, ez ziren gerraren gogortasuna arintzeko plazera lortu nahi zuten soldaduen banakako egintzak, gerrako harrapakinaren teoriak dioen moduan<sup>8</sup>; ez ziren, halaber, ero, psikopata edo toxikomanoek egindako krimenak, giza animaltasunaren teoriak dioen moduan.<sup>9</sup> Bortxaketa eta sexu-esklabotza zehatz-mehatz pentsatu eta gauzatu zituen armadak, mendean hartzeko, beldurra eragiteko, oposizio oro desagerrarazteko eta emakumeak sarraskitzeko, “barne-etsaitzat” hartzen baitzituzten. Historia Argitzeko Batzordeak (1999: 13) honako ondorio hau atera zuen: “sexu-bortxaketa jardunbide orokortua eta sistematizatu izan zen; Estatuko agenteek egiten zuten, estrategia kontrainsurgentearen esparruan, eta izu-arma bihurtzera iritsi zen”.

*“Izan ere, gurekin indarkeria benetan gogorra izan zen... horregatik ezin dugu ahaztu denboraldi hura... asko izan zelako... emakumeentzat ez zen izan gizonentzat bezala, zeren, emakumeen kasuan, lehenik harrapatu eta bortxatu egin baitituzte, eta gero hil. Bi delitu egiten dituzte. Gizonekin, aldiz, hasieratik hiltzen dituzte.*

---

8 Ikus: Silva Espina (2013) eta Roberto (2013).

9 Torturatutako pertsonak bizi izan duen torturari azalpenen bat emateko eta bere gizatasuna berresteko mekanismo psikikoan sakontze aldera –izan ere, torturatzailerei gizatasuna kentzen die eta zeaugarri ez gizatiarra atxikitzen die, animalia batena edo gaixo mental batena–, ikus: Riquelme eta Agger (1990), eta Lira eta Weinstein (1984).



*Baina emakumeak sufritu egiten du lehenengo, eta gero hil egiten dute” (141).*

Cynthia Cockburn-ek (2004: 24) honela azaltzen du: “Ziurrenik, gorputzaren aurkako basakeria da sexu-desberdintasunak argi eta garbi markatzen dituen gerran. Gizonak eta emakumeak desberdin hiltzen dira, desberdin torturatzen eta behartzen dituzte, bai sexuen arteko desberdintasunengatik, bai emakumeen eta gizonen gorputzei esleitutako kultura-esanahiak ere desberdinak izateagatik”<sup>10</sup>. Maia emakumeen gorputzak mutilatzeko garaian, izugarria izaten zen, ez zegoen mugarik. Bizirik ateratako mam emakume baten arabera, egun batean armadak neska gazte bat bortxatu eta hil zuen komunitate osoaren aurrean, eta komunitateko kide guzti-guztiak (gizon, emakume, haur nahiz adineko) hori ikustera behartu zituzten, zentzagarri:

*“Haurdun zegoen emakume hari deitu zioten. Egin zuten zulo baten ondora eramane eta han utzi zuten; honako hau esan zioten: “hobeto arropa erantzen baduzu”, eta neskak arropa erantzi zuen eta biluzik geratu zen. Arropa erantzi zuenean, bortxatu egin zuten; bularrak kendu zizkieten, eta hemengoak kendu zioten [sabela seinalatuta]; hil egin zuten, eta zulo horretara bota. Han utzi zuten lurperatuta. Oraindik bizirik zegoela zirudien han utzi zutenean, eta gero alde egin zuten” (178).*

Sexu-bortxaketa izua eragiteko beste modu bat zen, sarraskia hasi aurretik; CEHak honela jaso zuen (1999, III. liburukia: 32): “Hamar borroko zeuden. Txandak egiten zituzten jendea hiltzeko: bostek jendea hiltzen zuten eta, bitartean, beste bostek atsedean hartzen zuten, eta atsedean horretan, bi neskatxa (15 eta 17 urtekoak) bortxatzeko txandak egiten zituzten. Hil zituztenean, hesolak utzi zizkieten genitaltan sartuta”.

Emakumeen gorputzen jabe egiteaz eta okupazioaz haratago, jokabide bihozgabe horrek argi uzten du emakumeen bizimodua suntsitzeko asmoa zutela. Ildo beretik, MacKinnon-ek (1995: 190) Jugoslaviako gerraren testuinguruan egindako hausnarketak ekarriko ditugu gogora: “Sexu-bortxaketa gerra-politika ofiziala da kontrol politikoa lortzeko kanpaina genozida batean (...). Ez da soilik gizonezko bakan baten boterearen plazer-politika bat (...); ez da soilik beste aldekoa torturatzeko, umiliatzeko, behartzeko eta kikiltzeko politika bat (...); gizonen politika bat besteari abantaila hartu eta lurraldea

---

10 Ingelesetik itzulita.

irabazteko (...). Sexu-bortxaketa kontrolatua da. Sarraskiak egiteko bortxaketa da. Hiltzeko bortxaketa da”.

Sexu-bortxaketa gerrako planen barruan sartzen da, arma bereziki eraginkorra den aldetik: ez du baliabide bereizirik behar, soldaduei gizontasuneko, kohesioko eta boterea izateko sentimendua ematen die eta, aldi berean, sare soziala epe luzera suntsitzeaz gain, bortxatzaileen zigorgabetasuna bermatzen du, gai hori tabua delako. Guatemalako gerrarekin, antza, Rita Segatok “gerra egiteko modu berriak” deitzen dion hori hasi zen lurralde latinoamerikarrean – Jugoslavia zeneko gerra eta Ruandako gerra hasi baino hamar urte lehenago–; modu berri horietan, emakumeen gorputza gudu-zelai bihurtu da eta “sexu-erasoa gerra-arma nagusi izaten da, ankerkeria eta heriotza eragiten dituelako kalte hilgarri bikoitz baten barruan, hau da, kalte materiala eta kalte morala” (Segato, 2014a: 18).

Horregatik nahi dugu guk sexu-bortxaketa emakumeen genozidioa dela esatea<sup>11</sup>, sexu-krimenak intimitatearen eremutik aterarazi eta emakumeen bizitza suntsitzea xede duen gerra-politika garrantzitsutzat ikusgai jartzeko; izan ere, ez dira soilik emakume horien herria deuseztatzeko bide bat.

## 2.2. Sexu-bortxaketa, genozidioa

Sexu-bortxaketa maia emakumeen aurka, bereziki, erabili zuten. Historia Argitzeko Batzordeak erregistratutako datuen arabera, krimen horren biktimen %88,7 maiak izan ziren, %10,3 ladinoak eta %1a beste talde batzuetakoa (CEH, 1999, III. liburukia: 23). Zenbateko horiek ikusita, argi geratzen da sexu-bortxaketa ideologia arrazista menderatzailean txertatuta zegoela, eta maia herria suntsitzeko borondatean gauzatzen zela<sup>12</sup>. Sexu-bortxaketa gehienak sarraskien testuinguruan gertatu ziren, emakumeak eta haien komunitateak desagerrarazi aurreko urrats moduan. Krimena masiboa eta inolako bereizketarik gabekoa izaten zen, eta haurdu zezuden emakume

---

11 Rita Segatok mota horretako feminizidioei “femi-genozidio” deitzea proposatzen du (2014a: 66).

12 Guatemalako gerran sexu-bortxaketa helburu genozida zehatz batekin erabiltzen zuten. CEHaren hitzetan (1999: 56): “Bortxaketen *modus operandi*aren ondorio izaten ziren, besteak beste, ezkontza-loturak eta harreman sozialak etetea, isolamendu soziala, emakumeen eta komunitate osoen exodoa, talde etniko beraren barruan ezkontzak eta jaiotzak eragozte, abortuak, eta filizidioak, eta faktore horiek guztiak eragin oso handia izan zuten kolektibo indigenen jarraitutasunean, biologikoki eta kulturari dagokionez. (...) Horrela, bada, indigena taldeak suntsitu ziren”.

eta haien fetuekiko krudelkeria eta ankerkeria ere muturrekoak izaten ziren; hortaz, argi ikusten da gerraren helburua ez zela soilik lurraldea okupatzea, baizik eta herri indigenak eta *status quo*aren aurka zegoen oro deuseztatzea ere bai:

*“Zer nolako sarraskia egin zuten han gurekin! Haurdun zegoen emakume bat, zortzi bat hilabeteko egongo zen... ebakuntza egin zioten... ireki egin zuten. Horrela kendu zioten haurtxoa. Haurtxoaren gainera bota zuten, aizu, ahoa estalita, begiak estalita eta labankada bat hemen, begira, eta beste bala bat hemen, eta horrela izen zen dena. Emakume gajoa hil egin zen, baita haurtxoa ere. Horiek ez dira pertsonak, horiek infernuko deabruak dira!” (193).*

Guatemalako “A” Arrisku Handiko Epai Penalaren Lehen Auzitegian Yassmin Barrios epailea da buru, eta Ríos Montt jenerala erruduntzat jo zuen gizateriaren aurkako krimenak eta genozidioa egin zituelako; honela dio epaiak (2013: 691): “Emakumea gerra-xede izan zen eta, horren ondorioz, haurdun zeuden emakumeei haurtxoa atera egiten zieten ‘hil beharreko hazia’ zelako; eta epai-emaileok aintzat hartu dugu inguruabar hori, maia taldea desagerrarazteko asmoa modu objektiboan agertzen baitu. Horretarako, emakumearen figura urratzen zuten, bizi-emaile delako, komunitatearen balioak transmititzen dituelako, bizitzarako oinarrizko jakintza ematen duelako.

Sexu-bortxaketak egiten zituzten talde bat desagerrarazteko asmoarekin, Lemkin-ek sortutako genozidioaren kontzeptuari jarraikiz (2005: 79). Aldi berean, sexu-bortxaketa genozidioa da, Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegiak Akayesu kasuan finkatutako jurisprudentziaren (1998) arabera; izan ere, talde bateko kideak hiltzeko asmoz egin zen, talde horretako kideen osotasun fisiko eta mentala larriki lesionatzeko asmoz, bizi-baldintza oso txarren menpe uzteko asmoz fisikoki erabat edo partzialki suntsitzearen, jaiotzak eragoztearren eta/edo haurrak behartuta lekualdatzearen. Zenbait talde etnikotan, sexualitatearen barruan sartzan dira emakumeek gizartean duten balioa, kultura-nortasuna eta taldearen ohorea; kasu horietan, sexu-bortxaketa genozidio-arma bereziki eraginkor bihurtzen da, garbiketa etnikorako kostu txikiko tresna, Münkler-en hitzetan (Segaton aipatua, 2014a: 27), desagerrarazteko modu bat, baina bonbarik erabili gabe eta ondoko Estatuen erreakzioaren beldur izan gabe.

Patriarkatu arrazistak berezko duen mekanismo ideologiko zital baten bitartez, gerra-garaian sexu-bortxaketetatik bizirik atera ziren emakumeei armadarekin “lotu izana” leporatu zieten. Estigmatizazio sozialari komunitateko patruilarien diskurtso kontrainsurgentea gehituta<sup>13</sup>, sexu-torturaren biktima izandako emakumeak “armadako etxeko-andre” bihurtu zituen, beren taldearen traidore. Gizonek sentitzen zuten umiliazio-sentimendu sakonaren erantzukizuna emakume horien bizkar gainera bota zuten familiek eta komunitateak, beren saminaren jopuntuan jarri zituzten.

Jarraian ikusiko dugunez, horrek ondorio ikaragarriak izan zituen emakumeen eta komunitateen bizitzan: zigortu egin zituzten, baztertu egin zituzten, bakarrik utzi zituzten eta indarkeria pairatu zuten senitartekoen, senarren eta komunitatearen aldetik. Badirudi, Brigitte Terrason-ek (2003: 323) dioenez, “inkontziente kolektiboan, bortxaketaren benetako biktima ez dela emakumea, haren senarra baizik, benetako traumatismoa gizonena dela, ez emakumeena”. Bortxaketak agerian utzi zuen “beste batzuk” “beren emakumeen” gorputzaren jabe egin zirela. Gizonen arteko botere patriarkalaren sare horretan, sexu-bortxaketa komunitateko gizonen gizotasunaren aurkako eraso bortitz moduan bizi izan zen, “beren” emakumeekiko zuten sexu-eskumenean oinarrituta. Maia herrietako emakumeak bortxatuta, Estatuak botere absolutua ezarri zuen maia gizonen gain eta umiliazioaren eta lotsaren marka utzi zuen memoria kolektiboan; hartara, maia gizonen botere kolektiboa zikiratu zuen eta epe oso luzerako mendetasuna bermatu zuen.

### **3. Sexu-bortxaketa genozidaren ondorioak emakumeen bizitzan: “heriotza bizirik egonda”**

#### **3.1. Alderantzikatzeko maltzurra: biktimak erantzule dira**

Emakumeen kasuan, sexu-bortxaketaren ondorio psikosozialak emakumeen sexualitateari buruz eta sexu-bortxaketari berari buruz komunitateetan dituzten

---

13 Armadak Autodefentsa Zibileko Patruilak (AZP) sortu zituen 1978. urtetik aurrera, herritarrei gerrillaren aurkako borrokan parte harrarazteko asmoz eta komunitateetan operazio kontrainsurgenteak egiteko asmoz. Herritarrei buruzko informazioa ematen eta herritarrak kontrolatzen lagundu zuten, bortxazko desagerpenetan, sexu-bortxaketetan, torturretan eta sarrasketan. 1983. urte inguruan, 15-60 urteko 900 mila nekazari biltzen ziren patruila horietan, hau da, landa-eremu indigenetako gizonen % 80 bat (REMHI, 1998, II. liburukia, 2. kapitulua).

irudikapen kolektiboekin daude loturik. Gizateriaren aurkako krimen guztien artetik, kasu honetan soilik gertatzen da biktimak susmagarri direla, hau da, beren kontrako krimena egiteko baimena eman ahal izan dutela. Are okerrago oraindik, agian gozatua hartu dutela ere susmatzen dute. Horixe da krimen horren kultura-interpretazioa. Bizirik atera ziren emakumeei “egiten utzi izana” eta armadarekin “lotu izana” leporatu zieten. Haien senitarteko, auzoko eta komunitateen ustez, sexu-torturaren biktima izatetik “gizonekin gauzak egitea gustuko duten emakume” bihurtu ziren. Emakume horiek umiliazio ugari jasan behar izan dituzte estigma horren ondorioz; hona hemen adibide bat:

*“Esaterako, nire iloba; barre egiten zuen eta zera esan zidan, “gauza bat galdetu nahi dizut: egia al da, izeba, tamaina askotakoak probatu dituzula?” Nola uste duzu sentitzen naizela ni? Ene... une horretan lur jota sentitu nintzen[...] Zeren, nire ustez, norberak gauzak gustura egitea oso berezia da. Gustura egin zenuen? Behartuta izan zen!” (241).*

Estigmatizazio horrek indarkeria-espinala eragin zuen senitarteko, auzoko eta komunitateen aldetik. “Beste baten emakume” izateagatik, senarren indarkeria bortitza jasan behar izan zuten, eta zenbait kasutan, hilketak ere gertatu ziren.

*“Batzuetan damutu egiten naiz kontatu izanaz, orain martirioa jasan behar baitut... Hodi batekin jo ninduen, buruan zauri asko egin zizkidan, ezpaina urratu zidan, hortzak puskatu, zuloak utzi zizkidan eta orain orbainak geratu zaizkit, baina kanpotik ez dira ikusten, barruan ditut” (251).*

Paradoxa dirudien arren, gerraren testuinguruak areagotu egiten du emakumeen sexu-jokabideari buruzko susmoa. Moralki gaitzesteko moduko baldintzetan bizirik iraun izana leporatzen zaie, bortxatuak izatea onartu izanaren susmagarri dira bizia salbatzearen, baina kultura-azalpen horrek ez du aintzat hartzen, inolaz ere, gerrak dakarren ankerkeria- eta hertsadura-testuingurua: zein unetan eta zein mekanismoren bidez gerta daiteke tortura, izua eta muturreko eraso plazerrezko eta sedukzioko ekintza bihurtzea? Interpretazio horren arabera, bortxaketa emakumeek nahi duten sexu-ekintza bihurtzen da, eta horrek zera adierazten du, gizonek desio duten hori nahi dutela emakumeek ere. Komunitateko auzoko emakumeen hitzak: “Gizonek egiten badute, emakumeek nahi dutelako da”. Imaginario kolektiboan sexu-bortxaketa ez da existitzen; gizonaren ahotsa baino ez da existitzen, eta bortxaketa emakumeek nahi eta onartzen duten sexu-ekintza bihurtzen du

horrek. Hartara, emakumeei ukatu egiten zaie beren esperientziak azaltzeko aukera, inork ez du haien oinazea entzuten, eta ez da haien sufrimendua baliozkotzen. Sinesmen horiek alderantzikatze maltzur bikoitza lortzen dute: alde batetik, biktima errudun eta moralki zigorgarri bihurtzen da eta, bestetik, kaltegileek errugabetzat dute beren burua eta libre eta erabateko zigorgabetasunean bizi dira. Horixe da imaginario patriarkalaren isilbide ahaltu eta maltzurrenetako bat.

### 3.2. Izatearen urraketa

*“Jada ez dut bizitzarik gertatutakoaren ondoren”.*

Sexu-bortxaketak etena eragin zuen emakumeen existentzian eta bizimoduaren jarraitutasunean. Haientzat inflexio-puntua izan zen. Haien harreman sozialak eta afektiboak bortizki urratu zituen, baita komunitatean toki sozial bat izateko aukera ere: existitzeko aukera. Sexu-bortxaketak munduari buruzko haien ikuspegia urratu zuen, baita beren buruaren irudia ere. “Asmo txarreko emakume” bihurtu ziren komunitatearentzat ez ezik, beren buruarentzat ere. Gorroto zuten beren burua. Zikin sentitzen ziren. *“Nik nire gorputza eta nire bagina gorroto nituen, haien erruz gertatu zitzaidalako hori dena”* (382). Bekatari sentitzen ziren.

*“Egun hartan gauza txar bat bizi izan nuela uste dut. Bekatu larria da, nire ustez. Horregatik aitortu nuen. [...] Baina Jainkoak baino ez daki hori, zeren berak baitio senarra baldin baduzu beste gizon batekin egotea bekatu handia dela”* (276).

Erruak hartu zuen bere kontzientzia guztia, eta baliogabetzeko eta autosuntsiketako prozesu sakonak garatu ziren. *“Bortxaketaren ondoren, ni jada ez naiz ni neu. Nire itzala baino ez naiz”*. Emakume asko beren buruaz beste egiten saiatu ziren. Bizirik atera ziren emakume horiekin eratutako bizi-historiak ikusita, agerian geratzen da bortxaketaren ondoren hartutako erabaki asko “besteek” sortutako “asmo txarreko emakumearen” irudi hori alde batera uzteko premiaren ondorio direla, “asmo oneko emakumearen” estatus soziala berreskuratzeko premiaren ondorio.

Erruaren ondorioz, genero-mendekotasuna areagotu egin zen kasu askotan, eta emakumeek muturreko indarkeria-egoerak “jasan” behar izan zituzten. Seinalatuak, estigmatizatuak edo behartuak izateko beldur zirenez, isilik egotea erabaki zuten. Eta horixe egin zuten 25 urtez, sekretu bat gorde,

gaixotu, larritu eta baliogabetu egiten zituen sekretua bazen ere. Beren hitzetan, “sustoaren” gaixotasuna zuten: *“Niri sustoa ematen dit. Ez zait kentzen. Zera da sustoa... horitu egiten zara, argaldu egiten zara. Nik ikusi izan dut bat edo beste argaltzearen argaltzez hil ere egin dena”* (289). Urtetan isilpean egon behar izate hori emakumeak hiltzen ari zen bizirik egonda.

### 3.3. “Sustoa”: gorputza oihuka

Gizartea tematuta dago memoria hori isiltzearekin eta emakumeek ere ahaztu egin nahi dute, baina hala ere, oroitzapena behin eta berriro itzultzen da ezinegon moduan, gaixotasun moduan, bihotzeko min moduan, amesgaizto moduan, isolamendu moduan, lotsa moduan eta larruazalean iltzatutako ikara moduan. Isilik dagoenaren burua zalaparta-fabrika izaten da. Ezer gertatu izan ez balitz bezala jokatzeko, adierazpidea mendeen hartu behar da, eta gorputza anesthesiatu. *“Ez dugu ahaztu behar ahaztu egin behar dugula”* (Hercovich, 1997: 163).

Emakume errefuxiatuen elkarteetan, alargunen elkarteetan edo Gerrako biktimen Batzordean parte hartu zuten arren, bizirik ateratako emakume horietatik bat bera ere ez zen sexu-bortxaketaz hitz egiteko gai izan Actoras de Cambiok eskainitako laguntza-prozesua baino lehen. 2004. urtean, gertakari kriminal horiek jazo zirenetik 25 urte igaro zirelarik, sekretu sufriarazlea isilpean gordetzen jarraitzen zuten. Denek zuten “sustoaren” gaixotasuna. “Sustoa” ulertu ahal izateko, sexu-bortxaketak emakumeen bizimoduan eragin zuen haustura ulertu behar da, beraientzat zer esan nahi duen abiapuntu hartuta, beren kodeetan oinarrituta, mayen espiritualtasunean oinarrituta eta guztiarekiko konexio energetikoan oinarrituta.

“Sustoa” ez da sintoma psikosomatikoen hitzez-hitzezko transkripzio soila; sexu-bortxaketak beraien bizimoduan eragin zuen desorekak eta hausturak sorrarazitako ondoeza gorputzaren bidez adierazteko modua da. Krimenak eragindako sufrimendua gorputzaren bidez komunikatzea da, isiltasuna ezarri zuen testuinguru sozial batean, emakumeen oinazeari buruz ezer jakin nahi eta ezer entzun nahi izan ez zuen testuinguru batean. Gorputzak oihu egiten du hitzik ez dagoenean, sinbolorik eta esanahirik ez dagoenean kulturaren gertatutakoa izendatzeko eta gertatutakoari esanahia emateko. “Sustoa” ulertzeko, sexu-bortxaketak urratutako existentziaren dimentsioen osotasunera hurbildu behar izan genuen: gorputza, autoirudia, senitarteko eta komunitatearekiko harreman sozialak, beraien energia eta kosmosean duten tokia.

Erritualak eginda ere, ez ziren sendatzen. Bortxaketaren oroitzapena gorputzean iltzatuta geratu zen, gorputzean harrapatuta, ez zutelako izan gune egokirik horri buruz hitz egiteko. “Sustoaz” sendatzeko, hitz egiteko gune bat sortu behar zen, bortxaketak kaltetutako bizitzaren alderdi guztiak txertatzeko: gorputza, burua, energia, toki soziala eta lotura afektiboak. Hori guztia lortzeko, lan handia egin behar izan genuen -aurrerago azalduko dugu lan hori, zehatz-mehatz- bai emakumeekin, bai emakumeak baztertu dituen toki sozialarekin, bizi izan zuten horri izena jarri eta esanahia eman ahal izan diezaioten, eta munduan dagokien tokia berreraikitzeo aukera izan dezaten, erreferente positibo berrietan oinarrituta.

#### **4. Emakumeen gorputzaren aurkako gerrak badirau oraindik: feminizidioa eta lurraz gabetzea gaur egun**

Bake Akordioek<sup>14</sup> ez zuten emakumeen gorputzaren aurkako gerra amaiarazi. Emakumeen gorputzaren gaineko indarkeria basatiaren *continuum* horrek zera gogorarazten digu, indarkeria horren egiturazko arrazoiak indarrean daudela oraindik; gerrako eragileek boterea dutela oraindik, eta emakumeen gorputzaren ustiapena eta suntsiketa erabiltzen dituztela oraindik botere-lurraldeak zehazteko; eta Estatua ideologia militar, sexista eta arrazistak sustatzen eta legitimatzen ari dela oraindik emakumeekiko harremanei dagokienez, eta muturreko indarkeria erabiltzen duela oraindik agintzeko.

Botere ekonomiko eta militarrek berrantolatzen baino ez dira ari, formatu berriekin, eta baliteke formatu horiek nahasgarriagoak eta konplexuagoak izatea, “gatazka ondoko” testuinguru batean. Rita Segatok dioenez (2014a: 48), “bigarren errealitatea” da, eta ezaugarri hauek ditu: narkotrafikoaren ekintza mafioso, kriminal eta korporatibista, marak, segurtasun-indar pribatuak, armada eta bere sare paramilitarra, autodefentsa zibileko patruilariak, Guatemalako oligarkiaren negozioak –azukre-ekoizleak, palma afrikarraren ekoizleak, Cementos Progreso, besteak beste–, eta estatuz haraindiko korporazioak –batik bat, meatzaritzakoak eta hidroeletrikoak–, beren jarduera kriminala Estatuaren babespean egiten dutenak; aldi berean, negozio horiek Estatuaren paraleloa den sare oso indartsua osatzen dute.

---

14 Guatemalako gobernuak eta Unidad Revolucionaria Nacional Guatemalteca alderdiak –gerrillaren barruko hainbat korrante biltzen zituen egitura politikoa– 1996. urteko abenduaren 29an sinatu zuten Bake irmo eta iraunkorraren Akordioa.



Gerra-garaian sexu-krimenak eta emakumeen hilketak egin dituztenek gizartearen isiltasunaz eta zigorgabetasunaz gozatu izan dute, eta faktore horiek, batik bat, izan dira indarkeria hori erreproduzitzeko baldintzak sorrarazi dituztenak, sexu-tortura legitimatu baitute ekintza hutsal eta natural izatera iritsi arte.

Gizartearen isiltasunaren ondorioz, zigorgabetasun-baldintzak sortzen dira eta horrek emakumeen aurkako krimenen jarraipena sustatzen du; permisibitate-mezua igortzen die bai kaltegileei, baita gizartearen gainerakoari ere; horrela, bada, indarkeria betikotu eta sustatu egiten da. Zigorgabetasun-sistema horretako erakundeetan arrail gutxi batzuk irekitzea lortu zen, baina botereak berehala geldiarazi zituen, Guatemalan nork agintzen duen gogoraziz gizarteari. Gerardi monsinorearen hilket<sup>15</sup> da horren adierazgarri, *Guatemala: Nunca más* txostena (1998) aurkeztu eta bi egunetara erail baitzuten; halaber, Guatemalako “A” Arrisku Handiko Epai Penalaren Lehen Auzitegiko buru den Yassmin Barrios epaileak Ríos Montt-en kontra emandako genozidioagatiko epaia baliogabetu zuten<sup>16</sup>.

Iraganean bezalaxe, gaur egun ere lurraldearen etengabeko militarizazioa da feminizidioa azaltzen duten faktore garrantzitsuenetako bat. Emakumeen gorputza eskuratzeak gizentasuna adierazten du, armadaren barruan soldaduen botere- eta kohesio-sentimendua areagotzeko sustatzen den gizentasuna. Emakumeen gorputzaren okupazioa, gainera, lurraldeak menderatzeko estrategiaren barruan sartzen da. Bake Akordioen ostean, armadako kide asko segurtasun publikoaz arduratu zen polizia-indar berrian sartu ziren, eta gatazka armatuan ikasitako jardunbideak ere eramán zituzten. Armadako goi-agintariek lehen gerrarekin lotuta zeuden negozioak narkotrafikoarekin eta emakumeen, armen eta organoen trafikoarekin lotutako negozio bihurtu zituzten; horretarako, gerra-garaian sortutako egitura paramilitarrak eta

---

15 Guatemalako artzapezpikua izan zen; Memoria Historikoa Berreskuratzeko Elizbarrutiarteko Proiektua (REMHI) bultzatu eta koordinatu zuen eta 1994. urtetik aurrera gerran egindako krimenak aztertu zituen. Hilketak horretan argi geratu zen armada, inteligentzia militarra eta garai hartan errepublikako presidente eta gaur egun Guatemala hiriko alkate den Álvaro Arzú ere –Guatemalako familia boteretsuenetako batetik dator– tartean sartuta zeudela.

16 Epaia eman eta hurrengo egunean, Guatemalako Nekazaritzaren, Merkataritzaren, Industriaren eta Finantzen arloetako Elkarteak Koordinatzeko Batzordeak (CACIF) ezhohiko batzarra egin eta oligarkiak zera eskatu zion Konstituzionaltasun Gorteari, Ríos Montten kontrako genozidioagatiko epaia baliogabetzea, konstituzioaren kontrakoa zelako; 2013ko maiatzaren 22an gauzatu zen baliogabetzea.

paraestatalak berrantolatu zituzten, krimen antolatuaren sare moduan erabiltzeko<sup>17</sup>.

Gerra-garaian bizitza zibila militarizatu egin zen “aberria komunismotik salbatzeko” aitzakiarekin, baina Bake Akordioak sinatu ostean, militarizazio horren orde z gune publikoak (para)militarizatu ziren, herritarren “segurtasuna” bermatzeko, narkotrafikoari aurre egiteko eta garapena ziurtatzeko aitzakiarekin. Segurtasun Nazionalaren Doktrina indarrean dago oraindik. Maskulinitasuna, herritarren segurtasuna, eta gizarteak eta Estatuak emakumeekin dituzten harremanak ulertzeko modu bakarra –gerratik jasotakoa– “esku gogorraren”, nagusitasunaren eta gizon-indarraren ideologia militarizatua eta kontrainsurgentea da.

Ez dago hezkuntzaren arloko edo erreparazioarekin lotutako politika publikorik milioi bat gizon zibil laurogeiko hamarkadako genozidio-politikan engaiatu izana eta emakumeak bortxatu, hil eta torturatzeko trebatu izana lantzeko. Ez da azterketa sakona egin beharrik horrek guztiak gaur egun zer nolako ondorio ankerrak dituen ulertzeko, hau da, emakumeen aurkako indarkeria etengabe erreproduzitzen dela.

“Gatazka ondoko” politikan izandako beste inflexio-puntu bat lurraldearen militarizazioa izan da, nazioko eta nazioz haraindiko kapitalaren interesak babesteko “garapenaren” izenean. Argudio horri jarraikiz, Estatuak indigenen lurraldeak okupatzen ditu militariki, eta indigena horiek modu baketsuan antolatzen ari dira ustiapenari eta lurraz gabetzeari aurre egiteko. Setio-egoera<sup>18</sup> dela-eta, armadak konstituzio-bermeak urratu eta bilerak debeka ditzake, herritarren joan-etorriak kontrola ditzake, liderrak atzitu eta izua eragin sexu-bortxaketaren bitartez. Lurraldearen militarizazioan segurtasuneko

---

17 2007ko urtarrilean, poliziaren goi-funtzionarioek El Salvadorreko diputatuak hil zituzten, sare kriminal horiek Estatuaren erakundeetan txertatuta egotearen adierazgarri argiena izanik. Otto Pérez Molina / Roxan Baldetti (2012-2015) presidente-bikotea ustelkeriagatik eta bidegabe aberasteagatik zigor-arloan prozesatu izana da, zalantzarik gabe, armadaren negozioak birmoldatu izanaren, legez kanpoko ekonomiarekiko loturen eta sare kriminalak Estatuan erakundetu izanaren adibiderik garbiena.

18 Hainbat kasu aipatuko ditugu: gobernuak setio-egoera ezarri zuen Barillas-en 2012ko maiatzaren 1ean, Hidralia enpresa hidroelektriko espainiarraren jarduerak militariki ezarri ahal izateko herritarren borondatearen aurka, eta herria “berriro ere lasaitasunera itzultzeko”. 2013. urtean setio-egoera ezarri zuen Santa María Xalapán-en eta Mataquescuintla-n, San Rafael las Flores-en eta Santa Rosa-n eta, 2014ko irailean, mila soldadu eta segurtasun publikoko 900 agente bidali zituen San Juan Sacatepequez-era “eskualdean zeuden narkotrafiko-sareei aurre egin eta bakea berrezartzeko”, eta Cementos Progreso enpresaren negozioen jarraipena bermatzeko.

150 mila zaintzailek parte hartzen dute, eta nazioko eta nazioz haraindiko enpresen jarduerak zaintzen dituzte. Haietako asko defentsa zibileko patruilari ohiak dira, armadako kide ohiekin trebatuak, eta indar publikoekin batera, erauzketa-enpresen jardueren aurka dauden nekazarien liderren hilketetan, herritarren bortxazko desplazamenduetan eta indigena emakume liderren sexu-bortxaketetan inplikaturik daude<sup>19</sup>.

Emakumeen gorputza gudu-zelai bihurtu da Guatemalan, inoiz baino gehiago. Gizonezkoen talde (para) militarizatuek beren negozioetarako eskuratu nahi dute lurraldearen kontrola, eta lurraz gabetzea lortu nahi dute emakumeen gorputzaren bitartez, hil arte bortxatuta, torturatuta eta ustiatuta. “Femeninotasunarekin lotutako guztiaren gaineko harrapakaria hainbat modutan adierazten da, hala nola, gorputza suntsituta edo gorputz horiek eskain dezaketena salerostea eta merkaturatzea, azken mugaraino” (Segato: 2014a: 17). Izan ere, mundu osoan, arma-trafikoaren atzetik, emakumeen salerosketa da errentagarriena, betiere sexu-ustiapenerako: Guatemala hirian soilik, 15.000 emakumeren bizitzak bahitzen dituzte (CICIG, 2016: 67), eta herrialde osoari dagokionez, emakumeen hilketen zenbatekoak ikaratzeko modukoak dira: 2000-2015 aldian 9.303 emakume hil zituzten indarkeria erabilita<sup>20</sup>.

Atzoko sexu-bortxaketa genozidak eta gaurko feminizidioak badute ezaugarri komun bat; hain zuzen ere, emakumeen gorputza gizonek okupatu, menderatu, ustiatu, kolonizatu eta suntsitu beharreko lurraldetzat hartzen dela gizartean. Emakumeen gorputzean eta, batik bat, emakume indigena, nekazari, mestizo pobretu eta makiletako langileen gorputzean gauzatzen da gudua, lurraldea kontrolatzeko eta lurraz gabetzeko gizonezkoen botere-

---

19 Hona hemen Guatemalako maia emakumeen eta haien komunitateen aurka egindako gizateriaren aurkako krimenetan inplikaturik dauden nazioko eta nazioz haraindiko enpresak, bidegabe aberastea eta harrapakaria mugagabea xede dituztela: *Hidralia* hidroelektriko espainiarra Santa Cruz Barillas-en, bi nekazariren hilketak leporatzen zaio, baita komunitateko 33 lider legez kanpo atxilotu izana sustatzea ere; *HudBay Minerals Inc.* meatzaritza-enpresa kanadarra Polochic-en, 12 q’eqchi emakumeren bortxaketa kolektiboagatik kondena jaso duena; *Montana Exploradora* enpresa, Mina Marlin atari zabaleko meatzearen jabe den *GoldCorp* enpresa estatubatuar-kanadarraren subsidiarioa PERIDOT enpresaren bitartez, San Marcos-en, inguruko ibaiak artsenikoz kutsatzeagatik eta lurra saldu nahi izan ez zituzten 8 indigena emakume atzitzeko agindu izanagatik kondena jaso duena; *Tahoe Resources* enpresa estatubatuarra –Kevin MacArthur da jabea, *GoldCorp* enpresako presidente izandakoa–, Kanadako British Columbia Gortean salatua izan dena San Rafael Las Flores-en (Santa Rosa) Escobal meatzaritzako proiektuaren aurka zeudela modu baketsuan adierazten ari ziren herritarrei itsu-itsuan tirokatzeko agindua emateagatik –komunitateko 7 gizon zauritu zituzten–.

20 Ikus Grupo Guatemalteco de Mujeres: <<http://ggm.org.gt/wp-content/uploads/2012/08/Muertes-Violentas-de-Mujeres-MVM-2000-2015.pdf>>.

talde (para)militarizatuen arteko gudua. Celia Amorós-ek dioenez (1999: 50), “botere maskulinoa beste gizon batzuekin izandako erreferentziazko tentsio batean oinarrituta eratzen da, emakumeen gorputzaren gaineko jardunbide erreal eta sinboliko jakin batzuen bitartez; hartara, taldeko kide direla sentitzen dute”. Zin egiten duten gizonen taldeetan –armadan, egitura paramilitarretan, narkotrafiko-sareetan eta maretan, kasu–, sexu-bortxaketak eta emakumeen hilketak erritu dira, taldearen kohesioa lortzeko eta kideak sentitzeko erritu, eta aldi berean, “bestearen” gain erabateko boterea izatearen sentimendua eragiten du. Horrela, bada, emakumeen gorputza erabiltzen dute botere-lurraldeak zehazteko, gizonezkoen taldeen arteko indar-korrelazioa aldatzeko eta “beste” suntsitzeko.

Indarkeriaz jositako egoera honetan, Guatemalako emakumeek osatzen dugun indar antolatua gizartea eraldatzeko motorra da: antolatu egin gara gure ahotsa entzunarazteko eta sexu-krimenak gerra- eta genozidio-politikatzat erabiltzen direla salatzeko; gaur egungo feminizidioari aurre egiteko antolatzen ari gara; eta lurraldea eta bizitza defendatzeko prozesuetan aitzindari izaten ari gara eta geure gorputza jartzen ari gara erauzketa-enpresek indigenen lurraldeetan egiten duten okupazio harrapariari aurre egiteko. Lidergo positibo berria gara, eta nagusitasuna, botere- eta kapital-metaketa eta heriotza hautatu beharrean, balio kolektiboak, guztion ongizatea, bizitza zaintzea eta bizikidetzak baketsua hautatu ditugu balioztat.

## **5. Actoras de Cambio: emakumeen arteko justiziaren proposamen feminista eta komunitarioa**

Actoras de Cambio 2004. urtean sortu zen Guatemalako kolektibo feminista moduan, eta hainbat helburu zituen: gerra-garaian maia emakumeen aurka sistematikoki eta masiboki egindako sexu-krimenen inguruan gizarteak ezarritako isiltasun ankerra urratzea, larruazalean iltzatutako zauriak sendatzea, memoria egitea gure ahots eta esperientzietan oinarrituta eta, hortik abiatuta, geure gorputzaren eta geure lurraldearen jabe egitea berriro eta indarkeria berriro ez errepikatzen baldintza sozialak sortzeko prozesuan kolektibo moduan inplikatzeko.

### **5.1. Emakumeen gune soziala isiltasuna apurtzeko: egia argitzeko eskubidea**

Esperientzia hain ankerrak pairatu ondoren bizi ahal izateko, berpiztu ahal izateko eta ez errotzeko, ezinbestekoa da gizarteak zer gertatu zen onartzea

eta emakumeei zenbateko kaltea eragin zitzaien aitortzea. Horretarako, bizi izandako basakeriei buruz hitz egin behar da. *“Justizia, niretzat, hitz egitea da”*, dio mam emakume batek, bere egia azaltzea zein garrantzitsua den nabarmendu nahi du, erreparazioa jaso duela sentitzeko. Baina hitz egin ahal izateko, emakumeak entzungo dituen gune sozial bat behar da, haien esperientzia izugarria baliozkotuko duena eta historian dagokien tokia emango diena. Bizirik ateratako emakumeek behin eta berriz errepikatzen dute honako hau: *“Guk pairatu genuen guztia, esan genuena ez zen asmakeria. Pairatu genuen hori egia zen”*; adierazpen horrek adierazten du gizartearen testuinguruan emakumeen egia isilarazi eta ukatu egiten dela.

Hasieratik, Actoras de Cambio erakundearen lana gune sozial eta komunitario hori sortzera bideratu zen, emakumeek isiltasuna urratu eta bihotza lasaitzeko toki bat izan zezaten epaituak eta estigmatizatuak izan gabe. Bizirik atera ziren emakumeek beren taldea antolatu zuten komunitate bakoitzean. Bortxatuak izan zirenek elkar ezagutzen zuten. Krimena jendaurrean eta modu kolektiboan gertatu zen. Hortaz, guztion ahotan zegoen sekretua zen, nahiz eta komunitatea tematuta zegoen sekretu hori isilarazten. Emakume bakoitzarekin hitz egin genuen, taldeak oso azkar eratu ziren. Berehalako erantzun hori lortzeak agerian utzi zuen emakumeek hitz egiteko premia bizia zutela eta duela 25 urtetik gaixoarazten eta bizirik egonda hilarazten zituen sekretu sufriarazlea gainetik kendu nahi zutela.

*“Azkenean, nik bizi izandakoari buruz galdetzeraz etorri ziren. Ez soilik senarrari, seme-alabei edo animaliei gertatutakoari buruz. Guk ere sufritu genuen. Lasaitu ederra hartu genuen gu guztiok. Nire lehenengo aitortpena zuekin izan zen. Han gure historia kontatzen ari ginelarik, gure min guztia, gure sufrimendu guztia kanporatu genuen. Hori atera genuenean, nire bihotzak lasaitua hartu zuen”* (376).

*“Emakumeek hitz egin ahal izateko gune bat izatea”* funtsezkoa izan da, betiere epaituak eta behartuak izateko beldurrik gabe; emakumeak beren hitzaren botereaz jabetzen hasi ziren. Hitz egitean, sexu-bortxaketak eragin zien oinazea, mina onartzeko aukera izan zuten.

*“Erreka bat zen honaino ekarri gintuen bidea, baina emakumeek hitz egin dezakegun gune bat badagoela konturatu ginen, bihotzean eta erraietan zer dugun esan dezakegun gune bat. Lehen zabor pila handi bat zegoen, eta ibai honek eramandako gauza txar guztiak*

*sinbolizatzen ditu, zeuden gauza txar guztiak, eta orain gauza onak geratu dira. Orain garbi gaude, ibai hau bezala” (375).*

Historiak partekatu zituzten eta konturatu ziren ez zeudela erotuta eta ez zela “soilik bakar baten arazoa”, baizik eta arazo sozial eta politiko oso larri bat, gizarte osoa eraginpean hartzen duena. Esparru horretan, sexu-bortxaketa gerra-krimena eta genozidioa izan zela esaten hasi ziren, eta beraien patua zelako ideia baztertzen hasi ziren.

*“Gobernuak agindu zuen armadek emakumeak bortxatzea (...) zeren gobernuak haserre baitzegoen, indigena guztiak akabatu nahi zituen, nekazari guztiak, gerrillarien alde dauden guztiak. Gerrillak irabaziz gero, gobernuko postuak galduko zituzten” (378).*

Errua, beraz, biktimarengandik erasotzaileengana igaro zitekeen. Aurrerago, eta gerra-testuinguruaz haratago, sexu-bortxaketa tortura moduan eta gerra-arma moduan bereziki emakumeen aurka zergatik erabili ote zen hausnartu genuen. Eta horri esker, gertuko gizonek, senitartekoez eta komunitateak emakumeen gorputzen gain baliatzen zituzten botereei buruz eta beste tabu batzuei buruz ere hitz egiten hasi ginen: sexu-indarkeriaren *continuuma* beraien bizitzetan. Beste emakume batzuekin batera isiltasuna urratzean bihotzean eta erraietan zeramatzen sekretu iluna azaleratu ahal izan zuten. Arinago, freskoago eta *“ibaia bezain garbi”* zeudela sentitzen zuten; *“Isiltasuna apurtzea zera da, euria hasten duenean bezala, ilun dagoelako, baina gero argiago zabaltzen da eguna”*.

Emakumeen taldea justizia sozialeko gune bihurtu zen, eta beraien egia – orain onartu eta baliozkotzen zaien egia– azaltzeko aukera izan zuten bertan, jasandako sufrimendua aitortu eta eragindako kaltea onartzearekin batera. Pixkanaka-pixkanaka, emakume izateagatik beraien patua hori zela esateari utzi zioten, eta azalpen sozial eta politiko baten barruan sartzen hasi ziren. Hartara, sexu-bortxaketaren biktima zirela onartzen hasi ziren, gizateriaren aurkako krimenen eta genozidioaren biktima; egintza erabat bidegabea den aldetik, salatzen hasi ziren, zergatik gertatu zen ulertzen eta indarkeriazko egintzaren aurrean autonomia-sentimendua garatzen. Biktima pasibo eta sufritzaile izatetik subjektu aktibo eta kritiko izatera igaro zitezkeen (Burin, 1987).

## 5.2. Sendatzea justizia da: erreparazio-eskubidea

Sexu-bortxaketatik bizirik atera ziren emakumeentzat, trauma lantzea zera da, sexualitatearen inguruan ezarritako sinesmen eta agindu patriarkalak desagiteko –gorputzari dagokionez, emozioei dagokienez, maila kognitibo eta energetikoan– prozesu konplexu bat, txiki-txikitatik larruazalean iltzatuta izan duten errua kanporatzea, eta beraien gorputzaren eta bizitzaren gaineko autonomia eratzeko bide luzeari ekitea.

### 5.2.1. Sentitzea norberarena izendatzeko

Emakumeen artean hitz egiteko gune bat izateak sexu-bortxaketaren historiari esanahi berria emateko, sendatzeko eta bizitza berreraikitzeo baldintzak sorrarazi zituen. Nola hitz egingo dugu gertatu zitzaigun *horretaz*, ez badugu hitzik izendatu ahal izateko ere? Nola aurkitu norberaren ahotsa gure hizkuntza munduari buruzko ikuskera patriarkal, arrazista eta klasistez kolonizatuta baldin badago, eta ikuskera horiek geu errudun egiten bagaituzte, gustuko izan genuela xuxurlatzen badigute eta, agian, geure burua babes ote genezakeen zalantza eragiten badigute?

Actoras de Cambio erakundearen prozesuaren hasieran, emakumeek bizi izandako sexu-krimenak interpretatzen zituztenean, alderdi sinboliko patriarkalak garrantzi handiagoa zuen norberak bizi izandako torturaren esperientziak baino. Emakumeen saminik handiena porrot egin izana zen: ezin izan zioten birjintasunari eutsi, ez eta senarrarekiko leialtasunari ere. Esperientzia interpretatzen zutenean, bekatua emakumeek beraiek egin zutela adierazten zuten; beraiek egin zuten huts komunitatean ezarritako sexu-arauak ez zituztelako bete. Zalantzarik gabe, geure subjektibotasunen kolonizazioaren adibiderik ankerrena da hori, emakume garen aldetik, geure gorputzak eta bizitzak desjabetzearen adibiderik krudelena edo, Maia Emakumeen Kaqla Taldean esan zutenez, zapalkuntza barneratu izanarena (2004).

Bizi izandako historiari esanahi berria emateak beren hitz eta sinbolo propioak aurkitu zituztela adierazten zuen, sexu-bortxaketak beren bizitzetan eragin zuen kalteari dagozkion hitz eta sinboloak, “besteen” ahotsak alde batera utzita. Baina horretarako gorputzera itzuli behar izan zuten, bizi izandako esperientzia eta emozio horietara itzuli. *Sentitzeko* prest egon behar zutela esan nahi zuen, isiltasunak itota zituen emozioak, bizirik egonda hilarazten zituzten emozioak askatzeko prest: bihotzeko samina, tristura sakona, lotsa, zikin-sentimendua, gorrotoa, amorrua. Sentimendu horiekin lotutako emozioak

eta gorputzeko ondoezak baliatuta mapa bat osatu genuen, sendatzeko eta norberarena izendatzeko bidea erakutsiko zigun mapa. Sentitzen zuten oinaze bizia ez zetorren bat sexu-krimenak baimendutako eta atsegin hartzeko zerbait zirela zioen gizon-ahotsarekin, eta kontraesan horretaz jabetu zirenean, haserrea edo sumindura sentitzen hasi ziren.

*“Zenbait jendek uste du geure burua besterik gabe entregatzen geniela, baina hori ez da egia eta badakigu guk ez genuela horrelakorik nahi, baizik eta haiek izan ziren delitu hori egin zutenak. Ez gaitzezen lotsatu inoren aurrean hori esateko! Haiek lotsatu behar dute!” (378).*

Sexu-bortxaketari buruzko eta komunitatean bizi izan zuten estigmatizazioari buruzko “iritzi kritikoa” garatzen hasi ziren (Burin, 1987), eta orduan lortu zuten beraien egia berrestea.

### 5.2.2. Gorputzean bizitzea errua desegituratzeko

Sexu-bortxaketaren ondorio suntsigarri eta iraunkorrenetako bat erru-sentimendua da, eragiten duen errudun izatearen sentimendua: maia emakume jaiotzeagatik, nor bere burua defendatzeko gai ez izateagatik, senarrari huts egin izanagatik, porrot egiteagatik, birjintasunari eusteko gai ez izateagatik, eta norberaren taldeak moralki gaitzesteko modukotzat jotzen dituen baldintzetan bizirik iraun izanagatik. Errua desegituratzen dutenean, emakumeak buruan duten galderari erantzuten hasten dira: Zergatik geratu zitzaidan hori? Zergatik niri?

*“Zama astuna eraman behar izan dut, oso astuna. Gaixotu egin nintzen gero... gaixotasun asko geratu zitzaizkidalako. Eta pentsatzen hasten naiz, zer egin nuen nik?” (276).*

Erruaren eta lotsaren zirkulutik ateratzea ez da soilik prozesu kognitibo eta arrazional bat, ez da soilik bortxaketaren erantzule zeintzuk diren *ulertzea*, ez da soilik gerran maia emakumeak zergatik bortxatu zituzten ulertzea. Lore Arestiren hitzetan (1997: 44): “Bortxaketaren fenomeno aztertzean, emakumeen errudun-sentimenduaren arazoari ere egin behar genion aurre, emakume horiei sexualitatea errudun-sentimenduarekin bizitzen irakatsi baitzieten”.



Emakumeen sexualitatearen inguruan talde bakoitzaren kulturaren dauden imaginarioak eta aginduak eraisteko prozesua da, prozesu geldoa<sup>21</sup>; izan ere, emakumeen gorputza tabuarekin eta bekatuarekin lotutako tokitzat jotzen dute<sup>22</sup>.

*“Orain arte lotsatu egiten ginen, hemen esan izan baitigute zati hori [baginari buruz ari da] ezin dela erakutsi edo ezin dela horretaz hitz egin” (91).*

Errua desegituratu eta lotsa alde batera utzi ahal izateko, *“buruan sartu ziguten guzti-guztia”* desikasi behar izan genuen. Horretarako, gorputzarekin konektatzeko, gorputzaz jabetzeko eta gorputzarekin berriz adiskidetzeko prozesua garatu behar izan genuen: gorputza ezagutu, marraztu, mugitu, ukitu, laztandu eta dantzatu, arian-arian, duintasunik ezaren eta deserosotasunaren sentazio horren ordez ongizateko, askatasuneko eta segurtasuneko sentazioa lortzen hasteko. Horretarako, laguntzako prozesuan gorputzarekin lotutako teknika psikologikoak erabiltzen ditugu, teknika bioenergetikoak, transpertsionalak eta biodantzakoak. Beraien gorputzeko zatiak marraztu eta horiei buruz hitz egin zutenean, norberaren gorputzat onartzen hasi ahal izan zuten, desmitifikatzen, eta bestek jabetzan izateko eta erabiltzeko objektutzat ikusteari uzten.

*“Orain nire gorputza ikusi eta ukitu dezaket bainatzen naizenean, nire bagina ongi garbi dezaket nire gorputzaz lotsatu gabe, bai baitakit nirea dela”.*

---

21 *Tejidos que lleva el alma* lanean bildutako ikerketa-ekintzan agerian utzi genuen emakumeen sexualitatearen kontrola dela komunitateko ahaideen antolaketaren eta ekoizpeneko harreman sozialen muina, eta aldi berean, taldearen kultura-nortasuna bera ere eratzen du. Dena den, komunitateetako ezkontzei eta sexualitateari buruzko jardunbide eta irudikapen sozialak alderatu ostean zera nabarmendu nahi dugu, sexu-arau horiek ñabardura desberdinak hartzen dituztela emakumeen bizitzan ekoizpeneko harreman sozialen arabera eta erlijio katolikoaren eragin-mailaren arabera. Zapalkuntza eta ustiapen ekonomikoa zenbat eta handiagoa izan, eta zenbait erlijio-dogma gehiago izan, orduan zorrotzagoak dira sexu-arauak eta orduan eta autonomia txikiagoa izango dute emakumeek sexu-bortxaketari dagokionez. Ikus: Fulchiron, Paz eta López (2009: II. eta III. kapituluak).

22 Kolonizazioak eta, bereziki, eliza katolikoak izan zuen eragina azpimarratu behar dugu, emakumeen gorputza bekatuaren gune bihurtu baitzuten eta emakumeen sexualitatearen gainean gizonek zuten nagusitasuna eta kontrola are gehiago zorrotzatu baitzuten. Ildo beretik, bat nator Susan Kellog-ek (2005) eta Rita Laura Segato-k egindako azterketekin. Azken horrek dioenez (2014b: 85): “Gaur egun ‘ohituragatik’ edo ‘tradizioagatik’ geure-geuretzat hartzen ditugun aurreiritzi moral asko, berez, aurreiritzi, ohitura eta tradizio modernoak dira, hau da, modernitate kolonialak ezarritako ereduari dagozkionak”.

Gorputzarekin sentitzearen eta euren burua aintzat hartuta eta ongi tratatuta sentitzearen ondorioz, erregistro berriak inskribatu dira euren gorputz-memorian, eta barne-jarrera berriak sortu dira amodio propioarekin eta autokonfiantzarekin lotuta. Horrek guztiak balorea emateko prozesuak eragin ditu, sexu-bortxaketa genozidak eta kolonizazioak beraien bizitzetan ezarri zuen desbalorizazio sakonari aurre egin eta ordeztarren. Gorputz-jarrera berriak eta euren buruaren erreferente positiboak sortu dituztenez, indarkeriazko harremanak edo harreman kaltegarriak onartzeari utzi eta egokitzeko aukera izan dute, gizartearen presioa presio.

*“Orain ez dut onartzen senarrak oihu egitea edo ni jotzea. Modu onean hitz egin behar didala esaten diot, ni ere pertsona naizelako eta ulertzen dudalako”.*

Dantza funtsezkoa izan zen beraien gorputza mobilizatu eta eroso sentitzeko, lotsa baztertzeko eta bizi-pozarekin konektatzeko.

*“Lehen, dantzatzeak edo geure gorputza ukitzeak lotsarazi egiten gintuen. Orain mugi gaitetzke, eta gogoko dugu. Barre egiteak bizi-poza ematen digu, lurrean bizirik jarraitzeko gogo” (384).*

Beraien buruarekin berriro konektatzeko prozesuan, susmoak eta norberaren gorputzaren beldur izatea desegiten hasi ziren, poliki-poliki, errua lausotzearekin batera. Emma Chirix (2010) maia akademikoaren esanetan, aukera izan zuten “euren gorputzak ezagutzeko, laztantzeko eta balioesteko, norberarena dela ikusten ikasi zuten eta ez botere menderatzaileak arrazializatutako objektu bat”. Beraien gorputzarekin konektatuta, beraien premiak, interesak eta nahiak zeintzuk diren bereizten hasi ziren, nagusi diren agindu patriarkal, arrazista eta klasistak alde batera utzita. “Beraien energiarekin konektatu ahal izan zuten, baldintzarik gabe eta, horri esker, sinboloen/balioen ordena patriarkala baztertu eta beraien sinbolo eta balioak sortzen hasi dira. Beraien bizitza diseinatzeko hasi dira, beraien bizitzaren erantzule izaten eta beraien burua errespetatzen” (Pisano, 2004: 43).

Beren burua berreraiki zuten norbera bere bizitzaren subjektu izanik, patriarkatu kolonialak eta patriarkatu horren gerrek emakumeentzat diseinatutako patuari, hau da, heriotzari, mendetasunari eta deshumanizazioari aurre eginez.

### **5.2.3. Landareekiko, suarekiko eta arbasoekiko konexioa: autoafirmazio kolektiboa**

Sexu-bortxaketak bizitzaren energiarekiko haustura ekarri zuen. Maia espiritualtasunaren bitartez bizitzaren sarearekin berriro konektatzea gakoa izan zen Actoras de Cambiok burututako sendatzeko eta autoafirmazioko prozesu kolektiboan.

*“Maia zeremonia erabili genuen, gure zeremoniari fede eman genion. Fede eman genien landareei, sendatzeko, garbitzeko, geure gaitasunak zeintzuk diren, geure jakintza zein den jakiteko prestatu zizkiguten landareei. Nik, Catarinak, zer dakit? Orduan nire botika bezala izan zen. Horrek sendatu ninduen gehienbat. Agian jendeak begiratzen nauenean txiki ikusiko nau. Baina nik neure lana egiten dudanean, nik hartzen ditut erabakiak, ni Catarina handia naiz”*  
(Fulchiron-en aipatua, 2013, 85).

Suaren sendatzeko indarra, airea, ura, lurra, kosmosa, lau puntu kardinalak, maia egutegiaren energiak eta koloreak berreskuratu genituen; indar hori ezkutuan zegoen, elizak eta medikuntza alopatatak jardunbide horiei balioa kendu dielako (Méndez, 2011). Taldean *ajq'ijab'* emakumeak genituen, maia espiritualtasunera jotzeko eta maia espiritualtasunari berriro esanahia emateko aukera izan genuen emakumeen esperientzian oinarrituta eta, horri esker, “ohiturari” bizia eta legitimitatea eman genizkion, hau da, amonek eta/edo amek eta aitonek eta/edo aitek irakatsitako antzinako jakintza eta botere guztiei. Horrela, bada, medikuntzari, garbitzeari, energia-babesari eta arbasoekiko komunikazioari buruzko jakintza horrek guztiak ematen dien botereaz jabetzen hasi ziren, gero eta gehiago. Catarina bezala, “emakume handiak” zirela ikusten hasi ziren.

### **5.2.4. Emakume taldearen boterea: indar kolektiboa, maitasuna eta bizitza eraikitzea sexu-bortxaketa genozidaren ondorioz hondamendia, gorrotoa eta heriotza nagusi diren tokietan**

*“Justizia zera da, niretzat norbait egotea”.*

Emakumeen gunea justizia sozialeko gune bat bihurtu zen, beraien egia, sufrimendua eta egindako bidegabekeria onartzeko gunea. Elkarrekin, sexu-torturak eta genozidioak eragindako kaltea sendatzen hasi ahal izan zuten, baina baita inguruneak ezarritako estigmatizazioak eta isiltasun

sozialak eragindakoa ere. Horrek esan nahi du ez zirela aurreko oreka-egoera batera itzuli, jada indarkeriaren, nagusitasunaren eta desjabetzearen mende baitzeuden lehen ere; esan nahi du erreferente positibo berriak eraiki zituztela beren bizitzetan, autobalorazioan eta autoafirmazioan oinarritutako jardunbide berriak.

Elkarri entzuteko aukera izanik, elkarrekiko onespren-prozesua gertatu zen eta horrek emakumeen legitimitate pertsonal eta kolektiboaren sentimendua areagotu zuen. Sororitatea autoestimuaeren iturburu da, “emakumeen arteko harrotasuneko eta identifikazioko esperientzia kontzientea baita, eta emakume horiek elkarri onetsi, lagundu, agintea eman eta babeska ematen diotenez, batak besteari laguntzen diote” (Lagarde, 2000: 195).

Actoras de Cambiok bultzatutako eta lagundutako bi emakume talderen esperientziak eragina izan du Martha Nussbaum (2013) politologoaren planteamenduetan; Nussbaumek dio maitasuna aintzat hartu behar dela, gizarte etiko eta solidarioak eraikitzeke ezinbestekoa den emozio politikotzat hartuta betiere. Actoras de Cambion, feminismoan oinarrituta, emakumeen arteko konplizitatea eta maitasuna tresna bihurtu genituen, sendatzeko eta bizimodua eraldatzeko tresna politiko.

Patriarkatuak eta genozidioak ezarritako gorrotoaren orde, gure arteko, emakumeon arteko maitasuna ezarri dugu; bizi izandako sexu-krimenen ankerkeriaren orde, laztanaren gozotasuna; eta gerrak eta misoginia patriarkalak eragindako beste emakumeenganako mesfidantza eta susmoaren orde, emakumeen artean benetako maitasunezko eta elkartasunezko harreman-sareak josteko aukera.

*“Konturatu ginen ez direla gizonak gauzak egin ditzaketen bakarrak. Geuk ere sormen handia dugu. Ez gaude soilik etxeko lanak egiteko, soilik sukaldean aritzeko. Guk egin dugun Memoriaren aldeko Jaialdiaz oso harro gaude. Handiak garela konturatu gara”<sup>23</sup>.*

Taldeak indarra eman zien “besteen” begiratuari aurre egiteko eta gizartean toki duin berri bat eraikitzeke beraiantzat. Isiltasuna urratu zuten beren komunitate eta familietan. Gune edo espazio komunitarioa okupatu zuten lotsarik gabe, asertibitatearekin eta haien izatearen botere guztiarekin.

### 5.3. Memoria egitea, emakumeentzako justizia sozialaren proposamena

Sendatze-lanekin batera, Actoras de Cambiok memoria historikoaren lana ere bultzatzen du, horrelakorik berriro gerta ez dadin, eta lan hori funtsezkoa da erreparazioko eta justiziako estrategietan. Chuj emakume batek honela dio:

*“Hitz egiten jarraitu behar dugu, esaten jarraitu behar dugu, eta justizia izateko eskubidea aldarrikatzen jarraitu behar dugu, ez baita bidezkoa gu bortxatzea; hori guztia egiten jarraitu behar dugu, egunen batean, hemendik gutxira neskatxei eta emakumeei minik egin ez diezaieten” (9).*

---

23 “Sobreviví. Estoy aquí. Estoy viva” (“Bizirik atera nintzen. Hemen nago. Bizirik nago”) Memoriaren aldeko Eskualdeko Lehenengo Jaialdia Huehuetenango-n egin zen, 2008ko azaroan. Guatemalako historian, bizirik atera ziren emakumeek hitz egiteko izan zuten lehen tribuna publikoa izan zen eta emakume horiek gerran bizi izandako sexu-krimenen inguruko isiltasuna urratu zuten. Bi urte geroago, emakumeen sare komunitarioek bide handia egina zuten antolamenduari dagokionez. Jada ez ziren beldur, ez ziren lotsa beraien komunitateetan hitz egiteko, emakume horiek indartsu ikusten zuten beren burua, indartsu eta *handi*. Ziur zeuden sexu-bortxaketaren inguruan beren komunitateetan ezarrita zegoen isiltasuna urratu behar zutela, ez beren alabek, ez beren bilobek ez dezaten horrelako krimenik jasan behar izan. Berreskuratutako aginte eta botere horretan oinarrituta egin zuten Memoriaren aldeko Eskualdeko Bigarren Jaialdia: “Yo soy voz de la memoria y cuerpo de la libertad” (Memoriaren ahotsa eta askatasunaren gorputza naiz) Chimaltenango-n, 2011ko otsailean. Harrezkero, bizirik ateratako emakumeek urtero antolatu dute Memoriaren aldeko Jaialdia beren komunitateetan, mam eskualdean eta Huehuetenango-ko chuj eskualdean, izenburu honekin: “Festivales comunitarios por la Voz, la Memoria y la Libertad de las Mujeres” (Emakumeen Ahotsa, Memoria eta Askatasunaren aldeko Jaialdi komunitarioak). Memoriaren aldeko Eskualdeko azken Jaialdia 2015eko azaroaren egin zen Nebaj-en, lelo honekin: “Mujeres sanando la vida” (Emakumeak bizitzaren sendabide).

Actoras de Cambio aitzindari da, emakumeen ahotsean eta esperientzian oinarrituta memoria historikoa berreskuratzeko lan sozial eta komunitario horretan aitzindari. Memoriaren aldeko Jaialdiak eskualdeetan, nazioan eta komunitateetan egiten dira, beraien ukituarekin, eta emakumeentzako justizia sozialeko ekimenak dira, egia argitzeko, duintzeko guneak eta ez errepikatzeko bideak sortzen dituzten aldetik.

### 5.3.1. Memoriaren aldeko Jaialdietan lana egituratzen duten printzipioak

Actoras de Cambiok Memoriaren aldeko Jaialdia antolatzeko modua bat dator kolektiboaren proposamen politiko eta metodologikoarekin, azken 12 urtean gerra-garaian sexu-bortxaketatik bizirik atera ziren emakumeekin egindako lanean oinarrituta. Jaialdien muina emakume horien ahotsa, gorputza eta bizitza dira, baita emakume horientzat gizartean toki duin, libre eta bidezkoa berreraikitzea ere. Emakumeen arteko sendatze-prozesua eta memoria berreskuratzea justizia-prozesu bihurtzeko pentsatutako proposamena da; agintari edo lege patriarkalen mende ez dagoen justizia; gure bizitza bera, geure duintasuna, askatasuna eta ongizatea lortzea xede dituen justizia. Serbiako Beltzez Jantzitako Emakumeen mugimendu feminista eta antimilitaristaren sortzaile Lepa Mladjenovic-ek (2011: 1) honela azaldu zuen Memoriaren aldeko Bigarren Jaialdian, Chimaltenango-n, 2011ko otsailean:

*“Nire bizitzan lehenengo aldiz, sexu-indarkeriatik bizirik atera diren emakumeekin hogeitaz urtez lan egin ostean, justiziak sendatu egin behar duelako ideia ardatz duen jaialdi batean parte hartu dut: Actoras de Cambiok antolatutako “Yo soy Voz de la Memoria y Cuerpo de la Libertad” (Memoriaren ahotsa eta askatasunaren gorputza naiz) Jaialdian. Jaialdi hau paregabea dela esan nahi nuke. Aparteko esperientzia izan zen, emakumeen gorputzarekin, loreekin eta zeru urdinarekin lotutako ezustekoak beterik. Justiziaren beste esanahi bat pentsatu behar zen emakumeentzat. Errua, lotsa eta beldurra kaltegileen gain geratuko direla bermatu behar dugu. Justiziak sendatu ere egin behar du. Alde egin nuenean, aktibista feministak berriro ere munduan gauza berri bat sortzen ari zirelako ustearekin abiatu nintzen, sexu-bortxaketaren biktima diren emakumeen bizitzan justizia esanguratsua izan dadin lortuko duen modu bat”.*

Jaialdiak memoriarako toki sozial pribilegiatuak dira, herritarrek bizirik ateratako emakumeekin batera entzuteko, eztabaidatzeko, negar egiteko, irri

egiteko eta dantza egiteko aukera duten tokiak, emakume horiek bizi izandako gerra-historiaren berri izan eta gaur egun ere indarkeria sustatzen duten jardunbide eta pentsamoldeak nola alda daitezkeen hausnartzearen. Betiere sexu-indarkeriarik gabeko bizimodua bizitzeko helburuari jarraikiz. Gune ireki eta publikoetan, –bizirik ateratako emakumeek beren esperientzia partekatzen duten guneak– egia-uneak emozioei eusteko uneekin uztartzen dira, eta gerta daiteke oroitzapenekin lotutako emozio traumatikoak askatzea; une artistikoak gertatzen dira, historiari esanahi berria eta duintasuna ematen diotenak; eztabaidarako gune eta foroekin ere uztartzen dira, betiere foro eta gune horiek sexu-bortxaketak emakumeen bizitzan izaten dituen ondorioak azaltzeko, gertatutakoaren arrazoari izena jartzeko eta berriro ez errepikatzeko baldintzak zeintzuk diren pentsatzeko sortu badira; samina askatzeko guneak batukadako eta dantzako uneekin, bizitzarekin eta poztasunarekin berriro konektatzeko.

### 5.3.2. Egia berrestea, kaltea aitortzea, duintasuna ematea

*“Nik memoria hau goresten dut, nire hitza delako,  
nire memoria eta nire esperientzia delako, eta memoria honekin,  
nire arbasoen estigmak urratu eta sendatzen ditut nik”*

(Angélica López, Fulchironen aipatua, 2013: 25).

Ingurune sozialak krimenak isilpean gordetzen ditu bizirik ateratako emakumeen estigmatizazioaren eta haien aurkako indarkeriaren bitartez; gizonezkoen ahots arrazistak biktimak “gizonekin gauzak egitea gustuko duten emakume” bihurtzen ditu; eta ahots ofizialak emakumeak gezurtizat jotzeaz gain, sexu-bortxaketak justifikatu egiten ditu soldaduak “emazteengandik urrun zeudela” esanez. Egoera horren aurrean, Memoriaren aldeko Jaialdian egia entzuteko eta baliozkotzeko gune publiko bat sortzen da. Hitz egitea, esatea funtsezkoa da *existitu* ahal izateko eta bizitza berreraiki ahal izateko. Isiltasuna historia ukatzea baino okerrago izaten da; isiltasuna heriotza da. Hitz egitea zera da, emakumeei gertatu zitzaizen hori onartzea. Sexu-bortxaketa izen horrekin izendatzeak –beste batzuek izendatutakoa alde batera utzita– gertatu zitzaiena aitortzen dela esan nahi du, lotsarik gabe, eufemismorik gabe eta esperientzia gutxietsi gabe.

*“Guk ere sufritu genuen”*, esaldi hori esan zuten emakumeek Actoras de Cambioren prozesua hasi zenean. Lau hitz horiekin, sexu-bortxaketak eragindako sufrimendua eta beraien bizitzetan zenbateko kaltea eragin zuen aitortzeko premia adierazi nahi zuten. *“Mina eman zigutela onartzea nahi dugu; [...] gobernu da hori zor diguna, Estatua”*. Jaialdian publikoki aitortzen eta onartzen da kalte hori, gerrako jardunbideek beraien gorputzetan,

beraien bizitzan eta beraien ingurune sozialetan izan duen inpaktua ikusgai jarrita. Actoras de Cambiok memoria historikoa berreskuratzeko egiten duen lanaren barruan sartzen da emozioak baliozkotzea; hain zuzen ere, zapalkuntza militarrek emakumeen gorputzetan eragin zituen emozioak baliozkotzea. Memorian ez dira soilik gertakariak eta datak sartzen: emozioak oroitzapenen motorra dira. Memoria prozesu pedagogiko bihur dadin eta oroitzapenaren oinazea gainditzea ez ezik, oroitzapenari esanahi berria ematea ere ahalbidetzeko eta, hartara, iraganean kateatuta ez geratzeko ezinbestekoa da memoria hori adieraztea eta askatzea. Memoriaren gunea, beraz, emakumeen hitzari balio soziala eta legitimitatea ematen dizkion gunee bihurtzen da, sexu-bortxaketak emakumeen bizitzan eragin zuen kaltea –kalte emozionala, fisikoa, soziala, kultura-arlokoa, komunitarioa eta espirituala– baliozkotzen duen gunee. Memoriaren aldeko Jaialdiak emakume guztiontzako egiaren, duintasunaren eta erreparazioaren gunee dira.

Actoras de Cambion ikasitako esperientzia bat zera izan da, oroitzapenaren mina gainditzeko, memoria traumatikoaren ordeztan arian-arian aukerezt, bizitzaz eta itxaropenez beteko den memoria bat lortzeko, emakumeek bizi osoan garatu izan dituzten botere eta baliabide pertsonal eta kolektibo guztiak berreskuratu, balioetsi eta indartu behar direla; hau da, mina, oinazea gainditzeko, bizitzari zentzua eman eta bizitza eraldatzeko eraiki dituzten poz, afektu eta emakumeen arteko antolaketako eta elkartasuneko historiak. Gerratik bizirik atera diren emakumeekin memoria berreskuratzeko lanetan hamar urte baino gehiagoz jardun dugunez, zera ikasi dugu, memoriak bizitzari egin behar diola gorazarre, ez heriotzari, transmititu ahal izateko eta historia entzun eta eraldatu ahal izateko. Horregatik, Jaialdiak “pozaren deia” dira, batik bat. Kolonbiako Luz Stella (Fulchironen aipatua, 2013: 90) feministak dioenez: “Kontua zera da, biktima izaten ez jarraitzea. Bihotzak bizitzaren aurrean beste jarrera bat izatea da kontua. Bizitzak merezi du! Mugitu aldaka hori!”.

### **5.3.3. Historiaren berri izatea emakumeen ahotsak eta esperientziak entzunda**

Guatemalako Estatuak eta gizarteak maia emakumeen aurkako sexu-krimenak isilarazi zituzten 2004. urtean –gertakari kriminalak jazo zirenetik 25 urte igaro zirelarik– Actoras de Cambiok horri buruz hitz egin ahal izateko gunee zabaltzen hasi zen arte. Bake Akordioaren ondoren, HABak eta Artzapezpikutzak Memoria Historikoa Berreskuratzeko Elizbarrutiarteko Proiektuaren (REMHI) bitartez bultzatutako memoria historikoko ahaleginetan sexu-krimenei ez zieten eman giza eskubideen beste urraketa batzuei adinako larritasuna:



*“HABak jasotako lekukotasunen % 48 zapalkuntzaren zuzeneko biktima izandako emakumeenak diren arren, kasu gehienetan, beraien adierazpenetan ez dituzte beren buruak eskubideen urraketen biktimatzat agertzen, baizik eta beste batzuei gertatutakoaren lekukotzat” (CEH, 1999, III. liburukia: 20).*

REMHIaren barruan Guatemalako Emakume Alargunen Koordinazio Nazionalak (CONAVIGUA) –Rosalina Tuyuc buru zela– eta sexu-torturatik bizirik ateratzea lortu zuen Yolanda Aguilar feministak egindako presioari esker lortu zen egiaren bi txostenetan –HABarenean eta REMHIarenean– sexu-indarkeria gerra-garaian sistematikoa eta orokortua izan zela aitortzea. Hala ere, ez zuten gomendiorik eman Estatuak egiaren, justiziaren eta erreparazioaren politikak bultzatzen zituzten sexu-krimenei zegokienez, horrelakorik berriro ez gertatzeko bermeak sortzearen. Horrela, bada, bake-negoziazioaren une politiko horrek eskaintzen zuen aukera alferrik galdu zen; une hori egokia izan zitekeen kontratu sozial eta sexual berri baten oinarriak finkatzeko, emakumeen gorputzaz, bizitzaz, lan-indarraz eta lurraldeaz jabetzea jada arau ez izatearren.

Isiltasun soziala ez da neutroa; aitzitik, kulturaren eta politikaren arloan esanahi oso sakona du. Boterearen logika bati erantzuten dio, eta logika horrek guk, emakumeok historian izan dugun esperientzia ikusezin bihurtzen du. Gainera, arrazakeriaren babespean areagotu egiten da ikusezintasun hori. Gertatu zitzaiguna aipatu ere ez denez egiten, gure esperientziak desagertu egiten dira memoria kolektibotik. Sexu-bortxaketaren helburua emakumeok subjektu moduan mendea hartu eta suntsitzea baldin baten, memoria kolektiboan gure absentsia egoteak izateko, existitzeko aukera ere ukatzen digu. “Esperientzia ezabatu eta isilarazi egiten bada, horrek zera esan nahi du, kultura-testuinguruan emakumeon esperientzia eta, hortaz, emakumeen subjektibotasunak desagerrarazten ari direla” (Seifert, 1995: 67). Memoria kolektibotik desagertze horren ondorioz, ez dugu aukerarik geure historiaren berri izateko eta historia horretatik ikasteko; geure burua defendatzeko, autoafirmatzeko eta geure egoera eraldatzeko dugun gaitasun kolektiboaz gabetzen gaitu. Historia propiorik ez badugu, ez dugu amodio propiorik, ez dugu autonomiarik, ez dugu geure burua ezagutzeko eta defendatzeko aukerarik. Historia propiorik ez badugu, beste batzuek ezarritako aginduak erreproduzitzen jarraituko dugu, eta historia osoan kalte egin diguten egitura, ideologia eta pertsonaiak goraiatzeko jarraituko dugu.

Historiaren berri emakumeen ahotsa eta esperientzia entzunda izatea, beraz, justizia-egintza da, geure historia ikusezin bihurtzen dutenen aurrean.

Horrela, bada, Levik “eguneroko politikaren mugimendua” esaten diona (González Izásen aipatua, 2002: xx) eta emozioak berreskuratzen dira, eta horri esker, emakumeen gorputzaren eta lurraldearen aurkako gerrari eusten dioten mekanismoak eta gerra horren ondorioak bertatik bertara ulertzen dira.

Memoriaren aldeko Jaialdietako lan-mahaiak gizarte osoarentzat zabalik egoten dira eta, gizon nahiz emakume, guztiok elkarrekin lan egiten dugu honako galdera hauen inguruan: Zergatik erabili zen sexu-bortxaketa gerra-garaian? Zein testuingurutan? Zein eragilek erabili zuten? Nola? Zer eginkizun betetzen du sexu-bortxaketak talde militarizatuen kohesioan? Zer eginkizun betetzen du sexu-bortxaketak sare sozialaren suntsiketan? Zer irudikatzen dute emakumeen gorputzek sexu-bortxaketa erabiltzen den hainbat testuingurutan? Zer ondorio ditu emakumeen bizitzan, familian eta komunitatean? Zergatik hainbesteko isiltasuna krimen horien inguruan?

Horrela, sexu-bortxaketa politizatu egiten da, emakumeok lotsarazteko arrazoi eta arazo pertsonal izateari uzten dio; arazo sozial eta arazo politiko larri bihurtzen da, gizarte osoari dagokiona; gerra- eta genozidio-politika dela onartzen da, eta gizateriaren aurkako krimenez hartzen da; eta gizarteari erantzukizuna eskatzen zaio jardunbide masibo eta anker hori desagerrarazteko, emakume guztiok bidezko bizitza eraikitzeak aukera izan dezagun.

#### 5.3.4. Emakumeen historia ikasbide

*“Memoria kolektiboak (gizateria) askatzeko balio dezala, ez mendean hartzeko”*

(Jacques Le Goff, Todoroven aipatua, 2008)<sup>24</sup>.

Historia aldatu nahi bada, historia ezagutu egin behar da; baina ezagutzeaz gain, historiatic ikasi ere egin behar da, bizirik ateratako emakumeek diotenez, *“egunen batean, hemendik gutxira neskatxei eta emakumeei minik egin ez diezaieten”*. Actoras de Cambiok iraganetik ikasbidea ateratzera bideratzen du memoria-lan guztia, orainaldian jarduteko printzipio bihur dadin.

Historiatik ikasi nahi badugu errepikatu ez dadin, gertatutakoaz jabetu behar dugu, norberak bere buruari galdetu behar dio gerra, genozidioa eta sexu-bortxaketa sustatu zituzten jardunbide eta ideologietatik zeintzuk dauden gaur egun ere egungo antolamendu sozioekonomikoan, eta zeintzuk

---

24 Egileak itzulpena aldatu egin du, frantsesaren erabilera sexistaren ordez hizkuntza ez-sexista erabiltzeko. Frantsesez, “gizon” hitza erabiltzen da oraindik ere gizateriaren sinonimotzat.

erreproduzitzen ditugun gure eguneroko harremanetan. Emakumeen bizitzan, atzoko gerrak eta gaurko feminizidioak sexu-bortxaketaren *continuum*arekin duen lotura hori ikusgai egitea da, zalantzarik gabe, Actoras de Cambiok egindako memoria-lanaren ekarpen handietako bat. Izan ere, memoria-lanaren bitartez emakumeen gorputzaren aurkako gerraren oinarri diren botere-logikak eta mekanismo soziokulturalak desegin nahi dira, horrelakorik berriro ez gertatzeko baldintzak sortzearen.

Kultura baten oinarrizko ideia baldin bada maia emakumeak erabili eta botatzeko zerbait direla eta ez dutela ezertarako balio, orduan bortxaketak eta sarraskiak gertatzeko baldintzak sortzen dira, gizarteak zirkinik ere egin gabe. Horregatik da hain garrantzitsua sistema ideologikoak eta botere-egiturak lantzea, horien ondorioz gizartean jardunbide militarizatuak eta indarkeriazkoak sortu direlako, baita estereotipo jakin batzuk ere; hain zuzen ere, emakume eta maia izateagatik besteak baino gutxiago direla eta erabili eta botatzeko zerbait direlako ideia naturalizatu duten estereotipoak. Jardunbide eta pentsamolde horiek aldatzea da helburua, sexu-bortxaketa, arrazakeria eta gerra emakumeen bizitzatik desager daitezten. Memoriaren aldeko Jaialdiak aukera ezin hobea dira iraganaren eta orainaldiaren arteko hausnarketa hori sustatu eta bateratzeko eta, hartara, indarkeria hori eteteko beharrezkoak diren aldaketak sorrarazteko.

#### **5.4. Ez errepikatzea justiziaren xede: bakearen, askatasunaren eta bizimodu egokiaren lurraldeak eraikitzea emakume guztientzat**

Sexu-erasotzaileen eta goi-agintari militarren aurkako zigor penalak ez du bermatzen, besterik gabe, ez dela horrelakorik errepikatuko. Erasotzaile bakar bat zigortzeak, kasu paradigmaticoa baldin bada ere, ez du esan nahi kalean libre dabiltzan beste ehun milaka erasotzaileak babesten jarraitzen duen zigorgabetasunari garrantzia kendu behar diogunik. Sexu-bortxaketaren garrantzia ezin da justizia-sistema formalaren bitartez soilik epaitu. Orain arte parekorik izan ez duen giza tragedia baten kasua dugu honako hau<sup>25</sup>. Ezein espere-sistemak ez luke izango gaitasunik milioika gizon erasotzaile

---

25 Gerra-garaian sexu-bortxaketak izan zuen *modus operandi*ari erreparatuta, zera ondoriozta dezakegu, alargun diren emakumeen edo bahitu, erail eta/edo sarraskietan hil zituzten emakumeen % 90 bortxatuak izan zirela, hau da, 65.000 emakume inguru. Gaur egun, emakumeen *salerosketa*-sareetan 15.000 bat emakume harrapatuta dituztela kalkulatu da, soilik Guatemalako Hirian, eta hor ez da sartzen gizonek egunerokotasunean beren boterea berresteko erabiltzen duten sexu-indarkeria; Guatemalako emakumeen % 50etik gora daude sexu-indarkeria horren eraginpean.

giltzaperatzeko, eta hori eginez gero ere, ez genieke indarkeriaren arrazoi soziokulturalei aurre egingo, betiere indarkeria hori desagertu dadin.

Horrelakorik berriro ez gertatzeko, ez errepikatzeko baldintzak sortu nahi badira, gerra, sexu-bortxaketa eta arrazakeria desagerraraztera bideratutako epe oso luzeko estrategia sozial eta politikoak behar dira. Actoras de Cambiok eta bizirik ateratako emakumeen sareek elkarlanean egindako hausnarketa eta egiaztapen horren aurrean, emakumeek euren komunitateetan jardutea erabaki zuten. 2011. urteaz geroztik, Emakumeen Ahotsaren, Memoriaren eta Askatasunaren aldeko Jaialdiak antolatzen dituzte urtero euren komunitateetan; intzestuen eta sexu-bortxaketaren prebentzioko ekintza kolektibo eta komunitarioak egiten dituzte, jardunbide horiei eusten eta jardunbide horiek sustatzen dituzten pentsamolde eta jarrera sozialak eraldatzeko; ikastetxeetan ekintzak egiten dituzte balio berriak eta gizon eta emakumeen artean ez ezik, emakumeen artean ere harremanak izateko modu berriak irakasteko; feminitatea eta maskulinitasuna desegituratzea sustatzen dute, betiere feminitatearen kasuan mendetasunarekin, otzantasunarekin, ahuleziarekin eta biktimizazioarekin lotutako edukiei dagokienez, eta maskulinitasunaren kasuan indarkeriarekin eta emakumeen gorputzaz eta bizitzaz jabetzearekin lotutako edukiei dagokienez; elkarren artean antolatu egiten dira komunitateko gizonen mehatxu eta sexu-erasoen aurrean defendatzeko; erasotzaileak jendaurrean salatzen dituzte eta, aldi berean, babesteko, sendatzeko eta laguntzeko taldeak osatzen dituzte sexu-bortxaketa jasan duten emakume guztientzat; eta komunitateko kideekin batera antolatzen dira lurraldea desmilitarizatzeko, lurraz gabetzea eragozteko eta *“ez beren alabei, ez beren bilobei horrelakorik berriro ere ez gertatzeko”*.

## 5.5. Espetxea al da bortxatzaileak zigortzeko modu bakarra?

### 5.5.1. Sepur Zarco-ko q'eqchi emakumeek hautatutako zigorbideak

Bortxatzaileen *“armadak”* zigortzeko grina beti agertu izan da, Actoras de Cambioren prozesua abiarazi zenetik. Alabaina, Sepur Zarco-ko taldea izan zen zigor-arloko justiziara jo zuena. Justizia nahi zuten, armadak *“egindakoa ordain dezan”* eta *“guk sufritu genuena sufri dezan”*<sup>26</sup>.

26 Sepur Zarco-ko destakamentu militarreko arduradunek etxeko lanetarako eta sexu-jarduerarako esklabo bihurtu zituzten hainbat alargun, emakume horien senarrak torturatu eta desagerrarazi ondoren; destakamentuan *“zerbitzua”* ematera behartu zituzten, eta gainera mesedetzat hartu behar zutela esaten zieten, euren seme-alabak mantentzen uzten zirelako eta lurralde horretan bizitzen uzteagatik ordaina zelako. *“Zerbitzua”* zera zen, soldaduei otorduak prestatzea eta sexu-jarduerarako prest egotea.

Ríos Montt eta emakumeen sufrimenduaren erantzule izan ziren armadako gainerako kideak espetxeratzeko asmoz zigor-arloko justiziara jotzea zen emakumeen borondatea, baina prozesuaren hasieran, beldurra eta lotsa izan ziren nagusi. Sendatzeko, autokontzientziatzeko eta autoafirmazioko prozesuan sei urte igaro ostean, q'eqchi emakumeek oinazea kanporatzea lortu zuten eta, mam, chuj eta kaqchikele emakumeekin batera, berriro irri egiten eta sexu-bortxaketaz lotsarik gabe hitz egiten hasiak ziren. Sepur Zarco-ko emakumeek jendaurrean isiltasuna urratu zuten lehen aldia 2009ko azaroan hiriburuan egin zen duintzeko ekitaldian izan zen<sup>27</sup>. Lehenengo esperientzia horretan adoretuta, eta salaketen ondorioz errepresaliarik jasoko ez zutela konturatuta, berriz ere ahots goraz hitz egitea erabaki zuten Memoriaren aldeko Bigarren Jaialdian, Chimaltenango-n, 2011. urtean. Ekitaldiz ekitaldi, q'eqchi emakumeek lortu zuten beldurra gainditzea, jendaurrean hitz egiteak eragiten zien ikara izugarri hori gainditzea.

*“Nire ustez orain ez dugu ezer ezkutatuko, orain ez gara beldur izango militarrek egin zigutenaz hitz egiteko. (...) Ados nago, gobernua kontura dadin zergatik ari garen antolatzen, hau da, gure eskubideak urratu zituztelako justizia eskatzeagatik” (423 eta 429).*

*“Ez nau lotsatzen bortxatu egin nindutela esateak. Harrapatu egin ninduten eta nire haurtxoa kendu zidaten; haien eskutan egon nintzen. Han ezin nuen neure burua babestu. Esan egin behar dut, egia da eta. 1982. urteko arazoa da hori. Armada da erruduna” (405).*

Mam eta chuj emakumeen kasuan ez bezala, Sepur Zarco-ko emakumeek ez zuten memoriaren aldeko jarduerarik antolatu nahi izan komunitatean. Senar eta komunitateko gizonen errepresalia bortitzen beldurra muga gaindiezina izan zen sexu-bortxaketaren aurkako ekintza kolektiboak antolatzeko garaian. Ezin izan genuen elkarrekin aurrera egin Polochic eskualdean horrelakorik berriro ez errepikatzeke baldintzak sortzeko bidean, eta horregatik, 2011ko martxoan, geure bideak bereizi egin ziren. Orduan erabaki zuten sexu-esklabotzagatik zigor-arloko kausan sartuko zirela honako hauekin batera: Mujeres Transformando el Mundo (MTM) erakundearekin, Estudios

---

27 Duintzeko ekitaldi hori azaroaren 25ean izan zen, Guatemala hiriko Barrios plazan; q'eqchi emakumeek zera aldarrikatu zuten, Estatuak emakumeen aurkako sexu-krimenetan izandako erantzukizuna onartzea, erantzuleak zigortzea, eta erreparazio-politika duina, erreparatzailea ezartzea, horrelakorik ez errepikatzeke baldintzak sortze aldera. Esparru horretan, “Sobreviví, Estoy Aquí, Estoy Viva” (“Bizirik atera nintzen. Hemen nago. Bizirik nago”) argazki-erakusketa inauguratu zen; horren bitartez, gizarte osoari dei egiten zitzaion historiaren isilarazitako zati horri buruz hitz egitera.

Comunitarios y Acción Psicosocial (ECAP) taldearekin eta Unión Nacional de Mujeres Guatemaltecas (UNAMG) erakundearekin.

*Tejidos que lleva el alma* lanean, guk jardun dugun eskualde guztien artetik zapaltzaileena Polochic zergatik izan den aztertu dugu, testuinguru horretan izan baitute emakumeek autonomia gutxien. Han, lana sexuaren arabera banatzen dute zorrozki, azukre- eta kafe-lursailen jabe diren ekoizleek eta palma eta nikela ekoizten dituzten multinazionalak komunitateetako eskulanaren erabateko prestasuna eta esplotazioa izango dutela bermatzeko. Senarrek emazteen gorputza eta bizitza kontrolatzen eta menderatzen dituzte indarkeria erabilita, eta gainera, lursailen jabeek ere jarrera horiek areagotzen dituzte. Lursail horietan lehen gaueko eskubidea baliatzen dute maia emakumeen aurka, eta horretaz gain, indar publikoak eta segurtasun pribatuak sexu-bortxaketak egiten dituzte, emakumeak lurraz gabetzeko. Faktore horien guztien ondorioz, ikara-giroa da nagusi etengabe eta emakumeek ez dute inolako babes- edo laguntza-sarerik gizartean edo erakundeen aldetik. Hori guztia jakinda, agian orain errazago ulertuko dugu sexu-esklabotza salatu zuten 11 q'eqchi emakumeak zergatik sartu ziren auzitegian burua estalita zutela. Armadaren errepresalien beldur izateaz gain, beraien senarrek eta komunitateek nor ziren jakiteko beldur ere baziren. *“Ez dut nahi nire senarrak jakiterik, bestela akabatu egingo nau”*. Zaila zen pentsatzea epaiketa publiko hain garrantzitsu batean emakumeen anonimotasunari eutsi ahal izango zitzaioela komunitatean, bereziki, eskualdeko goi-mandatari militar ohia epaitua izaten ari zela eta emakume guztiak ezagutzen zituela kontuan hartuta.

Lege-prozesuan emakumeei lagundu zieten erakundeek argitaratutako txostenean irakur daitekeen baieztapenak argi adierazten du ongi zekitelako zigor-arloko prozesuaren publikizatea zela-eta ezinezkoa izango zela bizirik ateratako emakumeen nortasunari isilpean eustea. “Lege-kasuek aurrera egin ahala, eta bizirik ateratako emakumeak eta kaltegileak publikoki identifikatu ahala, ordura arteko “sekretu komunitarioak” agerian geratzen hasi ziren. ECAP komunitate horietako gizon eta mutilekin lan egiten hasi da, gertatutakoa argitzeko eta justiziako prozesu horien hurrengo etapetarako prestatzeko” (Crosby, Caxaj eta Brinton, 2014: 29). Beraz, zigor-arloko prozesuan emakumeen botere kolektibo eta komunitarioa indartu egin behar zen ezinbestean, familiaren eta komunitatearen barruan jasan zezaketen estigmatizazioari publikoki aurre egin eta gainditu ahal izateko. Alabaina, prestaketa-lan hori komunitateko gizonekin egin behar zela erabaki zuten, ez emakumeekin.

Hala eta guztiz ere, emakume talde horren ausardiari, erabakitasunari eta uste sendoei esker sexu-esklabotzagatiko epaiketa historikoa egin ahal izan zen Guatemalan. Horrekin guztiarekin batera, Yassmin Barrios epailearen jarduna ere nabarmendu behar da; Barrios epailea ezaguna da bere herriko justiziaren alde lan egiteko duen gogo eta borondatearengatik, eta oso ongi daki sexu-bortxaketa modu sistematikoan erabili zela politika genozidaren esparruan, Ríos Montt-en aurkako epaiketaz geroztik. Horrela, bada, 2016ko otsailaren 26an Esteelmen Francisco Reyes Girón teniente koronel erretiratua<sup>28</sup> eta Heriberto Valdéz Asij goi-mandatarari militar ohia sexu-esklabotzako gizateriaren aurkako delituengatik zigortu zituzten.

Sepur Zarco kasuko epaia paradigmaticoa da; izan ere, Guatemalako historian aurreneko aldiz, legeak emakumeen egia baliozkotu baitu. Estatuak onartu du min eman zietela, haien aurkako krimena egin zuela, ez dela gezurra eta emakumeak ez direla “prostitutak”<sup>29</sup>, bizirik ateratako emakumeek beraiek hasiera-hasieratik, isiltasuna urratzen hasi zirenetik aldarrikatu zuten. Epai horrek argi adierazten du sexu-krimenak ez dituztela onartuko balio demokratikoetan oinarrituta berreraiki nahi duen gizarte batean, eta kaltegileek egindakoaren gaineko erantzukizuna onartu beharko dutela. Zigorgabetasunaren aurkako mezua da. Epai horrek erreparazio sinbolikoaren eragina izango du bortxatu eta esklabo bihurtu zituzten beste emakume batzuegan ere, legeak onartu baitu gertatutako hori ez zela “normala” eta ez zutela horrelakorik jasan beharrik ere maia emakume izateagatik. Gizateria osoaren aurkako krimena da. Emakumeen bihotza atsedean hartzen has daiteke; emakumeak ez ziren errudun izan.

Memoriaren aldeko Bigarren Jaialdiaren esparruan, Lepa Mladjenovic-ek zera proposatu zuen, “emakumeok justizia behar dugu, baina hori justiziaren zati bat baino ez da. Zati bat baino ez” (Fulchironen aipatua, 2013: 110-111). Hain zuzen ere, q’eqchi emakumeei galdetu beharko zaie ea epai horrekin gustura dauden eta erreparazioa jaso dutela sentitzen duten. Epaiak emakumeen eguneroko bizitzan duen eragin errealaren eta esanguratsuen araberakoa izango da: emakumeen egia familian eta komunitatean ere onar

---

28 Armadaren ordezkaria komunitatean eta autodefentsa zibileko patruilariaren arduraduna.

29 Defentsak argudio hori eman zuen biktimen bertsioa desitxuratzeko; patriarkatuaren imaginarioan errotuta dagoenez, sexu-krimenen erantzukizuna emakumeen gain erorarazi zuen, gertatutakoa bilatu, nahi izan edo onartu zutelako. “Prostitutaren” irudia “asmo txarreko emakumearen” ideiarekin loturik dago, bortxatua izan nahi duen eta horretarako prest dagoen emakumearen ideiarekin. Gogorarazi zuen komunitateak “gizonekin gauzak egitea gustuko duten emakumetzat” jo zituela.

dezatela, emakumeen kontrako estigmatizazioa eta indarkeria amaitzea, eta komunitatean toki berri bat, bidezkoa eta duina, betetzea.

Bosnia-Herzegovinako kasua horren adibide garbia dugu. Margot Wallström Nazio Batuen ordezkari berezia da Gatazketako Sexu Indarkeriari dagokionez; 2010. urtean topaketa batean parte hartu zuen Wallström-ek Bosnia-Herzegovinako gatazka armatuan sexu-bortxaketatik bizirik ateratako emakumeekin eta emakumeen taldeekin, eta topaketa horretan argi geratu zen, besteak beste, emakume horiek ez daudela gustura emakume musulmanen sexu-bortxaketen erantzuleen aurkako zigor-arloko prozesuekin, bortxatzaileetako zenbait zigortu zituzten arren, sexu-bortxaketa horiek Bosniako genozidio-politikaren barruan sartzen zirelako<sup>30</sup>. “Gerra-garaian sexu-bortxaketak jasan zituzten emakumeak trauma horrekin lotutako emozioekin bizi dira oraindik, kasu askotan krimena gertatu zen hiritik oso urrun. Aldiz, bortxatzaileak kalean dabilta oraindik, hiri horietan, [...] boterean dauden lider nazionalisten babespean. Bestela esateko, kaltegileek askatasun guztiei eusten diete eta, aldiz, biktimak itzaletan bizitzera behartuta daude. Ondorioa honako hau izan zen: Jugoslavia ohirako Nazioarteko Zigor Auzitegiak eta auzitegi nazionalak lan handia egin zuten arren, kalte-ordainari buruzko lege berria dagoen arren, oraindik ere ez dago ‘justiziarik’ Bosniako eta Herzegovinako gatazka armatuan sexu-bortxaketaren biktima izandako emakumeentzat. Justiziaren beste esanahi bat pentsatu behar zen” (Mladjenovic, 2011).

Kolonbiako Libertad-eko emakume taldean ere ondorio hori bera ateratu zuten; 2016. urtean sendatze-prozesu bat egin nuen emakume horiekin, sei hilabetez. Libertad-eko emakume beltzek, Iniciativa de Mujeres por la Paz (IMP) taldearen laguntzarekin, lortu zuten egiaztatzea eta frogatzea sexu-bortxaketak eta sexu-esklabotza modu sistematikoan jasan zituztela *Oso* komandante paramilitarrak emakume horien komunitatea okupatu zuenean 1994-2004 aldian. 2015eko martxoaren 4an, Justiziako Gorte Gorenak Barranquillako auzitegiaren erabakia berretsi zuen: *Oso* komandanteari ez zioten onartu Justiziaren eta Bakearen Legeak ematen duen abantaila juridikoa<sup>31</sup> eta justizia arruntera eramane zuten bere kasua, Libertad-eko emakumeen aurka egindako

---

30 Bosnia-Herzegovinako gatazka armatuan, 20.000 emakume bortxatu zituztela kalkulatu da, gehienak musulmanak. 27 gizon baino ez zituzten zigortu Jugoslavia ohirako Nazioarteko Zigor Auzitegian eta auzitegi horren lanarekin jarraitzeko sortu zituzten auzitegi nazionaletan.

31 2005. urtean onartutako Justiziaren eta Bakearen 9-75 Legean trantsiziozko justizia sistema bat ezarri zen; sistema horri esker, desmobilizatuta dauden paramilitarrek gehienez ere 8 urteko zigorrak jasoko dituzte –justizia arruntaren sisteman baino askoz ere zigor txikiagoak–, betiere egindako krimenei buruzko egia argitzen laguntzen badute.



sexu-krimenak ukatu zituelako. Arrakasta juridikoa da, epai paradigmaticoa, Kolonbian horrelako bakarra izan baita<sup>32</sup>. Aldi berean, emakumeak izan ziren Estatuaren erreparazio administratiboa jaso zuten lehenengoak, bizi izandako sexu-krimenak direla-eta. Dena dela, jasotako diru-kopurua garrantzitsua den arren –etxe duin bat eraikitzeko adina– eta *Oso* espetxean dagoelako eta haiei edo haien alabei kalterik egin ezin dielako pozik dauden arren, honako hau diote: “*Horrek ez gaitu barrutik berpiztuko. (...) Sexu-indarkeriaren biktima izandako emakumeentzat ez da ezertxo ere egon*”.

“*Barrutik berpiztu*” adierazpideak argi adierazten du “justizia ez dela soilik arauak eta prozesuak. Justizia bizitza da” (Piñeyroa Sierra, 2015: 286). “*Barrutik berpiztea*” –Karibe kostako emakume beltzen hitzak dira–, edo “*berriz jaiotzea*” –maia emakumeek hitzak– izan beharko litzateke justiziaren azken xedea; justiziak duintzailea eta erreparatzailea izan beharko luke, bizirik ateratako emakumeei beren bizitza berreraikitzeke eta beldur nahiz lotsarik gabe ibiltzeko aukera emango diena. “Horrek ez du esan nahi justizia saritzaileak balio ez duenik; horrek esan nahi du beste formula batzuekin osatu behar dela” (*Ibid.*: 283). Hortaz, emakumeen eta feministen mugimendu garen aldetik, justiziaren bide osagarriak eraikitzea da gure erronka, justiziako gure proposamen politiko eta filosofikoetan emakumeen bizitza berreraikitzeke eta eraldatzeko prozesuak ere txertatuta.

### 5.5.2. Komunitatean “emakumeen legea” sortzea: mam eta chuj emakumeen esperientzia Actoras de Cambio-rekin batera

Justizia-prozesu ororen xedea zera da, sexu-krimenak inoiz ere ez errepikatzea. Horrek esan nahi du sexu-bortxaketak onartzeari, sustatzeari eta justifikatzeari utzi behar zaiola eta krimentzat hartu behar direla. Horretarako, erasotzaileek zigorra izatea funtsezkoa da, egindakoaren gaineko erantzukizun soziala euren gain har dezaten. Zertarako? Mezu irmo bat transmititzeko: bortxatzaileen jardun kriminala ez dela inon ere onartuko: komunitatean, etxean, ikastetxean, kalean, lantokian edo erakunde politikoan.

Alabaina, Guatemalako, Kolonbiako, Mexikoko, Peruko, Bosnia-Herzegovinako eta Indiako kasuak alderatu ostean, ondorio bera atera dugu: sexu-bortxaketaren biktimentzat justizia lortzeko ahaleginak egiten direnean,

---

32 Ikus: <<http://www.eltiempo.com/politica/justicia/por-delitos-no-confesados-el-oso-pagaria-40-anos-de-carcel/15368935>

zigorgabetasuna, legearen interpretazio patriarkala<sup>33</sup>, emakumeak errudun bihurtzea eta estigmatizatzea, eta erasotzaileak babestea dira nagusi<sup>34</sup>. Emakumeok ez dugu justizia lortzeko aukerarik. Eta auzitegiatarra jotzeko aukera izaten dugunean ere, badakigu “lotsaren antzerkia” izango dugula zain (Lewis Herman, 2005: 571)<sup>35</sup>. Zigor-epai paradigmatikoa izan duten kasuetan ere, emakumeek ez dute sentitu erreparazioa jaso dutenik, epaiak ez baititu “barrutik berpiztuko” eta ez baitu eraginik izango emakumeak estigmatizatzen dituzten eta sexu-bortxaketa betikotzen duten pentsamolde eta jardunbide sozialetan.

Nazioarteko arauetan sexu-bortxaketa krimentzat hartzen den arren eta emakumeek bizitza duina eta libre izateko eskubidea dutela onartzen den arren, justizia-operadoreek ez dituzte arau horiek aplikatzen; aitzitik, imaginario patriarkalean antzinatek errotutako aurreiritzien arabera interpretatzen dituzte sexu-krimenak. Alda Facio-k (1999: 76) nabarmendu duenez, idatzitako legeez gain –fenomeno juridikoaren osagai arauemaile formala– “idatzi gabeko legeak ere badira, ohitura eta jardunbide sozialetan oinarritzen direnak”. Sexu-bortxaketa ez da existitzen imaginario kolektiboan. Gizonezkoen ahotsa soilik existitzen da, eta ahots horrek baimendutako sexutzat, nahi den sexutzat jotzen du eta, aldi berean, emakumeen esperientzia isilarazten du. Justizia-operadoreek eta komunitateetako agintariak, halaber, kultura-irudikapen horiek aplikatzen dituzte sexu-bortxaketa epaitzeko garaian, eta horrek zigorgabetasuna sustatzen du eta krimena betikotzen laguntzen du. Haien ustez, “gizonek egiten badute, emakumeek nahi dutelako da”. Gertatutakoa ez dago ikertu beharrik.

Itun patriarkalak agerian geratzen dira Estatuko eta komunitateetako agintari judizialek bortxatzailearekin elkar hartuta jarduten dutenean.

---

33 Bibliografian ekoizpen garrantzitsua dago epaileek egindako legeen interpretazioari buruz; izan ere, emakumeen sexualitatearekin lotura duten eta errotuta dauden aurreiritzi patriarkalei lehentasuna ematen diete legez babestutako eskubideen gainetik. Ikus: MacKinnon (1989); Amorós (1990); Larrauri (1994); Facio (1999); Segato (2003); eta Lagarde (2004).

34 Guatemalako Ministerio Publikoan bildutako datuen arabera, 2015. urtean sexu-askatasunaren aurkako delituen 13.092 kasu igorri ziren Organismo Judizialera, eta horietatik guztietatik 583 salaketa eta 37 epai baino ez ziren lortu. Beste 141 kasu ezetsi egin zituzten, deliturik ez zela egin iritzita. Estatistika horietan oinarrituta, sexu-askatasunaren aurkako delituen kasuan zigorgabetasunaren maila % 99,52 zela kalkulatu zen.

35 Besteak beste, Guatemalaren kasuan, ikus: Díez (2006); Peruren kasuan: DEMUS (2009); Ekuadorren kasuan: Medina eta Carrillo (2007); Estatu Batuen kasuan: Lewis Herman (2005); Nikaraguaren kasuan: Red de Mujeres contra la Violencia (2008); Kolonbiaren kasuan: Corporación Sisma Mujer (2009).

Gizonek elkarri babesten diote. “Gizon erasotzaileak agintari eta gaizkileen arteko konplizitateaz baliatzen dira; adostu gabeko konplizitatea izan daiteke, baina ideologikoki eta politikoki aktiboa da agintarien eta gaizkileen artean” (Lagarde, 2008: 233). Isiltasunaren, ekintzarik ezaren eta emakumeak errudun bihurtzearen bitartez, gizonek euren arteko ituna babesten dute: gure gorputza eta gure bizitza eskura izateko eta kontrolatzeko duten eskubide primarioa. Gizonen arteko konplizitate ideologiko eta politiko hori baieztatu eta berretsi egiten da euren arteko boterea arriskuan dagoela sentitzen duten bakoitzean, emakumeok botere hori agerian uzten dugun eta zalantzan jartzen dugun bakoitzean.

Komunitateetan, sexu-bortxaketa familiaren ohoreari egindako iraintzat hartzen da, eta bortxaketa jasan duen emakumearengan erorarazten dute erantzukizuna. Guk lagundu ditugun kasu askotan, komunitateko agintariak, familiarekin batera, bortxatzailearekin ezkontzeko agindu izan diete neska gazteei, familiaren izena eta egindako delitua garbitzeko. Komunitateak horrelako erabakiak hartzen dituenean, agerian geratzen da ordena sozial patriarkalarentzat gizonek emakumeen gorputza eskura izateko eta kontrolatzeko duten eskubidea babestea garrantzitsuagoa dela emakumeei egindako kaltea, emakumeen hitza, autonomia eta ongizatea baino. Kasurik onenean, agintariak bortxaketa komunitatearen bizikidetzara-arauden urraketatzat hartu dute, eta bitartekari-lana egiten dute bortxatzaileak “kaltea konpon dezan” emakumeari “botikak” ordainduta. Bortxatzaileak ez du zigorrrik jasotzen, libre jarraitzen du eta haren botere sozialak bere horretan jarraitzen du; aldiz, beldurraren marka eta lotsa soziala biktima izan den emakume, neska gazte edo neskatilaren gain erortzen dira.

Chaculá-ko chuj emakume baten kasuan, merkatura zihoalarik Nentón udalerriko El Aguacate herrixkako 70 urteko gizon batek bortxatu zuen berriki; emakume horrek Actoras de Cambioren barruko taldeetan parte hartzen du. Emakumearen seme-alabek bortxatzailea harrapatzea lortu zuten eta poliziaren esku utzi zuten; poliziak Nentón-eko bake-epaileren aurrera eraman zuen gizona, eta salaketa jarri zioten. 24 ordu igaro zirelarik, bake-epaileak bortxatzailea libre utzi zuen emakumearen senitartekoek gizon hori harrapatzeko eskumenik ez zutela argudiatuta. Justizia-sistemaren eraginkortasunik eza ikusita, komunitatean batzarra egiteko deialdia egin genuen; Actoras de Cambioren babespeko emakume taldeek erasotzailea salatu genuen eta agintariei gizon hori zigortzeko eskatu genien. Komunitateko gizonekin tentsio handia bizi izan genuen, eta gure aurka eta komunitateko emakume sarearen aurkako lintxamendu-mehatxuak sortu ziren. Komunitateko batzarra izan eta handik egun gutxira, gizonak zera

esaten hasi ziren bozgorailuak hartuta, emakumeek jada ezin zituztela bilerak egin, bestela, harrapatu eta bortxatu egingo zituztela. Taldekideak isilarazi eta mendean hartzea zen haien asmoa, beldurraren bitartez. Orduan, komunitatea okupatzea erabaki genuen eta Memoriaren aldeko Jaialdi bat antolatu genuen; 200 emakumek, kazetariak eta herrialdeko hainbat eskualdetako nahiz Latinoamerikako erakundeek parte hartu zuten. El Aguacate herrian barrena martxa bat egin genuen, eta komunitatean libre zebiltzan bortxatzaileak jendaurrean, publikoki salatu genituen. Hartara, sexu-bortxaketa onartezina dela konturatzen hastea lortu genuen, komunitateko emakume sarea bakarrik ez dagoela ikusi zuten eta botere-oreka geure alde alda zitekeela. Komunitateko agintariak, bortxaketa-krimenean konplize izatea leporatzeko beldurrez, bortxatzailea babesteari utzi zioten eta komunitatetik kanporatu egin zuten.

Sexu-bortxaketen kasuan, komunitateko agintariak eta Estatuko sistema judizialak ez dutela ezer egiten ikusita, eta zigor-arloko sistemak emakumeen bizitza eraldatzeko eta ez errepikatzeko baldintzak sortzeko muga handiak dituela jakinda, Colotenango-ko mam emakumeen taldeak eta Nentón-go chuj emakumeen taldeak –bi udalerrriak Huehuetenango-n daude– komunitateko agintaritzat jardutea eta emakumeentzat erreferente izatea erabaki dute.

*“Guretzat legeak ez du funtzionatzen. Orduan, gure komunitateetan geure lege propioak sortzen ari gara. Eta indartsu sentitzen gara emakumeen sare bat izateko. Geure buruaz oso seguru gaude, emakumeen beste erakunde batzuen babesa dugulako eta haiekin koordinatzen garelako” (Fulchiron-en aipatua, 2013: 115).*

Haren hitzetan, “emakumeen legea” sortzen ari dira komunitatean:

*“Zergatik ez ditugu geure lege propioak sortzen emakume garen aldetik? Guretzat ez badago justiziarik eta gure komunitateetan neskak eta emakumeak bortxatzen ari badira. Ideia da emakume gehiago antolatzea. Proposamen bat badago jada, lege horiek emakumeek baliatzea eta bortxatzaileentzat emakumeek gobernatutako espetxeak egotea. Emakumeek harrapatuko lukete bortxatzailea eta etxe horietara eraman zigortzeko; bortxatzailearen etxeko atea margotuko lukete. Komunitateetan lan astunak eginarazi beharko lizkiekete zigor moduan” (Ibíd.).*

Nentón-go chuj emakumeak, Colotenango-ko mam emakumeak eta Actoras de Cambio kolektiboa lanean hasi gara, antolatzen hasi gara komunitatean

modu kolektiboan jarduteko eta sexu-erasotzaileek beren erantzukizuna euren gain har dezaten. Ekintzak kolektiboan erabakitzen dira, eraso motaren eta erasotutako neska edo emakumearen borondatearen arabera. Sexu-erasotzaileak zigortzeko ekintza sozial horiek honako helburu hauek izaten dituzte:

- Isiltasuna urratzea.
- Sexu-bortxaketa krimenez hartzea.
- Lotsa soziala alderantzikatzea, bortxatzailearen gain eror dadin eta ez emakume biktimaren gain.
- Sexu-bortxaketari muga jartzea. Komunitateko emakume taldeak sexu-bortxaketa bat gehiago ere ez duela onartuko jakinaraztea, baita gizonek jada ez dutela erabateko zigorgabetasunik izango ere.
- Sexu-bortxaketaren biktima diren emakumeei behar duten guztian laguntzea emozioen eta gizartearen aldetik, eta babes-sare moduan.

El Aguacate-ko kasuan ikusten denez, bortxatzaileak jendaurrean salatzea emakumeen gaineko nagusitasun-sistemaren muina ukitzea da; “sorgin-ehiza” jasateko arriskuan jartzea esan nahi du (Amorós, 1990: 15). Gizonetzkoek emakumeen aurka abiatzen dituzten errepresalien indarkeria egiazkoa izaten da gizonek beraien boterea zalantzan jartzen ari dela sentitzen dutenean. Baliabide guztiak justifikagarriak dira gizonen arteko ituna salbatzeko: baita emakumeen heriotza ere. Horrela, bada, gune publiko, komunitario eta sinbolikoa okupatzera behartuta gaude, emakumeen botere kolektibo kohesionatu eta sendo batekin eta diskurtso politiko zehatz batekin, betiere erakunde ugariren babesarekin, errepresalia horiei aurre egin eta gizonetzkoen boterea alderantzikatzea lortzeko. Ezarritako ekintzak oso eraginkorrak direla egiaztatu ahal izan dugu; izan ere, sareek salatutako bortxatzaileek komunitatetik alde egin behar izan baitute eta, emakumeak, aldiz, harro eta beldurrik gabe ibil daitezke komunitatean. Mam eta chuj emakumeen indar kolektiboari esker, komunitateko gizonen egindako sexu-bortxaketak eta intzestuak mugatu egin dira. Gizonen badakite orain lotsa soziala jasan beharko dutela, sexu-bortxaketa oro ez dela isilpean eta zigorrik gabe geratuko, eta emakume sareak ez duela sexu-indarkeria mota bat bera ere gehiago onartuko; beraz, komunitateko gizonen kolektiboak badaki orain mugak dituela.

## 6. Ondorioak

*“Gaur aldaketa gertatu dela sentitzen dut. Ongi eta pozik nago. Emakumeek gugana jotzen dute gugan aldaketa ikusten dutelako. Ikusten dute orain nola ibiltzen garen, eta zer botere eta jakintza ditugun”.*

Bizirik ateratako emakumeen taldeak egiaren, erreparazioaren eta justizia sozialaren gune bihurtu ziren emakumeentzat. Gune horietan isiltasuna urratu zuten lehen aldiz, entzunak izan ziren lehenengoz, emakumeen egia baliozkotua izan zen eta bizitza berreraiki ahal izan zuten. Familiatik eta komunitatetik alboratu egin zituzten arren, isiltasuna, isolamendua eta lotsa jasanarazi zieten arren, gaur egun erreferente bihurtu dira komunitateko emakumeentzat, ausartak, indartsuak eta solidarioak izan direlako beste emakume batzuekin eta haien askatasunarekin. Burua zut ibiltzen dira, harro, gogotsu egiten dute irri eta libreki dantzatzeko dira. Larruazalean iltzatutako errua eta izua alde batera utzi, eta amodio propioa eta segurtasuna eskuratu zituzten. Gertatutakoaz jendaurrean eta lotsarik gabe hitz egiten dute, beste emakume batzuei arima berreskuratzen lagun diezaiekutelako uste sendoarekin.

Zigorgabetasunaren eta sistema formalak kaltegileak zigortzeko duen ezintasunaren aurrean, eta emakumeen gorputzaren aurkako gerra betikotzen duten baldintzak eraldatzeko premia soziala ikusita, maia emakumeen sareak eta Actoras de Cambiok zigor soziala ezartzeko modu komunitario berriak asmatzen ari dira, *“egunen batean, hemendik gutxira neskatxei eta emakumeei minik egin ez diezaieten”* bermatzeko. Isiltasuna urratzera bideratutako salaketa publikoak eta memoria sozialeko prozesuak ezartzen ari dira, komunitateko imaginarioan sexu-bortxaketa krimentzat har dadin, eta bortxatzaileak lotsarazteko eta legitimitate soziala gal dezaten.

Aldi berean, sexu-bortxaketa salatzen duten emakumeentzat elkartasuneko, babeseko eta laguntzako baldintzak sortzen dituzte. Horrelakorik berriro ez errepikatzeko baldintzak sortzen ari dira, elkarrekin. Jada ez dute behar Estatuko ezein erakundek erreparazioa ematea. Elkarrekin burutu duten sendatzeko, memoria historikoko eta antolaketako prozesuari esker, beren burua duin bihurtu eta elkarrir erreparazioa eman diote. Beraien bizitzaren subjektu izatea lortu dute. Gizaki bihurtu dira, haientzat diseinatuta zegoen mendetasuneko patuari eta heriotzari aurre eginez. Beraien buruari justizia eman diote.

Gaur egun, Estatu, para-Estatu eta gizonezkoen korporazio militarizatuek –forma guztietan– emakumeen gorputzak “barne-etsai” bihurtu dituzte;

“beste batzuen” lurtzat hartu dituzte eta lur horiez gabetu, lur horiek ustiatu eta suntsitu egin beharrekoak dira; emakumeen gorputzak gizonen heriotzeko proiektu globalaren ardatz bihurtu dituzte. Egoera horren aurrean, Actoras de Cambiok maia emakumeekin, emakume mestizoekin eta europarrekin bizi izandako esperientzia kolektibo eta komunitarioak bide berriak sortzeko esperantza berriak zabaldu ditu: justiziaren bideak, gorputza eta lurraldea defendatzeko bideak eta bizitza eraldatzeko bideak. Esperientzia hori dela-eta, justizia lortzeko bide osagarriak pentsatu behar direla geratu da agerian, bizi izandako bidegabekeria zehatzetan oinarrituta eta horiek desagerraraztearren. Nork berreraiki ahal izango du sexu-bortxaketarekin suntsitutakoa, geuk ez bada? Nor egin daiteke bere gorputzaren jabe berriro ere, norbera ez bada? Nork eraiki ahal izango du toki berri bat, librea, duina eta bidezkoa gizartean, guk geuk ez bada?

Hori lortzeko, begiratu aldatu behar dugu, justiziaren ikusmolde hegemonikoak baztertu behar ditugu, zalantzan jarri ezin den hori zalantzan jarri behar dugu eta ezinezkoa denarekin amets egiten hasi behar dugu. Emakumeen eta feministen mugimendu garen aldetik, justiziaren bide osagarriak eraikitzea da gure erronka, *sentitzea* metodotzat hartuta, eta justiziako gure proposamen politiko eta filosofikoen ardatz emakumeen gorputza eta bizitza izanik. Zer da justizia, entzuten, onartzen eta erreparazioa ematen digutela sentitzea ez bada?

## Bibliografia

- Amorós, Celia (1990): “Violencia contra las mujeres y pactos patriarcales”, Maguieira, Virginia eta Cristina Sánchez (konp.): *Violencia y sociedad patriarcal*, Pablo Iglesias Argitaletxea, Madril.
- Aresti, Lore (1997): *La violencia impune: una mirada sobre la violencia sexual contra la mujer*, Fondo Cultural Albergues, Mexico Hiria.
- Burin, Mabe (1987): *Estudios sobre la subjetividad femenina. Mujeres y salud mental*, Grupo Editor Latinoamericano, Buenos Aires.
- Casaús Arzú, Marta Elena (2008): *Genocidio, ¿la máxima expresión de racismo en Guatemala?* F&G, Guatemala.
- Cockburn, Cynthia (2004): “The Continuum of Violence: A Gender Perspective on War and Peace”, Giles, Wenona eta Jennifer Hyndman (arg.): *Sites*

*of Violence. Gender and Conflict Zones*, University of California Press, Berkeley eta Londres.

Comisión Internacional Contra la Impunidad en Guatemala (CICIG) (2016): *Rata de personas con fines de explotación sexual en Guatemala*, Guatemala.

Comisión para el Esclarecimiento Histórico (CEH) (1999): *Guatemala, memoria del silencio. Las violaciones de los derechos humanos y los hechos de violencia*, Oficina de Servicios para Proyectos de las Naciones Unidas, Guatemala.

Corporación Sisma Mujer (2009): *Mujeres en conflicto: violencia sexual y paramilitarismo. La violencia sexual contra las mujeres ejercida por grupos paramilitares: estrategias, variantes e identificación de situaciones tipo*, Bogota.

Crosby, Alison, Caxaj, Brisna eta Brinton Lykes (2014): *Entendiendo la lucha de las mujeres por justicia, sanación y desagravio: un estudio de género y reparaciones en la Guatemala post-guerra*, Informe Técnico Final, Guatemala.

Cumes, Aura (2014): *La “india” como “sirvienta”: servidumbre doméstica, colonialismo y patriarcado en Guatemala*, Doktore tesia (argitaratu gabeko dokumentua), CIESAS, Mexico.

DEMUS (2009): *Para una justicia diferente. Violencia sexual y reforma judicial con perspectiva de género*, Estudio para la Defensa de los Derechos de la Mujer, Lima.

Díez, Andrea (2006): *Eso no se escucha: inclusión de los hechos de violencia sexual en las causas por violaciones a derechos humanos en Guatemala*, Instituto de Estudios Comparados en Ciencias Penales de Guatemala (ICCPG), Guatemala.

Facio, Alda (1999): *Cuando el género suena cambios trae*, ILANUD, Costa Rica.

Fulchiron, Amandine (koord.), Paz, Olga Alicia eta Angélica López (2009): *Tejidos que lleva el alma: memoria de las mujeres mayas sobrevivientes de violación sexual durante el conflicto armado*, Consorcio Actoras de Cambio, Equipo de Estudios Comunitarios eta Acción Psicosocial (ECAP), Unión Nacional de Mujeres Guatemaltecas (UNAMG) eta F&G, Guatemala.



- Fulchiron, Amandine (2013): *Yo soy voz de la memoria y cuerpo de la libertad. Segundo Festival por la Memoria. Hacer de la justicia algo significativo para nuestras vidas*, Actoras de Cambio, Chimaltenango, Guatemala.
- González Izás, Matilde (2002): “Se cambió el tiempo: conflicto y poder en Territorio K’iche’ (1880-1996)”, *Cuaderno de investigación*, 17, Asociación para el Avance de las Ciencias Sociales de Guatemala (AVANCSO), Guatemala.
- Grupo de Mujeres Mayas Kaqla (2004): *La palabra y el sentir de las mujeres mayas*, Guatemala.
- Hercovich, Igenes (1997) *El enigma sexual de la violación*, Biblos, Biblioteca de Mujeres, Buenos Aires.
- Instituto Interamericano de Derechos Humanos (IIDH) (1997): *Protección internacional de los derechos humanos de las mujeres*, San José (Costa Rica).
- Lagarde, Marcela (2000): *Claves feministas para la autoestima de las mujeres*, Horas y horas, Madril.
- Lagarde Marcela (2004): “Por la vida y la libertad de las mujeres. Fin al feminicidio”, Concha Aida, Leonor eta Gabriela Laballe (arg.): *Resistencia y alternativas de las mujeres frente al modelo globalizador*, Red Nacional de Género y Economía, Mexico Hiria, 114-126. Ciudad Juarez-en emandako diskurtsoaren bertsio editatua, Chihuahua.
- Lagarde, Marcela (2008): “Antropología, feminismo y política: violencia feminicida y derechos humanos de las mujeres”, Bullen, Margaret eta Carmen Diez Mintegui (Koords.): *Retos teóricos y nuevas prácticas*, Ankulegi Antropologia Elkarte, Donostia, 209-239.
- Lewis Herman, Judith (2005): “Justice from the Victim’s Perspective”, *Violence Against Women Journal*, 11(5), 571-602.
- Lemkin, Raphael (2005) [1944]: *Axis Rule in Occupied Europe: Laws of Occupation, Analysis of Government, Proposals for Redress*, The Lawbook Exchange, New Jersey.
- Lira, Elizabeth eta Eugenia Weinstein (1984): *Psicoterapia y represión política*, Siglo XXI, Mexico Hiria.
- MacKinnon, Catherine (1995): “Rape, Genocide and Women’s Human Rights”, Stiglmayer, Alexandra (arg.): *Mass Rape: The War against Women in Bosnia Herzegovina*, University of Nebraska Press, Lincoln NE.

- Medina, Cecilia eta Patricia Carillo (2007): *Los lenguajes de la impunidad: informe de investigación delitos sexuales y administración de justicia*, CEPAM, Quito.
- Méndez, Liduvina (2011): *¿Cómo sanar y recuperar nuestro poder colectivo como mujeres para construir una sociedad que ya no acepte ni justifique la violación sexual?*, Ponencia, Segundo Festival por la Memoria, Actoras de Cambio, Guatemala.
- Mladjenovic, Lepa (2011): *Sanar es justicia: “Yo soy voz de la memoria y cuerpo de la libertad, ¡Presente!”*. *La historia del Segundo Festival para la Memoria de las Mujeres Sobrevivientes de Violación Sexual durante el Conflicto Armado*, Chimaltenango, Guatemala, 2011eko otsailak 24-28.
- Monárrez Fragoso, Julia (2002): “Feminicidio sexual serial en Ciudad Juárez: 1993-2001”, *Debate Feminista*, 25, apirila.
- Nussbaum, Martha (2013): *Emociones políticas. ¿Por qué el amor es importante para la justicia?*, Paidós, Bartzelona.
- Paz Cárcamo, Guillermo (1997): *Guatemala: Reforma agraria*, FLACSO, Guatemala.
- Pisano, Margarita (2004): *El triunfo de la masculinidad, Fem-e-libros/ creatividad feminista*, Santiago de Chile.
- Piñeyroa Sierra, Carlos (2015): “Epílogo”, Bernuz Beneitez, María José y Andrés García Inda (koords.): *Después de la violencia. Memoria y justicia*, Siglo del Hombre eta Universidad EAFIT, Bogota.
- Proyecto Interdiocesano de Recuperación de la Memoria Histórica (REMHI) (1998): *Guatemala: nunca más. Impactos de la violencia*, Oficina de Derechos Humanos del Arzobispado de Guatemala, Guatemala.
- Red de Mujeres Contra la Violencia (2008): *Para mí... no se hizo justicia. Historias de vida de mujeres en búsqueda de justicia ante situaciones de violencia vivida*, Managua.
- Riquelme, Horacio eta Inger Agger (1990): *Era de nieblas. Derechos Humanos, terrorismo de estado y salud psicosocial en América Latina*, Nueva Sociedad, Caracas.
- Roberto, María de los Ángeles (2013): *La mujer como botín de guerra en América Latina. Un análisis interdisciplinario a partir de la lectura del libro de Jueces 19 a 21*, ISEDET, Buenos Aires.

- Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegia (1998): *ICTR-96-4-T Auzia*.
- Ruandarako Nazioarteko Auzitegiak Akayesu kasuan.
- Segato, Rita Laura (2014a): *Las nuevas formas de la guerra y el cuerpo de las mujeres*, Pez en el árbol, Puebla (Mexico).
- Segato, Rita Laura (2014b): “Colonialidad y patriarcado moderno: expansión del frente estatal, modernización, y la vida de las mujeres”, Espinoza, Yuderkis, Gómez, Diana y Karina Ochoa (arg.): *Tejiendo de otro modo: feminismo, epistemología, apuestas descoloniales en Abya Yala*, 75-90, Universidad del Cauca, Kolonbia.
- Segato, Rita Laura (2003): *Las estructuras elementales de la violencia. Ensayos sobre género entre la antropología, el psicoanálisis y los derechos humanos*, Universidad Nacional de Quilmes eta Prometeo, Buenos Aires.
- Seifert, Ruth (1995): “War and Rape: A Preliminary Analysis”, Stiglmyer, Alexandra (arg.): *Mass Rape: The War against Women in Bosnia Herzegovina*, University of Nebraska Press, Lincoln NE.
- Silva Espina, Elizabeth Andrea (2013): *Los actos de violencia sexual contra las mujeres en conflicto de guerra como constitutivos del crimen de genocidio: análisis del caso Akayesu*, Universidad de Chile, Santiago de Chile.
- Terrasson, Brigitte (2003): “Las violaciones de guerra y las mujeres en Francia durante el primer conflicto mundial 1914-1918”, Nash, Mary eta Susana Tavera (arg.): *Las mujeres y las guerras: el papel de las mujeres en las guerras de la Edad Antigua a la contemporánea*, Icaria, Bartzelona.
- Tribunal Primero de Sentencia Penal de Mayor Riesgo “A” de Guatemala (2013), *Sentencia de 10 de mayo de 2013, C-01076-2001-00015 OF. 2o*, Guatemala.





### **III. Kapituluua.**

## **Emakumeak zigorgabetasunaren aurka El Salvadorren**

*Gloria Guzmán Orellana eta Irantzu Mendia Azkue*



## 1. Sarrera

El Salvadorren, gatazka armatuak iraun zuen hamabi urteetan (1981-1992) eragindako giza eskubideen urraketa larrien aurreko zigorgabetasun historikoa, juridikoa eta politikoa gailentzen da, bai 1993an Amnistia Orokorrerako Legea onartzeak ekarri zuen justizia-blokatzeagatik, bai Estatuko erakundeek, batik bat Armadak, eta herrialdeko elite politiko eta ekonomikoak gertatutakoa behin eta berriz ukatzen jarraitzen dutelako. Azkeneko bost urteetan, 2012. urtetik aurrera, soilik hasi dira erakundeetan trantsiziozko justizia berantiarreko agenda izan litekeenarekin loturiko keinu xume batzuk agertzen.

Kapitulu honen ardatza da El Salvadorren ebazteke dauden egia, justizia eta erreparazio prozesuekin loturiko emakumeen aktibismoa. Hemen aztertu ditugun esperientziak biktimen eta giza eskubideen aldeko mugimenduetako kolektibo mistoetako emakumeek sustatu dituzte, nahiz eta kasu batzuetan erakunde feministetako kideak ere izan diren.

Ikusiko dugun bezala, El Salvadorreko biktimen eta giza eskubideen aldeko mugimendua oso mugimendu feminizatua da, antolakuntzan ibilbide eta esperientzia luzea duten emakumeek osatua gehien bat. El Salvadorreko historiaren subjektu aktibo izateaz gain, emakume horietako gehienak giza eskubideen urraketa askoren biktima izan ziren gerra garaian. Zigorgabetasunaren aurkako ekintzen artean, ibilbide luzeena izan duten batzuk azpimarratuko ditugu; hala nola amnistia indargabetzeko borroka, biktimei erreparazioa egiteko politika publikoaren garapenera bideratuak, memoria-guneen sorrera, justizia leheneratzailea aplikatzeko auzitegietan parte hartzea eta memoria historikoa berreskuratzea.

Kapitulu honen oinarria 2013an, *“Mujeres con memoria. Activistas de derechos humanos en El Salvador”* izenburupean argitaratu genuen ikerlan zabalago baten emaitzak dira. Orduko hura egiteko oinarri gisa bi talde osatu ziren, 20 emakumerekin, gehienak eraildako, desagerrarazitako eta kartzelaturako senitartekoen batzordeetako kideak; banakako hainbat elkarrizketa ere egin genituen, eta giza eskubideen aldeko erakundeen artxibategiak eta bestelako iturriak aztertu genituen. Aipatutako lan horretan, El Salvadorreko gerra garaian eta gerra ostean, giza eskubideen aldeko aktibista izan zirengandik hainbat helburu, estrategia, motibazio eta ikaskuntza jaso genituen.


Era berean, kapitulu honetan oinarri hartu dugu 2016ko uztailean San Salvadorren, herrialdeko zigorgabetasunaren aurkako borrokan erreferentzia diren emakumeei egindako banakako elkarrizketetan jasotako informazioa.

Generoa eta trantsiziozko justizia. Emakumeen mugimenduak zigorgabetasunaren aurka

Horri esker, trantsiziozko justiziaren gaiari lotutako aurrerapen, korapilo eta erronken gaineko ikuspegia zabaldu ahal izan dugu, bereziki arreta eginez gerra garaian emakumeen aurkako indarkeriarekin eta giza eskubideen defentsaren esparruan izandako parte-hartzearekin loturikoenak.

## 2. Gerra eta horren aurrekariak

El Salvadorren historian ohikoak izan dira Estatuaren eta herri- eta gizarte-erakundeen arteko konfrontazio zuzen eta bortitzak, hainbat arrazoiengatik: lurraren banaketa desberdindua; herritar gehienek muturreko pobrezia; parte-hartze politikorako espazio gutxi edo batere ez egotea; erresistentziaren eta herritarren protesten erantzun gisa indarkeria eta errepresioa erabiltzea, etab. Hortaz, El Salvadorreko gerra konfrontazio horietan gertatu berriena da, eta Estatuaren aparatuen bidez iraunarazitako ustiaketa eta bazterketa sozialeko sistemen iraunkortasunean ditu erroak.



Iturria: Nazio Batuak.

Gatazka armatua eta horren inguruan dirauen zigorgabetasun maila kokatzeko, komeni da aurrekari hurbileko eta zuzenekoena aipatzea; hau



da, nekazari mestizo eta indigenen arteko sektore garrantzitsu baten herri-altxamendua, 1932an. Orduko hartan, “hamalau familiak” deituriko familia lurdunen talde baten esku zegoen kafearen ekoizpenaren eta merkaturatzearen inguruan egituratzen zen sistema oligarkiko agroesportatzailearen kontra altxatu ziren. Lurraren metaketan eta herritar nekazari eta indigenen desplazamenduan eta lurrez gabetzean oinarritzen zen izaera feudaleko sistema zen. 1932ko altxamendua bortizkeria handiarekin zapaldu zuen Maximiliano Hernandez Martinez Jeneralaren diktadura militarra; 10.000 eta 30.000 hildako eragin zituen triskantza izan zen<sup>1</sup>. Krämerren arabera (2009), une hartatik aurrera lotuta geratu zen oligarkiaren eta El Salvadorreko armadaren arteko aliantza.

Estatuaren herri-klaseen aurkako krimenen zigorgabetasunaren instituzionalizazioak funtsezko mugarrria du 1932ko sarraskian. Neurri horretako indarkeriaren aurrean, urte bereko uztailaren 11n Batzar Nagusiak amnistia ebatzi zuen nekazari-indigenen altxamendua zapaltzen parte hartu zuten Estatuko agente guztientzat.

*“Era berean, amnistia erabateko eta baldintzarik gabekoa emango zaie, aurtan, herrialde osoan ordena berrezartzen eta altxamenduaren delitupean sindikaturikoen errepresioan, jazarpenean, zigorrean eta harrapaketan jarduteagatik, moduren batean, edozein jiteko delitutzat har daitezkeen legeen urraketen arduradun gisa agertzen diren funtzionario, agintari, langile, agintaritzako agente edo beste edozein pertsona zibil edo militarrei (121. art. 1932ko uztailaren 11a)”* (Lemus, 2015: 65).

Sarraskiaren ondoren, hainbat hamarkada igaro ziren berriro ere 1960tik aurrera gobernuaren aurkako herri-mugimendu zabala antolatzen eta berregituratzen hasi arte; mugimendua gizarteko hainbat sektorek osatzen zuten, bereziki, nekazarien erakundeek, sindikatuak eta ikasleen elkarteak. Hirietan eta landa-eremuetako herrietan herritarren protestak biderkatu egin ziren, eta honako hauen antzeko ekintzak egin zituzten: lurrak eta fabrikak hartzea; hainbat gremiotako grebak, batez ere irakasleek; ikasleen mobilizazioak, etab. Estatuaren erreakzio gisa, 1970eko hamarkadako azkeneko urteetan eta 1980ko hamarkadako lehenengoetan, herritar zibil antolatuaren aurkako

---

1 Iturrien arabera zifra hori aldatu egiten da. Michael Krämerrek (2009) dio eraildako pertsonen kopurua 30.000 ingurukoa izan zela, eta hori da herriak gehienetan aipatzen duen zifra. Hala ere, Jeffrey L. Gould eta Aldo Lauria-Santiagok (2008) 10.000 inguruko datua ematen dute.

indarkeria politikoa maila pentsaezinera iritsi zen, ezin gogorragoa alegia. Armadarekin batera, Estatuko polizia-indarrek ere zigorgabetasun osoarekin jardun zuten “heriotzaren eskudroiak” izeneko egitura paramilitarretan.

Oposizio bide politikotik eta segurtasuneko gutxieneko bermeekin egiterik ez edukitzeak, eraldaketa politiko eta sozialerako bide gisa borroka armatua kontuan hartzera bultzatu zituen ezkerreko sektore asko. Helburu horrekin joan ziren osatzen lehenengo talde armatu iraultzaileak, 1980an, Frente Farabundo Martí para la Liberación Nacional (FMLN), bost erakunde politiko eta armaturen elkartzetik sortua.

Formalki, El Salvadorreko gerra 1981eko urtarrilaren 10ean piztu zen, FMLNk herrialde osoko hainbat helburu militarren aurkako “azken erasoaldia” egin zuzenean, greba orokorrarekin batera egin zena eta herri-matxinada orokorraren iguripenarekin. Matxinada gertatu ez zen arren, FMLNk gaitasun militarra erakutsi zuen, eta herrialdeko landa-eremuetako batzuk kontrolatzea lortu zuen, eta hor hasi zen unitate armatuak egituratzen eta indartzen. FMLNren erasoaldiaren osteko errepresio orokorraren ondorioz, herri-mugimenduak masa-mugimendu izateari utzi behar izan zion hirietan (Krämer, 2009). Armadaren eta segurtasun-indarren jarduna areagotu egin zen landa-eremuetan, eta milaka lagun erail zituzten. Estatu gerrillaren oinarri soziala zapuzten ahalegindu zen sarraskietan<sup>2</sup>, “lur suntsituaren” taktikan eta heriotzaren eskudroien jardueran oinarritutako estrategia aplikatuz; azken horiek, 1983. urterako, 40.000 hilketatik gora zituzten jada euren gain (Orr, 2001: 157), hau da, gerrak iraun zuen hamabi urteetan zenbatutako biktima guztien erdia baino gehiago. Azpimarratu nahi dugu, gainera, El Salvadorreko Estatuaren matxinatuen kontrako estrategia gobernuaren aurka zeuden zibilen desagertze behartua izan zela, sistematiko eta orokortua.

1980.eko hamarkadan, elkarrizketa eta negoziazio ahalegin batzuk egin ziren arren, porrot egin zuten, eta 1989an FMLNk San Salvador hiriburuaren aurka egindako erasoaldiak eta gobernuak horri erantzuteko hiriko hainbat auzo bonbardatu eta eraso izanak, besteak beste, Nazio Batuen bitartekaritzarekin, gatazkari konponbide negoziatuaren bidea berrartzeko erabakia hartzera eramane zituen bi alderdiek.

1992ko urtarrilaren 16an, Chapultepecen, Mexiko Hirian, Bake Akordioa sinatuta, 75.000 hildako, 9.000 desagertu, milioi erditik gora lagun barnerantz

---

2 1970eko hamarkadatik 1991ra, gutxienez, 194 sarraski egin zituzten. Informazio gehiagorako, ikus CPDH (2006).

desplazatzera bahartu eta beste milioi erdi herrialdetik kanpora babes bila irtetera behartu zituen gerra zibilari amaiera eman zitzaion ofizialki. Giza bizien erremediorik gabeko galeraz gain, gatazka armatuaren ondorioen artean daude suntsipen materiala, erkidego eta gizarte-ehunaren haustura, polarizazio soziopolitiko handitzea eta indarkeriaren kulturaren gaizkiagotzea ere. Gerraostean herrialdearen demokratizazioa galgatu duten gatazkaren ondorioen parte dira. (Alvarez eta Chavez, 2001: 37).

Azkenik, azpimarratu nahi dugu gerra zibila izan arren, nazioarteko dimentsio garrantzitsua izan zuela. Laurogeiko urteetan, El Salvador, Latinoamerikako beste herrialde batzuk bezala, Gerra Hotzari eta Estatu Batuek sustatutako Segurtasun Nazionalako Doktrinari<sup>3</sup> atxikiriko gerra-konfrontazioko gunetako bat izan zen. Impunity Watchek (2012: 32) dio doktrina hori Latinoamerikan ezartzeak bi ezaugarri berezi izan zituela: “Estatuaren militarizazioa eta kanpoko etsaia barneko etsaiaren ideia totalizatzailearekin ordeztzea; talde gerrillari eta militante komunistek ez ezik, indarreko ordena kolokan jartzen zuen edozein adierazpen politiko edo sozialek ordezkaturia”. Ideia hori izan zen Estatu Batuek, gerrak iraun zuen bitartean, El Salvadorreko gobernuari laguntza militar eta ekonomiko handia eta iraunkorra emateko arrazoia, eta horri esker, matxinatuen kontrako estrategiak indarra hartu zuen.

## **2.1. Bake-akordio ondokoak: zigorgabetasunaren erabateko babesa**

Bake Hitzarmena sinatzeak eta gerra amaierak iguripen handiak piztu zituzten, bai gobernuaren kontrako erakunde sozial eta politikoen partaide ziren pertsonengan, bai gainerako herritarrengan.

Gerrak iraun zuen bitartean eragindako krimenengatiko egia, justizia eta erreparazioari dagokienez, azpimarragarriena Egiaren Batzordea sortzeko akordioa izan zen; 1980tik 1992ra gertatutako indarkeriako gertaera larriak ikertzeko Nazio Batuek izendatutako erakunde independentea. Batzorde

---

3 Segurtasun Nazionalerako Doktrinaren oinarria izan zen komunismoa suntsitu beharreko kanpoko eta barruko etsaia zela, eta ideia hori txertatzeko, ezinbestekoa izan zen Escuela de las Americas ezaguna. 1964an Panaman sortu zenetik, Estatu Batuetako armadak gidatzen duen eskola militar horretan 64.000 soldatu baino gehiago entrenatu dituzte; Txile, Peru, Guatemala, El Salvador, Uruguai, Nikaragua, Mexiko eta Hondurasekoak, Latinoamerikako beste herrialde batzuen artean. Zentro horretan entrenatutako militar asko giza eskubideen urratzaile nabarmenak izan dira zein bere herrialdean.

horrek egindako *Egiaren Txostenean*, ordura arte jasota zeuden 23.000 salaketa baino gehiagotatik 34 kasu hautatu ziren, guztien lagin adierazgarri gisa. Batzordeak Estatu adierazi zuen gertatutako giza eskubideen urraketa larri guztien %95en erantzule, eta berezitasun gisa, halako batzorde batean lehenengoz, dokumentaturiko kasuetan kaltegile izan zirenen izenak ezagutarazi ziren (Nazio Batuak, 1993).

Bake-prozesurako izandako garrantzia handia izan arren, Egiaren Batzordeak txostena argitaratu eta bost egunera, El Salvadorreko Batzar Legegileak Bakea Sendotzeko Amnistia Orokorrerako Legea ebatzi zuen 1993ko martxoaren 20a; eta lege horren bidez “amnistia zabala, erabatekoa eta baldintzarik gabekoa eman zaie, 1992ko urtarrilaren 1a baino lehen izandako gertakarietan edozein modutan parte hartu duten pertsona guztiak”. Hamarkada askoan, Lege horrek ziurgabetasuna erabat babestu du El Salvadorren, eta Estatuako estamentuek nagusiki erabili duten justifikazioa izan da gai horren inguruan inola ere ez jarduteko. Carlos Martín Beristainen arabera (2011), Latinoamerikako gatazka politikoen biktimei laguntzeko mediku aditua izanik, Amnistiaren Legeak desagerrarazi egin zituen egia, justizia eta erreparazioaren agenda bultzatzeko aukera guztiak El Salvadorren, Latinoamerikako beste herrialde batzuekin konparatuta, bereziki atzean geratu delarik eremu horretan.

Azkenik, 2016ko uztailan, eta giza eskubideen aldeko mugimenduak Amnistiaren Legea indargabetzeko hainbat eta hainbat eskaera egin eta hamarkada askoan ukoa jaso ondoren, Justizia Gorte Goreneko (CSJ) Konstituzio Salak, azkenik, lege hori indargabetzeko ebazpena eman zuen, konstituzio-kontraktatzat jo zuelako. Formari dagokionez, indargabetze horrek zigorgabetasunaren erabateko babes juridikoa amaiarazi du, Errepublikako Fiskaltza Nagusia (FGR) Egiaren Batzordean adierazi eta dokumentatu diren kasuak eta indargabetzetik aurrera Estatuaren aurrean salatzen diren beste kasuak ikertzerara behartzen duelako<sup>4</sup>.

---

4 Amnistia Legearen indargabetzeak erreakzio ezberdinak eragin ditu herrialdean. Sektorerik kontserbadoreek, aurretik ere adierazi bezala, “militar ohi eta eskumako pertsonen kontrako zigor-jasarpena” bilatzen duela argudiatu dute (Velázquez eta Morales, 2016). Aldiz, FMLNko zenbait buruzagik indargabetzea Salvador Sánchez Ceréneko gobernuaren ezegonkortzeko saiakera bat bezala interpretatu dute, bai presidentea eta bai Estatuaren beste goi kargu batzuk, guztiak gerrillari ohiak, gerra krimenengatik epaitu nahi izango dituztelaren ustean.

### 3. Gatazkaren inguruko genero begirada bat

#### 3.1. Emakumeen parte-hartze altua

Gerra hasi zenean, borroka sozio-politikoari eta gerrillari laguntzen loturiko emakumeen kopurua nahiko handia zen. Erdialdeko Amerikako beste leku batzuetako gatazka armatuetan ere hala izan da hirurogei eta hamarreko eta laurogeiko urteetan, baina El Salvadorren gerra garaian mobilizatu ziren emakumeen kopurua bereziki nabarmengarria izan zen<sup>5</sup>. Bake Akordioen ondoren, desmobilizatu ziren FMLNko 8.552 borrokalarietatik, emakumeak ia %30 ziren (2.485). FMLNko 15.009 kideetatik (politikoak eta borrokan ez diharduten elbarriak barne), heren bat emakumeak ziren (Luciak, 2001: 51). Gainera, laguntzarako oinarri sozialean hainbat zeregin betetzeko mobilizatutako 100.000 lagunetatik %60 emakumeak ziren (Herrera, 2001). Hala ere, borrokalaria ohiei buruzko errolda ofizialik berrienaren arabera, FMLNko kideen kopurua eta bertako kide ziren emakumeen ehunekoak are handiagoak ziren: errolda berrian FMLNko 25.401 borrokalaria ohi jasotzen dira; horietatik 14.440 (%57) gizonak ziren eta 10.961 emakumeak (%43) (Garcia, 2012)<sup>6</sup>.

Borrokalaria gisa parte hartzeaz gain, komandantziako karguak barne, gerra garaian emakumeek izan zituzten mobilizazio-espazioak gerra aurretikoak beste izan ziren: militantzia politikoa, sindikalismoa, nekazarien mugimendua, Oinarrizko Eliza-elkarteak, giza eskubideen defentsa, etab. Era berean, hirurogei eta hamarreko urteen amaieratik aurrera eta gatazka armatuak iraun zuen bitartean, emakume askok El Salvadorretik alde egin eta beste herrialde

---

5 Emakume borrokalariek gerra garaian egindako jarduerak eta haien motibazioak zehatzago aztertzeko, ikus Navas *et al.* (1995); Vázquez, Ibáñez eta Murgialday (1996); Luciak (2001); Falquet (2002), eta Garibay (2006).

6 Desmobilizazio-prozesuan zehar El Salvadorrerako Nazio Batuen Misioak (ONUSAL) jasotako datuen eta zifra berrien arteko aldea ez da harritzekoa. Maria Candelaria Navasek (2007) adierazten duen bezala, beti egon izan dira zalantzak ONUSALEk zituen datuekin, kalkulatzan baitzen FMLNko kideen %10 eta %15 artean ez zirela lehenengo erroldan sartu hainbat arrazoiengatik: militante batzuek ezin zuten nor ziren esan, herrialdeko errepresio-historiagatik; beste batzuek ez zuten sinesten Akordioak gauzatu egingo zirenik; eta beste batzuek ez zuten nahi desmobilizaturiko pertsonen zerrendan izena ematea interpreta zedin errolda horretatik erator zitekeena norberaren mesedetan edo onurarako erabiliko zela Azpimarratzeko datu gisa, borrokalaria ohien 2012ko errolda berriaren arabera, guztien, emakume eta gizonen, arteko %87 pobrezia egoeran bizi da. Gehienak, 16.603, muturreko pobrezia egoeran daude, 5.475 pobrezia erlatiboan eta 3.323 bakarrik (%13) har litezke ez pobretzat. Herritarren talde hori da, orduko hartan Presidentetzako Idazkari Tekniko zenaren hitzetan, “herrialde honetako sektore pobre, utzi eta baztertuenetako bat da” (Alex Segovia, Garcian aipatua, 2012).

batzuetan babes hartu behar izan zuten, eta handik bultzatu zuten erakunde berrien sorrera<sup>7</sup>. Espazio horietan, El Salvadorreko emakumeek zeregin estrategikoa bete zuten eta prozesu iraultzailerako ezinbestekoak izan ziren hainbat ataza bete zituzten.

1977 eta 1985 urteen artean sortu zen pertsona desagertu, erail eta preso politikoen senitarteko lehenengo elkarte, batik bat hainbat adinetako emakumeek osatua; biktimen senitarteko eta aktibista politiko ziren aldetik, kalea protestarako eta borrokarako bereganatu zutenak. Horrela sortu ziren Atxilotu, Desagertu eta Erail Politikoen “Monseñor Romero” Amen eta Senitartekoen Batzordea (COMADRES) 1977an; Giza Eskubideen Urraketan Biktimen Senitartekoen “Marianela Garcia Villas” Batzordea (CODEFAM) 1981ean; eta Atxilotu, Desagertu eta Eraildakoen Ama eta Senitarteko Kristauen “Padre Octavio Ortiz y Hermana Silvia” Batzordea (COMAFAC) 1985ean. Beste erakunde batzuekin batera, El Salvadorreko biktimen eta giza eskubideen aldeko mugimenduaren nukleo historikoa osatzen duten hiru erakunde dira.

Ikusi bezala, El Salvadorreko giza eskubideen aldeko mugimenduari atxikiriko emakumeen antolakuntza-jarduna ez zen gatazka politiko eta armatuak iraun zuen aldian jaio, askoz lehenago baizik. Haietako asko, Senitartekoen Batzordeetako kide izan zein giza eskubideen aldeko beste erakunde batzuetako kide izan, hirurogeiko hamarkadaz geroztik, landa-eremuetan nahiz hirietan ekintza politikoaren muinean egon ziren nekazarien, elizaren eta gremioen elkartetatik, sindikatuetatik eta alderdi politikoetatik zetozen. Hortaz, giza eskubideen aldeko erakundeetan duten inplikazioa azaltzen duten ibilbideak eta motibazioak bat datoz, kasu gehienetan, beste mugimendu batzuetako kide diren emakumeen ibilbide eta motibazioekin, hala nola, mugimendu sindikala, nekazarien aldekoa, emakumeen aldekoa eta bai eta gerrillako kideena ere.

Oro har, El Salvadorreko emakume gehienak klase sozial txirotuenetakoak izatea da 1960 eta 1970eko hamarkadetan oposizio-mugimenduei atxiki izana azaltzen duen faktoreetako bat, bai eta gerra garaian, FMLNko borrokalari eta laguntzaile gisa hein handian parte hartu izana azaltzeko ere. Lana-eremuetan, emakume askok antolakuntza politikorako espazioekin eta/edo boroka

---

7 Atzerrian emakumeek sortu zituzten erakundeen artean, adibideetako bat da El Salvadorreko Emakumeen Batzorde Bateratua (CUMS), 1981ean, FMLNren bost erakunde politikoetako kide ziren emakumeek Costa Rican sortua. Batzorde horren lana El Salvadorreko pertsona iheslarien egituraketa eta koordinazio politikoa izan ziren.

armatuarekin nekazarien mugimenduen bidez egin zuten bat; kontzientziazte kolektiboaren ondorioz edo bizi izandako errepresio-esperientzien ondorioz (Ibañez, 2001). Hirietan, erakunde politiko eta/edo militarrei atxikitzeko bideak unibertsitateko militantziazte eta borroka sindikaletik zetozen. Beste emakume asko, landa-eremuetakoak nahiz hirietakoak, Askapenaren Teologiari atxikiriko Oinarrizko Eliza-elkarteetan parte hartzetik lotu ziren.

### **3.2. Sexu-indarkeria: oraindik ebatzi gabeko gaia**

El Salvadorreko gatazkan, Indar Armatuak eta segurtasun taldeek matxinadaren aurka erabili ohi zuten jardun bihurtu zen emakumeen kontrako sexu-indarkeria. Hala ere, sexu-indarkeriak emakumeengan izan zuen benetako eragina oraindik zehaztasunez eta osotasunean ezagutzen ez den gaia da, Latinoamerikako beste herrialde batzuetan –Kolonbian edo Guatemalan, kasu– egin diren ikerketa gero eta ugariagoekin konparatuz gero.

El Salvadorri buruz dagoen dokumentazioan sarrien agertzen den emakumeen aurkako sexu-indarkeria bortxaketa da. Noemy Anaya Rubio (2007) ikertzaileak baieztatzen du Egiaren Batzordearen Txostenean emakumeen bortxaketak aipatzen direnean salaketen albo-kalte gisa tratatzen direla gertaera horiek, baina txosten horretan ez dela tratatzen sexu-indarkeriaren gaia modu espezifikoan eta ez direla jasotzen ere arrazoi horregatik salaketak. Gerra garaiko genero-indarkeria horren omisioak argi berretsi egiten du “emakumeek bereziki pairatzen duten gehiegikeriari eta esplotazioari ez zaiela bestelako giza eskubideen urraketari ematen zaien tratu bera ematen” (Escalante Herrera, 1994: 91). Indarkeria horri buruzko informazio falta horri gehitu behar zaio emakume askok isilean gorde izan zutela gertatutakoa, beldurraren edota sexu-indarkeriari loturiko estigma sozialaren eraginez.

Anaya Rubiok (2007: 67) deskribatzen du El Salvadorreko gatazka armatuak iraun zuen bitartean sexu-indarkeriaren biktima izan ziren emakumeen profila, kaltegileak zein izan ziren arabera, Indar Armatuak edo FMLNko kideak. Lehenengo kasuan, ezkerreko erakunde politiko-militarren laguntzaile gisa jarduera subertsiboak egin izanagatik susmagarria, erakunde horietakoren bateko militante ezaguna, hiri-gerrillako edo landa-eremuetako gerrillako kide izateko susmagarria, edo FMLNri laguntzeko edo estaldura emateko zereginetan parte hartu izanaren emakume susmagarria da. Ezaugarri horiez gain gehitu behar zaie “gatazkaren hasieran, errepresioa selektiboa zenean, biktimen adina 18 eta 25 urte artekoa zen, gehienak ikasleen eta langile eta

nekazarien erakundeetatik zetozelako”. Armadak sexu-indarkeria gauzatzeko testuinguru ohikoena emakumeen atxiloketa, desagertzea eta hilketak ziren, bai eta landa-eremuetao biztanle zibilaren sarraskiak ere.

Atxilotuta edo kartzelatuta zeuden bitartean eragindako sexu-indarkeriari dagokionez, identifikatu gabeko eta geroago desagerrarazi zuten emakume preso batek 1982ko ekainean idatzitako El Salvadorreko Preso Politikoen Batzordearen (COPPEs) agiri batean honako testigantza hau jasotzen zen (Dussel 1983: 64): *“Torturarik ankerrenaren biktima gara, pentsa litezkeen modu guztietan kolpatzen eta zigortzen gaituzte: deskarga elektrikoak eragiten dizkigute gure gorputzeko atalik sentiberenetan (...). “Txanoarekin” itotzen gaituzte. (...) Eta gu, emakumeok, tortura horiek guztiak jasateaz gain, sexualki umiliatzen gaituzte ahal duten modu guztietan, eta gure bahitzaileengandik bortxaketarik gogorrenak pairatu behar ditugu, gure gorputz babesgabez abusatzen dute deabrututako basapiztiak balira bezala”*.

El Salvadorreko Giza Eskubideen aldeko gobernu kanpoko Batzordearen (CDHES) artxiboetan ere badira emakume eta nesken aurkako sexu-indarkeriako gertaerak jasotzen dituzten giza eskubideen urraketen aurkako salaketak. Salaketa horien bi adibide jaso ditugu: *“Zinpean deklaritzen du 1987ko abenduaren 12an Atlacatl Batailoiko soldaduek semea eraman zutela (...) eta soldadu batek alaba etxearen atzeko aldera eraman eta bortxatu egin zuela; soldaduak fusila eztarrian jarri zion eta sexu-harremanak izatera behartu zuen, esanez aurre egiten bazion hil egingo zuela, eta gertatutakoaren berri ematen bazuen, berriro itzuliko zela (CDHES, 1986). Jasotako beste adierazpen batean, La Lagunan, Chalatenangon, hauxe deskribatzen da: *“Belloso batailoiko soldadu berberak aterarazi zuten etxetik, Los Prados kantoian, eta Sumpul ibaiaren ertzera eraman zuten (...), gero neska-lagunaren bila itzuli ziren, 30 urtekoa, etxetik aterarazi eta zalditegi baterantz eraman zuten, eta han bortxatu egin zuten soldaduek” (Ibid.)*.*

Sarraskietan emakumeen aurka eragindako sexu-indarkeriako kasuei dagokionez, beste adibide batzuk aurki daitezke, gertaera horietatik bizirik iraun zuten lekuko adierazpenetatik abiatuta. Esaterako, 1983ko azaroaren 3an, Cusatlanan, Copayo y San Nicolasen izandako sarraskian, deklarazio batean honela deskribatzen du: *“Jendeak soldaduak ikusi zituenean, batzuek lakura egin zuten jauzi. Berehala, soldaduak morteroia botatzen eta jendea metrailatzen hasi ziren: emakumeak, haurrak eta nagusiak. (...) Soldaduek 100 pertsona inguru elkartu zituztenean, taldetik emakume bat aterarazi zuten, eta bizirik atera ziren batzuk ezkutatuta zeuden tokitik 20 bat metrora zegoen toki batera eraman zuten. Lekuko horrek ikusi zuen soldaduek nola*



*bortxatu zuten, eta emakumeak oihu egiten zuela entzun zezaketen auzokoei laguntza eske. Emakume hori 10 seme-alabaren ama zen*<sup>8</sup>.

Antzeko egoera bat agertzen da 1981eko urriaren 21 eta 31 artean Usulutanean, La Queseran izandako sarraskian; han, indar militar konbinatuek 500 lagunetik gora erail zituzten, emakumeak, pertsona nagusiak eta haurrak: *“Emakumeek ihes egiten zuten haur txikiak hartuta mendi eta ibaietan barrena, egun asko eman zituzten jan gabe, lorik egin gabe, ekaitzen artean oinez. Emakume horietako asko segadatan jauzi eta metrailatu egin zituzten, beste asko torturatu eta bortxatu egin zituzten, inbasio handiaren amaieran, hil egin zituzten*”<sup>9</sup>.

Halaber, Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak, Armadak 1981ko abenduaren 11 eta 13aren bitartean El Mozote eta inguruko lekuetan egindako sarraskien kasuan (CIDH, 2012) sexu-indarkeria gertaerak jasotzen ditu.

Era berean, gerrak iraun zuen bitartean, FMLNko borrokalariek ere eragin zieten sexu indarkeria emakumeei. Honako kasu honetan, Anaya Rubiok aipatzen duen biktimaren soslaia herritar zibilarena da, gaztea, nekazaria, eta indarkeria gertatu zen testuingurua, gehienetan, herriak okupatzen zituzten bitartean izan zen<sup>10</sup>.

Biktimen senitartekoen Batzordeetako eta giza eskubideen aldeko beste erakunde batzuetako emakumeek ere estatuko agenteen sexu-indarkeriari ere aurre egin behar izan zioten (Guzman Orellana eta Mendia Azkue, 2013: 63-64):

*“Torturatu egin ninduten, atzamarrak lehertu zizkidaten, jipoitu egin ninduten, eta ez dakit zenbat gizonak bortxatu ninduten...”*

*“Nire ama Artilleria kuartelean egon zen kartzelatua klandestinoki, eta bera ere bortxatu zuten, eta beste emakume asko ere bai...”*

*“Maritza bortxatu egin zuten, Ana Celia bortxatu egin zuten, Alicia eta bere alaba; kide horiek guztiak bortxatu egin zituzten”*.

---

8 Erreparazioa eta Memoria Historikoa lortzeko Biktimen Koordinakundearen dokumentua, 2009ko azaroaren 7koa, CODEFAMeko artxiboetan aurkitua eta 2012ko apirillean kontsultatua.

9 *Ibid.*

10 Horren inguruan Anaya Rubiok (2007: 68) dio FMLNk barne-araudi bat prestatu zuela, eta fusilamendu batzuk egon zirela errudunak zigortzeko. Aldi berean, FMLNeko emakume militanteei buruzko aurretiko ikerketa batek, *Mujeres-montaña. Vivencias de guerrilleras y colaboradoras del FMLN* (1996), haien borroka kideen partetik sexu-jasarpena eta bortxaketa zeinbait kasu ere jaso zituen. Informazio gehiagorako ikus: Vázquez, Ibáñez eta Murguialday, 1996.

Kasu batzuek gertatu ziren unean salatu zituzten, eta nazioarteko instantzietara iritsi dira (CIDH 1996), baina oro har, emakumeen aurkako sexu-indarkeria giza eskubideen urraketen testuinguru orokorraren barruko azpiko gertaera bat balitz bezala geratu zen.

Gizonek emakumeen bizitzaren eta gorputzaren gaineko boterea dutelako ustea, haien kontrako indarkeria normalizatuta eta baimenduta egotea, sexu-indarkeriak dakarren estigma, eta abar barnean hartzen dituen ideologia patriarkalaren hedadurak eta indarrak eta sistema politiko errepresiboaren berezko diren bestelako beldur-mekanismo batzuek gertaera larri horiek ezkututzen eta ahanzturan gera daitezen lagundu dute, bai eta biktimen eta giza eskubideen aldeko erakundeen egiaren, justiziaren eta erreparazioaren agendaren barruan bigarren maila batean gera daitezen ere. Ondorioz, El Salvadorren ez zen delitu hori zehazki tratatu, nahiz eta gaur egun, nazioarteko justizia-sisteman gerra, gizateriaren aurkako eta genozidio krimenez onartua den.

## **4. Emakumeen protagonismoa egia, justizia eta erreparazioaren aldeko borrokan**

### **4.1. Bizi izandako esperientziaren alderdi komunak**

Zaila da hamarkada hauetan giza eskubideen alde eta zigorgabetasunaren aurka jardun duten El Salvadorreko emakume aktibisten soslai bakar bat itxuratzea; haietako gehientzat komunak diren zenbait esperientzia identifika litezke, ez gehiago. Hori dela eta, haien aktibismoarako hurbilpena egingo dugu jarraian, eta horren karakterizazioa egiteko, zenbait alderdi azpimarratu behar ditugu.

Esan dugun bezala, giza eskubideen defentsaren inguruan antolatutako zenbait kolektibok –zeinen bitartez hein handi batean bultzatu den egiaren, justiziaren eta erreparazioaren agenda–, ezaugarri eduki dute emakumeen parte-hartze handia, bai gatazka armatuak iraun bitartean, bai eta –eta indar handiagorekin gainera– Bake Akordioak sinatu ondorengo hamarkadetan. Presentzia edo partaidetza horri erakundeetako aitzindaritzan islatu da, baina erakunde horiek bizitzaz hornitzen dituen oinarri sozialean ere nabarmen, oinarri guztiz feminizatua baita. El Salvadorren emakumeak izan dira honen moduko ekintzen protagonistak hainbat hamarkadatan: Desagertuen bilaketa; preso politikoen defentsa, giza eskubideen urraketan salaketa publikoa; gorpuak hobietatik ateratzea, kasuen ikerketa eta nazioko eta nazioarteko epaitegiekiko auziak; bakerako eta memoriarako hezkuntza, etab. (Guzmán Orellana eta Mendia Azkue, 2013).

Batez ere, landa-eremuetako emakumeei dagokienez, haien esperientzia jazarpenarekin, errepresioarekin eta behartutako desplazamenduarekin lotuta dago. Galera pertsonalez eta familia eta gizarte-desegituratzeaz gain, ihesaren ondorioz etxeak eta bizimoduak utzi behar izateak ekonomikoki inolako segurtasunik gabe geratu ziren emakume asko, eta horri gehitu behar zaio emakume horiek izan zirela beste pertsona batzuen zaintza beregain hartu zutenak, adingabeakoak eta pertsona nagusiak, desgaituak eta zaurituak. Horrekin batera, aktibisten esperientziarik ohikoena da desplazamendu behartua baldintza iraunkor bihurtu zela; hau da, ez zirela inoiz itzuli, bai politikoki nabarmenduta zeudelako, horrek osotasun fisikorako zekarren arriskuarekin, bai familia osoa desplazatzen behartuta izan zelako bizia salbatu ahal izateko.

Aurrekoarekin batera, azpimarratzeko beste ezaugarri bat da emakume aktibista ia guztiak giza eskubideen urraketan biktima izan direla. Horrela, esan dugun bezala, biktimentzat egia, justizia eta erreparazioa lortzeko emakume horien motibazioek zerikusia dute euren edo/eta senitartekoen kontrako indarkeria zuzenean pairatu izanarekin. Horri dagokionez, uste dugu biktima-identitate, emakume aktibistek lege-ikuspegi eta juridikotik onartzen dutena, ez datorrela bat hedatuen dagoen iruditeria sozialarekin, zeinak biktima pasibotzat, baliabiderik eta parte-hartze politikorik gabekotzat estigmatizatzen baititu. Beste ezaugarri komun bat da, giza eskubideen aldeko mugimenduko emakume gehienek senitartekoren bat dutela arrazoi politikoengatik desagertua edo eraila. Milaka pertsonari, eta bereziki errepresaliatu politikoei eta haien familiei pairarazi zitzairen errepresioa ulertzeko metaforarik egokiena Batzordeetako emakumeetako batek adierazitakoa izango da segur aski: *“Cuta utzi gintuzten”*, bertako adierazpen bat erabiliz, *náhuatlezko cutuche* adierazpenetik dator, eta gorputzeko atal bat moztea esan nahi du, bizirik mutilatuta geratzea, alegia.

Sufrimendua handia izan arren, azpimarratu nahi dugu biktima izan diren emakumeentzat, giza eskubideen aldeko mugimenduan parte hartzeak osatze-mekanismo baten moduan jarduten duela. Testuinguru orokorrako batean besteentzat eraldatzailea eta erreparatzailea dena, motibatzaile eta erreparatzaile bihurtzen da emakumeentzat eurentzat ere, honako testigantza honetan jasota dagoen bezala:

*“Galerak lantzeko arreta psikologikoko prozesuak balioesten ditut, gerra amaitutakoan, nire emakumeen elkarrekin antolatutako autolaguntza talde batean parte hartu nuen nik, eta oso modu tinkoan, hiru egunean, partekatuta genuen hainbat emakumek. Hala ere, uste dut pertsonak baliabide asko ditugula eta, niretzat garrantzitsuena*

*da, nahiko modu zentzudunean, mugimendu feministarekin lan antolatua egiten jarraitu izana, baina, aldi berean, eta batera doazen eta osagarriak diren bide gisa, giza eskubideen aldeko mugimenduarekin ere. Ziurtasun osoa daukat egiaren, justiziaren eta erreparazioaren agendaren alde lan egitea oso garrantzitsua dela, gatazkaren ostean eraiki nahi den herrialdearentzat, eta arlo pertsonalean, berebizikoa eta guztiz erreparatzailea”.*

Beste ezaugarria da zigorgabetasunaren aurkako borroka ez dela izan soilik gerra eta errepresio urte txarrenetako testuinguruko ekintzarako abaguneko ardatza emakumeentzat, senitartekoen Batzordeek eta giza eskubideen aldeko erakundeek gerra garaian eta gerraostean eduki duten planteamendu estrategikoa baizik; hau da, izateko arrazoia eman ziena eta Bake Akordioak sinatutakoan utzi ez zutena. Alde batetik, egiten zuten lanak zentzua izaten jarraitzen zuen Amnistiaren Legeak biktimen egia, justizia eta erreparaziorako eskubidea gauzatzeko aukera guztiak etenarazi zituen unetik bertatik.

*“CODEFAM itxi egiten dela Bake Akordioen ondoren dagoeneko preso politikorik ez dagoelako? Konturatu ginen ezin ginela desagertu, lehenik eta behin giza eskubideen urraketek jarraitzen zutelako nahiz eta bake-prozesu batean egon, eta bigarrenik, gure desagertuengatik; hemen pertsona bakar bat ere ez da agertu, eta gero senitartekoen erreparazioa oraindik zeregina da... Jarraitu egin behar dugu, borroka ez da amaitu, erdibidean gaude oraindik”*  
(Guadalupe Mejia, Guzman Orellana eta Mendia Azkuen aipatua, 2013: 77).

Beste alde batetik, Bake Akordioen ostean jarduera politikoa birdefinitzeko eta berregokitzeko, giza eskubideen eta memoria historikoaren aldeko erakunde eta plataforma berriak sortzea sustatu zuten edo sortzeko ahaleginekin bat egin zuen emakume askok, eta gerraostean, biktimen eta giza eskubideen aldeko mugimenduaren agenda itxuratzeko berebizikoak izan ziren. Izan ere, giza eskubideen aldeko mugimenduen ibilbide militantea azkeneko lau hamarkadetan ezinbestekoa izan dela gerra garaian eta are gehiago gerraostean; haiek izan direlako tinkoen borrokatu direnak zigorgabetasunaren aurka, hura bakerako benetako trantsizioa egiteko herrialdeak behar duen erradikaltasun demokratikoarekin lotuz.

Azkenik, azkeneko ezaugarri gisa azpimarratuko dugu El Salvadorren giza eskubideen aldeko mugimendu mistoetako kide diren emakumeen agendak eta mugimendu feministarenak elkarri lotuta egon direla, baina koiunturalki

soilik; hau da, trantsizioko-justiziarekin loturiko zenbait ekimen bultzatzeko eta antolatzeko, baina bateratze estrategikoa izan gabe. Mugimendu desberdin horietako kide diren emakumeen artean aliantza iraunkorragorik ezak, gure ustez, gerra garaian emakumeen aurkako giza eskubideen urraketeki zentraltasuna emateko egiaren, justiziaren eta erreparazioaren aldeko agendaren eraikuntzan genero-ikuspegitik sakontzea eragotzi du.

## 4.2. Gerraostean paper estrategikoa

El Salvadorreko emakumeen zigorgabetasunaren aurkako ekintza-estrategia zabalaren barruan, hiru ekintza-eremu nabarmenduko ditugu, gerraostean estrategikoak izan direlako eta oraindik ere badirelako.

### 4.2.1. Amnistia Orokorrerako Legea indargabetzeko eragitea

El Salvadorren, Estatuaren zigorgabetasun-mekanismo garrantzitsuena aipatutako Amnistiaren Legea (1993) onartzea izan zen; horren bidez, gatazka armatuaren biktimetzako justizia eta erreparazioari betoa ezarri baitzitzaion. Hori dela eta, Lege hori indargabetzea lehentasunezko helburu bihurtu zen giza eskubideen aldeko mugimenduentzat. Kolektibo horri zuzenduriko ekintzen artean izan dira Legea konstituzioaren aurkakoa delako hainbat errekurtsio aurkeztea Justizia Gorte Gorenean (CSJ), eta kasuen salaketa eta ikertzeko eskariak aurkeztea Errepublikako Fiskaltza Nagusiaren (FGR) eta Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren (CIDH) aurrean.

Hainbat hamarkadatan aurkeztutako eskaerei behin eta berriz CSJk uko egin izan arren, azkenik, 2016ko uztailean, Gorteak konstituzioaren aurkakotzat jo zuen 1993az geroztik indarrean zegoen Legea. Horrek inflexio-puntu bat zehazten du zigorgabetasunaren aurkako borrokan; izan ere, biktimen eta giza eskubideen aldeko erakundeek metatutako ekintza guztien emaitza da, herrialdearen oraintsuko historian indarkeria-gertaera larriak argitu gabe trantsizioa behar bezala ixteari uko egin baitiote. Hori baieztatzen du Guadalupe Mejiak, biktimen senitartekoen Batzordeetako, CODEFAMeko aitzindarietako batek:

*“Aurrerapausoa izan da [Amnistiaren Legea] konstituzioaren aurkakotzat jotzea, eta horrenbeste borrokaren ondoren lortu nahi genuen zerbait lortzen ari garela sentitzen dugu”<sup>11</sup>.*

---

11 Elkarrizketa pertsonala, 2016ko uztaila.

Ildo beretik, Vilma Vasquezek –Las Dignaseko kidea, COPPESeko<sup>12</sup> kide ohia eta desagerrarazitako aitaren alaba–, Amnistiaren Legearen indargabetzearen inguruan azpimarratu egiten ditu biktimen premiak eta une historikoa.

*“Guk, biktimek ditugun eskakizun, helmuga eta beharrian garrantzitsuenetakotzat jotzen dugu... Gogoan dugu zein mingarria izan zen 93 urtea, amnistia eman zutenean, biktima guztien gainean hilarria jartzea bezala izan zen, oinaze handia sentitu genuen. Orain itxaropena badago, poza dago, sentipen kontrajarriak ditugu, baina gure unea, gure denbora dela uste dugu”<sup>13</sup>.*

Giza eskubideen aldeko mugimenduetako militante izateaz gain, indarkeriaren zuzeneko edo zeharkako biktima direnentzat, itxaropenari irekitako leiho hori justizia eta erreparaziorako hainbat modu aktibatzeke aukera da. Horixe da ere Mirna Perlaren kasua; Mirna, “Uztailearen 30eko ikasleen sarraskia” izenekotik bizirik irten zenetako bat izateaz gain, Herber Anayaren emaztea ere izan zen, El Salvadorreko Giza Eskubideen aldeko gobernu kanpoko Batzordearen (CDHES) presidentea, 1987an torturatu eta erail zutena.

*“Biktima gehienek pentsatzen dugu justizia eta erreparazioa behar direla. Eta ez dugu baztertzeko nolabaiteko justizia erreparatzailea egotea, trantsiziozko justiziarako erabili dena, eta gu berandu iritsi ginena... Hogeitaka urte daramatzagu trantsizioan, eta inoiz ez zaio espaziorik eskaini horri” (Mirna Perla, ASMEMORIAren presidentea)<sup>14</sup>.*

CEMUJER<sup>15</sup> erakunde feministako Irma Guirolak honako hau aipatzen du, indarkeria sozialen *continuum*az jabetuta: “Errepublikako Fiskaltza

---

12 El Salvadorreko Preso Politikoen Batzordea (COPPE).

13 *Ibid.*

14 Elkarrizketa pertsonala, 2016ko uztaila. Mirna Perla herrialdean oso aitzindari ezaguna da, giza eskubideen defentsaren alorrean erreferentea delako. CSJko magistratua izan zen, eta gaur egun, El Salvadorreko Egia eta Memoria Historikorako Elkartearen (ASMEMORIA) presidentea izateaz gain, batik bat unibertsitateko gazteek osatutako Herber Anaya Sanabria Kolektiboari laguntzen dio. Giza Eskubideei buruzko Biltzarra egiten dute urtero, eta gai horri buruzko ikerketa-lanak bultzatzen dituzte batxilergoko eta unibertsitateko ikasleekin.

15 Emakumeari buruzko Ikerketen Erakundea, *La Casa Morada* izenarekin ere ezaguna. Biktimen eta giza eskubideen defentsarako mugimenduaren beste erakunde batzuekin batera, CSJn Amnistiaren Legea konstituzioaren aurkakoa zelako azkeneko salaketa jarri zuten erakunde feministetako bat da.

Nagusiarentzat eta sistema judizialarentzat erronka handiak daude; beraz, Fiskaltza indartu eta prozesu honen guztiaren laguntzailekide izatea ahalbidetuko duen nazioarteko mekanismo bat sortu behar da. Eguneroko zigorgabetasuna instituzionalitateari erronka egitea da” (La Páginan aipatua, 2014).

Testigantza eta argudio horietan jasotzen den bezala, amnistia orokorra indargabetzea lorpen handia izan da biktimen eta giza eskubideen aldeko mugimenduaren hogeitortetik gorako borrokaren ondoren. Oso mugimendu feminizatua izanik, azpimarratu behar da emakume antolatuen euren ekintza politikoaren garrantzi handiaren emaitza dela.

#### **4.2.2. Erreparazioaren aldeko politika publikoaren bultzada**

Trantsiziozko justiziaren markoan, giza eskubideen urraketak eragindako kaltea erreparatzeko moduen formulazioak arreta handia jaso izan du azkeneko urteetan. Erreparaziorako neurriak biktimek pairatu duten kaltea onartzearen emaitza dira, eta konpentsazio materialen bidez (laguntza ekonomikoak, doako tratamendu mediko eta psikologikoa, hezkuntza eta etxebizitzarako maileguak, etab.) edo konpentsazio sinbolikoen bidez (oroigarriak, museoak, jai ofizialak, zeremoniak eta iragana gogorarazteko ekintza sozialak) gauza daitezke.

El Salvadorren, zigorgabetasuna gainditzeko, Egiaren Batzordeak egin zituen gomendioen artean honako hauek daude: 1) txostenean aipatzen diren ofizial guztiak Indar Armatuetatik kanporatzea; 2) txostenean aipatzen diren gobernuko funtzionario eta epaile guztien desgaitze publikoa; 3) sistema judiziala berritzea; 4) Bake Akordioak betetzea; 5) krimenen egileak zigortzea; 6) biktimen eta haien senitartekoen erreparazioa, kalte-ordainetarako funts berezi baten bidez; 7) biktimen eta senitartekoen erreparazio moralak, San Salvadorren gatazkaren biktima izan direnen izenak jasotzen dituen monumentu bat eginez, biktimen memoria errespetatuz eta haien oroimenez, jaiegun nazional bat finkatuz, eta adiskidetze nazionala; 8) Egiaren eta Adiskidetzearen Foroa sortzea txostenaren berri emateko; eta 9) gomendio horiek betetzen direlako nazioarteko segimendua egitea.

Hori oinarri hartuta, gatazkak iraun duen bitartean milaka biktimari eragindako kalteak ordaintzera bideratutako politikak garatzea izan da zigorgabetasunaren aurkako borrokan El Salvadorreko emakumeen eskarietako beste bat. Eskaera horretan, gainera, kontuan hartzen da Estatuak kalte hori onartzeak eta erreparazio-neurriak ofizialki sustatzeak balio pedagogikoa daukala gizarte osoarentzat.

Hala ere, Bake Akordioen ondoren, Estatuak inoiz ez ditu Egiaren Batzordeak egindako gomendioak kontuan hartu, eta inoiz ez du erreparazio-politika publikorik garatu. Izan ere, giza eskubideen aldeko erakundeek eta biktimek ukazioa eta arbuioa besterik ez zuten jaso 2009ra arte boterean etenik gabe izan ziren eskuineko gobernuengandik. Horren aurrean, erakundeek lan egin dute herrialdean hamarkada horietan eta modu sinbolikoan egin diren erreparazio-ekimen gutxi horiek gauzatzeko..

Barkamena eskatzeko lehenengo keinu ofiziala 2012an gertatu zen FMLNren lehenengo gobernuaren partetik, bakea sinatu zeneko 20. urteurrenaren karian. Gobernuaren eta biktimen arteko elkarrizketarako abagune politikoa mesedegarriagoa izanik, biktimek, erreparazio-politikak eskatzeko koherentzian, energia guztia erabili dute erreparazio-bideak zehaztea lortzeko behar izan den ibilbide luze horretan, gobernuari hainbat eta hainbat proposamen eginez.

Modu nabarmenagoan, gatazkan desagertutako eta eraildako pertsonen senitartekoen batzordeetako emakumeak biktimen errolda ofizialerako behar zen datu-basea osatzen eman dituzte urte asko, eta erreparazioa lortzeko esperantzarekin egin dute. Baliabide gutxirekin, Batzordeak herrialdean barrena ibili dira, biktimei eta senitartekoei informazioa ematen eta datuak jasotzen, eta haiek ere biktima izanik, lan “terapeutikoa” ere egin dute.

*“2009an hasi ginen erreparazio-politika senitartekoekin eta zenbait erakunderekin lantzen. Urte horretan bertan aurkeztu genion [gobernuari]. Horren ondoren, 2010ean, 2011n eta 2012an errolda landu genuen eta FISDLen<sup>16</sup> aurkeztu genuen. 2012an eta 2013an erroldaren bigarren fasea landu genuen. 2014an zuzendaritza-batzordea osatu genuen, erakundeko eta gobernuko kideekin. Horren ondoren, bilera gehiago egiten jarraitu genuen. Gaur arte bilerak egiten aritu gara, eta esan digute erreparazio-egitaraua laster hasiko dela” (Guadalupe Mejia, CODEFAM)<sup>17</sup>.*

Testigantza horren adierazgarri, erakundeak izan dira erreparazio-neurri ofizial gutxi horiek bultzatu dituztenak batik bat. 2016ko uztailan, El Salvadorreko trantsizioan erreparazioaren inguruan egindako programa garrantzitsuenaren hasieraren berri eman zuen ofizialki gobernuak, jendaurreko

16 Tokiko Garapenerako Inbertsio Sozialerako Funtsa, erreparazioetarako funtsa kudeatzen duen erakunde publikoa.

17 Elkarrizketa pertsonala, 2016ko uztaila.



egintza batean: *gatazka armatuan zehar giza eskubideen urraketa larrien biktima izan direntzako diru-transferentziako programa* izenekoa. Horren barruan ordainketa-mekanismo batzuk daude, besteak beste: duintzeko neurriak, osasunerako, hezkuntzarako eta elikadura-segurtasunerako irisgarritasuna, egia onartzea, barkamena eskatzea, diruz konpentsatzeko mekanismoak eta halako gertaerak errepika ez daitezten neurriak hartzea<sup>18</sup>. Gaur egunera arte programa honen onuradun izan diren 2.996 lagunetatik, 2.401 emakumeak dira, eta 595 gizonak<sup>19</sup>.

Biktinek eta giza eskubideen aldeko mugimenduko aktibistek programa honi buruz egiten duten balorazioari dagokionez, biktinek zuzenean proposatutakoak, jakina, egokitzen jotzen dituzte; beste batzuk, aldiz, ez zaizkie nahikoak iruditzen. Esaterako, diruz konpentsatzeko neurrietan, erroldan izena eman duten 55 urtetik gorako biktimei hilean 50 dolar (USD) ematea zehaztu dute.

*“Hori miseria hutsa da, pentsa zenbat balio duen elikagaien otzarak hilean... eta 50 dolarrekin, zer erosiko duzu bada? Azukrea eta beste gauzatxoren bat. Nire ustez oso gutxi da”.* (Guadalupe Mejia, CODEFAM)<sup>20</sup>.

Jasandako kaltea inola ere konpentsatzen ez duen eta harekin bat ez datorren erreparazio materiala onartzeak biktimei eragiten dien dilemaren aurrean, testigantza beraren hitzetan, senitartekoen Batzordeak berak izan ziren gaiari buruzko gogoeta egin zutenak erroldatuta zeuden biktima askorekin, eta azkenik izaera materialeko neurriak onartzea erabaki zuten, ezer ez jasotzeak jada bizi duten prekaritatea handitzea ekarriko lukeelako.

Mugimendu sozialaren eta giza eskubideen aldeko erakundeen sektore batzuek harridura eta kritika erakutsi dute –gobernuaren egitarauko erreparazio materialaren eta beste neurri batzuen aurrean– eta senitartekoen Batzordeak, neurri horiek gauzatzen laguntzean, FMLNren gobernuarengandik hurbil kokatzen direla uste dute, egitaraua nahikoa eta bidezkoa ez den arren.

---

18 Ikus Gizarteratzeko Idazkaritza: <<http://www.inclusion-social.gob.sv/gobierno-lanza-programa-de-transferencia-monetaria-para-victimas-de-graves-violaciones-a-derechos-humanos-durante-el-conflicto-armado/>>.

19 FISDLeko Informazio eta Erantzunerako Bulegoak (OIR) 2016ko irailaren 26an emandako datuak, Gardentasunaren Legean oinarrituta eta kapitulu honen egileek eskatuta.

20 Elkarrizketa pertsonala, 2016ko uztaila.

Zalantzarik gabe, sortutako egoera konplexua da eta kritika bidezkoa, eta horren aurrean, ohar batzuk egin behar dira. Lehenengoa, senitartekoen Batzordeak gehien bat gizartearen sektore txirotuenetatik datozen emakumeek osatuak direla, eta gerraostean ez dutela haien prekaritate egoera aldatu. Bigarrena, bizi izan duten bazterketa-egoera horretan emakume horiek izan direla egia, justizia eta erreparazioa eskatzen tinko eutsi izan diotenak hamarkada hauetan, eta, zalantzarik gabe, erreparazio-egitarau ofizialaz harago jarraituko dutela lan horrekin. Azkenik, egitarauaren edukia bera ere onuradun diren biktimek ere kritikatzeko dutela, jakitun direlako programak dituen mugez.

#### 4.2.3. Memoria-guneak sortzea

El Salvadorreko esperientzian, memoriarako guneak sortzea izan da gerraostean giza eskubideen aldeko emakume aktibistentzako garrantzi handiko beste lan-ardatz bat. Giza eskubideen urraketaekin zerikusia duten memoria-guneak nahiz data garrantzitsuen oroitzapenaren oinarria zigorgabetasunaren aurkako borrokaren parte bat delako uste kolektiboa gogoraraztea da.

Esparru horretan, azpimarratzekoa da Memoriaren eta Egiaren Monumentua (2003)<sup>21</sup> eraikitzeke egindako lana; monumentu horretan, desagertu eta eraildako 28.794 biktime zibilen izenak jaso dira, bai eta 1970 eta 1992 artean gertaturiko 194 sarraskiren aipamenak ere. Monumentu hori hiriburuaren zentruan dago eta ahotsa eta zentzu politikoa ematen dion antolakuntza-ehunaren zerbitzura dagoen memoriaren espazio bizi bihurtu da, eta ofizialki ezarri zuten ahanzturaren politikari fisikoki eta sinbolikoki egiten dio aurre.

Alde batetik, memoria-gune hori biktimen senitarteen topagunea era bada, eta horrek doluak eta galerak leuntzen laguntzen du, are gehiago desagertze behartuen kasuetan. Hori dela eta, leku horrek erreparazio-funtzioa betetzen du, biktimengandik eta biktimen artean. Beste alde batetik, oroimenezko monumentu hori salaketarako eta erresistentziako eremua ere bada, bertan jendaurreko ekintzak egiten dira eta komunikabideak elkartzen dituzte egiaren, justiziaren eta erreparazioaren agendarekin loturiko erreibindikazioak ikusarazteko. Leku horretatik bertatik egiten direnean,

---

21 Giza eskubideen aldeko eta feministen 10 erakunde inguruk osatutako Giza Eskubideen Urraketen Biktime Zibilen omenezko Monumentuaren aldeko Batzordeak gauzatu zuen proiektua. Oroigarria 2003an inauguratu zen, lanean zazpi urte eman ondoren.

erreibindikazioek oso indar sinboliko bitxia daukate, biktimen egiaren kontakizuna monumentuan grabatuta dauden ia 29.000 izenek bidezkotzen dutelako<sup>22</sup>.

El Salvadorreko memoriaren mapa beste leku batzuek ere osatzen dute, tokikoagoak eta landa-eremuan kokatuak; leku horietan, ia beti, giza eskubideen urraketak, bereziki sarraskiak<sup>23</sup>, gertatu ziren toki berean eraiki dituzte oroigarriak.

Landa-eremuetan ere eraiki dituzte memoria leku edo gunek gorpuak hobitik atera izan dituzten tokietan; hobietatik ateratze horietako asko giza eskubideen aldeko mugimenduetako emakumeek sustatu zituzten gerra amaitu osteko lehenengo urteetan, erakundeen laguntza eskasarekin. Biktimak kokatzeko helburuak ikerketa-ekintza prozesu batera eraman zituen emakumeak, eta horretarako metodologia “*ibilian*” prestatzen joan ziren, familiengandik eta El Salvadorreko armadak eragindako erailketak eta lurperatze klandestinoak non gertatu ziren bazekiten (edo susmatzen duten) erkidegoetako pertsonengandik hurbil egonez. Kasu askotan, emakume aktibistek sustatutako hobitik ateratzeak, euren senitartekoen gorpuak aurkitzeko aukera eta iguripena ematen zieten.

*“Nire seme-alabak hobitik ateratzen hasi nintzen. Luze borrokatu nintzen epaileekin, haiek ez zuten nahi eta, galdetzen zidaten ea zertarako nahi nituen hezurak. ‘Nire seme-alaben hezurak dira’, esan nien, ‘ez dira animalia batenak, pertsona batenak dira. Nire baldintza berdinetan egongo bazina, ez al duzu uste zure semearen hezurak atera nahi izango zenituela?’. (...) Hau egiten badut, nora eraman izango dut eta lore bat jarri ahal izango diot, aldiz hor egonik, kalean, ez dut izango” (Guzmán Orellana eta Mendia Azkuen aipatua, 2013: 67).*

---

22 Munduko beste hainbat esperientziak erakusten dute eztabaida sozialerako tresna baliagarriak izan daitezkeela memoria-guneak. Kasu honetan, merezi du aipatzea Monumentuaren Aldeko Batzordeko erakunde kideek eurek barne eztabaida izan zutela zehazteko gizarte-ehunaren erreparazioa lortzeko biktimak eta kaltegileak bereizi behar zirela lehenengo. Gehiago jakiteko, ikus: *Tejiendo la memoria desde abajo: El Monumento a la Memoria y la Verdad en El Salvador*, <[http://www.crefal.edu.mx/decisio/images/pdf/decisio\\_43\\_44/decisio-43-44.pdf](http://www.crefal.edu.mx/decisio/images/pdf/decisio_43_44/decisio-43-44.pdf)>.

23 Horren adibide dira San Vicenteko El Calabozoko sarraskia edo Morazaneko El Mozoteko sarraskia.

Emakumeen inplikazio bikoitz horrek –alde batetik hobien kokapenaren ikertzaile, eta bestetik, biktimen senitarteko izateak– are berezi eta mingarriago bihurtzen du herrialdean gertatu den gorpuak hobietatik ateratzeko prozesua<sup>24</sup> eta nabarmen eta adierazgarriagoa emakumeek heriotza-leku izan zirenak memoria biziko leku bihurtzeko ahalegina.

#### 4.2.4. Justizia Leheneratzaileko Auzitegietan presentzia

*El Salvadorreko Justizia Leheneratzailea Aplikatzeko Auzitegiak*, izaera sinbolikodunak, UCAko Giza Eskubideen aldeko Erakundeak (IDHUCA) sustatu ditu, gatazka armatuaren zuzeneko eta zeharkako biktimen duintzeari lotuta, zor historiko izugarria dagoela egiaztatutakoan. IDHUCAREN abiapuntua da “herritarren giza eskubideen urratze metodikoa –torturen, desagertze behartuen, banakako eta taldeko exekuzio sumarioen bidez– botere politiko, militar eta ekonomikoak antolatua, planifikatua eta estalia izan zen, Estatu Batuetako gobernuaren parte-hartze ezinbesteko eta erabakigarriarekin”<sup>25</sup>.

2009. urtean, IDHUCAK, gatazka armatuan Giza Eskubideen Urraketen Biktima izandakoen Batzordeen Koordinakunde Nazionalarekin (CONACOVIC) batera Justizia Leheneratzailea aplikatzeko lehenengo Auzitegia ezarri zuten, eta bertan aurkeztu zituzten tortura, exekuzio sumario, desagertze behartu eta sarraskien kasuak. 2017. urtera arte bederatzi Auzitegi antolatu dira, eta auzitegi horietan testigantza agerrarazi duten biktima askorentzat oso tresna baliagarri bihurtu dira. Haientzat, egia jendaurrean agertzeak eta urte askoan isilarazita eduki dutena kontatzeko espazio bat edukitzeak balio pertsonal eta politiko handia dauka.

Oro har, auzitegi sinbolikoak biktimen (auto)laguntza, akonpainamendu eta erreparazio-prozesu zabalagoen emaitza izaten dira. Lan honetarako egindako elkarrizketen arabera, horixe da El Salvadorreko Justizia Leheneratzailea aplikatzeko Auzitegien kasua ere.

*“Aspalditik ari ginen biktimekin banakako lanketa egiten. Zenbait kasurekin kanpaina egin zen gatazkan giza eskubideak urratu zirela*

---

24 Bake Akordioa sinatu zenetik eta 2012. urtera arte, El Salvadorren 700 gorpu baino gehiago atera ziren hobietatik, Carolina Constanza, “Madeleine Lagadec” Giza Eskubideen Sustapenaren aldeko Batzordearen CPDH koordinatzailearen arabera. Elkarrizketa pertsonala, 2012.

25 Ikus: *El Salvador: egia, justizia eta erreparazioa. Biktimekiko eta gizartearekiko zor historikoak*, <[http://www.uca.edu.sv/idhuca/images/descargas/descargas\\_publicaciones/7\\_tiajres\\_2009.pdf](http://www.uca.edu.sv/idhuca/images/descargas/descargas_publicaciones/7_tiajres_2009.pdf)>.

*agertzeko. Hori izan zen lehenengo Auzitegira iristeko aurrekaria”* (Roxana Marroquin, IDHUCA)<sup>26</sup>.

*“Gogoan dut [2001eko] urtarriletik maiatzera, larunbatero elkartzen ginela eta negar egiteko soilik joaten ginen. Maiatzean hitz egiten hasi ginen, eta saioetan barre egiten ere hasi ginen... Terapia egin genuen taldea ginen, alde juridikoa, banakako historia eta bizimodu kolektiboa ikusi genituen. Han indar asko hartu genuen, nire kasuan behintzat. Urte horretan indar asko hartu nuen eta Anaya koronelaren aurkako salaketa jarri nuen, nire aita desagerrarazi zuena. 2002ko apirilean, talde guztiak etorri ziren nirekin, gogoan dut nola sentitu nintzen, izua sentitzen zuen Fiskaltzan salaketa jartzen ari nintzela”* (Vilma Vasquez, Las Dignas eta COPPES kide ohia)<sup>27</sup>.

Justizia Leheneratzailea aplikatzeko Auzitegiak ez dira izan genero-ikuspegitik prestatutako tresnak, eta hori da elkarrizketatutako pertsona batzuek aipatzen duten erronka nagusietako bat:

*“Azpimarratu egin dugu genero-ikuspegitik egin behar dela kasuen azterketa. Oker aritzeko beldurrik gabe esan dezaket emakume gehiago izan direla kasuak aurkeztu dituztenak. Baina ez da emakume ikuspegi horretatik ez eta [gerra] testuinguru horretan giza eskubideen urraketak ekarri zuenari buruz hitz egiten. Azterketa alde aurretik prestatzen ez bada, jakina, kasuak aurkeztean ezin izango da trebezia txertatu”* (Roxana Marroquin, IDHUCA).

*“Gutxi hitz egin dugu gerra garaian sexualitatea eta amatasuna nolakoak diren. Azkeneko Auzitegian entzun nien nik kideei, operatiboetan sexu-esklabo gisa eramaten zituztela, sarraskietan beti bereizten zutela emakume kideren bat, operatiboa amaitu arte eraman eta bortxatzeko. Nik uste dut emakume kide horiek bizirik atera direla. Iragan horrek orainaldi honekin zerikusia dauka... Auzitegiko kide bati oso zaila egin zitzaion hitz egitea... esan zuen bere ama etxetik atera zutela, berak 7 urte zituela, eta entzuten zuela etxearen atzean nola bortxatzen zuten, amaren oihuak entzuten zituela... ama desagertuta dago, ez dauka haren berririk. (...) Auzitegi*

26 Elkarrizketa pertsonala, 2016ko uztaila. Roxana Marroquin feminista, gatazkaren biktima eta IDHUCAko langilea da.

27 Elkarrizketa pertsonala, 2016ko uztaila.

*horretan, azkenean nik hitz egin nuen gertatu denari, gerrako sexu-indarkeriari eta sexu-esklabotzari ekiteko metodologia bat behar dela*” (Vilma Vasquez, Las Dignas eta COPPES kide ohia).

Giza eskubideen defentsarako espazio mistoen ekimenetan emakume feministek parte hartzea, hala nola Justizia Leheneratzailea aplikatzeko Auzitegietan, ez da beti erraza izan, eta, aldiz, ezinbestekoa da; izan ere, horiek dira emakumeen kontra eragindako indarkeria-forma ugarien aurrean sentiberagoak izango diren egia, justizia eta erreparazio prozesuak lortzeko aldaketen premia eskatzen dutenak. Gatazkan zeharreko giza eskubideen urraketen dokumentazioan ez, gerra amaitutakoan, Egiaren Batzordearen lanean kontuan hartu ez zen azterketa-ardatza da; eta ondorioz, emakumeen aurkako krimenengatiko erantzun instituzionala eta soziala da herrialdeak kitzeko daukan zor historikoetako bat.

#### 4.2.5. Memoria historikoa berreskuratzea

Memoria historikoa lortzeko ahaleginean El Salvadorreko biktimen eta giza eskubideen aldeko mugimenduko emakume askok parte hartzen dute. Mugimendu horien ekimenez lortu da herrialdeko memoria sozialean balio sinboliko handia duten kausak onartzea. Lorpen horien artean daude, esaterako, 2013. urtetik aurrera, “Giza eskubideen defendatzailearen Egun Nazionala” izendatzea El Salvadorren (urriaren 26a)<sup>28</sup>, edo “Gatazka armatuan desagerturiko haurren eguna” (martxoaren 29a)<sup>29</sup>. Egun horiek ofizialki ezarri izana berez delako oroitzapen horien oinarri diren gertaerak onartzea, eta gainera, haien gaineko gogoeta kritiko eta publikoa ahalbidetzen du. Antzeko beste ekimen batzuek ere aurrera egin dute beste leku batzuetan, “Biktimen Udaleko Eguna” Arcataon (Chalatenango), gerrak gogorki jotako departamentuetako batean dagoen udalerrri horretan armadak eragindako operatibo odoltsuenetako baten eguna gogoratzeko.

28 Ikus: <[http://www.asamblea.gob.sv/eparlamento/indice-legislativo/buscador-de-documentos-legislativos/declarase-el-26-de-octubre-de-cada-ano-como-el-dia-nacional-del-defensor-y-la-defensora-de-los-derechos-humanos/archivo\\_documento\\_legislativo](http://www.asamblea.gob.sv/eparlamento/indice-legislativo/buscador-de-documentos-legislativos/declarase-el-26-de-octubre-de-cada-ano-como-el-dia-nacional-del-defensor-y-la-defensora-de-los-derechos-humanos/archivo_documento_legislativo)>.

29 2005eko Dekretuak honela zioen: “Hainbat arrazoiengatik, gatazka armatuak iraun zuela galdu ziren haurren familia-topaketaren eguna”. Horrek erakusten du botere faktikoek memoria adiskidetzatza faltsuan oinarrituta egiteko interesa. *Hermanas Serrano Cruz* kasuan CIDHK eman eta Estatuak haur desagertuen omenezko egun bat zehaztu behar zuela xedatzen zuen epai bat oinarri hartuta, Giza eskubideen aldeko erakundeek lortu zuten dekretu berria esplizitua izatea eta, aldi berean, aurrekoa indargabetzea. [http://www.asamblea.gob.sv/eparlamento/indice-legislativo/buscador-de-documentos-legislativos/declarase-el-29-de-marzo-de-cada-ano-dia-dedicado-a-los-ninos-y-ninas-desaparecidos-durante-el-conflicto-armado/archivo\\_documento\\_legislativo](http://www.asamblea.gob.sv/eparlamento/indice-legislativo/buscador-de-documentos-legislativos/declarase-el-29-de-marzo-de-cada-ano-dia-dedicado-a-los-ninos-y-ninas-desaparecidos-durante-el-conflicto-armado/archivo_documento_legislativo).

Herrialdean memoria historikoa berreskuratzeko bide berean, beste lorpen bat izan da Estatuak *Memoriaren eta Egiaren Monumentua* “ondasun kulturaltzat” ofizialki onartzea; horrek monumentua babestera behartu egiten duelako gatazka armatu baten edo egoera bortitz baten aurrean, 1954ko Hagako Konbentzioaren arabera<sup>30</sup>. Egitate hori garrantzitsua da, biktimak duintzeko egindako memoria-guneak uzten, baztertzen edo arretaz zaintzen ez direnean gertatzen den berbiktimizazioa saihestu dezakeelako.

Horrela, azkeneko urteetan, memoria historikoa erreibindikatzeko ahaleginak garrantzia irabazi du, zigorgabetasunaren aurkako borrokaren ezaugarri gisa; alderdi sinbolikoan ez ezik, gatazkan zehar egindako gerra eta gizateriaren aurkako krimenengatik justizia eskatzeko ere. Memoriaren aldeko mugimenduaren bultzada berri horren beste adierazpen bat izan da 2015ean El Salvadorreko Egiaren eta Memoria Historikoaren aldeko elkarteak sortu izana (ASMEMORIA); giza eskubideen aldeko 30 bat erakundek osatzen du eta Mirna Perla du buru.

Kontuan hartuta El Salvadorren jende asko oraindik ez dela ausartzen bizi izandakoari buruz hitz egiten, eta giza eskubideen urraketa asko daudela oraindik dokumentatu gabe edo oso dokumentazio gutxiarekin, ASMEMORIAK lehentasunezko helburu hartu du gerra garaian herrialdean eragin zuten indarkeriari buruz dauden datu-base, fitxategi, agiri eta ahozko informazioa berreskuratzeko, gainera metodo zientifikoak erabiliz eta Estatuaren aldetik berme guztiekin gorde egin behar direla aldarrikatuz.

*“Esaterako, herrialdera ekarri nahi dugu Egiaren Batzordeak egindako lana, Washingtonen dago, ez dakit nongo unibertsitatearen batean. Hori gurea da”* (Mirna Perla, ASMEMORIA)<sup>31</sup>.

Memoria berreskuratzearen aldeko testuinguru horretan, emakumeentzat garrantzi berezia dauka gatazka armatuarekin eta Bake Akordioak sinatu osteko aldiarekin lotutako euren memoria kolektiboa berreskuratzeko espazioak sortzeak. Bide horretan, herrialdearen oraintsuko historia idatzian haien parte-hartzea ez agertzea kritikatzeko dute, eta historian berebiziko parte-hartzea dutela jabetzen dira:

---

30 Ikus: <[http://www.rree.gob.sv/index.php?option=com\\_k2&view=item&id=2711:emblema-de-proteccion-cultural-internacional-es-develado-en-el-monumento-a-la-memoria-y-la-verdad-del-parque-cusatlan](http://www.rree.gob.sv/index.php?option=com_k2&view=item&id=2711:emblema-de-proteccion-cultural-internacional-es-develado-en-el-monumento-a-la-memoria-y-la-verdad-del-parque-cusatlan)>.

31 Elkarrizketa pertsonala, 2016ko uztaila.

*“Emakumeek izugarrizko ahalegina egin genuen errealitate hori aldatzeko, eta, non ikusten da gure ekarpena? Idatzi dutenak gizon asko eta emakume gutxi izan dira...” (Guzmán Orellana eta Mendia Azkuen aipatua, 2013: 111).*

*“Gizarteak zor hori dauka emakumeekin, gizonak dira hor agertzen direnak, komandante ospetsuak, “historiaren egileak”... kontua ez da haiei meriturik kentzea, baizik eta emakumeek ere parte hartu genuela, asko, eta hori ez dela inon onartzen” (Ibid.: 112).*

*“Jantzi beltzak eta zapi zuriak generamatzan emakumeak izan ginen kaleetan zegoen hesi militarra zabaldu genuenak. Eta orain emakumeak gara memoria historikoaren alde egindako lana ezaba ez dadin borrokatzen jarraitzen dugunak” (Ibid.: 110).*

Memoria egite prozesuetan haien ausentziagatik egonezin hori nabarmena da emakume zaharragoengan, hots, parte-hartze sozial eta politiko luzeagoa dutenengan. Memoria historikoari dagokionez, giza eskubideen defentsan diharduten emakumeentzat, memoria hori euren esperientzian oinarrituta berreskuratzeak duen indar ahalduntzailea aipatu nahi dugu.

## 5. Ondorioak

Kapitulu honen xedea izan da El Salvadorreko gatazka politikoan egia, justizia eta erreparaziorako eskubidearen alde antolatutako emakumeen ekintza politikoa ikusaraztea, horri buruzko eztabaida politikoan ekarpena egitea eta horren emaitza positibo batzuk zigorgabetasunaren aurkako lorpen gisa identifikatzea.

Adierazi dugun bezala, El Salvadorreko biktimen eta giza eskubideen aldeko mugimendua oso feminizatuta dago, eta emakumeak dira herrialdean zigorgabetasunaren aurkako ekintzen protagonista. Gatazkak iraun bitartean eta ostean giza eskubideen urraketen salaketa publiko etengabea egin dute; biktimak hobietatik ateratzeko bidea zabaldu eta gauzatzeko presioa eragin dute; indarkeria ikertzeko eta dokumentatzeko lana egin dute, bai banakako kasuetan bai sarraskien kasuan; nazio eta herri mailan memoria-guneak sortu dituzte; Amnistia Orokorrerako Legea indargabetzeko legezko ekintzak eta gizarte kontzientziatzeko ekintzak egin dituzte; nazioko eta nazioarteko auzitegietan aurkeztu dituzte auziak; biktimen erreparaziorako politika publikoa eskatu dute, proposamenak egin dituzte eta garatzen lagundu dute,



eta gatazkaren memoria historikoa erreibindikatu dute egia, justizia eta erreparazioa lortzeko tresna gisa.

Hein handi batean, emakumeen zigorgabetasunaren aurka egindako borroka horri esker, azken urteotan Estatuak eragindako oinazea ofizialki onartu ahal izan da; halaber, erreparazio-politika publikoaren inguruan kapituluan aipatu ditugun urrats berriak ere.

Hala ere, arlo horretan egindako lanaren garrantzia ez dator bat gerrari eta gerraosteari buruzko eztabaida sozial eta politikoari ematen zaion garrantziarekin. Haien ekintzaren edukiaren aberastasuna eta sakontasuna bistakoa den arren, giza eskubideen aldeko emakume aktibistek izan duten zereginaren inguruan –eta bereziki Estatuaren indarkeriaren biktimen senitartekoen Batzordeen kasuan–, bestelako idea gailentzen da jendartean: eremu honetan emakumeak ama gisa agertzen dira, lotura politikorik gabeak, atxilotuta edo desagertuta dauden seme-alaben bila dabiltzanak soilik. El Salvadorren “seme-alaben bila dabilen amaren” irudiak halako indar handia du gizarte imajinarioan, ezen, ohikoa baita Batzordeetako kide diren emakumeek eurek ere (batez ere zaharrenek) onartzea bereizgarri duten identitate politikoaren ezaugarri nagusia ama izatea dela. Honek zerikusia du Elizabeth Maierek (1998) Latinoamerikako desagertuen amen inguruan eraikitako “ama-mito berria” deiturikoarekin.

El Salvadorreko kasuak emakume aktibisten irudikazio bakar horri kontrajartzen diren elementuak eskaintzen dituela uste dugu ordea. Zigorgabetasunaren aurkako borrokan diharduten El Salvadorreko emakumeek antolamendu-esperientzia luzea daukate gerra hasi aurretik. Errepresioaren biktima zuzenak izan dira, ez soilik atxilotu edo desagertutako senitartekoen bila jarduteagatik; lehendik ere baziren, hainbat erreibindikazio sozial eta politikoren alde borrokatzen ziren taldeetako kide izateagatik. Gainera, esanguratsua da gatazka armatuaz haiek daukaten memorian espazio- eta gizarte-marko garrantzitsuena kaleak direla. Gerrak eztanda egin zuenean ere, eta laurogeiko urteen hasieran, errepresioak espazio publikoetan askatasunez adieraztea eragotzi zuenean, emakume horiek izan ziren kalean iraun zutenak, kaleak okupatu zituztenak, eta orduz geroztik ez dituzte inoiz utzi.

El Salvadorreko kasuak erakusten digu ez dela sostengarria giza eskubideen aldeko erakundeak aurretiazko esperientzia politikorik gabeko emakumeek osatzen dituztela eta kalera irtenarazi zituen elementua desagerturiko seme-alabak bilatzea soilik izan zelako ideiarri eustea. Hori baino, elkarrizketatu ditugun biktimen eta giza eskubideen erakundeetako kideen hausnarketak

erakusten digu haien aktibismoaren ibilbidea estrategikoa izan dela erradikaltasun demokratikoaren ikuspuntutik bai gerran eta bai, are gehiago, gerraostean. El Salvadorren, egun emakume horiek dira zigorgabetasun instituzionalizatuaren aurkako erresistentziaren foku nagusia. Emakumeak –batez ere senitartekoen Batzordetakoak–, “marginala”tzat hartzen den politikatik 1992an adostu zen bake markuari etengabeko kritika egin diote, marku hori ahanzturazko politiketan oinarritutako baketze prozesutik datorrela salatuz. Bake Akordioen osteko haien ekintzak, herrialdean elkarbizitzaren berrantolaketaren oinarri antidemokratikoei zilegitasuna kentzen lagundu du. Ekintza hau, eskumako gobernuek “kohesioa eta gizarte-egonkortasuna” mehatxatzen duen elementu ezegonkortzaile gisa ikusi izan dute; aldiz, ezkerreko alderdiek ez dute behar bezala bultzatu.

## Bibliografia

Álvarez, Antonio eta Joaquín Mauricio Chávez (2001): *Tierra, conflicto y paz*, Centro de Paz (CEPAZ), San Salvador, El Salvador.

Anaya Rubio, Noemy (2007): “Mujer y situaciones de conflicto armado y post conflicto en El Salvador“, CLADEM, *Monitoreo sobre la violencia sexual en conflicto armado en Colombia, El Salvador, Guatemala, Honduras, Nicaragua y Perú*, Comité de América Latina y el Caribe para la Defensa de los Derechos de la Mujer, Lima, Peru, 61-88.

Asamblea Legislativa de la República de El Salvador (1993): *Ley de Amnistía General para la Consolidación de la Paz*, 487. zbk. Dekretua, San Salvador, El Salvador.

Centro para la Promoción de los Derechos Humanos (CPDH) (2006): *Masacres. Trazos de la historia salvadoreña narrados por las víctimas*, Centro para la Promoción de Derechos Humanos “Madeleine Lagadec”, El Salvador.

CODEFAM (1990): *Justicia y Libertad*, Boletín nº 1, azaroa.

Comisión de Derechos Humanos de El Salvador (CDHES): *La tortura en El Salvador*, San Salvador, El Salvador.

Corte Interamericana de Derechos Humanos (2012): *Caso Masacres de El Mozote y lugares aledaños vs. El Salvador*, 2012ko urriaren 25eko Sententzia, <[http://corteidh.or.cr/docs/casos/articulos/seriec\\_252\\_esp.pdf](http://corteidh.or.cr/docs/casos/articulos/seriec_252_esp.pdf)>.

- Comisión Interamericana de Derechos Humanos (CIDH) (1996): *Informe anual de la Comisión Interamericana de Derechos Humanos 1995*, martxoaren 1ean, <<https://www.cidh.oas.org/annualrep/95span/cap.iii.elsalvador10.948.htm>>.
- Comité Pro-Monumento (2006): *Proyecto Construyendo una cultura de paz desde la educación de la memoria (2006-2008)*, El Salvador, argitaratu gabeko dokumentua.
- Coordinadora de Víctimas para la Reparación y la Memoria Histórica (2009): *Memorias. Impunidad y olvido*, argitaratu gabeko dokumentua.
- Cousens, Elisabeth M., Chetan Kumar eta Karin Wermester (arg.): *Peacebuilding as Politics. Cultivating Peace in Fragile Societies*, Lynne Rienner, Boulder eta Londres.
- Cuéllar, Benjamín (2011): “El Salvador: ¿Justicia transicional? ¿Impunidad tradicional?”, AA.VV.: *Contribución de las políticas de verdad, justicia y reparación a las democracias en América Latina*, Instituto Interamericano de Derechos Humanos (IIDH), San Jose, Costa Rica, 163-190.
- Dussel, Enrique (1983): “The People of El Salvador: the Communal Sufferings of Job (A theological reflection based on documentary evidence)”, *Concilium*, 189, 61-68.
- Escalante Herrera, Ana Cecilia (1994): “Mujeres y paz en Centroamérica”, *Ciencias Sociales*, nº 65, septiembre, 89-97.
- Falquet, Jules (2002): *División sexual del trabajo revolucionario: reflexiones en base a la participación de las mujeres salvadoreñas en la lucha armada (1981-1992)*, Latinoamerikanisten Hirugarren Kongresu Europarrean aurkeztutako komunikazioa, Amsterdam, uztailaren 3tik-6ra.
- Garaizabal, Cristina eta Norma Vázquez (1999): *El dolor invisible. Una experiencia de grupos de auto-apoyo con mujeres salvadoreñas*, Talasa, Madril.
- García, Gabriel (2012): “Gobierno: Hay 25.401 ex combatientes del FMLN”, *Contrapunto*, urtarrilaren 9an.
- Gould, Jeffrey L. eta Aldo Lauria-Santiago (2008): *1932: Rebelión en la oscuridad. Revolución, represión y memoria en El Salvador*, Museo de la Palabra y la Imagen, San Salvador, El Salvador.

- Guzmán Orellana, Gloria (2004): “Mujeres en el conflicto y post conflicto. Una mirada retrospectiva de la participación de las mujeres en la historia reciente de El Salvador”, Las Dignas: *Educación desde la memoria. Experiencias pedagógicas para la paz, la democracia y la equidad de género*, San Salvador, El Salvador.
- Guzmán Orellana, Gloria eta Irantzu Mendia Azkue (2013): *Mujeres con memoria. Activistas del movimiento de derechos humanos en El Salvador*, Hegoa Institutua (UPV/EHU), Bilbo, <[http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/226/Mujeres\\_con\\_memoria.pdf?14885397](http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/226/Mujeres_con_memoria.pdf?14885397)>.
- Herrera, Morena (2001): “El Salvador: una reflexión feminista acerca del impacto de la guerra en la subjetividad de las mujeres que protagonizaron el conflicto”, Wyatt, Dominic eta Dominique Saillard (koord.): *Guerra y desarrollo: la reconstrucción post-conflicto*, UNESCO Etxea, Bilbo.
- Ibáñez, Ana Cristina (2001): “El Salvador: War and Untold Stories – Women Guerrillas”, Moser, Caroline O.N. eta Fiona C. Clark (arg.): *Victims, Perpetrators or Actors? Gender, Armed Conflict and Political Violence*, Zed Books, Londres eta New York, 117-130.
- Impunity Watch (2012): *El camino de la búsqueda. Experiencias y mecanismos para buscar a personas desaparecidas en América Latina*, Utrecht (Herbehereak) eta Ciudad de Guatemala (Guatemala).
- Jaquette, Jane S. (1996): “Los movimientos de mujeres y las transiciones democráticas en América Latina”, *Estudios Básicos de Derechos Humanos, Serie Estudios Básicos de Derechos Humanos*, V. Liburuki, Instituto Interamericano de Derechos Humanos (IIDH), 320-349.
- Krämer, Michael (2009): *El Salvador. Unicornio de la Memoria*, Museo de la Palabra y la Imagen, San Salvador, El Salvador (2. edizioa).
- La Página (2014): *Benjamín Cuéllar: La sentencia contra la Ley de Amnistía es combatir la impunidad*, uztailaren 14an, <<http://www.lapagina.com.sv/nacionales/119640/2016/07/15/Benjamin-Cuellar-La-sentencia-contra-la-Ley-de-Amnistia-es-combatir-la-impunidad>>.
- Las Dignas (2004): *Educación desde la memoria. Experiencias pedagógicas para la paz, la democracia y la equidad de género*, San Salvador, El Salvador.
- Luciak, Ilja (2001): *Después de la revolución: igualdad de género y democracia en El Salvador, Nicaragua y Guatemala*, UCA, San Salvador, El Salvador.

- Maier, Elizabeth (1998): *Las madres de desaparecidos. ¿Un nuevo mito materno en América Latina?*, Komunikazioa, Ikasketa Latinoamerikarren Elkartearen Topaketa, irailaren 24tik-28ra, Chicago (EE.BB).
- Martín Beristain, Carlos (2011): “Verdad, Justicia y Reparación: Democracia y Derechos Humanos en América Latina”, Zenbait Egile: *Contribución de las políticas de verdad, justicia y reparación a las democracias en América Latina*, Instituto Interamericano de Derechos Humanos (IIDH), San José, Costa Rica, 11-47.
- Mendia Azkue, Irantzu (2014): *División sexual del trabajo por la paz. Género y rehabilitación posbélica en El Salvador y Bosnia-Herzegovina*, Tecnos, Madril.
- Mendia Azkue, Irantzu y Gloria Guzmán Orellana (2016): “Tejiendo la memoria desde abajo: el Monumento a la Verdad y la Memoria de El Salvador”, *Revista Decisio. Saberes para la Acción en Educación de Adultos*, CEFRAL, 51-56, <[http://www.crefal.edu.mx/decisio/images/pdf/decisio\\_43\\_44/decisio-43-44.pdf](http://www.crefal.edu.mx/decisio/images/pdf/decisio_43_44/decisio-43-44.pdf)>.
- Nazio Batuak (1993): *De la locura a la esperanza. La guerra de 12 años en El Salvador*, Informe de la Comisión de la Verdad para El Salvador (1992-1993), Arcoiris, San Salvador, El Salvador.
- Nazio Batuak (1992): *Acuerdos de El Salvador: en el camino de la paz*, Arcoiris, San Salvador, El Salvador.
- Navas, María Candelaria (2007): “De guerrilleras a feministas: origen de las organizaciones de mujeres en el post-conflicto en El Salvador: 1992-1995”, II. Historiari buruzko Topaketa Nazionala, uztailaren 16tik 20ra, San Salvador, El Salvador.
- Orr, Robert C. (2001): “Building Peace in El Salvador. From Exception to Rule”, Cousens, Elisabeth M., Chetan Kumar eta Karin Wermester (arg.): *Peacebuilding as Politics. Cultivating Peace in Fragile Societies*, Lynne Rienner, Boulder eta Londres, 153-181.
- Vázquez, Norma, Ibáñez, Cristina eta Clara Murguialday (1996): *Mujeres-montaña. Vivencias de guerrilleras y colaboradoras del FMLN*, Cuadernos Inacabados, Horas y Horas, Madril.
- Velázquez, Eugenia eta Juan José Morales (2016): “Diputados creen que derogar la ley abre un panorama de incertidumbre”, [elsalvador.com](http://elsalvador.com),

uztailaren 14an, <<http://www.elsalvador.com/articulo/nacional/diputados-creen-quederogar-ley-abre-panorama-incertidumbre-119074>>.

Zenbait Egile (2011): *Contribución de las políticas de verdad, justicia y reparación a las democracias en América Latina*, Instituto Interamericano de Derechos Humanos (IIDH), San Jose, Costa Rica, 11-47.

Zenbait Egile (2008): *Movimiento de Mujeres en El Salvador 1995-2006: Estrategias y miradas desde el feminismo*, Fundación Nacional para el Desarrollo (FUNDE), San Salvador, El Salvador.



## **IV. Kapituluua.**

### **Duinak eta errebeldeak. Emakumeen eskubideen aldeko aktibismoa Chiapasen, Mexiko**

*Nadia López Ruiz eta Sara Hernández Pérez*





## 1. Sarrera

Honako lan honetan Chiapaseko emakumeen aktibismo politikoaren adierazpideak aztertuko ditugu, gatazka armatuaren eta Higadura Integraleko Gerraren testuinguruan. Aktibismo hori justizia, egia eta memoria historikoa eskatzeko prozesuen harira kokatzen dugu, 1994. urtetik (gatazka armatua hasi zenetik) gaur egunera arteko aldiko giza eskubideen urraketei lotuta. Gatazkak hainbat aldi izan ditu hasi zenetik, eta ondorioz, gatazkaren alde biek gauzatutako estrategiak aldatuz joan dira urte hauetan guztietan.

Lehenik eta behin aipatu nahi dugu laguntza-oinarri zapatistak, gizonak eta emakumeak, ez direla izan gobernuaren hainbat instantziek gauzatu eta ezarritako giza eskubideen urraketari aurre egin izan dioten zuzeneko protagonista bakarrak. Chiapaseko estatua mobilizazio, eskaera eta giza eskubideen eta indigenen kulturaren aldeko gune garrantzitsu bihurtu da Intentsitate Txikiko Gerra edo Higadura Integraleko Gerraren esparruan.

Hortaz, 94.eko gertaeren harira, hainbat eta hainbat pertsona eta erakunde<sup>1</sup> izan dira bai batik bat Estatuak eragindako indarkeriaren protagonista, bai erresistentzia, mobilizazio eta eskaera kolektiboen protagonista. Batzuetan zein besteetan, emakumeek modu aktiboan parte hartu izan dute eta parte hartzen dute; nahiz eta mexikarren hiri nahiz landa-eremuetako errealitatean oraindik ere genero-mendekotasuna berregiten den.

Chiapaseko emakumeen errealitatera, euren abagune eta borroketara hurbiltzeko, ikuskatze bibliografiko sakona egin dugu. Aipatu behar dugu, hala ere, EZLNren kontrako errepresio-estrategiaren ondorioz haren kontra dagoen itxitura mediatikoagatik, aurkitu ditugun datuetako asko medio askeetatik lortu ditugu; horiek direlako erasoak eta giza eskubide urraketen gainean erkidego zapatistek egiten dituzten salaketak hedatzen laguntzen dutenak.

Era berean, bi urtez, erkidego zapatistetan osasun-trebatzaile gisa egin dugun lan-esperientzia bera ere kapitulu honen oinarria da. Lan honen zati

---

1 Gustavo Castro Soto (1997) akademikoak Estatuaren indarkeria edo/eta zirikatzei aurre egin dieten eragileen zerrenda egin du: 1) Samuel Ruiz García eta Raúl Vera apezpikuek, 2) Diozesiek, erlijio-gizon eta emakumeek eta apaizek, 3) katekistek, 4) giza eskubideen defentsarako erakundeak, 5) gobernuz kanpoko erakundeek, 6) kazetari independente eta kritikoez, 7) abokatu independente eta kritikoez, 8) nekazarien erakundeek, 9) hirietako erakundeek, 10) oposizioko alderdi politikoetako buruzagiek, 11) EZLN laguntza-oinarriek, 12) askapeneko teoriaren babesleek, 13) hirietako gizarte-aitzindariak, 14) landa-eremuko gizarte-aitzindariak, 15) atzerritarrek, 16) irakasleek, eta 17) ikasleen buruzagiek.

handi bat emakumeekin eginda dago, batez ere sexuarekin eta ugalketarekin zerikusia duten gaiei dagokienez. Hori dela eta, dokumentu honetan jasotzen den informazio asko kapitulu honen egileen esperientziatik eta bizipenetatik dator.

## 2. Gatazkaren testuingurua

Chiapas Mexikoko hego-ekialdean dago, 74.415 kilometroko lurralde-hedadura dauka eta Tuxtla Gutiérrez du hiriburua. Bertako dibertsitate etnikoa oso aberatsa da; Mexikon ofizialki aintzat hartuta dauden 62 herri indiarretatik 12 bizi dira bertan, Mexikoko populazio indigenaren %13,5 dira eta biztanleria osoaren %27,2 (SIPAZ, 2012). Chiapaseko biztanleria osotik, %78,5 pobrezian bizi dira, eta %38,3 muturreko pobrezian. Chiapas Mexikoko Giza Garapenaren Indizean (IDH) azkena da (CONAPO, 2010). Bertako azaleraren 14.000 kilometro karratu inguru oihana eta basoak dira, eta bertatik hornitzen da herrialdearen hidroelektrizitatearen %55 (Ceceña, 1995). Chiapaseko baliabiderik interesgarrienak petrolioak, baliabide hidrologikoak, erreserba biotikoa, zur preziatuak eta mineralak dira (Castro, 2009). Azkenik, azpimarratu behar dugu Chiapaseko lurraldea funtsezko gunea dela geopolitikarako, kokapen estrategikoa baitauka; eta hegoko herrialde mugakideetako migrazio-fluxuak kontrolatzea eta droga eta armen trafikoa kontrolatzea ahalbidetzen du, gatazka larriagotzen duen egoera izanik (REDPAZ, 2012:5-9).

Tlatelolcoko<sup>2</sup> sarraskiaren ondoren, 1968ko urriaren 2an, hainbat gaztek Askapen Nazionalerako Indarrak (FNL) sortu zituzten, Nazio Askapenerako Armada Zapatista (EZLN) sortzeko ezinbesteko oinarria. Haien asmoak agerian geratu zirenean, Chiapasen, Lacandona Oihanean ezkutatzea erabaki zuten, 1974an harrapatu zituzten arte (Tello, 2006)<sup>3</sup>. EZLNren sorreran funtsezko beste elementu bat San Cristobal de las Casasen 1986ko urrian egin zen Indigenen Biltzar Nazionala izan zen. Biltzar horretan 400.000 indigena inguruk hartu zuten parte, eta arazo komunez eztabaidatu zuten. Ekintza historiko garrantzitsua izan zen; herritarrak bateratzeko balio izan zuen, eta hainbat indigena-erakunderen sorrera eragin zuen, denak helburu

---

2 Mexiko Hiriko *Plaza de las tres culturas* izenekoan, manifestazio batean 30 eta 300 artean ikasle eta zibil hil zituzten Mexikoko poliziak eta armadak (kopuruaren desberdintasuna iturrien araberakoa da). Tlatelolcoko sarraskiari buruz gehiago jakiteko ikus: <[http://www.tlatelolco.unam.mx/docs/cronologia\\_memorial.pdf](http://www.tlatelolco.unam.mx/docs/cronologia_memorial.pdf)>.

3 FLNri buruz gehiago jakiteko, kontsultatu: Adela Cedillo (2008).

berarekin: nekazaritzako arazoa konpontzea, parte hartzeko espazioak lortzea eta bizi-baldintzak hobetzea (Santiago, 2016). 1983. urtean, FLNk beste gerrillari talde bat antolatu zuen oihanean, CNiko erakunde indigenekin bateratua, eta azaroaren 17an, lehenengo kanpalekua antolatu zuten, EZLNren eratze-ekintza izan zena (Cedillo, 2012). Hurrengo 10 urteetan, EZLNko kideak klandestinitatean bizi izan ziren, eta kide horien artean emakumeen presentzia eta parte-hartzea oso garrantzitsua zen. EZLNren baitan, emakumeen borrokaren mugarrietako bat izan zen 1993an Emakumeen Lege Iraultzailea onartu izana, geroago aipatuko duguna.

Zapatisten altxamendua 1994ko urtarrilaren 1ean izan zen, Estatu Batuek, Kanadak eta Mexikok sinatutako Ipar Amerikako Merkataritza Askerako Ituna (TLCAN) indarrean jarri zen egun berean; nekazaritzarako eskubidea arautzen zuen Konstituzioaren 27. artikulua<sup>4</sup> aldatzearen truke, Mexiko lehenengo munduan sartzen zela adierazten zuen itun hark; aldaketa haren arabera, Estatuak herri-lurrak<sup>5</sup> pribatiza zitzakeen. EZLNren eta Estatuak indarren arteko konfrontazioak 12 egun iraun zuten. Seiurteko<sup>6</sup> hartan Carlos Salinas zen buru, Alderdi Iraultzaile Instituzionaleko (PRI) kidea. Konfrontazioaren lehenengo egunetan, EZLNk zazpi udalburu<sup>7</sup> okupatu zituen militarki, eta *Lacandona Oihaneko Adierazpena*<sup>8</sup> argitaratu zen; adierazpen horretan zehazten ziren altxamenduaren arrazoiak eta lehenengo eskaerak (lurra, etxea, elikadura, osasuna, hezkuntza, independentzia, askatasuna, demokrazia, justizia eta bakea). Urtarrilaren 6an, EZLNk elkarrizketarako baldintzak zehaztu zituen: 1) EZLN indar beligerante gisa hartzea; 2) alde bien su etena; 3) indar federalak erkidegoetatik irtenaraztea bertako biztanleen giza eskubideak errespetatuz; 4) landa-eremuetako herrien bonbardaketak etetea; eta 5) bitartekaritzarako batzorde nazionala osatzea. EZLNk baldintza horiek

---

4 27. artikuluaaren aldaketari buruz gehiago jakiteko, kontsultatu: Medina Ciriaco (2006).

5 Mexikoko Hizkuntza Akademiaren arabera, “herri batenak diren lurren multzoa, landatzeko, baso gisa ustiatzeko edo abereak bazkatzeko. Herri baten jabetza komuneko lurra, kooperatiban zein banaka landatua”. Konstituzioaren 27. artikuluaaren aldaketarekin, Estatuak lur horiek pribatizatzeak aukera ituntzen zuen, erosketa eta inbertsio pribatuak egiteko, eta horrela, nekazariak horren banaketa eskatzeko legezko aukera oro desagerrarazten zen (Medina, 2006).

6 Mexikoko Errepublikan presidentearen legealdiek irauten duten sei urteko aldia.

7 San Cristóbal de las Casas, Ocosingo, Chanal, Margaritas, Oxhuc, Huistán eta Altamirano (Chiapaseko lurraldearen %25).

8 Ikus adierazpena hemen: <<http://enlacezapatista.ezln.org.mx/1994/01/01/primera-declaracion-de-la-selva-lacandona/>>.

berberak errespetatzeko konpromisoa hartu zuen<sup>9</sup>. Azkenik, urtarrilaren 12an, Mexiko Hirian, bakea eskatzeko egin zen manifestazio jendetsuaren ostean, gobernua su etena adierazi zuen eta negoziazio-prozesuari ekitea onartu zuen (Ceceña eta Zaragoza, 1994). Konfrontazioen ondorioz, milatik gora lagun hil ziren, EZLNren adierazpenen arabera; gobernua, berriz, hildakoak 145 baino ez zirela izan adierazi zuen<sup>10</sup>. Beste alde batetik, Fray Bartolomé de las Casas giza eskubideen zentroak argitaratutako txostenaren arabera, konfrontazio horiek, guztira, 17.000 lagun desplazamendua eragin zuten (CDHFBC, 2003).

Elkarrizketa prozesua 1994ko otsailaren 21ean hasi zen, “Katedraleko elkarrizketak” izenekoekin; horietan dokumentu bat landu zuten, *Bakerako Konpromisoak* izenekoa, eta bertan jaso ziren indigenen eskaerak eta gobernuaren erantzunak. Hala ere, erkidegoei kontsulta egin ondoren, EZLNk agiri hori arbuiatu zuen, oinarritzko eskaerak jasotzen ez zituela argudiatuz<sup>11</sup> (Soriano, 2012).

1994ko abenduko hauteskundeetan PRI alderdiak irabazi zuen, eta Ernesto Zedillo izan zen Errepublikako presidente. Presidente berriak esan zuen EZLNko buruzagiak nor ziren jakin zutela, eta haiek atxilotzeko agindua eman zuen. Bidegabeko atxilotetak egin ziren EZLNko kide izatea leporatzen zitzaieen pertsonen aurka, eta erkidego zapatisten aurkako eraso militarra eragin zuten atxiloteta-agindu haiek betetzeko<sup>12</sup>. EZLNk baldintzak jarri zituen elkarrizketei berriro ekiteko; armada oihanetik irtenaraztea eta atxilotze-aginduak indargabetzea. 1995eko urtarrilak emaitza hau utzi zuen: torturak, erailketak, etxegabetzeak, hainbat herri suntsitu, atxilotetak, herri-lurretan eraikitako base militarrek eta 30.000 pertsona desplazatu. Urte hartan gobernu federalaren erasoak etengabeak izan ziren, eta ondorioz, elkarrizketa eten egin zen. Azkenik, urrian eta 22 hilabeteko gatazkaren ondoren, EZLNk eta gobernua beste eztabaida bati ekin zioten altxamendu armatua eragin zuten kausei buruz, eta azkenik, 1996ko otsailaren 16an “San

---

9 Ikus agiria hemen: <<http://enlacezapatista.ezln.org.mx/1994/01/06/sobre-el-ezln-y-las-condiciones-para-el-dialogo/>>.

10 Bartzelonako Unibertsitateko *L’Observatori Solidaritate*n webgunetik hartutako datuak: <[http://www.observatori.org/paises/pais\\_58/documentos/cronologia\\_chiapas.pdf](http://www.observatori.org/paises/pais_58/documentos/cronologia_chiapas.pdf)>.

11 Ikus adierazpena: <<http://enlacezapatista.ezln.org.mx/1994/06/10/segunda-declaracion-de-la-selva-lacandona/>>.

12 Gertaera horri “Zedilloren traizioa” esaten zaio. Horri dagokionez EZLNk argitaratutako agiria hemen kontsultatu daiteke: <[http://palabra.ezln.org.mx/comunicados/1995/1995\\_02\\_02.htm](http://palabra.ezln.org.mx/comunicados/1995/1995_02_02.htm)>.

Andreseko Akordioak<sup>13</sup> sinatu zituzten. Bost eztabaida-mahai eratu zituzten, eta horietako bat Chiapaseko Emakumeen Eskubideei buruzkoa. Era berean, 1996ko azaroaren 29an, Adiskidetasun eta Bakerako Batzordearen Legea (aurrerantzean COCOPA)<sup>14</sup> ekimena sortu zen; batzorde horren zeregina zen elkarrizketa-prozesuan laguntzea eta San Andreseko Akordioen funtsari ekitea; hau da, herri indigenen errealitatea konstituzioan aintzat hartzea, haien giza eskubideak errespetatuz, bereziki emakumeenak. Ekimen horren alde Mexiko osoko erakunde indigenak agertu ziren, Indigenen Biltzar Nazionalaren (CNI)<sup>15</sup> baitan elkartuak.

PRIk hainbat eragozpen aurkeztu zituen proposamen horren aurka, eta egindako eskaera garrantzitsuenak hutsaltzen zituen horrek. Hori zela eta, EZLNk eten egin zituen negoziazioak, eta berriro ere tentsioa piztu zen gerrillaren eta gobernuaren artean.

2000. urtean Mexikoko esparru politikoa ustekabeen irauli zen. Vicente Fox, Ekintza Nazionalerako Alderdiko (PAN)<sup>16</sup> hautagaiak irabazi zituen Mexikoko presidentetzarako hauteskundeak. Une hartan, elkarrizketei ekiteko EZLNk jarritako baldintzak honako hauek ziren: San Andreseko Akordioak betetzea COCOPA Legearen onarpenarekin; preso politikoen askatasuna eta eremuan zeuden 259 kanpaleku militarretatik zazpi ixtea (CEDOZ, 2001). Presidenteak onartu egin zituen baldintzak, COCOPA Legearen ekimena Legebiltzarrari eman zion eta gatazka-gunetik 53 polizia eta militar talde erretirarazi zituen. 2001eko otsailean *Lurraren kolorearen Ibilaldia* karabana zapatista egin zen, eta Mexiko Hirira iritsi zirenean, 200.000 lagunek egin zion harrera. Otsailaren 28an, EZLNko komandanteek Legebiltzarrean parte hartu eta COCOPA Legea defendatzea lortu zuten. Hala ere, azkenean, 2001eko apirilaren 25an, Senatuak konstituzioaren erreforma bat onartu zuen, eta San Andreseko Akordioekin inolako zerikusirik ez zeukan; izan ere, herri indigenentzat autonomia bat ezartzen zuen arren, ez zuen zehazten autonomia hori nola gauzatu zen, ez zuen aintzat hartzen erkidego indigenen lurraldea,

---

13 Ikus testua: <<https://archivos.juridicas.unam.mx/www/bjv/libros/1/1/12.pdf>>.

14 Adiskidetasun eta Bakerako Batzordeari buruzko informazio gehiago jasotzeko, kontsultatu: <<http://www.cedo.org/site/content.php?doc=407>>.

15 “Herrietako etxea” gisa sortua, Mexikoko hainbat etnia eta mugimendu indigenen elkarteak izan zen CNI, San Andreseko akordioak sinatu ondoren izan ziren eztabaida-mahaietan sortua, eta mugimendu indigena nazionalak espazio propioa eraikitzeko izandako lorpena adierazten du. Izena, 1986an, San Cristobalen egin zen lehenengo *Congreso Nacional Indigenatik* dator (González, 2005).

16 Ekintza Nazionalerako Alderdia zentro-eskuineko alderdia da, kontserbadorea eta demokrata-kristaua.

eta erkidego horiek ere ez zeuden zuzenbide publikoko subjektutzat hartuta. EZLNk behin betiko hautsi zuen elkarrizketa (CEDOZ, 2001).

Une horretan, zapatisten estrategia berria praktikan autonomia eraikitzea izan zen, San Andreseko akordioak bere lurraldean ezarri. Lehenengo neurrietako bat Udalerri Autonomo Errebelde Zapatistak (MAREZ) sortzea izan zen; hots, udalerriak berregituratzea eta Chiapaseko mapa berrixuratzea, herri indigenen errealitate kultural eta historikoei atxikita. Bost erregio zehaztu ziren, eta erregio bakoitzeko gune politiko-administratiboari “Aguascalientes” deitu zitzaion: La Realidad, Oventic, La Garrucha, Morelia eta Roberto Barrios. Gune horiek elkarrizketarako eta topaketarako espazio bihurtu ziren mugimendu sozialetarako eta gizarte zibilarentzat, nazionalak nahiz nazioartekoak. Geroago, 2003ko abuztuan, EZLNk iragarri zuen “Aguascalientes” izenekoak desagertu eta “Los Caracoles” edo Karakolak eta Gobernu Oneko Batzordeak (JBG) sortu zirela iragarri zuen, eta horrela, erregio-gobernuak sortu zituzten lurralde zapatistaren barruan.

Manuel Ignacio Martínez Espinozaren (2006) arabera, autonomia zapatistak lau alderdi bermatzen ditu erkidego zapatistentzat: 1) lurraldearen gaineko agintea; 2) baliabideen autokudeaketa; 3) autogobernua eta 4) herri indigenaren identitatea. Horren ildoan, erakundeek ukatu zieten autonomia gauzatzea bermatzen zieten Gobernu Oneko Batzordeek. Autonomiaren eskumenen baitan zeuden, justizia, nekazaritzako gaiak, osasuna, ondasun materialen banaketa, hezkuntza eta erkidego zapatisten erregistro zibila, bai eta gizarte zibilarekiko harrera eta harremana. Autonomia zapatistaren oinarria erkidegoak dira, bertan biltzarrak egiten dira erkidegoko bizimoduarekin loturiko gaiak eztabaidatzeko eta erabakitzeko, eta hainbat kargu betetzeko pertsonak eta batzordeak izendatzen dira (CEDOZ, 2003). 2005 urtean, EZLNk *Lacandona Oihaneko Seigarren Adierazpena* argitaratu zuen<sup>17</sup>; bertan jasotzen da gizarte zibiletik oinarrituta eraikiko dela autonomia sasoi berri honetan; baina EZLNk ez ditu armak utziko, eta bere burua defenditzeko soilik jardungo du. “Autoeraikuntzako” aldi honetan, nabarmentzekoak dira hezkuntzan eta osasunean izandako aurrerapausoak, pertsona sustatzaileen formazioa eta kliniken eta ospitaleen eraikuntza; halaber, komunikabide autonomoak, irriatiak kasu, eta artisautza, kafe eta abereen kooperatibak ere.

1994az geroztik, EZLNren operazioei erantzuteko erregimen mexikarrak gauzatutako operazioek ordutik bizirik dirauen gatazka eragin dute, eta indarkeria, desplazamenduak, segurtasunik eza eta pobrezia handiagoa eragin

---

17 Kontsultatu hemen: <<http://enlacezapatista.ezln.org.mx/sdsl-es/>>.

ditu horrek. Gaur egun, Chiapaseko gatazka-egoera ondoen deskribatzen duen kontzeptua “Intentsitate Txikiko Gerra”<sup>18</sup> da; gobernua ofizialki onartzen ez duen arren, erkidego indigenen bizitzako eremu guztiei dagokien gatazka izan badelako.

Mexikoko Estatuaren estrategiak erresistentzia zapatista higitzea du helburu, hiru ardatz nagusitan: militarra, ekonomikoa eta mediatikoa. Horretarako, gatazkan dagoen eremu guztia militarizatu egin da kuartel militarren kopurua handituz, bereziki indigena gehien bizi diren erregioetan. *L’Observatori Solidaritat de la Universitat de Barcelonak*<sup>19</sup> azaltzen duen bezala, “1995eko otsaila baino lehen, indar militar eta poliziaak zeuden 74 punturen berri zegoen. 1997ko abuztuan, puntu horien kopurua 209ra handitu ziren”.

Era berean, paramilitarismoa segurtasun indarretako eta armadako sektore batzuek, gobernu federalaren aldeotasunarekin, sustatu eta antolatu dute. Chiapasen, paramilitarrek berebiziko tresna bihurtu dira gobernuarentzat matxinatuen aurkako estrategian; EZLN suntsitzeko eta erkidego-sarea izuaren bidez desegituratzeko helburua dute (Galindo de Pablo, 2015).


Chiapas paramilitarrez betetzeko beste arrazoi bat da bertako baliabide natural garrantzitsuenez jabetzea eta ustiatzea. Militarizazio-estrategia PRI alderdiko Carlos Salinasen (1988-1994) eta Ernesto Zedilloren (1994-2000) legegintzaldiekin bat etorri zen, eta Salinasen gobernupean Defentsa Nazionalerako Idazkaritzak idatzi eta Zedilloren agindupean gauzatutako “Plan Chiapas 94”<sup>20</sup> izenekoan diseinatutakoari jarraitu zitzaion. Agiri horren helburu politikoa zen EZLNren egitura politikoa suntsituz “bakea lortzea eta iraunaraztea”.

---

18 Francisco Pinedaren (1986) arabera, Intentsitate Txikiko Gerra egungo estrategia militarra da AEBn, eta honako helburu hauek ditu: Matxinatuen aurka jotzea, lehengoratzeta (gobernu iraultzaileak kentzea) eta prebentzioa (gobernu aliatuei ez ezegonkortzen laguntzea). “intentsitate txikia” aipatzean esan nahi dute arerioa mendean hartzeko indarraren erabilera mugatzen dela eta beste bitarteko batzuk erabiltzen direla: ezegonkortzea, bake armatua, gatazka militar laburrak, gerrillen gerra, operazio paramilitarrak, inbasioa, gerra estalia, etab.

19 Bartzelonako Unibertsitateko L’Observatori Solidaritaten webgunetik hartutako datuak: [http://www.observatori.org/paises/pais\\_58/documentos/cronologia\\_chiapas.pdf](http://www.observatori.org/paises/pais_58/documentos/cronologia_chiapas.pdf).

20 *Plan de Campaña Chiapas* izenaz ere ezaguna. Agiri horren parte bat hemen kontsulta daiteke: [http://www.frayba.org.mx/archivo/articulos/941001\\_plan%20de\\_campana\\_chiapas94\\_sedena.pdf](http://www.frayba.org.mx/archivo/articulos/941001_plan%20de_campana_chiapas94_sedena.pdf).



Iturria: Chiapas Estatuko Konstituzio Politikoa, 2011.

Estrategiaren puntu garrantzitsuenetako bat da militarren eta talde zibilen arteko harremana, eta haien zereginen artean aipatzen da *“biztanle zibilen arteko zenbait sektore ezkutuan antolatzea; besteak beste, abeltzainak, jabe txikiak eta abertzaletasun handiko norbanakoak, eta gure operazioei laguntzeko gure agindupean edukiko ditugu”* (Galindo de Pablo, 2015). Talde paramilitar ezagunenak honako hauek dira: “Bakea eta Justizia”, “Maskara Gorria” (Actealeko sarraskiaren egileak) eta “MIRA” (Indigenen Mugimendu Iraultzaile Antizapatista) (CDHFBC, 2003). Beste eragile garrantzitsu bat da Chiapas Estatuko Justiziarako Prokuradoretza Nagusia (PGJE), paramilitarismoaren, zigorgabetasunaren zutabe nagusietako baten ezinbesteko aliatua, eta justizia matxinatuen aurkako strategiaren tresna bihurtzeko arduraduna (CDHFBC, 2001).

Gobernu aldatetaren ondoren eta PAN presidentetzara iritsita, talde paramilitarren erasoak gutxitu egin ziren 2013 urtera arte; urte horretan PRIk boterea berreskuratu zuen Enrique Peña Nietorekin eta berriro hasi ziren eraso bortitzak, talde berrien aldetik. PANek aplikaturiko matxinatuen kontrako neurriek alderdi ekonomikoa zuten helburu, bereziki bi ekintza-ildotan:



lehenengoa “Plan Puebla Panama” (PPP)<sup>21</sup> izenekotik, 2008an plan horri “Proyecto Mesoamerica” deitu zitzaion, ondorioztatutako makro-proiektuak eraikitzea izan zen; proiektu horien ondorioz, indigenen lurrak desjabetu zituzten, lur azpia eta akuiferoak kutsatu ziren, baliabide naturalak ustiatu zituzten eta bizimodu tradizionalaren haustura eta erkidegoen eta bertako kideen arteko zatiketa eragin zen. Bigarren ekintza-ildoak garapenerako gobernuaren programak izan ziren, eta Chiapas den eremu urrian eta gatazkak larriagotutako eremua izanik, diru-laguntza horiek mugimendua uztera behartzen zituzten EZLNko kideak, eta horrek erkidegoen arteko gizarte kohesioa haustea eragin zuen. Programa horien adibideak dira PROCEDE, herri-lurrak zatitu eta saltzeko programa (SIPAZ, 2007); PROCECOM eta PROCAMPO, hazi transgenikoen, kimikagaien eta ongarrrien erabilera sustatzeko programak; eta OPORTUNIDADES/PROGRESA/PRONASOL, norbanakoentzako laguntza-programak (SIPAZ, 2006; Gutiérrez, 2010; Bellinghausen, 2012).

Mexikoko gobernuaren gerraren estrategia-ardatzetako beste bat komunikabideen kontrola izan da. Altxamendu zapatista gertatu zenean, nazioarteko prentsa gatazkan murgildu zen eta Marcos azpikomandantea komunikabideetako heroi berri bihurtu zen, haien bitartez hedatu zuen Mexiko genozidaren irudia (Moritz, 2005). Gerra irekia amaitu zenean, gobernuak negoziazioen bidez bakea eraikitzeko prozesuari ekin nahi ziola adierazten zuen bitartean, nazioko zein nazioarteko komunikabideetako informazioa kontrolatzen ahalegintzeko aprobetxatu zuen. Horrela, bi estrategia zehaztu zituen. Lehenik eta behin, erkidegoen<sup>22</sup> baitan gertatzen dena hedatzea mugatzen duen hesi mediatikoa eta, bigarrenik, EZLNri buruzko kontra-informazioa zabaltzea, zurrumurru eta gezurren bidez, haien salaketak eta ekintzak hutsaltzeko asmoz<sup>23</sup>. Horregatik hain zuzen da hain garrantzitsua komunikabide libreek eta giza eskubideen behatzaileek izan duten egitekoa hutsune mediatikoa hausterakoan (Sierra, 1998).

---

21 *Plan Puebla Panama* garraio, komunikabide eta energiako azpiegituren megaproiektuetan oinarrituriko erregio-garapenerako egitaraua da, eta TLCAN osatzeko, erregioa modu jakin batean bateratzen du. Nekazaritza mesoamerikarrean ekoizpen modua aldatzea sustatzen du, jabetza sozialean eta autosufizientzian oinarrituta dagoen nekazaritza-ekonomiatik jabetza pribatuan, laneku merkean, labore agroindustrialetan, baliabide naturalen erazketan eta neurri handiko turismoan oinarritutako sistema neoliberalerantz. Informazio gehiagorako, kontsultatu Wilson (2008).

22 Esaterako, Actealeko sarraskiaren berri “Televisión Azteca”n soilik eman zuten; berria harriduraz eman zuten eta etnia indigenen arteko arazoak zirela baieztatu zuten (Álvarez, 2000).

23 Estrategia horren adibideak dira FARC edo ETA erakundeekin lotura dutela leporatzea, edo matxinatutako pertsonen identitateari buruzko zurrumurruak zabaltzea.

### **3. Gatazkaren genero-ikuspegia**

Kapitulu honetan aztertuko dugu gatazka armatuak eta Intentsitate Txikiko Gerrak (GBI) oso modu desberdinean ukitu dituztela gizonak eta emakumeak euren eguneroko bizimoduan, Mexikoko gizartean oro har eta erkidego indigenetan zehazkiago dagoen desberdintasun-eredu historiko batean oinarrituta. Gainera, Chiapaseko emakumeek gatazkan eta gatazka-ostean zer modutan parte hartu duten ere aipatuko dugu, gaur egun, GBI oraindik ere erakunde ofizialek ukatzen duten errealitatea dela kontuan hartuta.

Lehenik eta behin, gure ustez beharrezkoa da azpimarratzea mugimendu zapatistaren kasuan, emakumeen parte-hartzea, ikusgarritasuna eta antolamendua hasieratik egon dela, bai eta EZLN klandestinitatean apurka eratzen ari zen urteetan ere. Orduz geroztik, emakumeen parte-hartzeak EZLNn protagonismoa irabazi du urteekin, maila desberdinetan, bai diskurtsoa erakundearen sektore kontserbatzaileenetan sartzen joan delako (erkidegoak nahasiz eta haien artean tentsio berriak sortuz), bai autonomiaren gauzatzean, mugimendu zapatistaren alde zibil eta soziala kontzienteki eta bere borondatez garatu direlako, erakunde militarren kaltetan. Hala ere, autonomiaren egitura sozialetan emakumeen parte-hartzea oso handia izan den eta den arren, horrek ez du beti lagundu emakumeen kokapen desberdindua aldarazten.

#### **3.1. Zapatismoa: emakumeek parte hartzeko moduak EZLNren baitan**

##### **3.1.1. Emakume gerrillariak**

Chiapaseko gatazka armatuan emakumeen parte-hartzeaz hitz egiten dugunean, berehala pentsatzen dugu Nazio Askapenerako Armada Zapatistaren egitura militarrean eta Ramona Komandantearengan. Ramona eta beste emakume batzuk zapatismoaren egitura politiko militarreko parte izan ziren eta dira, komandanteak, insurgenteak, osasun-tenienteak, etab. Guiomar Roviraren hitzetan (1996), zapatismoaren lehenengo urteetan, emakumeak egitura militarren heren bat ziren eta erdia baino gehixeago laguntza-oinarri zibiletan. Kuantitatiboki, beraz, gerrillaren maila guztietan daude. Emakumeentzat, EZLNn sartzea pertsonalki sustatzeko modu bat zen; hau da, ikasteko eta erkidegotik irteteko, eta genero-aginte tradizionaletatik desbideratzeko (Rovira, 1996). Emakume batzuek presioa eragiten zieten alabei EZLNko kide izateko, haientzat pauso garrantzitsua zelako: gaztelaniaz hitz egiten, irakurtzen eta idazten ikastea, bai eta historia eta politikari buruzko

formazio teoriko eta intelektualagoak ere, instrukzio militarrean nahitaezkoak baitziren. Hasierako 24 komandanteetatik, 5 emakumeak ziren<sup>24</sup>. Horren ildoan eta Clara Murguialday-k aipatzen duenaren haritik (1995), “*gatazka armatuetan, batez ere luze irauten dutenean, emakumeen gaineko gizonen menderatze-egiturak erori egiten dira hein batean, eta emakumeek aukerak aurkitzen dituzte rol berriak, trebetasun eta ikaskuntza berriak garatzeko, eta inoiz ametsetan ere irudikatu ez zituzten zereginak eta ardurak betetzen dituzte*”. Hau da, nahi ez diren gatazka armatuaren testuinguru horiek emakume askok erabili dituzte ahalduntzeko bide gisa.

Egunerokotasunean erkidegoetan bizi diren arren entrenamendu militar sistematikoa duten eta edozein unetan borrokaren zerbitzura jar daitezkeen emakumeak ere badira milizietan. Milizian emakumeen kopurua txikiagoa izan da. Barneratutako genero-identitatearen eta miliziak dakartzan obligazioen arteko tentsioak (matxinatu izateko nahitaezko urratsa) emakume askok miliziano izatera iristerik ez dutela sentitzera eramaten ditu. Emakumeak kontrol sozial gogorra pairatzen du, batik bat etxeko espazioetan; ohituraren arabera, emakumearen espazio “naturala” etxea baita. Paradoxikoki, erkidegoetan gerrillari atxikitzea bultzatu den arren, haien gaineko presio soziala gogorregia izaten da askotan. Aita eta senar batzuek jendaurrean emakumeen parte-hartzea ukatzen ez duten arren, praktikan arbuioa erakusten dute eta tentsio gehiago sortzen dira emakume horiek asteak eman behar dituztenean etxetik kanpo. Era berean, emakume askoren arabera, erkidegoetan “zurrumurru eta txutxu-mutxuak” ohikoak izaten dira emakumeak laguntza-oinarri gisa, autonomiaren jardunarekin loturiko erkidegoko zereginak garatuz, parte hartzea erabakitzen duenean. Emakumei eragiten zaien kontrol sozial hori, beraz, gizoni eragiten zaiena baino askoz handiagoa da; gizonak askatasun handiagoa baitauka parte hartzea erabakitzeko, familiaren eta gizartearen presioa sentitu gabe, eta inoiz ez dira txantxa edo txutxu-mutxuen helburu.

Landa-eremuetako erkidegoetan adina errespetu-adierazlea da, eta erkidegoko karguak, oro har, gizon nagusiek bete izan dituzte. Gizarte-antolamendu horrek egitura militarrean izan du isla, genero-desberdintasun batzuekin. 1994ko urtarrileko 12 eguneko gerran, emakume matxinatuak<sup>25</sup> emakume gazteak izan ziren, 17 eta 30 urte artekoak, eta emakume nagusiagoek, berriz, komandantzia karguak zituzten. Horrela, esparru militarrean ere ikus daitezke desberdintasunak emakumeen adinean egitura armatuari dagokienez.

---

24 Esther Komandantea, Fidelia Komandantea, Ramona Komandantea, Susana Komandantea eta Yolanda Komandantea.

25 Haien gerra izenak Irma, Laura, Elisa, Silvia, Maribel, Isidora, Amalia edo Elena ziren.

Beste alde batetik, emakumeek askatasun handiagoa dute bikotea kide zapatisten artean aukeratzeko. Sorturiko bikote matxinatuak ezkontzera irits daitezke baimen militar batekin. Kasuren batean emakumeak haurdun geratu ziren, eta erkidegora itzuli behar izan zuten aldi baterako<sup>26</sup>. Emakume batzuk, egitura militarreko kide izaten jarraitu nahi izan arren, urteetan ez dute lortzen, bakarka hartu behar dituzten amatasun-ardura berriak dituztelako. Era berean, zapatisten arteko jaiotzen kontrola posible izan da emakumeek metodo antikontzeptiboak erabili dituztelako, batez ere ahotiko antikontzeptiboak. Beraz, emakumeak izan dira nahi ez diren haurdunaldiak saihesteko arduradunak, eta gizonak ez dira arduratu ez jaiotzen kontrolaz ez sexu-transmisiozko gaixotasunez.

Zapatismoaren kasuan ikusten duguna da emakumeak aparatu politiko-militarrera iristea genero-aginte tradizionalarekin hausteko aukera bat dela; izan ere, aginte horrek ama gazte, etxearen, seme-alaben eta pertsona nagusien zaindari gisa kokatzen ditu euren erkidegoetan. Emakume matxinatuek “uko egin diote” ama izateari (gaztetan izateari, behinik behin), zaindari izateari eta etxeko eremura murriztuta egoteari, eta klandestinitatean bititza erabaki dute. Horrek bide berriak ireki dizkie.

Gaur egunera arte Chiapasen armagabetzeko, desmobilizatzeko eta borrokalari ohiak gizarteratzeko inolako prozesurik gertatu ez denez, ezin dugu aztertu testuinguru horretan prozesu horiek genero-ikuspegitik duten izaera eta ezaugarriak. Unea iristean, espero beharko litzateke alderdi bakoitzak hartutako neurriek euren beharrian eta interes espezifikoei erantzutea. Iker Zirionek (2012: 19) baieztatzen duen bezala, oro har, DDR prozesu gehienak genero-ikuspegia kontuan hartu gabe ezarri dira, eta are garrantzitsuagoa dena, emakumeak prozesu horietatik baztertuta eta inbisibilizatuta egon dira.

### 3.1.2. Emakumeak laguntza-oinarri zapatistak: funtsezko gaia

Ez da egia gerrillak euren burua iraunarazten dutela. Edozein talde sozialen antzera, taldea zaindu egin behar da. Horren ildoan, zeregin horiek emakumeen ardura izan dira batik bat. Emakumeen parte-hartze handiena gizarte zibil gisa izan da, laguntza-oinarri gisa, kasu horretan biztanleen erdia baino gehixeago dira. Klandestinitatean eta gatazka irekia zegoenean bete zituzten zereginak, besteak beste, elikaduratik hasi eta uniforme militarrek eta gerra-makinak zaintzeraino izan ziren.

---

26 Chiapasen emakumeak gazte izaten dira ama, eta ama-ardurak zituztenek ezin zuten matxinatuak izan.

2003. urtetik aurrera, zapatismoaren estrategia berriaren baitan, egitura berriak eta berrituak eta erkidegoetako karguak sortu ziren: Gobernu Oneko Batzordeak (JBG) eta osasun, hezkuntza eta komunikazio alorrerako sustatzaileak, besteak beste. Tradizionalki, emakumeen parte-hartzea kargu horietan oso txikia izan da. Hala ere, azkeneko hamarkadan parte-hartzea handitzen ari dela ikusi da, Emakumeen Lege Iraultzaileak eta antolatu diren hainbat eta hainbat topaketetan adierazi izan diren eskaerek bultzatuta. Karakola guztietan, Gobernu Oneko Batzordeetan kargua duten emakumeen eta osasun, hezkuntza eta komunikazioko sustatzaileen kopurua gizonen antzekoa da. Zenbait kargu emakumeen beharrizan espezifikoak estaltzeko sortu dira, eta (salbuespenak salbu) emakumeek hartzen dituzte karguok; hala nola, sexu eta ugalketa osasunerako sustatzailea, emakumeak osasun-sistema autonomo zapatistara<sup>27</sup> iristeko erraztasunak emateko sortua. Beste esperientzia batzuk izan dira emakumeen kooperatibak sortzea, artisautzaren edo abelazkuntzako proiektuen inguruan, emakumeen diru-sarrerak handitzeko eta ahalduntze kolektiboa indartzeko.

## 3.2. Emakumeen eskubideen urraketa

Chiapaseko emakumeek, EZLNn antolatuta dauden emakume indigenak zein atxikiriko beste erakunde batzuetako emakumeak (indigenak izan zein izan ez), hainbat indarkeriari aurre egin behar izan diete gatazka armatua piztu zenetik. Gerrak ondorioak ditu gizon eta emakumeentzat, baina ondorio horiek oso adierazpide desberdina dute generoaren arabera. San Cristobaleko Emakumeen Taldeko Marta Figueroa abokatuak dio “generoaren gaia ia ikusezina da, ez eta pentsatua ere, baina horrela izan da beti gerra guztietan: beldurra hedatzeko kanal pribilegiatua dira”. Mercedes Oliverak (2004b) gehitu du emakumeak “objektu edo helburu militar” gisa ikusten direla, haiek direlako “hurrengo gerrillarien belaunaldiaz erditzen direnak” eta, nolabait, “herri bat irabazia edukitzeko neurria” adierazten dute. Izan ere, emakumeen kontrako ekintzen bidez beldurrarazi eta animoan eragitea lortu nahi da, baina ez emakumeengan soilik biktima direlako, baizik eta erkidego osoan (SIPAZ, 1998).

### 3.2.1. Sexu-indarkeria: ebazteke dagoen justizia

Chiapaseko gatazka armatuaren kasuan, 1994tik aurrera, emakumeen kontrako bortxaketak eta sexu-erasoak aurkitzen ditugu, haien aktibismoa,

---

27 Osasun-figura hori sexu alorreko gaien prebentzioaz eta arretaz (hilerokoa, sexu-transmisiozko gaixotasunak, sexualitatea eta emakumeen eskubideak) eta ugalketa-osasunaz (antisorgailuak, familia-plangintza, haurdunaldia eta edoskitzea) arduratzen da.

etnia eta generoa zigortzeko. Hala ere, ez da erraza gatatzaren urte horietan gertatutako sexu-bortxaketei buruzko datuak lortzea bigarren mailako iturrien bidez. Besteak beste, ez erakundeek ez gizarte-erakundeek ez dute datuak biltzeko beharrezko tresnarik eta, gainera, erakundeek oso interes txikia dute gai horren inguruan.

Sexu-bortxaketen kasuan, hain zuzen, horietako asko emakumeek eurek isilarazi dituzte, salatzearen ondorioz zigorren bat jasotzeko beldurragatik eta erkidegoak berak adierazi egingo dituelako beldur eta lotsagatik. Lurralde zapatista eta atxikirikoetan bortxaketa oso estrategia hedatua izan ez den arren, deskribatutako bortxaketa-kasuak matxinatuen kontrako estrategiaren parte gisa identifikatu dira gatazka armatua hasi zenetik Chiapas estatuaren militarizazio gero eta handiagoaren baitan. Militarrek bertan egoteko arrazoi ofizialtzat narkotrafikoaren eta legez kanpoko migrazioaren aurkako borroka erabiltzen dute. Militar taldeak igarobide garrantzitsuetan kokatuta daude, beraz, oso ohikoa da militarrek emakume eta gizonak atxilotzea eta galdeketak egitea.

1995 urtean, hiru ahizpa indigena tzeltal bortxatu zituen militar talde batek Altamiranon. Hiru ahizpek kasua salatzea erabaki zuten eta giza eskubideen zenbait zentzoren laguntza eta aholkularitza jaso zuten. Horrek eragin mediatiko handia izan zuen, baina ez zen beti emakume horien interes eta ongizatearen mesederako izan. Kasu ezagun hori adibide garbia izan zen ikusteko emakumeek eragozpen handiak dituztela justiziara iristeko, eta ez erakundeen aldetik soilik, bai eta euren erkidegoen aldetik ere. Mujeres de Maiz-en (1996:197). Figueroa abokatuak aipatzen duen bezala, bortxaketaren osteko bizipena bortxaketa bera bezain traumatikoa izan zen. Mekanismoak, gainera, ez zeuden emakume horien ezaugarri kulturaletarako ez pentsatuak ez egokituak, kultura hegemonikorako baizik: azterketa ginekologikoa, terapia, agerraldiak gaztelaniaz, haiek bilatzeko eraso militarrek eta hiriburura deklaratzera desplazatu beharra, etab.

Urte batzuk geroago, kasua Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrean aurkeztu zen Giza Eskubideen Sustapen eta Defentsarako Batzorde Mexikarraren eta Nazioarteko Zuzenbidearen eta Justiziaren aldeko Zentroak (CEJIL) lagunduta. Sistema interamerikarrean aurrekaria izan zen kasu hau; izan ere, lehenengoz onartu zen sexu-bortxaketa tortura gisa, eta hiru indigena tzeltalen aurkako delitua Mexikoko justiziak iker zezan gomendatu zuen, aurrerago jarraipena egingo ziola bermatuta. Ikerketa horiek ez ziren egin, eta kasua artxibatu egin zuten. Erreparazio-neurriei dagokienez, 15 urte geroago, Chiapaseko gobernadoreak “akordio” ekonomiko bat eskaini zien

hiru ahizpei. Hala ere, erreparazio ekonomikoa bidezkotzat jo zen arren, delitu horrengatiko justizia eskaerak oraindik ez du erantzunik jaso.

Gorago aipatu dugun bezala, zapatismoaren irudiaren difamazio-estrategia ere garrantzitsua izan da matxinatuen kontrako estrategian. Horren ildotik, baditugu emakumeen bortxaketa kasu batzuk zapatismoaren adierazgarri diren ikurrak erabiliz gauzatu direnak, adibidez buru-berokia. Hortaz, emakumeen gorputza erabiltzen da zapatisten mugimendua kaltetzeko. Hori da San Andres Larrainzarren lan egiten zuten hiru erizainen kasua; arrazoi politiko eta erlijiosoengatik barruko gatazka larria duen herrixka.

San Andreseko Akordioen negoziazioan, 1995eko urrian, “Emakume indigenaren egoera, eskubideak eta kultura” Elkarrizketa Mahaian, sexu-indarkeriaren inguruan, honako hau adostu zuten parte-hartzaileek: *“Bortxaketa gerra-krimenez hartua izan dadila nazioarteko itunetan xedatzen denari jarraikiz”*. Lehen aipatu ditugun sexu-bortxaketen kasua aipatzen zen esplizituki, eta justizia eskatzen zuten emakume horientzat. Egun bat geroago, Mexikoko Demokraziarako Batzorde Nazionalaren koordinatzailea, Estatu Batuetan lan egiten zuena, bortxatu egin zuten Chiapasen zela. Erasotzaileek beldurrarazi egin zuten gai politikoetan parte hartzen zuela aipatuz. Cecilia Rodriguezek matxinatuen kontrako strategiaren barruan salatu zuen eraso hau, eta honako hau adierazi zuen: “Estatu Batuetako Gobernuak berronesten eta, agian, ahalbidetzen duen “Intentsitate Txikiko Gerra” bateko biktima naiz. Ezein herritarrek seguru eta lasai sentitzerik izan ez dezan eragiten duen gizarte-narriadura egoera baten biktima naiz. Gero eta maizago, botereak erailketa, izua, konspirazioa... erabiltzen dituen egoera (...)”<sup>28</sup>.

Hernandez Castillo (2009) antropologo eta aktibistak azpimarratzen du gerra-jardun horietako askoren eduki patriarkal handia eta emakumeen aurkako sexu-indarkeria eta tortura mugimendu sozialak eta erresistentzia-mugimenduak ezegonkortzeko estrategia gisa erabiltzea. Beraren iritziz, “emakumeak, beraz, bizitzaren iturri garelako biztanle gehienek partekatzen duten ideologia horrek, aldi berean, gerra helburu garrantzitsu bihurtzen gaitu”, eta beraz, emakumeei horrela eraso egitean, benetan, gizonei eta haien ohoreari eraso egitea du xede.

---

28 Cecilia Rodriguezi elkarrizketa, Proceso Aldizkarian, 1995ko azaroaren 4an: <<http://www.proceso.com.mx/170619/representante-del-ezln-en-estados-unidos-cecilia-rodriguez-fue-ultrajada-en-chiapas>>.

### 3.2.2. Nahitaezko desplazamendua

Chiapasen, gatazkari lotutako barneko desplazamendu behartu gehienak 1994 eta 1997 artean gertatu ziren, eta gorago aipatu dugun “Plan Chiapas 94” izenekoaren baitan, zapatistak ziren zein zapatista ez ziren herritarrak kaltetu zituen. Kasu gehienetan, desplazamenduaren arrazoia erkidegoen barruan talde paramilitarrak egotea da. Fray Bartolome de las Casas Giza Eskubideen Zentroak (CDHFBC, 2002) desplazamenduei buruz egindako txosten berezi baten arabera, Chiapaseko estatuak 12.000tik gora lagun 5 gunetan desplazatuta hasi zuen XXI. mendea.

Víctor Cortázar *et al.* (2008: 33) horien arabera, zenbait erkidego jatorrizko lekuetara itzuli ziren, baina geroago, eta 2007ra arte, desplazamendu gehiago gertatu ziren. Egile horiek salatutakoaren arabera, gaur egunera arte ez da lortu testuinguru horretan, pertsona desplazatu eta iheslarientzako gutxieneko laguntza humanitaria –Munduko Osasun Erakundeak eta Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Komisarioak definitutakoaren arabera–, esaterako, larrialdietarako ostatuari eta edateko ura izateko eskubideari dagokienez, eta horrek kaltea eragin du jendearen osasunean (Cortazar *et al.*, 2008: 34). Izan ere, erakunde publiko eta ofizialetatik iritsi den laguntza humanitaria oso eskasa izan da, eta emakumeen premiak estaltzeko neurriak ezarriko dituen genero-ikuspeirik gabe egin da. Desplazatutako emakume haurdunen heriotzak laguntza humanitarioko neurri horien porrotaren adibide argia dira.

### 3.2.3. Militarizazioa

Fray Bartolome de las Casas Giza Eskubideen Zentroaren arabera (CDHFBC, 2003: 4), 1999 urtean 174 kanpaleku militar zeuden Altos de Chiapasen (militarizatuena), Oihanean eta Chiapaseko Iparraldean, 70.000 militar ingururekin. Beste alde batetik, Giza Eskubideen aldeko SIPAZ (2007) erakundearen arabera, 2006an Calderon presidentearen agintaldiarekin, beste 30.000 militar inguru banatu ziren Mexikoko hainbat estatutan, besteak beste Chiapasen, “Narkotrafikoaren aurkako borroka-plana”ren harira eta herritarren segurtasuna ziurtatzeko. SIPAZek zalantzan jartzen du Chiapasen militarizazioaren arrazoia segurtasuna eta legez kanpoko migrazioaren kontrola ote diren; izan ere, postu militarren %75 baino gehiago, zapatisten eremupeko edo/eta lurraldeetan kokatu zituzten.

Chiapasen militarizazioa errealitatea da gaur egun oraindik, eta “Plan Merida” izenekoak justifikatzen du. Plan hori AEBrekiko nazioarteko akordio batean oinarrituta dago; plan horren helburu krimen antolatua, legez kanpoko



migrazioa eta armen eta lehegailuen erabilera eta legez kanpoko trafikoa kontrolatzea da. SIPAZ (2012) erakundearen arabera, estrategia horrek beste interes batzuk ezkututzen ditu; hala nola herritarrak kontrolatzea eta politikoki, zapatismoarekin bat datozen erkidegoak ezegonkortzea.

Emakumeentzat, eta gainerako guztientzat, talde eta kanpamentu militarrez inguratuta bizitzea beti zirikatuta eta beldurtuta bizitzea da. Actealeko kasuak edo lehen aipatutako sexu-bortxaketek, segurtasunik eza eta beldurra areagotzen dituzte, emakume horiengan. Talde militar horietako asko merkataritzarako ohiko tokietan edo merkatuaren inguruetan daude, eta jarduera horiek, hein handi batean, emakume indigenek egiten dituzte. Beraz, emakume indigenak dira, galdeketak, miaketak eta bestelako tratu iraingarri eta beldurgarriak pairatzeko arriskuan daudenak, emakume direlako baina bai eta haien etniagatik ere. Egoera horiek ohikoak dira, eta emakume horien bizi-erritmoa aldatzen dute, beldurraren eraginez, gauza batzuk egiteari uzten diotelako. SIPAZek (1998) dio zenbait emakumek azaltzen zutela ibaira arropa garbitzera joatea edo sukalderako egur bila joatea zeregin arriskutsuak zirela militarrek zeuden lekuetan.

Testuinguru militarizatu horretan, emakumeek estrategia ekonomiko berriak garatu dituzte etxerako diru-sarrerak lortzeko. Oro har, “lan berri” horiek, genero-identitatearekin zuzenean lotuta daude. Prostituzioaren fenomenoarekin batera, ikusi dugu emakume batzuek kobratu egiten dutela militarrentzat garbiketa-lanak egiteagatik edo janaria prestatzeagatik, bai eta denda txiki batzuk zabaldu dituztela ere (hornigai eta handizkakoak). “Fikziozko ekonomia” horrek (SIPAZ, 1998), diru-sarrera berriak ahalbidetzen dituen arren, “kuarteleko kulturaren” testuinguru bat sortzen du eta eragin handia du horrek erkidegoetan; hala nola, alkoholismoa eta drogazaletasuna handitzea, familia barruko indarkeria handitzea, emakumeek prostituziora jo dezaten presioa, edo premia biziko ondasunak garestitzea.

Gatazka hasi zenetik, hainbat eragile publikok (polizialak, judizialak eta migrazioarekin lotuak) herritarrak kontrolatzeko lanak egiten dituzte pertsonen salerosketaren kontrako borroka aitzakia hartuta. Estatuko eragile eta eragile federalak erkidegoaren bizimoduan sartzek ez dauka egonkortasunik, batzuetan eta gune batzuetan handitu egiten da, eta bertako biztanleak ezegonkortzeko eta erkidegoaren ehuna hausteko, gune jakin batzuetan lortu nahi den gatazkarekin lotuta dago.

Oro har, salatu diren giza eskubideen urraketa larrienak segurtasun indarrek eragindako exekuzio estrajudizialak, tortura kasuak eta herritarren

aurkako tratu iraingarria dira. Ekintza horiek Mexikoko kode zibil federalean delitu gisa tipifikatuta dauden arren, herrialdea osatzen duten estatu guztiek ez dituzte halakotzat jotzen edo ez dituzte zigortzen. Hori gertatzen da Chiapas estatuan; esaterako, nahitaezko antzutzeari ez dago delitutzat zehaztua, beraz, bertako osasun-legeek ez dute inolako zehapenik arautzen ez jasotzen halakorik gertatzen denerako.

Zaila da alderdi horretan sakontzen duten ikerketak aurkitzea, baina badira emakumeen taldeek eta giza eskubideen aldeko erakundeek egindako salaketak hainbat urte eta testuingurutan, landa-eremuetako jaiotzeen kontrolerako eta familia-plangintzarako kanpainen atzean Mexikoko Estatuaren eginkizuna agerian uzten dutenak. Salaketa horien adibide bat Medikuntza Tradizionalaren Defentsarako Foro Nazionalan izan zen, 2002an; bertan, Chiapaseko emaginek nahitaezko antzutzeak salatu zituzten, bai eta umetoki barneko gailuak baimenik gabe ipintzea ere PROGRESA/OPORTUNIDADES programaren barruan zerbitzua ematen zuten medikuen partetik eta uko egiten bazioten osasun-laguntza kenduko ziotelako mehatxupearan (Delgado-Ramos, 2004). Mexikoko Giza Eskubideen Batzorde Nazionalak adierazten duen bezala, “osasun publikoko landa-eremuetako kliniketan diharduten zerbitzari publikoek, estatukoak zein federalak izan, familia-plangintzarako metodoak ezarri nahi dizkiete, baimenik gabe eta behar bezala haien hizkuntzan jakinarazi gabe zein diren osasunerako onurak, erabiltzeko arriskuak edo sor litezkeen bigarren mailako ondorioak” (CNDHM, 2002).

Abagune horretan, Hautatutako Ugalketarako Informazio Taldearen (GIRE, 2015) txostenak jasotzen zuenaren arabera, “nahitaezko kontrazepzio eta antzutzeari zehatzeko administrazio- eta zigor-mekanismoek oso informazio gutxi ematen dute jardun horren biktima diren pertsonen justiziara jotzeko duten benetako gaitasunari buruz, ez eta salaketak jartzeko mekanismoen erabilerari buruz ere”.

#### **3.2.4. Paramilitarismoa**

Fray Bartolome de las Casas Giza Eskubideen Zentroak eskainitako datuen arabera (CDHFBC, 2007), 1995 eta 2001 urteen artean, 122 pertsona desagerrarazi eta exekutatu zituzten talde paramilitarrek. Zifra horretatik, 36 nahitaez desagerraraziak izan ziren (31 gizon eta 5 emakume) eta 86 exekutatu egin zituzten (79 gizon eta 7 emakume). Talde paramilitarren jarduna erailketak, lurraz indarrez jabetzea, lapurretak, nahitaezko desplazamenduak, mehatxuak, bahiketak, torturak eta atxiloketak izan ziren.

Kasurik dokumentatuenetako bat Actealko<sup>29</sup> sarraskia izan da, 1997ko abenduaren 22an gertatua. Actealeko erkidegoan Las Abejas izeneko erresistentziako talde indigena bat sortu zen, EZLNren jarraitzaileak ziren. Egun hartan, talde paramilitar batek Las Abejaseko pertsoneri eraso egin zien, gehienak emakumeak eta neskek ziren, elizan otoitzen ari zirela. 90 inguru erasotzaileak, denak, gizon indigenak ziren eta erregio horretan ziharduen talde paramilitar batekoak ziren, PRIri atxikiak. Eraso horretan 45 pertsona hil eta 26 zauritu eragin zituzten. Gorpuetan indarkeria bortitzaren eta mutilazioen arrastoak nabaritzen ziren. Eraso paramilitar hartatik bizirik irten zirenek adierazi zuten erasotzaileen leloa zela “haziarekin amaitzea”, neskatxei eta haurdun zeuden emakumeei zegokienez; haurdun zeuden emakumeak torturatu egin zituzten eta umetokia zabaldu zieten haurtxoak ateratzeko.

### **3.3. Gerraren eragina emakumeen bizimoduan**

#### **3.3.1. Prostituzioaren fenomeno**

Herrixka zapatisten inguruan kanpamentu militarrek kokatzeak prostituzioaren fenomeno berri hau eragin du gatazkaren urte hauetan. Prostituzioan diharduten emakume gehienak Erdiko Amerikakoak dira, baina Chiapaseko erkidegoetara ere zabaldu da, eta bertako emakume gazte asko hasi dira prostituzioan, 13-18 urte artekoak gehienak. Egoera hori lotuta dago oihanetik hurbil dagoen korridore zapatista osoan prostituziorako gaueko zentroak agertu izanarekin (emakume indigenen presentzia lehendik ere bazegoen tokietan), erkidegoetan alkoholaren kontsumoa igotzearekin, familia barruko indarkeriarekin eta presiopean kanpamentuetara eramandako emakumeen sare bat sortu izanarekin. Fenomeno hori hainbat txosten eta testutan aipatzen den eta herritarrek ere sarritan salatzen duten arren –jakina da 1996an prostituzio-etxe gisa erabiltzen zen etxe bati su eman ziotela emakumeek–, ez dago behar beste daturik fenomeno horren hedadura zein den jakiteko. Eta horrek iradoki dezake egoera hori ezkutatu egin dutela.

#### **3.3.2. Osasun arazoak**

Sexu-transmisiozko gaixotasunen (STG) azken urteetako prebalentzia handia prostituzioarekin lotu izan da; izan ere, kanpamentu militarretan prostituzioan diharduten emakumeak behartu egiten dituzte sexu harremanak preserbatiborik gabe edukitzera. Horrek Giza Papilomaren Birusa, HIESA eta

---

29 Informazio gehiagorako kontsulta daikete hemen: <<http://acteal.blogspot.com/es/p/la-masacre-de-acteal.html>>.

bestelako STG batzuk gero eta maizago agertzea eragin du, eta emakumeen bizi-kalitatean eta haien sexu- eta ugalketa osasunean eragiten du.

Oro har, herritarren osasun egoera kaltetu egiten da militarizazioaren eta gerraren ondorioz, nolabaiteko lasaitasun egoera denean ere bai. Soldaduengandik hurbil egoteak eragiten duen estresak depresioa, tristezia, tentsioa eta antsietatea eragiten ditu, bikotekidea, etxea, uzta edo dituzten ondasun apurrak galtzeko arriskuak eragiten duen arduragatik (Alquicira, 2008). Hainbat azterketaren arabera, buruko mina edo gastritisaren moduko jatorri psikosomatikoko gaixotasunak agertu dira gerrak, izua, ahitze fisiko eta emozionalak eragindako tentsio-egoera iraunkorrekin lotuak.

### 3.3.3. Ama ezkongabeak

Militar baten semea edo alaba duten emakume amek oso modu estugarrian bizi dute amatasuna eta seme-alaben zaintza. Erkidegoak haien aurka egindako epai moralen ondoriozko presioa ama ezkongabea izatea bezain gogorra izan ohi da. Ernesto Alquicirak (2008: 78) dioen bezala, “bere burua zigortzeko modu gisa abortura jotzera ere bultzatu ditu”<sup>30</sup>. Bakardadeko amatasun horiek babesteko, ekimen batzuk jarri dira abian, hala nola “Yach’il Antzetic” Etxe Komunitarioa; zeinaren helburua den egoera berezietan edo familia-gatazka pean dauden emakume haurdunei harrera egitea eta laguntza eskaintzea.

Bestalde, Chiapasen, 1999an, ama eta hurren gaixotze/heriotza-tasa 15 eta 45 urtekoen artean nazionala baino hiru aldiz handiagoa zen (Alquicira, 2008). Erregistrorik ez dagoenez, eta are gutxiago landa-eremuetan, gatazkarekin zerikusia duten gaixotze/heriotza egoerei buruzko datuak aurkitzea oso zaila da.

## 4. Chiapaseko emakumeen ekintza kolektiboa

### 4.1. Aurrekariak: EZLNren sorrera eta Emakumeen Lege Iraultzailea

Chiapasen kasuan, emakumeen ekintza kolektibo zabal eta heterogeneoa dago eskubideen defentsan eta egia eta justiziara iristeko eskaera irmoa. Ondoren aztertuko diren kasuetan zapatismoaren inguruan antolatutako

---

30 Jakina denez, abortuak, klandestinitatean eginda, arriskuan jartzen du emakumeen bizia eta osteko osasuna ere bai.

emakumeak gauzatutako prozesuak daude, baina bai eta hiri-eremuko erakunde feministek gauzatutakoak ere. Aztertzeko interesgarriak diren kasu eta prozesu asko daude, baina denboran nolabaiteko ibilbidea eta garapena dutenak lehenetsi ditugu.

Emakumeen borroken lehenengo aipamenak 70.eko urteen ingurukoak dira, nekazari eta indigenen nekazari-mugimenduen borroketan; haietan emakumeek nolabait parte hartu zuten, lurrerako irisgarritasuna, nekazaritza-erreforma eta indigenen eskubide eskaerekin bat egiten baitzuten, baina emakumeen erreibindikazio propiorik egin gabe (Olivera, 2004).

Askapenaren Teologiaren inguruko erakunde katolikoek erkidego indigenetan egindako lana izan zen emakumeen eskubideen inguruko oinarriak eta arazo espezifikoen gaineko arreta finkatu zituen tailer, saio eta lantaldeen bidez. Emakumeen Koordinakunde Diozesiarra (CODIMUJ) erreferentzia izan zen; izan ere, erkidegoetan txertatzea eta, genero-ikuspegia oinarri hartuta, emakume indigenekin lan egitea lortu zuen, haien mendekotasun-egoera aldatzeko (*Ibid.*, 2002).

EZLN agertu izanak zatiketa handia eragin zuen erkidegoetan; izan ere, “nabarmenki aurka dauden bi norabidetako jarrerak dituzten identitate indiarren esanahiberritze eta dibertsifikaziorako dinamika berria ireki zen” (*Ibidem*, 2002: 105-106). Alde batetik, PRIRi eta eliza kontserbadoreenari atxikiriko sektoreak, nolabait Mexiko hegemonikoan integratzeko nahia berresten zutenak, herri gisako autonomiarako eskubide eskaerarik gabe. Mercedes Oliverak (2004a) dio sektore horiek, integrazio-politika ofizialak onartzean, genero-desparekotasunak nahiz kultural eta etnikoak nola handitzen ziren nabaritu dutela. Beste alde batetik, identitate errebelde eta urratzaileak sortzen dira, Mexikoko herrien marjinaltasuna eztabaidan jartzen dutenak eta autodeterminazio-eskaerak egiten dituztenak. Horren ildoan, zapatismoaren barruan “demokrazia eta parte-hartzearen erreferente berrietan oinarrituta identitate etnikoak berreraikitze ikaskuntza-prozesua” ikusten da.

Mariana Gomezek (2014) argudiatzen duen moduan, 1994ko altxamenduarekin, emakume indigenen (eta ez indigenen) aktibismoan mugarri bat zehaztu zen, eta haien subjektu-posizioak kolokan jartzeaz gain, genero, etnia eta klase identitate berriak eraikitze prozesuak hasi ziren. Emakume aktibista askoren iritziz, eta emakume zapatisten iritziz ere bai, altxamenduaren inguruko urteak emakumeak borrokari atxiki zitzaizkion unea dira, ahaztu gabe haietako asko CODIMUJek eta askapenaren teoriako

erakundeek sortutako erkidegoetan hasitako prozesuei lotuta zeudela. Horren ildoan, eta jarrera kritikoa, zenbait egile (Olivera, 2004b; Gomez 2014) bat datoz esatean EZLNren egiturak emakumeen eskaerak eta haien parte-hartzea bultzatu zituela, eta horrek identitate-jarreran ere aldaketak eragin zituela.

Era berean, Emakumeen Lege Iraultzailea aipatzen da, 1993. urteaz geroztik emakume zapatistak gidatu dituen erreferentzia-espazio eta lanerako marko gisa. Aipatutako legeak hamar puntu ditu eta horien artean jasotzen dira emakume indigenek politikoki parte hartzeko eta zuzendaritzako karguak izateko eskubidea, sexu-indarkeriarik eta etxeko indarkeriarik gabeko bizitza izateko eskubidea, zenbat seme-alaba izan eta zaindu nahi dituzten erabakitzeko eskubidea, bidezko soldata jasotzeko eskubidea, norekin ezkondu nahi duten erabakitzeko eskubidea eta osasun eta hezkuntza zerbitzu egokiak jasotzeko eskubidea.

Hala ere, praktikan aldaketa horiek nola ezarri diren aztertzean, ikusten dugu EZLN “edozein egitura politiko eta militarren antzera, funtzionamendurako berezko bertikalismoaz gain, ez dela emakumearen aurkako diskriminaziorik gabeko erakundea, oro har, emakumeek ez dutelako gizonen beste aukera izan gaitzeko eta garatzeko” (Olivera, 2004b: 107). Erkidegoa eta familia-espazioa genero-mendekotasunerako pribilegiozko espazioa diren arren, espazio politiko eta militarrean ere gertatzen da mendekotasun hori. “Obedituz agintzeko”<sup>31</sup> jardunerako hurbilpen metodologikoan, Mercedes Oliverak (2004a: 44) teoriaren eta errealitatearen arteko kontraesan batzuk aipatzen ditu. Egileak dio “obedituz agintzeko” agindua bereziki gizonen zuzenduta dagoela, eta bai familia-harremanetan, bai erkidegoetan eta politikoetan eragozpenak izan dituztela emakumeen ahotsa txertatzeko.

Emakumeek zuzendaritza gerrillari zapatistan parte hartzea antzeko arazoak bizi izan dituzten Latinoamerikako beste esperientzia iraultzaileen oso bestelakoa da, haietan ideologia eta jardun oso maskulinoetan txertatzen baitziren. Zapatismoaren eta kontinenteko bestelako mugimendu gerrillarien arteko ezberdintasun nagusia izan da haien borroka-plataformetan genero-eskakizunak txertatu dituztela Emakumeen Lege Iraultzailearen bidez. Hortaz, EZLN gerrilla bakarra da aurretik ezarritako dituen genero-irakurketa eta eskaerekin eta aginte politikoetan emakume nahiz gizonen parte-hartzearekin jendaurrean agertzen dena. Lege hori izatea emakumeentzako bizimodu

---

31 “Obedituz agintzea” zapatismoaren lelo klasikoetako bat izan da. Boterearen itzulketa adierazten du, Gobernu Oneko Batzordeek kudeatzen duten arren, herriaren esku dagoelako.

bidezkoagoa posible delako ikur bihurtu da, eta “marko kultural” berria sortu du, emakumeen aurkako indarkeria eta bazterketa teoriarik desnaturalizatzen. Rosalinda komandantearen hitzetan:

*“(...) Tratu txarrak jaso genituen, umiliatu egin gintuzten, arbuiatu, guk inoiz ez genekien lanik ba ote genuen, inork ez baitzigun azaltzen egoera horretatik irteteko nola antola gintezkeen. Garai hartan iluntasunean bizi ginen denak, ez genekien ezer, baina klandestinitatetik egun batean emakume kide batzuk errekrutatu zituzten, eta emakume errekrutatu horiek beste batzuk hartu zituzten, herriz herri. Horren ostean, herri bakoitzean tokiko arduraduna izendatzeko unea iritsi zen. Ni nire herriko arduradun izendatu ninduten. Hor hasi nintzen bileretan agertzen, herrira informazio gehiago ekartzeko; gero bilerak egiten genituen herriko emakume kideekin taldeko lanetarako nola antolatu azaltzeko, eta kide miliziano, matxinatuak egotea beharrezkoa zela ere azaltzen genuen. Gurasoek ulertu zuten, eta alabak bidali zituzten miliziarara, matxinatu izatera. Eta kide horiek gogo handiz egin zuten lan hori, sistema okerrean zapalkuntza nolakoa zen ulertu zutelako. Horrela hasi ginen emakume kideak parte hartzen (...) Ez zen erraza izan 94ra iritsi arte. Orduan ikusi genuen gizonek bezala adorea eta indarra dugula, etsaiari aurre egiteko gai izan ginelako, inoren beldurrik izan gabe. Horregatik gu prest gaude sistema kapitalistak eragin nahi digun edozer kalteri aurre egiteko. (...) Apurka-apurka beldurra eta lotsa galtzen joan ginen, ulertu genuelako lan-arlo guztietan parte hartzeko eskubidea dugula. Gero konturatu ginen iraultza ezin dutela gizonek bakarrik egin, gizonen eta emakumeen artean egin behar dela” (EZLN, 2015: 116-117).*

Emakume akademiko feminista batzuek diote EZLN ez dela balio feministak dituen eta benetako berdintasuna helburu duen egitura; eta horregatik, denborarekin, mugimendu horrekiko aldeotasuna eta aliantzak baztertu egin dituzte. Horrek etengabeko eztabaida ekarri du; izan ere, zapatismoa ez ezik, hiriko eta mendebaldekoagoa den feminismoa eta haien nahi unibertsalistak ere kolokan jarri baitira. Henrietta Moorek (1991:203) baieztatzen duen bezala, “mendebaldeko feministek genero-sistemaren politikari eta familiari emakumeen zapalkuntzaren gune gisa ematen dioten garrantziak ez dauka zentzu handiegirik herri osoaren askapenaren alde borrokatzen diren emakumeentzat (...) familiaren eguneroko bizimoduaren suntsipena krimenik gogorronetako sentitzen dutenentzat”.

Chiapaseko kasuan, Hernandez Castilok (2010) iradokitzen duen bezala, beharrezkoa da azterketarako kategoria berriak txertatzea “genero-kontzeptua dimentsio askoko kategoria gisa birplanteatzeko eta etniaren eta klasearen garrantzia onartzea, kultura anitzeko Mexikoko identitate-prozesuak ulertzeko (...) eta feminismo barneratzaileagoa eraikitzeke”. Horren ildoan, Emakumeen Lege Iraultzailean jasotzen diren eskaerak ez daudela sistema patriarkala desegituratzera bideratuta argudiatzen den arren, kontzientziatzeko prozesu mantso bat adierazten dute, eta horretan argi adierazten dira erkidegoetako emakumeek dituzten beharrian premiazkoenak zein diren.

## **4.2. San Andreseko Akordioak: emakumeen parte-hartzea bake-elkarrizketetan**

Chiapaseko gatazka armatuaren baitan, adiskidetze eta elkarrizketa-prozesu batetik hurbileneko unea 1996ko otsailean izan zen, Eskubide eta Kultura indigenari buruzko San Andreseko Akordioekin.

Gorago adierazi dugun bezala, EZLNren eta Ernesto Zedilloren gobernu federalaren arteko elkarrizketa-prozesuan, “Emakume indigenaren egoera, eskubideak eta kultura” izeneko lan-mahai bat antolatu zela; bertan 40 emakumek parte hartu zuten; alde batetik, gobernu federalaren aholkulariak, eta bestetik, Chiapaseko hainbat etnia eta adineko emakume indigenak. Haien esku-hartzeetan emakumeek xehetasun handiarekin eman zuten euren eguneroko bizimoduaren berri, haien diskurtsoan, ekonomiarekin, generoarekin eta klasearekin zerikusia duten alderdiek bizimodu hori nola zailtzen duten islatuta. Gatazka armatua, militar eta paramilitarren presentzia, sexu-indarkeria desagerraraztea (familia barrukoa barne) eta Mexikok giza eskubideen inguruan hartutako nazioarteko akordioak betetzeko eskaera izan ziren kontakizun guztietan agertu ziren gaiak. Hein handi batean, mahai hartan agertu ziren eskaerek Emakumeen Lege Iraultzailearen esparruan, eta euren eskubideen errebindikazioaren inguruan emakume talde batek urteetan egindako lana erakusten zuten.

## **4.3. Emakumeen ibilaldi eta pelegriñajeak**

Modu sistematikoan aurkitzen dugun beste jardun bat emakumeak protagonista dituzten ibilaldi edo pelegriñajeak dira. Jardun horiekin hainbat ondorio lortu nahi dira; alde batetik eskaera bat ikusaraztea eta espazio mediatiko eta publikora eramatea; emakumeen parte-hartzea sustatzea (ibilaldi eta pelegriñajeek milaka emakume mobilizatzen dituzte); eta emakumeen



erakundeen artean aliantza sortzea. Esaterako, Actealeko sarraskia gertatu zen Majomuten (Chenalho udalerrian) kanpamentu militar iraunkor bat dagoenez, Las Abejas erakundeko emakumeak biltzen dira bertara urtero soldaduen presentzia kolokan jartzeko (SIPAZ, 2015). Emakumeek kanpamentu militarra desegiteko eskatzen dute eta bandera zuriak eramaten dituzte, lurraldean bakea nahi dutelako ikur gisa. Diskurtsoetan erkidegoek pairatzen duten zigorgabetasuna, indarkeria, desjabetzea aipatzen dira, eta sarraski hartako biktimak gogoratzen dituzte, martiri bihurtuta.

Emakume zapatistek ere ibilaldi askotan hartu dute parte. Besteak beste, 1996ko martxoan egindakoa azpimarratu nahi dugu. Egun hartan, Chiapaseko hainbat erregiotatik zetozen 15.000 emakume indigena eta zapatistak hartu zuten San Cristobal de las Casas. Guiomar Rovirak adierazten duen bezala “betiko otzanak, hiru aldiz ustiatuak<sup>32</sup> (...) ospakizunetan zeuden. Ezagutzera irten ziren, ikustera, itxialdi historikotik irten ziren euren buruarekin aurkitzeko, borroka zapatistaren bidez munduari aurre egitera irten ziren”.

Ibilaldi horietan Mexikoko herri indigenetarako justizia eta desmilitarizazioa eskatzen diren arren, emakume indigenen eskaera zehatzagoak “aireeratzeko” espazio publiko gisa ere erabiltzen dira. Honako honetan, eskaera zehatz horietako bat izan zen emakumeak herrialdeko bizimodu politiko eta sozialean parte hartzeko duen eskubidea aldarrikatzea. Manifestazio horren ondoren, Indigenen Batzorde Klandestinoak eta EZLNk onartu egin zuten agiri batean landa-eremuetako erkidego zapatistetan modu askotan islatzen zen kultura “matxista” gailentzen zela, eta azpimarratu zuten emakumeek antolatzen jarraitu behar dutela euren eskubideak eskatzen jarraitzeko (EZLN, 1996).

#### **4.4. Emakumearen Eskubideen Zentroa eta Emakumeen Mugimendu Independentea**

1999an, emakume feministen hogeit hamar erakundek lehenengoz antolatu zuten Chiapasen “Emakumeen topaketa indarkeriaren, zigorgabetasunaren eta gerraren kontra”; 3.000 emakume inguru elkartu ziren San Cristobal de las Casasen, eta bertan indarkeriaren (sexuala, familia barnekoa, gerrakoa eta Estatuko aparatuek eragindako) aurkako 300 salaketatik gora jaso zituzten. Bertan indigenak, nekazarien mugimenduetako buruzagiak eta hirietako emakumeen mugimenduetako buruzagiak elkartu ziren espazio propioa

---

32 Honek erreferentzia egiten dio, Marcela Lagardek dioen bezala (Oliveran aipatua, 2004b: 95), haien kondizio hirukoitzari: indigenak, pobreak eta emakumeak.

eta trukerako eremu bat lortzeko. Topaketa horren helburua, antolatzaileen arabera, “1994az geroztik, emakumeak ukitu gaituzten indarkeria-egoerei buruzko gogoeta eta azterketa juridikorako testigantza-esparru bat sortzea” izan zen.

Espazio horretan hauteman zuten emakumeen eskubideen onarpen eta defentsari dagokienez erakundeetan dagoen hutsunea, eta emakumeentzako defentsa eta formazio zentro bat sortzeko premia agertu zen. Eskualde horretan sortzen joan den emakumeen mugimendua egituratzeko eta antolatzeko nahiak Chiapaseko Emakumeen Eskubideen Zentroa ekarri zuen, azkenean, 2003an ezarri zena. Honako hauek dira bere lan-ardatzak: eragina, aholkularitza, formazioa eta ikerketa, eta Chiapaseko hainbat erregiotan egin du lan emakumeen eskubideak defendatzeko, giza eskubideen sustatzaile/defendatzaileak trebatzeko, kasuen segimendua egiteko eta emakumeen giza eskubideen egoera orokorrik buruzko txostenak egiteko. 2007. urtetik aurrera, Emakumeen Eskubideen Zentroa erkidego indigenekin eta ez-indigenekin lanean hasi zen emakumeen eskubideen sustatzaileak trebatzeko; emakumeek aurre egin behar dieten indarkeria mota desberdinak aintzat hartzeko, aholkularitza juridikoa emateko eta emakumeen interesak jagongo dituzten emakume taldeak sortzeko. 2015. urteaz geroztik “Telares” izeneko aldizkaria argitaratzen dute hedapenerako tresna gisa, eta lehenengo alean helburua zehaztu zuten: *“giza eskubideen defentsan eta gauzatzean, berezi emakumeen kasuan, gure zereginari buruz sentitzen eta pentsatzen duguna adieraztea. Hori da gure hitz xumea, gure begirada egonezina”*.

Emakumeen Mugimendu Independentearen (MIM) sorrera aldi berean gertatu zen urte horietan, 1999an egin zen “Emakumeen topaketa indarkeriaren, zigorgabetasunaren eta gerraren kontra” izenekoaren harira, eta hasieratik Chiapaseko Emakumeen Eskubideen Zentroari atxikita egon da. Emakumearen Ekintza-ikerketa Zentroak (CIAM, 2009) adierazten duen moduan, “Emakumeen Mugimendu Independentean emakume antolatu eta ez antolatuek justiziaren eta duintasunaren alde askatasun osoz hitz egin dezaketen espazioa da; indarrak batu eta aldaketak eragiteko koordinatu daitezkeen tokia, nazioko eta nazioarteko beste mugimendu batzuekin bat eginez; emakumeen espazio propioa da, eta bertan ezin dute erabakirik hartu ez gobernuek, ez alderdiek ez beste erakundeek ere, erabakiak emakumeek hartzen dituzte biltzar orokorretan”.

Egitura berri horiek XXI. mendearen hasieran sortu ziren, eta mugimendu feministaren eragina dute; eta haren estrategia da emakumeen eskubideak

babesteko emakumeak elkartu izan dituzten erakunde guztiak egituratzeko espazioak sortzea.

#### **4.5. Chiapaseko emakumeen sarea, indarkeriaren aurka eta bakean bizitzeko eskubidearen alde**

Emakumeen arteko elkartasun adierazpide gisa, 2012an sortu zen Chiapaseko emakumeen sarea, indarkeriaren aurka eta bakean bizitzeko eskubidearen alde. Emakumeen arteko laguntza-sarea da, izaera autonomoduna eta indarkeriari aurre egiteko estrategia desberdinen gaineko gogoeta-lan batetik sortua. Sare hau, bera osatzen duen erakunde bakoitzeko ordezkari batek osatzen duen “bultzatzaile eta ehule” izeneko talde batek koordinatzen du.

Honako lau hauek dira estrategia nagusiak: salaketa, prebentzioa, segurtasuna eta komunikazioa. Estrategia horietako bakoitzean, formazioa funtsezkoa da, eta horretarako hainbat tailer antolatzen dituzte, besteak beste, irratia, defentsa pertsonala eta antzerkiari buruz. Salaketen ardatzaren baitan, hilero, hilaren 14an, martxa bat antolatzen dute, bai eta indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako lege-aholkularitzak eta arreta psikologikoa ere (emakumeentzat eta haien senitartekoentzat). Irratia, antzerkia eta zinema ere garrantzitsuak dira genero-indarkeriarekin zerikusia duten salaketek adierazpenerako; ikuspegi artistikoagoa eta bizipenei loturikoa erabiliz (SIPAZ, 2015). Duela urte batzuetatik hona, tokiko beste erakunde batzuen eta maila globaleko MIM eta Emakumeen Mundu Martxaren aliatua da Sarea.

#### **4.6. Herrien Auzitegi Iraunkorra**

2012. urtean, San Cristobal de las Casasen egin zen Herrien Auzitegi Iraunkorraren aurre-entzunaldia. Saio horien ardatza genero-indarkeria eta feminizidioa<sup>33</sup> Chiapasen izan zen, eta honako azterketa-ardatz hauek ere jorratu zituzten: Feminizidioak eta kontrainsurgentzia; prozesuaren bortxaketa; indarkeria feminizida, sexuala eta etxekoa; eta egiturazko indarkeria. Parte hartu zuten emakume epaileek arazo honen jatorria arrazoi historiko eta egiturazkoetan oinarritu zuten, 1994an Merkataritza

---

33 Feminizidio deitzen dugu emakumeen erailketa bortitza. Marcela Lagardek dio feminizidioak ez direla Ciudad Juarez-en soilik gertatzen den zerbait, baizik eta Mexikoko Estatu osoan: genero-indarkeriaren muturreko adierazpide dira, legearen aurrean krimen horiek zigorgabe geratzen diren eta emakumeen kontrako indarkeria mota guztien aurrean gizarte-tolerantzia dagoen giro batean.

Askerako Ituna indarrean jarri eta ostean, zapatisten altxamenduarekin, Chiapasen kasuan larriago bihurtu zena<sup>34</sup>. Irantzu Mendia Azkuek (2012: 28) azaltzen duen moduan, gatazka osteko feminizidio-tasakhanditu egiten dira gatazkaren aurretik ere emakumeek indarkeria matxistari aurre egin behar zioten eta genero-desparekotasun historikoetan murgildurik zeuden testuinguruetan.

Emakumeen aldeko eskubideen aktibistek erakutsi dute Intentsitate Txikiko Gerraren estrategietako bat matxinatuen aurka egitea izan dela, eta nola, besteak beste, horren oinarria izan den emakumeen aurkako eraso planifikatua eta nahita eragindakoa, hala nola: bortxaketak, sexu-erasoak, tortura sistematikoak eta desagertzeak. Herrien Auzitegi Iraunkorren, Marta Figuroa abokatuak aipatu dugun Actealeko 1997ko kasua azaldu zuen, eta hari buruz aritzean feminizidioa aipatu zuen gertaera hark zituen ezaugarriengatik; bertan izan ziren 45 biktimatik 34 emakumeak izan ziren (11 adingabeak), eta lau haurdun zeuden. Azpimarratu nahi dugu nola bilakatu den Actealeko eraiketen esanahia “sarraski” hitzetik “feminizidio anizkuna” hitzera; azken horretan emakumeak jartzen dira lehen tokian, erkidegoaren antolamendua ezegonkortzeko eta beste erkidego batzuk beldurtzeko helburuarekin planifikaturiko indarkeria. Horrela, feminizidioarekin loturiko matxinatuen kontrako estrategia azpimarratzen da. Actealeko erkidegoak adierazitako justizia-eskaera bizirik dago nahiz eta sarraski haren egile materialetako batzuk libre utzi zituzten kartzelatu eta urte gutxira.

Las Abejas erakundea talde mistoa den arren, justizia eta erreparazioa lortzeko, emakume tzotzileen aktibismoaren eragina oso nabarmena da talde horren agiri, idazki eta egietan dituzten jardueretan. Emakume horiek ere ikuspegi politiko eta egiturazkoaren arabera kokatu dute sarraski hura, 2015eko martxoaren 8aren harira, Actealeko emakumeek argitara emandako agiritik ondorioztatzen den bezala:

*“Duela 500 urte baino gehiagor geroztik, emakumeak diskriminazioaren eta gure giza eskubideen urraketa biktima izan gara (...). Chenalho udalerrian ez dago bakerik, emakumeok mota guztietako indarkeria pairatzen dugulako; fisiko nahiz*

---

34 Aurre-entzunaldiaren lehenengo egunean aurkeztutako kasuak honako hauek izan ziren: Actealen matxinatuen kontrako testuingurua; Palenqueko feminizidioa, Altamiranon militarrek egindako bortxaketak; Comalapan epaia ez betetzea; Rosa, bidegabe kartzelatu; etxeko indarkeria eta familia barrukoa, Kathyak aurkeztua eta Margarita Lopezen kasua, tzotzil indigena, senarra hil zuelako akusaziopean bidegabe kartzelatu.

*psikologikoa. Actealeko sarraskiaren egileak aske uztea –Acteal inguruan libre dabiltzanak jada– eta militarren presentzia bizirik irten genuenontzako iraina da, eta psikologikoki eragiten digu. Argi dago 1994tik aurrera Mexikoko Estatuak diseinaturiko gerra zikin eta psikologikoak indarrean dirauela oraindik ere”.*

Las Abejas erakundeko emakumeak EZLNren jarraitzaileak izan dira historikoki, baina borroka armatutik kanpo geratu dira, eta bakezaletzat agertu dute euren burua. Haien diskurtsoetan ohikoa da Mexikoko gainerako emakume eta herrien borrokarekiko elkartasuna adieraztea, antzeko egoera bizi izan duten emakumeen erakundeekin sinergiak eta aliantzak bilatzeko. Gainera, haien agirietan beti ezartzen dituzte erkidegoetan bizi duten indarkeria geldiarazteko eskakizunak; batzuetan, gainera, euren senitartekoek eragindakoa izanik, alkoholaren kontsumoak larriagotu egiten baitu emakumeen aurkako indarkeria matxista.

Aurre-entzunaldian jaso zen “Mexikoko Estatuak, nazioarteko erkidegoaren parte den aldetik, arduragabea da emakumeen giza eskubideen errespetua, gozamina eta gauzatzea bermatzeko bere betebeharreran, bereziki jatorrizko herrietako emakumeen kasuan”. Era berean, gobernuaren hiru maileri (udalari, estatukoari eta federalari) gomendatzen zien emakumeei bizimodu duina bermatzeko neurri eraginkorrak hartzeko.

#### **4.7. Segurtasun gerriko eta bake-lokarriak**

Estrategia hori sistematikoki erabiltzen dute emakume zapatistek eta ez zapatistek. Segurtasun gerrikoaren xede nagusia izan da, kolektiboki, euren gorputzekin, militarrek erkidegoetan sar daitezzen eragozteak. Chenalho udalerriko emakumeak (Actealeko feminizidioa gertatu zen udalerria) Emakumeen Eskubide erakundearen bidez antolatuta daude, eta jarduera handia izan dute zentzu horretan, eta armadako indarrek behartu egin dituzte emakumeetako batzuk, eta haiek salatzen jarraitu dute. SIPAZ erakundearen arabera (2005), armada federalak 500 emakume gehitu ditu euren matxinaden kontrako taldeetan, erresistentzia zehatz horri aurre egin ahal izateko.

#### **4.8. Emakumeen kontrako Indarkeriaren eta Feminizidioaren aurkako Herri Kanpaina**

Kanpaina hori 2013an hasi zen, eta helburu du “herritarrak halako indarkeriaren jatorriari eta arriskuei buruz eta genero-harremanetan aldaketak

eragiteko moduei buruz informatzea eta sentsibilizatzea, gu geu eragile aldatzaitzat hartuta, indarkeriarik gabeko bizitza bizitzeko eskubidea gauzatzeko; eta horrez gain, Estatuari, bere hiru mailatan, delitu horiengatiko zigorgabetasunarekin amaitzeko eta emakumeen bizitza babes dezan eskatzea” (SIPAZ, 2015).

Kasu honetan kanpaina hori hogeit bat erakunde eta talde feministaren, emakume taldeen eta giza eskubideen aldeko taldeen artean koordinatu dute. Emakumeen erakundeek beste kolektibo batzuekin aliantza-harremanak ezarri eta indarkeriaren aurkako borroka erakunde askoren agendan lehentasunez txertatzea lortu dutelako adibide argia da.

Kanpaina horren arabera, Chiapasen Genero-indarkeriaren Alertak (AVG) jasotakoaren arabera 2013an, feminizidiotzat jo daitezkeen emakumeen 50 bortxazko heriotza baino gehiago gertatu ziren arren, erakunde ofizialek ez dute onartzen heriotza horiek bake-soziala kolokan jar dezaketela. Hori dela eta, gobernuak arazoa onartzeari uko egitea ikusarazteko eta heriotzen zigorgabetasuna nabarmentzeko kanpainaren estrategietako bat izan da gai horren inguruan alerta iraunkorra adieraztea.

## 5. Ondorioak

Mexikoko Estatu federalak bertako herritarren kontrako Giza Eskubideen Urraketa ugari egin ditu, bereziki herri indigenen eta sistema ekonomiko neoliberal eta patriarkalarekin kritikoak diren mugimendu sozialen aurka. Era berean, gure ustez, oro har ez dira tresna egokiak garatu trantsiziozko justizian aplikatzeko eta aurki daitezkeen ereduak herrien autonomien esparruan gertatu dira, Estatuaren eta justizia ofizialaren onarpenik eta parte-hartzerik gabe. Gatazka armatuko 22 urteren ondoren, gure ustez Chiapasek ez du ez demokratizazio ez bake eraikuntzako prozesurik bizi izan trantsiziozko justiziar dagokionez, eta gatazkek bizirik dirau, nahiz eta Estatuak gaur egun gatazkarik badagoenik ere ez duen onartzen.

Emakumeen antolakuntza-ehuna asko handitu da Emakumeen Lege Iraultzaileaz geroztik eta gatazka armatua hasi zenetik, eta horren isla dira emakumeek eta emakumeentzat antolaturiko hainbat jarduera, espazio eta zentro. Era berean, zapatismotik harago ere, emakumeen taldeen artean elkar-elikatzeko eta aliantzak gertatu direla ikusi dugu. Emakumeen mugimenduak, oro har, bere testuinguruaren diagnostiko komuna landu du, eta sistema

neoliberal eta patriarkalaren aurka elkarrekin eta osotasunean jardun behar dela azpimarratzen du.

Egiaren bilatzeari dagokionez ere, ez da egiaren batzorderik osatu gertaerak argitzen laguntzeko ez Chiapasen gertatu diren erailketa, tortura eta bestelako giza eskubideen urraketatik memoria berrezartzeko. Erkidegoek, erakundeek eta kalteturiko emakumeek salaketarako bide ofizialak erabiltzen dituzte, baina bide propioak ere garatu dituzte salaketa publikorako, komunikabide alternatibo bidez. Hortaz, erkidego antolatutako zapatatistetan, politikoki zapatismoaren jarraitzaile diren erkidegoetan eta emakumeen taldeetan, besteak beste, egiara eta justiziara iristeko eskubidea aldarrikatzeko tresna gisa balio duten irratsaio, aldizkari, blog eta Facebookeko orriak aurkituko ditugu.

Justiziarako eskubideari dagokionez, oro har, Mexiko da Giza Eskubideen Sistema Interamerikarraren aurrean salaketa gehien jaso dituen herrialdea. Fray Bartolomé de las Casas Giza Eskubideen Zentroaren (CDFBDC, 2016: 56), txostenean jasotzen den bezala, horrek adierazten du Mexikoko sistema judizial nazionalarekiko mesfidantza handia dagoela, eta prozesu gehienak, behin epai-bide nazionalak agortuta, nazioarteko instantzietan amaitzen dutela.

SIPAZ (2007: 95) erakundearen arabera, legezko aurrerapenak egin dira eta agian emakumeen justiziarako irisgarritasunean aldatetaren bat igarri liteke; izan ere, gai honen inguruan nazioarteko hainbat akordio sinatu dituzte, Mexikoko gobernuak genero-indarkeriari buruzko legeak ematera behartuta egon da, eta 2007an, emakumeek indarkeriarik gabeko bizimodua izateko Lege orokorra egin zuten. Era berean, 2009ko martxoan, emakumeek indarkeriarik gabeko bizimodua izateko legea eman zuten Chiapaseko estatuan.

Hala ere, bertako eta nazioarteko giza eskubideen erakunde asko bat datoz esatean lege horiek ez direla behar beste eta behar bezain eraginkorki ezarri; hortaz, errealitatea oraindik ere zigorgabetasuna da. Izan ere, funtzionario gehienek ez dute behar beste baliabide ez ezagutzarik lege horiek behar bezala aplikatzeko. Era berean, iraganeko inertziak errepikatzen dira oraindik jardun juridikoan, eta gauzak dauden daudenean uzten dituzte.

2012an Chiapasen lehenengoz egin zen herrien Auzitegi Iraunkorra, justizia sinbolikorako ariketa gisa. Auzitegi hori garrantzitsua izan zen kolektibo askok, tartean emakumeen kolektiboek, parte hartu zuen herri-ekimena

izan zelako. Ekimen horiek potentzial handia dute gizartearen kontzientzian eragiteko eta kontatutako historia ikusarazteko, emakumeen euren ahotsetik, eta horrela, haientzat ere ekintza ahalduntzailea bihur dadin.

Erreparaziorako eskubideari dagokionez, modu ofizialean ere ez da egon herritarrei erreparazioa emateko inolako neurririk. Bortxatu zituzten hiru ahizpa indigena tzeltaleen kasua azpimarratu nahi dugu; urte asko geroago kalte-ordaina jaso zuten Chiapaseko gobernuaren aldetik, kasua Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrera iritsi ondoren. Kasu horren nolahalako “arrakasta” izan zuen eragin mediatikotik eta defentsa juridiko garrantzitsutik dator.

Erreparazioaren eremu honetan erakunde eta erantzukizun hutsunea dago, eta gizarte zibil antolatuaen –batik bat emakumeen erakundeen– jarduerak bete dute kasurik gehienetan. Mendia Azkuek (2012: 28) dioen bezala, gatazketan giza eskubideen indarkerien biktima izan diren emakumeei laguntzea justiziaren eta bakearen eraikuntzaren eremuan ekintza feminista garrantzitsuenetakoa da eta, guri dagokigun kasu honetan, aztertu dugu arreta psikologikoa, ekonomikoa edo emakumeen ahalduntzera –bakarkako nahiz kolektibo– bideraturiko jarduerak, emakumeek euren garatutakoak izan direla nagusiki.

## Bibliografia

Alquicira Martínez, Ernesto (2008): “Atención de la salud materna. Otro disfraz de la guerra de baja intensidad en Chiapas”, *Gaceta Urbana*, 6-7.

Álvarez, Martín (2000): *Acteal de los mártires. Infamia para no olvidar*, Plaza y Valdés, Mexiko D.F.

Asociación Sociedad Civil Las Abejas de Acteal (d/b): *La masacre de Acteal*, <<http://acteal.blogspot.com.es/p/la-masacre-de-acteal.html>>.

Bellinghausen, Hermann (2012): *Procede y Fanar, estrategias del gobierno para despojar a los indígenas de sus tierras*, <<http://www.jornada.unam.mx/2012/01/22/politica/021n1pol>>.

Castro Soto, Gustavo (2009): *La explotación minera en Chiapas*, <[http://www.otrosmundoschiapas.org/analisis/explotacion\\_minera\\_chiapas\\_2009.pdf](http://www.otrosmundoschiapas.org/analisis/explotacion_minera_chiapas_2009.pdf)>.



- Castro Soto, Gustavo (1997): “Las etapas de la militarización en Chiapas y sus consecuencias”, *Otros Mundos Chiapas*. <<http://www.otrosmundoschiapas.org/analisis/LAETENCI.pdf>>.
- Ceceña, Ana Esther eta Andrés Barreda (1995): “Chiapas y sus recursos estratégicos”, *Revista Chiapas*, 1, <<http://www.revistachiapas.org/No1/ch1cecena-barreda.html>>.
- Ceceña, Ana Esther eta José Zaragoza (1994): “Cronología del conflicto 1º enero-1º diciembre 1994”, *Revista Chiapas*, 1, <<http://www.revistachiapas.org/No1/ch1cecena-zaragoza.html>>.
- Cedillo, Adela (2008): *El fuego y el silencio: Historia de las Fuerzas de Liberación Nacional Mexicanas (1969-1974)*, UNAM, <[http://www.cedema.org/uploads/Cedillo\\_Adela-2008.pdf](http://www.cedema.org/uploads/Cedillo_Adela-2008.pdf)>.
- Centro de Documentación Zapatista (CEDOZ) (2003): *La treceava estela*, <<http://www.cedo.org/site/content.php?doc=511>>.
- Centro de Documentación Zapatista (CEDOZ) (2001): *Cronología de los Acuerdos de San Andrés*, <<http://www.cedo.org/site/content.php?doc=368>>.
- Centro de Derechos Humanos Fray Bartolomé de las Casas (CDHFBC) (2016): *Andamos los caminos de la resistencia. Informe 2016 sobre Derechos Humanos en Chiapas*, <[http://www.frayba.org.mx/archivo/boletines/161219\\_boletin\\_26\\_informe.pdf](http://www.frayba.org.mx/archivo/boletines/161219_boletin_26_informe.pdf)>.
- Centro de Derechos Humanos Fray Bartolomé de las Casas (CDHFBC) (2003): *Desplazados por el conflicto armado en Chiapas*, <[http://www.frayba.org.mx/archivo/informes/030612\\_desplazados\\_por\\_el\\_conflicto\\_armado\\_frayba.pdf](http://www.frayba.org.mx/archivo/informes/030612_desplazados_por_el_conflicto_armado_frayba.pdf)>.
- Centro de Derechos Humanos Fray Bartolomé de las Casas (CDHFBC) (2002): *Caminando hacia el amanecer. Informe especial sobre desplazados de guerra en Chiapas*, San Cristóbal de las Casas, Chiapas.
- Centro de Investigación Acción de la Mujer (CIAM) (2009): *CIAM y el Movimiento de Mujeres en Chiapas*, <<http://ciamac.codigosur.net/acercade-ciam/ciam-y-el-movimiento-de-mujeres>>.
- Comisión Interamericana de Derechos Humanos (2001): *Informe N° 53/01, Caso 11.565*, apirilaren 4ean, <<https://www.cidh.oas.org/annualrep/2000sp/capituloiii/fondo/mexico11.565.htm>>.

Comisión Nacional de los Derechos Humanos México (CNDHM) (2002): *Informe 2002*, <[http://www.cndh.org.mx/sites/all/doc/Recomendaciones/generales/RecGral\\_004.pdf](http://www.cndh.org.mx/sites/all/doc/Recomendaciones/generales/RecGral_004.pdf)>.

Consejo Nacional de Población del Gobierno de México (CONAPO) (2010): <<http://www.conapo.gob.mx/>>.

Consejo Nacional de Evaluación de la Política de Desarrollo Social (CONEVAL) (2012): *Informe de pobreza y evaluación del estado de Chiapas*, <<http://www.coneval.gob.mx/coordinacion/entidades/Documents/Chiapas/principal/07informe2012.pdf>>.

Cortázar Ríos, Víctor, Gasca García, Alejandra eta Rosario Urbina Becerra (2008): “La otra migración: desplazamiento interno de población en Chiapas y salud. Un recuento”, *Revista Segunda Época*, 3.

Delgado-Ramos, Gian Carlo (2004): “Biodiversidad, desarrollo sustentables y militarización: Esquemas de saqueo en Mesoamérica”, Centro de Investigaciones interdisciplinarias en Ciencias y Humanidades, UNAM, Mexiko D.F.

Ejército Zapatista de Liberación Nacional (EZLN): *Comunicado de 1 de enero de 1994: Primera Declaración de la Selva Lacandona*, <<http://enlacezapatista.ezln.org.mx/1994/01/01/primera-declaracion-de-la-selvalacandona/>>.

Ejército Zapatista de Liberación Nacional (EZLN): *Comunicado de 6 de enero de 1994: Sobre el EZLN y las condiciones para el diálogo*, <<http://enlacezapatista.ezln.org.mx/1994/01/06/sobre-el-ezln-y-las-condicionespara-el-dialogo/>>.

Ejército Zapatista de Liberación Nacional (EZLN): *Comunicado de 10 de enero de 1994: Segunda Declaración de la Selva Lacandona*, <<http://enlacezapatista.ezln.org.mx/1994/06/10/segunda-declaracion-de-la-selvalacandona/>>.

Ejército Zapatista de Liberación Nacional (EZLN): *Comunicado de 1 de enero de 1995: Tercera Declaración de la Selva Lacandona*, <<http://enlacezapatista.ezln.org.mx/1995/01/01/tercera-declaracion-de-la-selvalacandona/>>.

Ejército Zapatista de Liberación Nacional (EZLN): *Comunicado de 8 de marzo de 1996: Celebración del día de la mujer que lucha, de la mujer digna*, <<http://enlacezapatista.ezln.org.mx/1996/03/08/celebracion-deldia-de-la-mujer-que-lucha-de-la-mujer-digna/>>.

- Ejército Zapatista de Liberación Nacional (EZLN) (2015): *El pensamiento crítico frente a la hidra capitalista*, I Liburuki.
- Galindo de Pablo, Adrián (2015): “El paramilitarismo en Chiapas. Respuesta del poder contra la sociedad organizada”, *Política y Cultura*, 44, 189-213.
- Gallegos Valle, Zorayda (2014): “15 días de partes militares”, *Revista Emequis*, <<http://www.m-x.com.mx/2014-01-12/15-dias-de-partes-militares-2/>>.
- Gómez, Mariana (2014): *Procesos organizativos y participación política de mujeres indígenas en México: voces de activistas y abordajes en la bibliografía*, <[http://www.scielo.org.ar/scielo.php?script=sci\\_arttext&pid=S1853-001X2014000200004](http://www.scielo.org.ar/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1853-001X2014000200004)>.
- González, Carlos (2005): “Un espacio de encuentro y unidad”, *La Jornada*, <<http://www.jornada.unam.mx/2005/10/17/oja102-cni.html>>.
- González Esponda, Juan eta Elizabeth Pólito Barrios (1995): “Notas para comprender conflicto armado Chiapas”, *Revista Chiapas*, 1, <<http://www.revistachiapas.org/No1/ch1gonzalez-polito.html>>.
- Grupo de Información en Reproducción Elegida (GIRE) (2015): *Informe GIRE 2015: Niñas y mujeres sin Justicia. Derechos reproductivos en México*, <[https://drive.google.com/file/d/0B8jIzTd6J\\_gVTHEwX1kwaDFvRGc/view](https://drive.google.com/file/d/0B8jIzTd6J_gVTHEwX1kwaDFvRGc/view)>.
- Gutiérrez, José Carlos (2010): *Contraingurgencia y salud: Contradicciones de la Teoría, Historia y Aplicación del Programa Oportunidades en Comunidades Rurales en Chiapas*, <[http://digitalcollections.sit.edu/isp\\_collection/847/](http://digitalcollections.sit.edu/isp_collection/847/)>.
- Hernández Castillo, Aida (2009): “Una Lectura feminista sobre Acteal”, *La Jornada*, <<http://www.jornada.unam.mx/2009/08/23/politica/008a1pol>>.
- Hernández Castillo, Aida (2010): *El Zapatismo y el Movimiento de Mujeres Indígenas en México*, Institut d'Études Internationales de Montréal, <[http://www.ieim.uqam.ca/IMG/pdf/el\\_zapatismo\\_y\\_el\\_movimiento\\_de\\_mujeres\\_indigenas\\_en\\_mexico\\_hernandez.pdf](http://www.ieim.uqam.ca/IMG/pdf/el_zapatismo_y_el_movimiento_de_mujeres_indigenas_en_mexico_hernandez.pdf)>.
- Hernández Navarro, Luis (2016): “Congreso Nacional Indígena: 20 Años”, *La Jornada*, <<http://www.jornada.unam.mx/2016/10/11/opinion/016a2pol?partner=rss>>.
- Instituto Nacional de Estadística y Geografía (INEGI) (2010): *México*, <<http://www.inegi.org.mx/>>.

- Martínez Espinosa, Manuel Ignacio (2006): “Las juntas de buen gobierno y los caracoles del movimiento zapatista: fundamentos analíticos para entender el fenómeno”, *Revista de Investigaciones Políticas y Sociológicas (RIPS)*, 5, 215-234.
- Medina Ciriaco, Susana (2006): *Reforma al Artículo 27 Constitucional y el Fin de la Propiedad social de la Tierra en México*, <<http://studylib.es/doc/7468338/la-reforma-al-art%C3%ADculo-27-constitucional-y-el-fin-de-la-p>>.
- Mendia Azkue, Irantzu (2012): “Justicia Transicional: Dilemas y crítica feminista”, *Lan-Koadernoak Hegoa*, 59, <[http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/236/Cuaderno\\_de\\_trabajo\\_Hegoa\\_59.pdf?1488539793](http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/236/Cuaderno_de_trabajo_Hegoa_59.pdf?1488539793)>.
- Moore, Henrietta (1991): *Antropología y feminismo*, Cátedra Universidad de Valencia, Estudios de la Mujer.
- Murgialday, Clara (1995): *Una mirada feminista a la participación de las mujeres en los conflictos armados en Centroamérica y Chiapas*, Memorias del Foro Regional San Salvador, Las Dignas.
- Moritz, Juerguen (2005): *Los medios de comunicación en Chiapas*, <[http://www.fesmedia-latin-america.org/uploads/media/Los\\_medios\\_de\\_comunicaci%C3%B3n\\_en\\_Chiapas.pdf](http://www.fesmedia-latin-america.org/uploads/media/Los_medios_de_comunicaci%C3%B3n_en_Chiapas.pdf)>.
- Olivera, Mercedes (2004a): “Sobre las profundidades del mandar obedeciendo”, Zenbait Egile: *Chiapas: miradas de mujer*, Gakoa Liburuak, Bilbo, 11-64.
- Olivera, Mercedes (2004b): “De subordinaciones a rebeldías: una historia de la participación de las mujeres indígenas de Chiapas”, Zenbait Egile: *Chiapas: miradas de mujer*, Gakoa Liburuak, Bilbo, 95-111.
- Observatori Solidaritat de la Universitat de Barcelona (d/b): *Cronología del conflicto chiapaneco*, <[http://www.observatori.org/paises/pais\\_58/documentos/cronologia\\_chiapas.pdf](http://www.observatori.org/paises/pais_58/documentos/cronologia_chiapas.pdf)>.
- Picciola Marozzi, Natalia eta Cristian Juan Bordón (2009): *La gestación del levantamiento Zapatista: conciencia, organización y lucha*, <<http://www.elmangodelhacha.com.ar/pdfs/zapatismo.pdf>>.
- Pineda, Francisco (1996): “La guerra de baja intensidad”, *Revista Chiapas*, 2, <<http://www.revistachiapas.org/No2/ch2pineda.html>>.
- Red por la Paz (REDPAZ) (2012): *De la tierra al asfalto. Informe de la misión civil de observación de la Red por la Paz Chiapas y CAIK al programa Ciudades Rurales Sustentables*, Fray Bartolomé de las Casas, San Cristóbal de las Casas, Chiapas.

- Renato da Silva, Paulo, Ayala, Mario, Pereira da Silva, Fabriccio eta Fernando José Martins (2015): *Lutas, experiências e debates na américa latina. Anais das IV Jornadas Internacionais de Problemas Latinoamericanos*, <<http://jornadaslatinoamericanas.blogspot.com.es/>>.
- Rovira, Guiomar (1996): *Mujeres de maíz: la voz de las indígenas de Chiapas y la rebelión zapatista*, Virus, Bartzelona.
- Santiago, Jorge (2016): “El congreso Indígena de 1974, buscando nuestras raíces”, *La Jornada*, <<http://ojarasca.jornada.com.mx/2016/05/13/rogielocuellar-imagenes-de-un-congreso-historico-5011.html>>.
- Servicio Internacional para la Paz (SIPAZ) (2016): *Luchar con corazón de mujer. Situación y participación de las mujeres en Chiapas (1995-2015)*, <<http://www.sipaz.org/sipaz-luchar-con-corazon-de-mujer-situacion-participacion-de-las-mujeres-en-chiapas-1995-2015/>>.
- Servicio Internacional para la Paz (SIPAZ) (2012): *Militarización*, <<http://www.sipaz.org/militarizacion-3/>>.
- Servicio Internacional para la Paz (SIPAZ) (2007): *Militarización en México, grave amenaza para los Derechos Humanos*, <<http://www.sipaz.org/enfoque-militarizacion-en-mexico-grave-amenaza-para-los-derechoshumanos>>.
- Servicio Internacional para la Paz (SIPAZ) (1998): *Mujeres y Guerra de Baja Intensidad*, <<http://www.sipaz.org/enfoque-ii-mujeres-y-guerra-de-bajaintensidad/>>.
- Sierra, Francisco (1998): *Hacia una comunicación política; el modelo zapatista como alternativa comunicacional*, <<http://www2.unarg.es/ntedu/espanol/master/primero/modulos/teoria-de-la-informacion-y-comunicacionaudiovisual/franci.htm>>.
- Soriano González, María Luisa (2012): “La Revolución Zapatista de Chiapas. Guerra, Paz y Conflicto (desde la perspectiva de sus protagonistas)”, *Pensamiento Político*, <<http://pensamientopolitico.org/Descargas/RIPP07391408.pdf>>.
- Tello Díaz, Carlos (2006): *La rebelión de las Cañadas. Origen y ascenso del EZLN*, Planeta, Mexiko D.F.
- Van der Haar, Gemma (2015): *Movimiento zapatista de Chiapas: Dimensiones de su lucha*, <<http://docplayer.es/6523688-El-movimiento-zapatista-dechiapas-dimensiones-de-su-lucha.html>>.

Wilson, Japhy (2008): *La nueva fase del Plan Puebla Panamá en Chiapas*, <<http://www.alainet.org/es/active/24229>>.

Zenbait Egile (2004): *Chiapas: miradas de mujer*, Gakoa Liburuak, Bilbo.

Zirion, Iker (2012): “Los procesos de desarme, desmovilización y reintegración de excombatientes desde la perspectiva de género”, *Lan-Koadernoak Hegoa*, 58, <[http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/231/Cuaderno\\_de\\_trabajo\\_Hegoa\\_58.pdf?1488539788](http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/231/Cuaderno_de_trabajo_Hegoa_58.pdf?1488539788)>.



**V. Kapituluua.**

**Kolonbiako Ruta Pacífica  
de las Mujeres: emakumeen  
egiaren aldeko ibilbide luzea**

*Marina Gallego Zapata*





*“Gerra, basakeria-ekintza guztiekin, inoiz ez da herrialdeko baldintza eta toki guztietako emakumeen bizimodutik urrun egon, baina eremu publikoari atxikita dagoenez, gizonentzako interes eskusibokoa dela dirudi”.*

Ruta Pacífica de las Mujeres, 2003.

## 1. Sarrera

Erregioko historia berrieneko gatazka armaturik luzeena pairatu duen Latinoamerikako herrialdea da Kolonbia. 50 urtetik gorako gerra-aldian, giza kostua izugarria da; eta ondorio horien artean, Kolonbia da munduan herritar desplazatu gehien dituen herrialdeetako bat.

2016ko azaroan, Gobernuak eta Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileek (FARC-EP) *Gatazka Amaitzeko eta Bake Egonkor eta Iraunkorra eraikitzeko Bukaerako Akordioa* izenekoa sinatu zuten<sup>1</sup>. Akordio hori ezartzeko, erkidego eta lurraldeen premiak eta bertan definitu zen trantsizio-prozesua hartu behar dira kontuan. Bake Akordioa betetzen bada, demokraziak, ekonomiak, lurraldeek eta gatazka eragin dituen biktimen erreparazioak behar dituzten funtsezko aldaketak gerta daitezten baldintzak sortuko dira. Baita ere, zigorgabetasuna tratatzeko eta herrialderako eta mundurako bakea lortzeko irakaspenak jasotzeko aukera izango da.

Biktimei dagokien Bake Akordioeko puntua negoziazio-prozesuan denbora gehien behar izan zuen edukietako bat izan zen; eztabaida eta kontsulta gehien eragin zituen izan zen. Izan ere, Bake Akordioaren muina da, eta horren emaitzak bake-premiaren eta justizia-premiaren arteko oreka islatzen du, gatazka armatuak iraun zuen bitartean gertatutako giza eskubideen urraketa larrien tratamenduaren bidez. Bake Akordioan honako hauen sorrera ere jasotzen da: Egia Argitzeko Batzordea, Bakerako Auzitegi Berezia, erreparaziorako eta ez errepikatzeko neurriak, desagertutako pertsonak bilatzea eta minagabetzeko akordioa. Zigorgabetasunaren aurkako ardatza egia izango da.

Egungo trantsizio-testuinguruan, emakumeen erakundeek aukera historiko hau baliatu nahi dugu gure ahotsak eta proposamenak funtsezkoak izan

---

1 Bukaerako Akordioa, 2016ko azaroaren 24koa, hemen ikus daiteke: <<https://www.mesadeconversaciones.com.co/sites/default/files/24-1480106030.11-1480106030.2016nuevoacuerdofinal-1480106030.pdf>>.

daitezen egiarako eta justiziarako eskubidearen ezarpenean. Hortaz, kapitulu honetan, testuinguru orokorra aztertzeaz gain, negoziazio-prozesuaren aurretik eta bitartean, feminismitik abiatuta, Bake Akordioak emakumeen eta LGBT populazioaren eskubideak jaso ditzan lortu duten eta bakearen eraikuntzan emakumeek duten protagonismoaren onarpena lortu eta ikusarazi duten emakumeen erakundeen ibilbidearen atal bat aurkeztuko dugu.

Emakumeen mugimenduak bake-negoiazioan izandako protagonismoaren aurrekariak izan dira emakumeek gatazka armatuaren erdian eragin eta gauzatutako antolamendu-prozesuak, egindako proposamenak, eragiteko gaitasuna, gizarte-mobilizazioa, egindako salaketak eta ikerketak, eta bake-eraikitzaile gisako eginkizuna. Emakumeen aktibismoa gatazkaren historiako hainbat unetan eta hamarkada horietan zehar izan diren negoziazioetan egon da presente; eta horietan guztietan, bakea emakumeentzat funtsezko errealitate izan dadin izan dute helburu.

Ruta Pacífica de las Mujeres (aurrerantzean, RPM, edo Ruta Pacífica edo Ruta) bakearen aldeko aktibismoan zentratuta dagoen mugimendua da, eta gatazka armatuaren amaierarako berriki izan diren negoziazioetan onartua eta bidezkoa izan da. RPMren lana izan da hura bertako kide diren herrialdeko gainerako erregiotako erakundeei laguntzea, zeinek lortu duten emakumea egoera gerraren ondorio gisa kokatzea.

Ruta Pacífica gerraren kontra mobilizatu da, eta bizimodu horrek emakumeen bizimoduan, norbanakoarenean nahiz kolektiboan, dituen eraginak azalatu ditu, emakumeek bake-eraikitzaile gisa duten boterea eta indarra erakutsi ditu; familien, erakundeen eta erkidegoen gizarte-ehuna berregituratzen baitute; eta egia eta justiziaren aldeko erreibindikazio politikoak lortu ditu Emakumeen Egiaren aldeko Batzordea sortuz, aurrerago ikusiko dugun bezala. Kontribuzio horrekin emakume biktimak erreibindikatzeko dira, bake prozesuan aintzat hartuak eta duinduak izan daitezten. Kapitulu honetan emakumeentzat bake eta justizia integrala bilatzeko esperientzia hori azpimarratzen da –duen esanahiagatik eta eraginagatik.

## **2. Gatazka armatuaren bilakaeraren eta arrazoen gainerako begiradak**

Kolonbiako gatazka armatua hainbat ikuspegitatik aztertu da, eta gertatutakoaren inguruko azalpenak askotarikoak izan dira. Azterketetan

aipatzen diren faktoreen artean, desberdintasun eta bazterketa sakonak daude, narkotrafikoaren eragina eta iragazkortasuna, segurtasunerako nazioarteko politikak, Gerra Hotza, erregioko matxinatuen mugimenduak eta, azkeneko bi hamarkadetan, terrorismo<sup>2</sup>. dinamikak.

Gatazka armatuan aldebereko izan dira ideologia eta bilakaera desberdineko talde matxinatuak<sup>3</sup>. Denek zituzten aldaketak helburu, zabalkunde demokratiko handiagotik hasi eta ordena sozial, ekonomiko eta politiko berri bateranzko egituren aldaketa. Horrek ez du matxinatuen batasuna ekarri, baizik eta matxinatuen eta Estatuaren arteko negoziazio-prozesuen zatiketa, eta horrek jokaleku desberdinak eragin ditu, batzuentzat integraziokoak eta beste batzuentzat jazarpenekoak izan direnak (azken horietan, ondorioz etorri da gatazka armatua areagotzea).

Kolonbiako gerra gatazka konplexua izan dela adierazi da behin eta berriz, baina ezaugarri hori ukaezina den arren, ezin du horrek gatazka bera ulertzeko eta biktimak ardatz izango diren indarkeriaren logika gainditzeko prozesu baterako eragozpena izan. Horren ilduan, Gobernuaren eta FARCen negoziazio-ordezkaritzek Gatazkaren eta bertako Biktimen Batzorde Historikoa (CHCV) sortzea adostu zuten; batzordea hamabi pertsona akademiko independentek osatzen dute eta helburu dute gatazka armatuaren jatorri eta kausa ugari, irauteko faktoreei eta herritarrengan izan dituen ondorio nabarmenei buruzko txostenak egitea. Batzordea bera eta egindako txostenak “barneko gatazkaren testuinguru historikoaren konplexutasuna ulertzen laguntzeko” sortu ziren<sup>4</sup>. Gatazka armatuaren kausei buruzko ikuspegi bateratua baino gehiago, lan honek hainbat ikuspegitatik zuzendutako begiradak eskaini zituen (“bertsio kalifikatuak”) gatazkaren jatorriari buruz, herrialdeko prozesu politikoei

---

2 Kasu honetarako, Alvaro Uribe agindu zuen “mehatxu terrorista” kontzeptua erabiltzea, aurretiaz gatazka armatu gisa aipatzen zena adierazteko (Sanchez eta Uprimny, 2011: 146).

3 Hirurogeiko hamarkadan, hiru mugimendu gerrillari armatu altxatu ziren Estatuaren kontra: Askapen Nazionalerako Armada (ELN), ideologia *guevaristara* bideratua; Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileak (FARC), nekazari mugimendu komunistaren ikuskera batean oinarrituak; eta Askapenerako Herri Armada (EPL), orientazio maoistakoa. Geroago beste talde batzuk atxiki ziren; besteak beste, 1974an, M-19 Mugimendua, Rojas Pinilla jeneralaren aurkako hauteskunde iruzur –arrazoitua eta litekeena– baten ondoren sortua ([Pecaut, 1987 eta García Villegas, 2009], Sánchez eta Uprimny aipatutak: 2011: 134).

4 Alderdi negoziatzaileen 40 zk.dun agiri bateratua, 2014ko abuztuaren 5ekoa, zeinetan jasotzen den Gatazkaren eta bertako Biktimen Batzorde Historikoa ezartzea, hemen ikus daiteke: <<http://www.derechos.org/nizkor/colombia/doc/paz331.html>>.

buruz, egoera ekonomikoari buruz eta nazioarteko testuinguruari buruz, besteak beste (Gatazkaren eta bertako Biktimen Batzorde Historikoa, 2015). Aurkeztu zituzten txostenetan hainbat kausa sistemiko azpimarratzen dira, batez ere politiko eta kulturalak, barneko gatazka armatua pizteko arrazoitzat. Ondoko paragrafoetan txosten horien alderdi garrantzitsu batzuk jasoko ditugu<sup>5</sup>.

Esaterako, Sergio Subiriak honako elementu hauek azpimarratzen ditu: Estatuera eraikitzeo prozesua eta horrek gatazkarekin duen harremana, “laguna/etsaia” diskurtsoa indartzen duen matxinatuen aurkako kultura politiko batetik ikusita, proiektu politiko alternatiboen jazarpena, eta beldurraren inflazioa eta segurtasuna gatazka areagotzen duten faktore kultural gisa.


Gustavo Duncanek ondorioztatzen du bazterketak, desberdintasunak eta maila guztietan gertatzen diren haustura handiek azaltzen dutela gatazkaren bilakaera. Gainera, kriminaltasuna eta narkotrafikoa azpimarratzen ditu gatazka suspertzeko elementu gisa, etengabeko gerra-egoera, ekonomiaren sunsitzaila izan beharrean, merkatuetara iristeko bide bihurtzea ahalbidetu dutenak, batez ere kapital-metaketa txikiko aldirietako erkidegoentzat.

Javier Giraldek erreboltarako eskubidearen kontzeptu juridikoa aztertzen du; ontzat emanez herritarren eta Estatuaren arteko harremana ulertu behar dela enpresa komun bateko bazkideen artean dagoen harremana balitz bezala, bazkide guztientzat funtsezko bi beharizan multzo asetzea helburu duena: beharizan biologikoak (elikadura, etxebizitza, lana/diru-sarrerak, osasuna eta hezkuntza) eta elkarbizitzarako premiak (informazioa, parte-hartzea eta babes), eta horiek ez betetzea, biztanle-geruza oso handietan, gatazkek irauteko faktore da.

Alfredo Molanok azaltzen ditu Kolonbiako biztanle gehienek bazterketa politiko eta ekonomikorako dituzten joera nabarmenak. Egile horren arabera, joera horiek erresistentzia zibila eta altxamendu armatuak eragin dituzte XIX. mendearen bigarren erditik gaur egunera arte, eta altxamendu horiek estigmatizatu eta kriminalizatu egin izan dira. Era berean, Estatuaren aparatuan errotuta dauden korrante politikoak eta ondare-jardun eta jardun klientelistak zerrendatzen ditu, herri-indarrek bultzatutako demokratizazio-ahaleginak zapuztu dituztenak.

---

5 Aurkeztutako hamabi txostenen laburpena ikusteko: <<http://www.eltiempo.com/contenido/politica/proceso-de-paz/ARCHIVO/ARCHIVO-15228175-0.pdf>>.



Iturria: Nazio Batuk.

Daniel Pecatek abiapuntu hartzen du 1930eko hamarkada; orduko hartan, Estatu zentrala sendotu beharrean, sare partidisten eta garapen-eredu liberalaren sendotzea gertatu zen. Gertaera horrek honako honetan eragin zuen: a) Estatuaren prekaritatean; b) gizarte-arauketen ahultasunean eta pribatizatutako botere-sareen inpaktuan; c) landakoaren zentralitatean eta ondoren, aldirikoenean, bai ekonomiaren (kafe-ekoizpenaren eginkizuna azpimarratzen du) bai politikaren (klientelismoaren eginkizuna aipatzen du herritarren ordez) ikuspuntutik; eta d) desberdintasunen instituzionalizazioan.

Maria Emma Willsek, Batzordeko emakume bakarrak, bere txostenean nekazariak hamarkada askoan pairatu duten bazterketa, gizarte-erreibindikazioei erantzuteko indarra eta autoritarismoa gailendu izana eta herrialdeko zenbait udalerrri eta erregiotan sare despotikoak hedatu izana jorratzen du. Azaltzen dituen faktore horiek “korapilo” deitu ditu; beraren ustez ez direlako linealak, gurutzatu egiten dira eta gatazka armatua konplexuago

bihurtzen dute. Egileak agerian uzten du emakumearekin zerikusia duen gerraren erroteria, baina ez du berariaz jorratzen<sup>6</sup>.

Gatazka Armatuaren eta bertako Biktimen Batzorde Historikoak egindako dokumentuez gain, beste dokumentu garrantzitsu bat da Memoria Historikorako Zentroak (2013) egindako *¡Basta YA! Colombia: memorias de guerra y dignidad* txostena, bertan Kolonbiako indarkeriaren 1985 eta 2012 arteko historia ikertzen da.

*¡Basta ya!* txostenak lau aldi identifikatu zituen Kolonbiako gatazka armatuaren bilakaeran: 1) 1958tik 1982ra, indarkeria bipartidistatik iraultzailerako trantsizioa ezaugarri duena; 2) 1982tik 1996ra, gerrillen hazkundera, paramilitarismoaren sorrera eta indartzea, Estatuaren kolapsoa, narkotrafikoaren hedapena, Kolonbiako Konstituzio Politiko berria, bake-prozesua eta erreforma demokratikoak ezaugarri dituena; 3) 1996tik 2005era, gatazka armatuaren gogortze-aldia, gerrillen eta talde paramilitarren hedapenagatik eta irtenbide militarragatik; eta 4) 2005etik 2012ra, Estatuaren eraso militarren eta gerrillaren ahultze-aldia, Estatuaren berregokitze militarra, ereduaren porrota eta talde paramilitarrekin negoziatzea legezketasunari atxikitzeko.

Aipatutako txostenak –CHCVrena eta Memoria Historikorako Zentroarena– erreferentzia garrantzitsua dira Kolonbiak bizi izan duen gatazka sozial eta armatua ulertzeko, bereziki bake-negozazioaren esparruan. Hala ere, txosten horietan ez dira emakumeak eta gerrak beraiengan izandako eraginak aipatzen, eta ez da gatazkaren historiaren azterketarik egiten haien parte-hartzea jasotzen duenik. Hori horrela da historiari eta gerrari buruzko dokumentu ofizial guztietan; gehienetan gizonak idatziak direlako eta, hein handi batean, irabazleen, borrokatzen eta hiltzen diren gizonen, historia soilik jasotzen dutelako, baina ez gerran eta bakean esku hartzen duten emakumeena. 1990eko hamarkadatik aurrera, teoriko eta emakumeen mugimendu batzuek agerian utzi dute emakumeek historian eta gatazka armatuan izan duten eginkizuna eta zein izan diren haiek egindako ekarpenak, gerra eta bakea hobeto ulertu ahal izateko, nahiz eta ezagutza hori oraindik ez den nahikoa eta amaitzeko dagoen ataza den.

---

6 Beraren hitzetan, honako hau dio: “Generoari loturiko mendekotasun zehatzak daudelako nire uste sendoak ez du esan nahi nik argudio feminista bat behartuko dudala mendekotasun hori onartzeko. Oso zorrotza naiz, eta badakit noiz ikus dezakezun enpirikoki mendekotasun hori gerraren esparruan eta noiz ez” ([Wills], hemen aipatua: Bautista, 2014).

Laurogeiko hamarkadatik aurrera, Estatuaren eta talde matxinatuen arteko negoziazio-prozesuak izan dira. Nolabaiteko emaitzak lortu ziren batik bat laurogei eta hamarreko urteetan, Gobernuaren eta bost mugimendu armaturen artean negoziazioa izan zenean (M19 Mugimendua, Askapenerako Herri Armada Marxista Leninista-EPL, Quintín Lame Mugimendu Indigena, Langileen Alderdi Iraultzailea eta Berrikuntza Sozialistarako Korronea, ELNren disidentzia). Negoziazio horien ondorioa izan zen, esaterako, borrokalari ohiak bizimodu zibilera itzultzea eta talde horiei kongresuan eserleku batzuk esleitzea aldi baterako. Negoziazio horiek 1986ko Konstituzioa aldatzeko 1991n egin zen Batzar Nagusi Eratzailearen deialdiaren aurrekaria izan ziren.

1991ko Konstituzioak Kolonbiako erakunde demokratikoak modernizatu zituen, eta oinarriko eskubideak konstituzioaren muinari atxiki zizkion; horri esker, giza eskubideen garapena hobetu zen eta haiek babesteko baliabide gisa zaintza erabiltzea lortu zen. Erreforma horiekin, hurrengo 25 urteetan garatu izan diren legeek emakumeen eskubideak, sexu-dibertsitatea eta edozein diskriminazioren (arrazagatikoa, sexuala, emakumeena, eta oro har, Kolonbiako gizartearen partaide diren gutxiengo guztiena), aurreko babes lehenetsi dituzte. 1991ko Konstituzioak Estatu plurikulturala eta plurietnikoa zela adierazi zuen, eta horri esker, Kolonbiako biztanleriaren %30 inguru diren populazio etnikoei (herri indigenak eta afrokolonbiarrak) buruzko araudiak txertatu ahal izan ziren.

Horrez guztiaz gain, negoziazio horien ezaugarri nagusia izan zen desmobilizazio prozesuak eragin zituztela herrialdeak behar zituen aldaketa politiko eta ekonomikoak gauzatu gabe. Duela bost urte baino ez, Kolonbiak zeukan Gini<sup>7</sup> indizeak, bertako desparekotasuna Apartheid garaiko Hegoafrikako maila berean kokatzen zuen. Aurrekoari gehitu behar zaio irekiera ekonomikoa, globalizazioak eta neoliberalismoak negoziazio horien emaitzan aurrera egitea eragotzi dutela, eta gatazka armatuak garrantzi handia daukala oraindik. Gainera, biktimen eskubideak ez ziren kontuan hartu herrialdearen testuinguruan, nazioartean ere ez ziren horrela egiten ari.

### 3. Emakumeak eta trantsiziozko justizia

Kolonbiako gatazka armatuak milioika biktima eragin ditu. Memoria Historikorako Zentroaren *¡Basta ya!* txostenaren (2013) arabera, 218.000

---

7 Herrialde batean diru-sarreren desberdintasuna neurtzen duen koefizientea.

hildako eta giza eskubideen hainbat urraketa motaren 6 milioi biktima eragin ditu gatazkak. Kolonbiako gizartea oraintsu hasi da indarkeriaren norainokoa ikustean, zenbait ikerketari esker eta Biktimen Unitateak<sup>8</sup> milioika adierazpen jaso dituelako. Erakunde horren arabera, herrialdeko gatazka armatuaren biktimak ia 8 milioi dira, eta gertaera biktima-eragileek ia 9,5 milioiri eragiten diete. Horietatik, %86 inguru desplazamendurekin loturik daude. Oro har, biktimek indarkeria-gertaera bat baino gehiago pairatu dituzte (erailketak, mehatxuak, lurren desjabetza, sexu-indarkeria, desagertzea, nahitaezko errekrutatzea, pertsonen aurkako minak, besteak beste) eta hori erabateko larritasunaren isla da, eta Kolonbian trantsiziozko justiziarantz eta biktimen erreparaziorantz jotzeko erronkak agerrarazten ditu.

Biktimen Unitate berberaren arabera, biktima guztien artetik 3.942.000 emakumeak dira, hau da, erdia baino gehiago. Bost gertaeratan agertzen dira emakumeak biktimen gehiengoaren artean: mehatxuak (%52), ondasun higigarri edo higiezinak galtzea (%51,16), desplazamendua (%52), tortura (%54) eta sexu-askatasunaren eta osotasunaren aurkako delituak (%92). Emakumeek modu berezitan bizi dituzten delitu horien ondorioak, sufrimendua handitu eta ezkutuan iraun dezaketen eta emakumeen eta beraien erkidegoen suspertzeko gaitasunari azpiak jaten dizkioten zauri psikologiko oso sakonak eragiten dituen gatazka armatu baten esparruan.

Sufrimenduaz gain, emakume horien erantzukizunak handitu egin dira gatazka armatuaren zioz. Emakume horiek familiak eta erkidegoak elkarrekin irauarazi behar dituzte, ezaugarri komuna da hori. Oro har, “gerrako historietan ez dituzte agerrarazi, eta normalean goibel eta babesgabe agertzen dituzte, nahiz eta laguntzarako eta garapenerako erakunde gehienek aintzat hartzen duten emakumeek erkidegoei laguntzeko eta gerran bizirik irauteko izan duten eginkizun aktiboa, sozialki eta ekonomikoki” (Tobon eta Otero, 1997). Emakumeek jasan duten zama are handiagoa da haien mende pertsonak dituztenean; kontuan hartu behar baita, gainera, desplazatzera behartuta dauden emakumeek urrakortasun handiagoa dutela bortxaketen eta sexu-gehiegikerien aurrean, emakumeen aurkako arma-gerra bihurturiko ekintzak.

---

8 Biktimen aldeko Unitatea Biktimen eta Lurren Itzulketarako Legearen bidez osatu zen (1448/11 Legea). Ikus: <<http://rni.unidadVictimas.gov.co/RUV>>.



### 3.1. Emakumeen erreparazioa: Konstituzio Gortearen oinarritzko eskubideetatik erreparazioei buruzko legetara

Biktimen erreparazioa hainbat arrazoirengatik ezarri izan dute; besteak beste, biktimek eurek eskatu dutelako eta haien eskaerei erantzuna eman behar zitzaielako. Talde paramilitarrekin 2006an izandako negoziazioan, orduko gobernuak Justiziaren eta Bakearen Legea aplikatu zuen (975 legea), Kongresuak 2005ean onartua<sup>9</sup>. Lege hori talde paramilitarrei aplikatzearen ondorioz 1290 Dekretua<sup>10</sup> onartu zen, zeinaren bidez biktimei erreparazioa eskaini nahi zitzaien administrazioaren bidetik. Arau-xedapen horien eta xedapen horiek ezartzearen ondorioz, herrialdean aipatzen da *trantsiziozko justizia dagoela trantsiziozko gabe*, arau horietan biktimen erreparazioa hartzen delako kontuan baina egiaren eta justiziaren elementurik gabe eta errepikatuko ez direlako bermerik gabe, eta biktimen premiak asetzen ez dituen erreparazioarekin.

Emakumeen eta nahitaezko desplazamenduaren biktima diren emakumeen erakundeen presioaren eta salaketen ondorioz, Konstituzio Gorteak 2008ko 092 Autoaren<sup>11</sup> bidez ebatzi zuen gerrak eragin desberdina daukala emakumeengan eta nahitaezko desplazamenduaren kasuan emakumeak soilik pairatuko lituzketen 18 arrisku aipatu zituen. Gainera, gobernuak premiatu egin zuen emakume desplazatuak eskubidedun subjektu bezala tratatzean oinarrituriko erantzun instituzionala ezartzeko, eta, zehazkiago, emakumeei euren eskubideak benetan gauzatzea ahalbidetuko dieten 13 programa ezartzeko agindu zuen.

Gortearen ebazpena, gatazka armatuaren biktimei erreparazioa emateko 2011ko 1448 Legea, Biktimen eta Lurren Itzulketen Legea deiturikoa, berresteko oinarria izan zen. Lege hori gizarte eta biktimen erakundeen lanaren emaitza ere izan zen; batik bat emakumeen erakundeena, generoari atxikiriko artikulua espezifikoa jasotzeko proposamena egin baitzuten. Legeak erreparazio integralerako genero-ikuspegia kontuan hartzen duen arren, orientaziorako irizpide gisa soilik jasotzen du. Esaterako, 13. artikuluan “onartzen da badirela populazioak adinagatik, generoagatik, sexu-orientazioagatik eta desgaitasun egoeragatik ezaugarri bereziak dituztenak”.

---

9 975 Legea hemen kontsulta daiteke: <[https://www.cejil.org/sites/default/files/ley\\_975\\_de\\_2005\\_0.pdf](https://www.cejil.org/sites/default/files/ley_975_de_2005_0.pdf)>.

10 2011ko 4800 Nazio Dekretuaren 297. artikulua indargabetua.

11 Autoa hemen kontsulta daiteke: <<http://www.corteconstitucional.gov.co/relatoria/autos/2008/a092-08.htm>>.

Horri gehituta, Kolonbiako Estatuak nazioartean hartutako erantzukizunak bete behar ditu emakumeen eskubideei dagokienez, eta horren baitan dago gatazka armatuaren pean dauden emakumeen eskubideak<sup>12</sup>.

Trantsizioko Justiziarako Zentroarekin (CIJT) bat, Biktimei arreta eta erreparazio integrala eskaintzeko Unitateak onartzen du ez dela erraza izan ikuspuntu bereizgarria txertatzea, bi arrazoiengatik: lehenengoa, funtzionarioen sentsibilizazio eta ezagutzarik ezagatik, eta bigarrena, Biktimei arreta eta erreparazio integrala eskaintzeko Sistema Nazionala osatzen duten erakundeek ez dituztelako emakumeak sartu euren programetan (Portilla eta Correa, 2015).

Hortaz, zenbait neurri ezarri diren arren, oso partzialak dira eta oso hedapen mugatua daukate. Esaterako, Trantsizioko Justiziarako Nazioarteko Zentroak Kolonbian norbanakoen erreparazioa ezartzeari buruz egindako ikerlan baten arabera, Biktimen Unitateak erregistraturiko sexu-indarkeriaren biktimen %74k nolabaiteko osasun arreta jaso izana eta errehabilitazio-estrategian parte hartzen dutenen %78,4 emakumeak izatea adierazle positibotzat jotzen den arren, gehitzen du “emakumeen beharrianak kontuan hartzen dituen buru osasunerako hurbiltze bat adieraz dezakeela horrek”. Hala ere, emakume biktimen bestelako beharriaz ez gutxiengo sexu-erantzuten dieten bestelako neurririk ez da ageri (*Ibid.*: 64). CIJTk ikerketa horretan egiten duen aipamena oso egokia da, gatazka armatuaren biktima diren emakumeek, sexu-indarkeriaz gain, biktima bihurtzen dituzten bestelako gertaera batzuei ere aurre egin behar izan dietela erakusten duelako.

Erreparazio Lege horretan jasotako beste alderdietako batek lurrak itzultzearekin zerikusia dauka; Kolonbian den arazorik handienetakoa baita, hain zuzen, lur gehien-gehienak oso jabe gutxiren esku daudelako, eta hori ez da soilik klase-arrazoiengatik gertatzen, bai eta genero-arrazoiengatik ere. Izan ere, sozializazioarako eredu patriarkalen ondorioz, pairatzen duten bazterketa eta diskriminazioaz gain, emakumeek baliabideen ekitaterik gabeko banaketa eta jabetzarako irispide mugatua pairatzen dituzte. Azken urteetan lurrak eskuratzeko aukerak sustatzeko legeak garatu diren arren, praktikan oso gutxi aurreratu da, eta are gutxiago lurraren jabetza emakumeen esku egoteari

---

12 Esaterako, CEDAW (1979), 1981eko 51 Legean eta 2005eko 984 Legean jasoa; Belém do Pará Konbentzio Interamerikarra (1994), 1995eko 248 Legean jasoa; Nazioarteko Zigor Gortearen Erromako Estatutua (1998), 2002ko 742 Legean jasoa, eta Emakumei, bakeari eta segurtasunari buruzko Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena (2000).

dagokionez. Kolonbian zaila da onibarren jabetza, sexuen arabera berezia, argitasunez ezartzea ahalbidetzen duten datuetara iristea; hala ere, erabilgarri dauden datu apurren arabera, ikus daiteke emakumeak jabetza-eskubidetik baztertuak egon direla, eta lurrarekin duten harremana gizonek daukatena baino prekarioagoa izan ohi dela.

Gainera, garatzen ari diren erreparazio-programen barruan, emakumeentzako segurtasun-arazoak aurkezten jarraitzen dute, CIJTek elkarrizketatutako hainbat biktimak adierazten duen bezala; horietako batzuek, gainera, lurrak itzultzearen aurka dauden taldeen mehatxuak jaso dituztela salatzen dute. Nahitaezko desplazamenduak emakumeak modu zehatz eta berezitan kaltetzen dituen bezala, desjabetzak bereziki eta sakonago kaltetzen dituen dinamikak hartzen ditu, Konstituzio Gortearen 2008ko 092 Autoan jasotzen den bezala. Izan ere, emakumeek pairatzen duten arrisku berezietako bat da gizonei baino errazago kentzen zaizkiela lurrak eta ondarea, desabantailan daudelako desjabetzaren legezko eta legez kanpoko eragileek erabiltzen dituzten mehatxu eta indarkeriazko maniobrei eta iruzurreko maniobra juridikoei aurre egiteko.

1448/11 Legearen xedapenetan jasota dagoen arren lurrak itzultzearekin zerikusia duten tramiteetan emakumeek Estatuaren babes berezia jaso behar dutela, errealitateak erakusten du hori ez dela bete. Emakumeen aldeko hainbat epai ebatzi diren arren, haientzat ezinezkoa da euren ondasunetara itzultzea edo haiek erabiltzea, mehatxuzko eta aurkako testuinguru horrengatik.

### **3.2. Emakumeak egiaren, justiziaren eta erreparazioaren aldeko aktibismoan**

Erakunde feministak edo emakumeen eskubideen aldekoak hirurogei eta hamarreko urteen amaieran sortu ziren, amatasunaren, ezkontzaren eta matxismoaren inguruko agenda kontra-hegemonikoekin, eta laurogei eta hamarreko urteetatik aurrera, antolakuntza sendotzeari garrantzia ematen zioten erakunde feministak ugaitu ziren.

Emakumeak partaide izan dira herrialdean izan den negoziazio-prozesu bakoitzean, eta aktiboki jokatu dute giza eskubideen urratze larrien eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren urratze kasuetan. Bakearen aldeko aktibismoa laurogeiko urteetatik dator, herrialdean Segurtasun Nazionalaren Doktrinan –hogei urte baino gehiagoan iraunkorra izan zen salbuespen-egoeretakako konstituzio-errekurtsoa– oinarrituriko Segurtasun Estatua aplikatzen hasi zirenean eta setio-egoeraren erdian (El Tiempo, 1982).

Testuinguru horretan eta Belisario Betancurren gobernuak egindako lehenengo negoziazio eskaintzaren aurrean, 1982an, emakumeen erakundeak irtenbide negoziatuaren alde agertu ziren zalantzarik gabe. Hala ere, porrot egin zuen negoziazioa izan zen (1982-1986). FARC eta M19rekiko negoziazio hautsi egin zen, eta haustura horren adierazpen-unea izan zen M19ak Justizia Jauregia hartu izana eta FARCekoek su-etena apurtu izana. Bitartean, paramilitarismoak indarra hartu zuen gerra-estrategia gisa, eta Estatuaren erakundeen zuzeneko parte-hartzearekin. Horrek giza eskubideen urraketa masiboen sasoi berria zabaldu zuen, emakumeen bizitzan eta gorputzetan eragin larriak izan zituen eta izaten jarraitzen duena.

Testuinguru horretan, emakumeen aktibismoaren ardatza “gerra zikina”<sup>13</sup> deiturikoaren aurkako manifestazioen alde egitea, gobernuaren aurka zeudenen (tartean Union Patriótica ezkerreko alderdi politikoko 3.000 militante eta presidentetzarako ezkerreko bi hautagai, Bernardo Jaramillo eta Carlos Pizarro) kontrako sarraskien salaketa eta mobilizazioak izan ziren.

Emakumeak 1989aren amaieran hasi eta 1990ean zehaztu ziren negoziazio berrien alde egon ziren. Urte horretan akordioak lortu zituzten gobernuak eta lau talde gerrillarik, eta horrek, 1991ko maiatzaren 4an, Batzar Nazional Konstituziogilea sortzen eta urte berean Konstituzio Politiko berria lortzen lagundu zuen. Emakumeek aktiboki parte hartu zuten prozesuan eta emaitza onak lortu zituzten, batez ere Konstituzio berrian emakumeen eskubideei buruzko artikulua jaso ondoren (Quintero, 2005). Emakumeen mugimendua indartu zuten aurrerapausoak izan ziren, sareak sortu ziren, plataformak, oinarriko erakundeak eta gobernu kanpoko erakundeak, konstituzioa garatzen lan egin zutenak. Mugimendu horren agendak, beste gai batzuen artean, emakumeen parte-hartze politikoa, genero-indarkeriaren aurkako borroka, autonomia ekonomikoa, sexu-eskubideak eta osasuna izan zituen ardatz.

1991ko Konstituzioa Kolonbiako modernizatorantz eta demokraziarantz aurrerapenean mugarria eta emakumeen giza eskubideen garapenerako tresna politikoa izan zen arren, gerrak jarraitu egin zuen paramilitarismoaren hedatze handiarekin eta gatazkaren historiako bi talde matxinatu antzinakoenekin, FARC eta ELN. 1990 eta 2000ko hamarkadan milioika biktima izan ziren.

2006an talde paramilitarrekiko negoziazio-prozesua hasi zen, eztabaida eta polemika gogorreko negoziazioa izan zen, eta haren kontrako mobilizazioak eta biktimen erakunde askoren aldetiko arbuioa nabarmenak izan ziren. Arbuio

---

13 Armadaren, paramilitarismoaren eta narkotrafikoaren artean, disidentek eta oposizioko taldeetako kideak erailteko ekintza-aliantza beldurgarria izendatzeko hitza.

horren funtsa talde paramilitarrei izaera politikoa eman izana, herritarren aurka eragindako krimenetan parte hartu zuten Estatuko estamentuen zigorgabetasuna eta egia, justizia eta erreparaziorik gabe eta biktimak aintzat hartu gabe, zigor-aukera bat eskaini izana izan ziren. Paramilitarrei jarri zitzaizen baldintza bakarra izan zen Justizia eta Bakerako 975 Legeari men egin eta egia esatea; hau da, gertatu zenaren haien bertsioa, entzunaldi libreetan, zigor mugatuaren truke.

Egitura paramilitar batzuk mailaren batean desegin ziren arren, balorazio orokorra da prozesu horren ezaugarri komuna zigorgabetasuna izan zela. 975 Legeak gabeziak zituen jatorrian eta ezinezkoa zen krimen larriak eta giza eskubideen urraketak behar bezala ikertzea eta prozesatuak kontatzen zuena benetan gertatu zenarekin alderatzea. Gabezia horien adibide bat da milatik gora paramilitar postulatuetatik eta desmobilizaturiko 35.000 paramilitar ingurutik 14 zigor-epai soilik egon zirela.

Emakumeen mugimenduak ere hainbat kontraesan izan zituen prozesuari nola aurre egin erabakitzeke; erakunde batzuek emakume biktimek egiaren parte bat ezagutzeko aukera gisa ikusten zuten, eta beste batzuek, aldiz, prozesuak ekarriko zuen zigorgabetasuna aurreikusten zuten. Eztabaidatik harago, erakunde guztiek jarraitu zuten berrarmatzea eta emakumeen aurkako delituen –berezi indarkeria sexualekoen– aurrean egirik ez agertzea salatzen. Prozesu horretan zehar, erakundeek ekintzak honako hauek izan ziren:

- Paramilitarrek eragindako hainbat delituen –sexu-indarkeria, desplazamendua, desjabetzea, senitartekoen erailketa eta desagertzea, besteak beste– biktima izandako emakumeei laguntzea.
- Paramilitar postulatuen aurkako epaiketak; Bakearen aldeko Emakumeen Ekimena Aliantzak (IMP) egindako lana nabarmentzen da; buruzagi paramilitarren aurkako sexu-indarkeriagatiko epai-prozesuei eutsi die, eta epai bat lortu dute. Prozesuak zabalik iraunarazten ditu indarkeriaren erantzuleei Justizia eta Bakearen Legeen onurak kentzeko.
- Emakumeen aurka eragindako krimenen salaketa iraunkorra eta Fiskaltzaren aurrean eragitea paramilitar postulatuen aurkako prozesuetan genero-ikuspegia erabiltzeko.
- Gertaera larrietan, sarraski eta lurraldea kontrolatzeko ekintzetan, besteak beste, emakumeen aurkako indarkeria kasuak ikertzea.
- Biktima diren emakumeentzako laguntza psikosozial eta juridikoa.
- Emakumeen antolamendua eta protagonismo sozial eta politikoa pizteko antolamendu-aholkularitza.

#### **4. Ruta Pacífica de las Mujeres-en esperientzia: emakume biktimentzako justiziadun bakearen aldeko mugimendu nazionala**

*“Bidean, malkoen gatz guztia jaso genuen, gure zalantzen indarrak eragindako pozak elikatu gintuen. Isiltasunen atzean ezkututzen diren basakeriak agerrarazi genituen: emakume desplazatuak, alargunak, umezurtzak, bakarrik, okerreko lagunekin. Gure, emakume solidarioen elkertasun eta maitasunezko xingolek elkarri lotuta sentitzen gara”.*

Ruta Pacífica de las Mujeres, 1996<sup>14</sup>.

Ruta Pacífica de las Mujeres 1996an, gatazka armaturako irtenbide negoziatua errebindikatzeko eta emakumeak bereziki eta biztanle zibilak oro har larriki ukitzen zituen intentsitate handiko gerraren aurreko erantzun gisa sortu zen mugimendu soziala da. Bultzatzaile izan ziren erakundeek azaldu zuten bake egonkor eta iraunkorra lortzeko bide bakarra bake-ituna eragin eta herrialdean beharrezkoak diren aldaketak eta erreformak eragiteko gai izango zen bide negoziatua zela.

Mugimendu horren sorburuan egon ziren analisisien artean zegoen emakumeak protagonistak direlako eta emakumeen zapalkuntza aldaraztea ekarriko zuten jardun politiko, sozial eta teorikoak sustatu behar zituztelako uste sendoa.

Ruta Pacificaren jatorria gatazkek bereziki kaltetutako inguru batera egin zen mobilizazioa izan zen: Uraba Antioquia, hainbat eragile armatuk lehian zuten eskualdea. Han gertatu ziren lehenengo sarraskiak eta biztanleen desplazamendu masiboak, non emakumeek, seme-alabekin, baldintza material eta subjektibo oso zailei egin behar izan zieten aurre. Gertaera horiek emakume horiekiko elkertasuna eragin zuten, bai eta gatazka armatuak irauten zuen bitartean haien egoeraren berri jakin nahi izatea ere.

Testuinguru horretan, sexu-indarkeria eta nahitaezko desplazamenduak funtsezkoak zian ziren RPMren sorreran. Antioquiako Barrutiko Gobernazioaren datuen arabera, gune hartako herrixka bateko emakumeen %70 bortxatuak izan ziren; eta gainera, desplazamenduak haien eskubideen

---

14 Gatazkek ebazteko Kolonbiako Ruta Pacífica de las Mujeresen fundazio-adierazpena.

urraketa maila handitu zuen faktorea izan ziren. RPMk argi utzi zuen hasieratik gerraren eta indarkeriaren kontra zegoela, emakumeen bizitzan eta gorputzean eragin larriak dituztenak.

Ruta Pacifica nazio mailan eraiki zen, eta lurraldeetatik gauzatzen joan da; gerra biztanleekin –eta emakumeekin neurri gabe- bereziki ankerra izan den herrialdeko erregioetan antolakuntza indartu du. Oinarrizko mugimendua da, gatazka armatua gehien sufritzen duten emakumeekin lan egiten du, urrakortasunak haien egoera larritzen duelako, eta askotarikoa da, gerraren kontra dauden askotariko emakumeak hartzen dituelako barnean. Mugimenduaren subjektu soziala emakume antolatuak eta haien aberastasunaren aniztasuna dira; adin eta lanbide askotako emakumeek hartzen dute parte, etxeoandreak, nekazariak, beltzak, indigenak, akademikoak, artistak, lesbianak eta, orokorrean, emakume xumeak, Ruta Pacificaren benetako protagonistak eta ekintza politikoaren hartzaileak direnak.

Hasierako proposamenaren beste elementu nagusi bat izan zen gatazka armatuak emakumeen bizitzan eta gorputzean dituen eragin larriak ikusaraztea ikuspegi antimilitarista eta feministatik; gerran ikusten ez den egunerokotasun bat gailentzen da, emakumeen kontrako indarkeriak ezkututzen eta normalizatzen dituen eta, gatazka larriagotzen den hein berean, indarkeria horiek ere narriatu eta gaizkiagotu egiten dira.

Horrela bada, Ruta Pacificak gerraren eta emakumeen kontrako indarkeriek errotiko planteamendua egiten du, mundu politiko eta publikoa mundu pribatuarekin lotuz. Horretatik abiatuta, gatazka armatuaren ebazpen negoziatua ez ezik, itun sozial eta sexual berria eraikitzea ere proposatzen du; non emakumeek bakeaz gozatuko duten eta ordena demokratiko, sozial, politiko eta ingurumeneko berria eraikiko den.

Ruta Pacificak mugimendu feministatzat du bere burua, emakumeen 300 erakunde osatua, eta sozial eta politikoki herrialdeko 142 herrietan jarduten duena. Bakezalea, antimilitarista eta indarkeriarik ezan oinarrituriko etikaren eraikitzailea da, non justizia, bakea, ekitatea, autonomia, askatasuna eta bestetasuna onartzea funtsezko printzipioak diren.

#### **4.1. Oinarri teorikoak**

Ruta Pacifica feminismoaren eta bakezaletasunaren, indarkeriarik ezaren eta antimilitarismoaren garapen teorikoetan oinarritzen da, eta egia, justizia

eta erreparazioarako eskubidea eta errepikatuko ez delako bermea jasotzen ditu gatazka armatuaren irtenbide negoziatu baterako funtsezko elementu gisa.

Feminismoari dagokionez, Rutak hainbat alderdi hartzen ditu kontuan, hau da, feminismoaren ikuspegi eklektiko batean berresten da. Jardun politikoaren ardatza da “behetik hasitako” feminismoa, hau da, hirietako emakume, nekazari, indigena eta beltzekiko lana, alegia, eta haien pertzepzio eta esperientziak mugimendu eraldatzaile baten eraikuntzako atalik garrantzitsuen gisa. Kultura eraikitzen duen feminismoa ere bada, gizarte eta kultura menderatzaileekin kritikoa dena, bestelako lengoia eta arauak berrasmatzeko gaitasuna duena, eta gizonen eta emakumeen arteko harremanak eraldatzen dituena.

Bakeranzko jardun politikoan, Ruta Pacificak emakumeen identitateak, subjektibotasunak eta autonomiak abiapuntu hartuta egiten du lan. Norbanakoen identitate eta identitate sozial askotarikoak dira, eraikuntza konplexukoak eta klase, etnia eta sexu-orientazioaren mende daudenak. Emakumeen gorputza eta bizimodua dira ardatza, eta testuinguru eta ezagutza konplexu eta kokatuetatik egiten da lan (Haraway, 1997: 319-320), eta emakumeek identitate desberdin horiek denak barneratzen dituzte, ez dute erreibindikazio bat eta bakar bat. Ruta Pacificak kultura berria eskaintzen dio eraikuntza feministari, pribatutik politiko/publikora doana, etxetik plazara.

Bakezaletasunari, indarkeriarik ezari eta antimilitarismoari dagokienez, RPMk bat egiten du gerraren definizio feministarekin, hots, gerra da kultura patriarkaleko jardunik grotesko eta amorratuena, gupidarik gabeko jarduna, bestea mendean hartzeko eta ukatzeko erabiltzen dena eta modu eta adierazpide guztietako indarkeriarekin gauzatzen dena (sexu-indarkeria, tortura, erailketa, bahiketa, besteak beste). Gerrak, Estatuak herri edo lurralde bat mendean hartzeko modu gisa, edo lehian dauden hainbat eragileren arteko gatazka gisa, beti eragiten dio armarik gabeko biztanleriari.

Kolonbiako gatazkan, militarismoak eta militarizazioak erkidegoak eta emakumeak menderatzea du sostengu. Militarizazio handiko testuinguruetan, eragile armatuek okupatuta dituzten lurraldeetan bizi direnei ezartzen dizkieten diziplina eta portaera kodeen hartzaileak eta erreproduzitzaileak dira emakumeak – egoerak eragiten duen izuagatik– eta testuinguru horietan, areagotu eta gaizkiagotu egiten da emakumeen aurkako indarkeria. Zenbat eta handiago izan militarizazioa, orduan eta handiagoak dira emakumeen kontrako indarkeria pribatu eta publikoak, eta handiagoa da horiek gauzatzeko zigorgabetasuna.



Gerra eta indarkeria desegituratzeko, fisikoki, etikoki eta moralki deslegitimizatu eta desegituratuko dituen metodologiak eta proposamen politiko eta sozialak behar dira. Proposamen horien artean daude bakezaletasuna eta indarkeriarik eza, fusilak isilaraztea ez ezik, kulturen, giza harremanetan eta gizakion eta naturaren arteko harremanean sakon eragitea helburu dutenak.

Egia, justizia, erreparazioa eta berriro gertatuko ez delako bermeei dagokienez, Ruta Pacíficak nazioarteko zigorgabetasunaren aurkako estandarrak hartu ditu bilaketa politikoaren parte gisa, biktimen eskubideak emakume biktimen eskubideak ere izan daitezzen lortzeko. Helburu horretara bideratzen ditu mobilizazio, salaketa eta dokumentazio ekintza guztiak, eta proposamen politiko eta estetikoak; ulertzen duelako eskubide horiek funtsezko tresna direla emakumeen aurkako krimenen zigorgabetasunaren kontra jarduteko, aurrerago ikusiko dugun bezala.

## 4.2. Ekintza-estrategiak

Ruta Pacíficak lan egiten du emakumeak ez daitezzen gerra biktima gisa ikusi eta ez adierazi, eragile sozial eta politiko egoki gisa bezala baizik, egia, justizia eta erreparazioko agendarako eta prozesurako, negoziatorako eta Kolonbiako gatazka-osteko bake-erakuntzarako. Horretarako, hona hemen estrategia batzuk:

- Bakea eraikitzeko, emakumeen antolakuntza indartzea. Erakundeak funtsezkoak dira emakumeak aitzindari izan daitezzen; horien bidez lortzen dituzte helburuak, eragiten dute eta identitateak indartzen dituzte. Ruta Pacíficak eraikuntza behetik gora izan dadin sustatzen du, eta mugimendu horizontala denez, dinamismo eta sormen handiagorekin jardun dezake.
- Bakerako hezkuntza, emakumeek gatazkak aldatzeko dituzten gaitasunak eta eskumenak indartzeko, eztabaida politiko eta publikoko subjektu gisa gaitzen dituzten baldintzak sortzeko eta norbanakoaren nahiz taldearen subjektibotasuna eta identitatea lantzeko.
- Tokiko eta nazioeko agintariekin eta Kolonbiako gizarte zibileko eta nazioarteko erkidegoko erakundeekin aliantzak eta eragin politikoa. Ruta Pacíficak hiru sare eta aliantza finkatu ditu gizarte zibilean: gobernuko, hezkuntzako eta enpresa alorreko erakundeen presentzia publikoa lortu du; Bake Akordioetarako negoziazio-mahaian egon da; jende askorengana

iritsi da ikerketei eta metodologiei esker, eta horrek mugimendua eraikitzen lagundu du, eta prozesu horretan, etengabeko mobilizazioak ikusgarritasun handiagoa eman die proposamenei eta emakumeak ardatz bihurtu ditu. Finean, RPM aintzat hartutako eragilea izatea lortu du bake prozesuan izandako eginkizunagatik.

- Ruta Pacíficak partaide dituen erregioko erakundeekin eta erakundeetatik eraikitako bake-agenda dauka, eta hor, lurralde desberdinetan dituzten tokiko ikuspegi eta beharrianak mahai gaineratu dituzte emakumeek. Horren ildoan, Ruta eragiteko iparrorratza izan da.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean, Rutak indarkerien *continuumaren* ikuspegitik egin du lan, eguneroko kulturaren ezarritak dauden eta emakumeen bizimoduko espazio guztietan normalizatuta dauden indarkeria-jardun pribatu eta publiko guztiei erantzunez, jardun horiek, gatazka armatuaren testuinguruan, are bortitzagoak direla kontuan hartuta, gainera.

### 4.3. Emakumeen Egiaren Batzordea: ekintza bat bakearen alde, zigorgabetasunaren aurka eta emakumeen eskubideen alde

*“Nire ustez, historiaren berri jakin behar da errepika ez dadin, bat-batean, ematen ari naizen guztia hurrengo belaunaldiek proposamen hobeak izan ditzaten ematen dut, guk sufritu genuen beste sufri ez dezaten”*

(Popayan, Cauca, 1980, Ruta Pacífica de las Mujeresen aipatua, 2013b: 17)<sup>15</sup>.

#### 4.3.1. Ekimenaren jatorria eta jarraitutako prozesua

Aurreko orrialdeetan azaldu dugun bezala, Ruta Pacificaren helburuetako bat da gatazka armatuak emakumeen bizimoduan dituen ondorioak ikusaraztea eta salatzea. Egiaren Batzordea urte askoan landutako ahalegin horren emaitzaren parte bat da. *Emakumeen Egia. Kolonbiako gatazka armatuaren biktimak* txostenean jaso zen ikerketa-ekintza, herrialdeko talde armatu

---

15 Honako hau eta hurrengo orrietan jasotzen diren gainerako testigantzak Ruta Pacífica de las Mujeres erakundearen hainbat argitalpenetatik jaso dira: *La Verdad de las Mujeres* txostena. *Victimas del conflicto armado en Colombia* (2013, I eta II liburukiak), Emakumeen Egiaren Batzordeak erabilitako metodologia deskribatzen duen liburuan, *Memoria para la Vida* (2013), eta *El Camino de vuelta de la memoria* (2015) Batzordearen emaitzak testigantzak eman dituzten emakumeei itzultzea azaltzen duen liburuan.

ekintzen ondorioz eurei eta euren senitartekoei gertatu zitzaienari buruzko egiaren bila, emakumeei laguntzeko sortu zen prozesua izan zen. Ikerketa hori emakumeek, euren gorputzean eta bizitzako dimentsio guztietan, eta gerran bizirik irautea lortu duten aldetik, bizi izandako basakeriak eta sufrimendua agerrarazteko aukera izan zen.

Hiru urtez, laguntza eskaini zitzaien Justizia eta Bakerako Legeak gaitutako prozesuan parte hartzea erabaki zuten emakumeei; entzunaldi publikoetan talde paramilitarretako kideek kontatuko zuten egia jakin nahi zuten, horri esker haiek onura juridikoak lortuko zituzten eta (975 Legean aurreikusten den zigorra 5-8 urte artekoa da). Egia hori borondatezkoa da eta auzitegietan bertsio askekotzat hartzen da; hau da, zeinek bere egia kontatuko zuela onartzen zen; eta ondorioz lortu zen haien aldetik gertatutakoa nolabait justifikatu egin zutela, eta biktimentzat berriro biktimizatzeko modua izan zen. Trantsiziozko justiziaren gabeziak agerian utzi zituen prozesua izan zen, ez zituen biktimak lehenetsi, aitzitik, kaltegileei eman zizkien abantaila guztiak.

Emakumeei hiru alderditan eskaini zitzaien laguntza: formazio-informazioa, psikosoziala eta juridikoa. Prozesu horretan protagonista izan ziren emakumeek egiaren batzordea sortzea proposatu zuten haien ondorioetan, eta Ruta Pacificari eskatu zioten berak gauzatzeko, eta hortik sortu zen hemen aurkeztu dugun ekimena.

Egiaren Batzordea osatzeko proposamena mugimenduak egin zuen berriro eta erabaki, Ruta Pacificaren antolakuntza-oinarrian landutako erabaki kolektiboa izan zen. Izan ere, esperientzia horren aberastasuna prozesu kolektiboa izatean datza, hasieratik bukaerara behar bezala zaindu zena. Era berean, Rutak, emakumeen mugimendua denez, proiektuak helburuak lor zitzan beharrezko esperientzia eta konfiantzako sareak zituen (Martín Beristain *et al.*, 2015). Hain zuzen, gatazka armatuaren biktima diren Emakumeen Egiaren Batzordea (aurrerantzean, EEB) oraindik hasi gabe zegoen bake-prozesuari eta zigorgabetasuna gainditzeko ekarpena egitea hartu zuen ardatz. Gainera, asmoa zen gatazkaren ondorio gisa emakumeek bizi zuten egoeraren lekukotza historikoa uztea, herrialde horretako memoria eta egiarako beharrezkoa den lekukotza, gure iritziz. Irtenbidea negoziatua izan zein izan ez, emakumeek euren kontakizunak utziko zituzten, gerraren erdian bizi izan duten egunerokotasun lazarriaren berri emateko.

Egiaren Batzordean, emakumeen giza eskubideen urraketan 1.000tik gora testigantza eta 9 kasu kolektibo jaso ziren, hiru urte iraun zuen prozesuan (2010-2013). Testigantza horiek Ruta antolatuta zegoen eskualdeetan jaso ziren, eta

Kolonbiako 22 barrutitako eta 80tik gora udalerritako emakumeengana iristea lortu zen.

Giza eskubideen urraketa larrien biktima izan diren eta barneko gerrako testuinguru historikoan bizirik iraun duten emakume talde handi batek lehenengo pertsonan kontatutako esperientziak dira (Ruta Pacífica de las Mujeres, 2013). Amaierako txostenak bi liburuki hartzen ditu, eta bertan, emakumeei gertatutakoak, eraginak, aurre egiteko eta erresistitzeko moduak, eta egia, justizia eta erreparazio eskaerak jasotzen dira. Txostena 2013an aurkeztu zen, eta lurraldeetara 2014an eraman zuten, testigantza eskaini zuten emakumeei behar bezala itzultzeko.

Egiaren Batzordean parte hartu zuten emakumeek eragin handia pairatu zuten euren bizimodu pribatu eta sozialean, bai eta osasun fisiko eta mentalean ere. Oinazeari eta sufrimenduari aurre nola egin zieten kontatu zuten, ez baitziren sufrimenduan lotuta geratu; aitzitik, euren bizimoduari heldu zioten, antolatuta, beste emakume batzuei laguntzen eta senitartekoak eta maite zituztenak bilatzen. Era berean, euren iritziz konponezina denaren aurrean, erreparazioa zer den kontatu zuten, eta duinduta eta aintzat hartuta nola sentituko ziren irudikatzen dute. Emakume bakoitzak lauzpabost gertaera biktimizatzaile pairatu zituen; besteak beste, elkarrizketatutakoen %13,2k sexu-indarkeria pairatu zuen gatazka armatuaren testuinguruan; emakumeen %15ek sexu-indarkeria pairatu zuen bizitzan zehar, eta %76 desplazatzera behartu zituzten. Horren ildotik, txostenean barneko gerran emakumeen kontra eragindako indarkeria-ereduak islatzen dira, eta elkar gurutzatzen eta emakumeen bizitza suntsitzen duten indarkerien *continuuma* erakusten du.

#### 4.3.2. Hartutako ikuspegiak

Ruta Pacificak ikerketa horretan erabilitako metodologia sistematizatu zuen eta *Memoria para la vida* (2013) izenburuarekin argitaratu zuen. Liburu horretan jasotzen den bezala, “emakumeen mugimenduekin eta biktimekin eurekin lan egiteko prozesu baten oinarritutako ikerketa-metodologia erabili zen, emakumeen historiak eta esperientziak jaso ziren, egia eta memoria eraikitzeko pertzepzio eta ekarpenekin, horrela, herrialderako bakea eta adiskidetzera lortzen laguntzeko”. Lan hori egiteko, prozesua gidatu zuten hainbat ikuspuntu egokituta egin zen, jarraian azalduko dugun bezala.

Lanak *ikuspegi feminista* hartu zuen hainbat zentzutan. Emakumeak hartu zituen ardatz, haien narratibak, haien subjektibotasuna, gertaerak nola bizi izan zituzten eragiten duena. Kontaketa haien ahotik egin zen, emakumeak

ezagutuak eta lagunduak sentitzeko, eta haien ahotsa entzuna izateko. Narrazioak haien interpretazioan eta subjektibotasunean oinarrituta jasotzeko ahalegina egin zen, gerra hainbat modutan adierazten den testuingurua dela kontuan hartuta. Ikuspegi horretatik, ulertzen da gatazka armatuan emakumeen kontra eragiten den indarkeria ez dela gerraren ondorio edo albo-kaltea, indarkeria hori eguneroko bizimoduan naturalizatzean oinarri duen fenomeno baizik, gatazka armatuko testuinguruan larriagotu egiten diren emakumeen mendekotasun eta diskriminazioko egiturazko baldintza eta baldintza historikoetan irauten duen eta ahalbidetzen duen gizarte baten barruan. Aldi berean, ikuspegi horretatik emakumeen protagonismoa berreskuratzen eta bultzatzen da, proiektu etiko, askatzaile eta humanista baten parte den aldetik.

*“Uste dut bi alderdi daudela kontakizunetan ikuspegi feminista biltzen dutenak. Batek indarkerien continuumarekin zerikusia dauka, gogor berresten delako. Hipotesi bat izatetik egiaztapena, errealitatea izatera aldatzen da. Eta bigarren elementuak emakumeen gorputzetan ageri diren markekin du zerikusia. Elkarrizketa guztietan, edo nik irakurri nituenetan, emakumeen markak, gaixotasuna, eragin fisikoa agertzen dira. Feminismoaren lupa da egiaztatzea indarkeriaren gaia bai erabat izugarria dela, eta emakumeen gorputza dela indarkeria horien hartzailea” (Cauca, C., Ruta Pacifica de las Mujeres et al.-en, aipatua, 2013: 20).*

*Emakumeen giza eskubideen* eremuan egindako lana izan zen, eta biktimen esperientziei eman zien garrantzia. Horren ildoan, indarkeriaren azterketan aurkikuntza berriak egin ziren, bereziki eredu orokor bat aurkitu zen: talde armatuak erkidegoetako gizarte-ehuna kontrolatzeko eragiten zuten galera, indarkeria zuzena eta bizitzaren kontrola.

Lana *Ikerketa parte-hartzeko ekintza (IAP)* parametroen arabera egin zen, eta emaitza garrantzitsuak lortu ziren. Elkarrizketatutako 1.000 emakumeak ikerketaren xede izan ziren, eurek erabaki zuten testigantza ematea, prozesuan aktiboki parte hartu zuten, biktima izan ziren beste emakume batzuk bilatzen lagundu zuten, euren ekarpenak herrialdeko emakumeen erreparazio material eta sinbolikorako eragin handia izango zuela onartu zuten, eta dokumentazioa zaintzen lagundu zuten. Horri guztiari esker euren bizitzaren erreparazio eraldatzailean bidea egiten hasi ziren.

Metodologiaren beste elementu garrantzitsu bat izan zen *emakumeen bitartekaritza*. Elkarrizketatzaile jardun zutenak mugimenduaren oinarri

sozialekoak dira eta haietako batzuk, gainera, biktima ere badira. Bi subjektibotasun lotzea lortu zen, narratzen duen pertsonaren eta entzuten duen pertsonaren artekoa: narrazioaren sinesgarritasuna abiapuntu hartuta, bestearen oinazea aintzat hartuta, sentituta eta norberaren esperientzietatik, mingarriak izanik ere, ulertuta. Teoriagile batzuek, «gupidazko entzutea» deitzen diote horri (Grau, 2014).

*“Narrazioak on egiten ziela esaten zuten, euren tragedia partekatzen ari zirela sentitzen zuten, isiltasuna hausterakoan eztarrian zuten korapiloa askatzen zela. Itxaropenezko argia da haientzat”* (Bolívar, D., Ruta Pacífica de las Mujeres *et al.*-en aipatua, 2013: 19).

Kasuen dokumentazioa arreta handiarekin egin zen, emakumeak prozesuarekin berarekin ere erreparatuta senti zitezen. Haientzat, historietara berriro jotzea zauriak zabaltzea zen; hortaz, dokumentaziogileek euren esku zegoen guztia egin zuten emakumeak lagunduta senti zitezen eta, zenbait kasutan, emakume profesionalen laguntza psikosoziala eduki genuen.

*“Behin grabagailua itzali behar izan nuen, elkarrizketatuak hala eskatu zidalako. Une horretan kontatu zidan bere alaba nola bortxatzen zuten ikusi zuela, eta ez zuela ezer egin, eta negar egin zuen, asko. Elkarrizketa horrek ez zuen fitxarik izan, baina erakutsi zidan ni hemen nengoela entzuteko, osatzeko, eta beldurtu egin nintzen”* (Valle, D., Ruta Pacífica de las Mujeres *et al.*-en aipatua, 2013: 33).

Azkenik, *egia*ren batzordeen metodologia erabili zen, beste herrialde batzuetako esperientzietatik abiatuta, baina emakumeek eta emakumeentzat sortutako batzorde bat lortzeak zuen balio erantsiaren jakitun. Munduan ez dago beste halako esperientziarik, eta *egia*ren batzordeetan emakumeen egoera eta esperientzia jasotzeko ekarpen garrantzitsua da, adiskidetze eta erreparaziorako funtsezko tresna direlako.

#### **4.3.3. Testigantzak eman dituzten emakumeentzako itzulerako bidea**

Dokumentazio-prozesuan, euren testigantza eta narrazioekin jasotako historia honen itzulketa egiteko konpromisoa hartu zuen Ruta Pacíficak testigantzak eman zituzten emakume biktimekin, euren ahotsa eta esperientzia duintzeko eta aintzat hartzeko modu gisa. Hortaz, *Egia*ren Batzordea biktimgana itzuli zen, euren lurraldeetara, 400 emakume inguruk parte hartu zuen itzulketa batean, eta behar besteko arreta kontuan hartuta eta

egiaren parte bat herrialdeari eman zitzaiola sentitzea ahalbidetuko zuen tailer bidezko metodologia erabilia egin zen. “Emakumeen egia kontatze” hori aintzat hartzeko modu bat izan zen, hitz egitera ausartu izan ez balira eta egia haientzat esperientzia eraldatzailea izan zedin lortu izan ez balute, ezinezkoa izango zena, bestalde (Ruta Pacífica de las Mujeres *et al.*, 2013).

*“Harritu egiten nau eta asko pozten nau Ruta Pacíficaren lan bikain eta zehatzak; liburua irakurri nuenean nire historia aurkitu nuelako, hasieratik bukaerara. Zorionak, zein lan ederra, zer nolako pazientzia eta ematea”* (Risaralda, Martín Martín Beristain *et al.*-en aipatua, 2015: 102).

Itzulketa horretan testigantza eman izanak izandako eragina ebaluatu zen, eta Kolonbian aurrerago egiaren batzordea egiteko irakaspenak eman zituen.

#### **4.3.4. Bestelako itzulketa: hedapena eta eragin soziala**

Ruta Pacíficak *Emakumeen egia* bizirik iraunaraztea hartu zuen helburu. Horretarako, hedapen eta eraginerako estrategia bat darabil Emakumeen Egiaren Batzordeen prozesuaren, emaitzen eta egindako ekarpenen berri emateko. Lan hori bi lurraldetan egin da, hiriburuan eta nazioartean, beste erakunde batzuek ere, erakunde publikoek, akademiak eta memoria-zentroek horren berri izan dezaten. Hedapena eta eragina hainbat modutan egin da: foroak, diplomatura-katedretan, graduurreko, gradu eta graduondokoetan, ikastegietan izandako esku-hartzeak, kalean performanceak eginda, memoriaren esanahiari buruzko eskulturak jarritz, ziklo-ibilbide bat... Hau da, Rutak ekintza pedagogiko asko egin ditu herrialdean trantsizio-prozesurako giro positiboa sortzeko eta Bake Akordio sinatu berrian onartuta dagoen egiaren batzordea gauzatzeko.

Garrantzitsua da azpimarratzea, emakumeek euren egiaren jabe egin direla, eta lurraldeetan egiten diren hainbat ekintzatan protagonista direla. Esaterako, Ruta Pacíficaren laguntzarekin eta ikuspegi psikosoziala metodologian txertatuta, lau antzezlan egin dira lau barrutitan, eta horietan, aktore jardun dute testigantzak eman dituzten 100 emakume baino gehiagok. Artelan horren bidez, gertaerak, eraginak eta nola aurre egin berregiten dituzte, eta gerrarik gabeko eta indarkeriak –berezik emakumeen aurkakoak– desagerraraziko dituen herrialde libre batean itxaropena agerraraziz. Obra horiek antzokietan, ikastegietan, unibertsitateetan eta beste hainbat erakunderen aurrean antzeztu dira.

Bestalde, horma-irudiak margotu dituzte emakumeen oroigarri gisa herrialdeko hainbat hiritan, testigantzak eta kasu kolektiboak gaitzat hartuta. Era beran, giza eskubideen urraketa larrien historiaz beteta dauden tokietan sendatze-ekintzak egin dira, “memoria tokikotzeko” ekintzen barruan. Gainera, irratsaioak ere egin dira, “1.000 voces” izenekoak; emakumeak testigantzak ematen ari ziren uneko ahotsen atalak jasotzen dituztenak. Atal horiek erkidegoko irratiek ematen dituzte lurralde sakonetara ere hel daitezen. Hedapena eta eragin soziala lortzeko, telebista-kate batek 25 kapituluko telenobela bat egin zuen Emakumeen Egiaren Txostenean jasotzen den edukia berregiten duena, *El sol sale para todas*<sup>16</sup> izenekoak; eta horrek erakusten du lan horrek eta lan hori aintzat hartzeak zer nolako garrantzia duen herrialdearentzat.

Emakumeen egari buruzko ekintza horiek guztiak trantsiziozko justizia prozesurako eta hurrengo urteetan egiaren batzordea sortzeko neurtu ezinezko ekarpena dira. Geratzeko eta historiaren parte izateko iritsi zen egia utzi dute emakumeek.

#### 4.3.5. Irakaspenak eta lorpenak

Emakumeen Egiaren Batzordea egiteko prozesutik honako irakaspen eta lorpen hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Emakumeek eta emakumeentzat pentsatutako metodologia prestatzea, gerra zalantzan jarri eta emakumeen esperientziak –sufimenduak nahiz horri aurre egiteko moduak, hots, indarkeriak eragindako oinazea eta kalteak gainditzeko bilaketak– agerian utzi zituen ikerketa batean.
- Halako ikerlan batek behar zuen arreta guztiarekin egin zen prozesua, bai testigantzak eman zituzten emakumeei bai barneko antolamenduari dagokionez, jakitun ginelako hori zela lan honen indarguneetako bat.

*“Elkarrizketetan amorrua, beldurra ikusten zen, eta nik ahalegina egiten nuen niri ez eragiteko, eta niri ez egokitzea pentsatzen nuen bitartean, mekanizatu egiten nuen. Amaitzen nuenean, gaizki sentitzen nintzen ez nuelako horrek nigan eragitea uzten. Denborarekin askatzen joan nintzen, eta ukitu egiten nituen, eskuzkatu. Azkenean, negar guztia azkeneko hiru*

---

16 Telenobela hau hemen ikus daiteke: <<http://www.canaluno.com.co/programa/el-sol-sale-para-todas>>.



*testigantzetan atera zitzaidan (negarrez dio)” (Ruta Pacifica de las Mujeres et al.-en aipatua, 2013: 94).*

- Batzordea gatazka armatu betean egin zen; hortaz, haren bideragarritasuna prozesuaren beraren araberakoa eta Ruta Pacificaren antolamenduehunaren araberakoa zen. Gatazka ez zen amaitu, eta herritarrak eta lurraldea kontrolatzeko estrategiek indarrean segitzen zuten, eta segitzen dute gaur egun oraindik.
- Giza eskubideen eta memoria kolektiboaren ikerketa-lana izan zen, emakumeen protagonismoa ardatz zuena; hau da, emakumeei eurei gertatutakoa hartu zuena garrantzizkotzat. Banakako elkarrizketen bidez gerrak emakumeen multzo handi batengan eragindako ondorioak azaleratu ahal izan ziren.
- Emakumeen bizimodurako prozesu positiboa izan zen, eta eurek erreparazioaren parte gisa sentitzen dute, herrialdearentzako eta belaunaldi berrientzako ekarpen gisa.

*“Hori garrantzitsua izan zen. Nire barruan bilduta zegoen oinaze horretarako leungarria. Oso garrantzitsua izan zen niretzat emakumeek gertatutakoaren egia jakinarazten laguntzea, argitara irten ez den egia baita. Hitz egitera ausartzen ez diren emakume horiek beldurra galdu eta hitz egiten hasi daitezen laguntzeko balio dezala” (Santander, Martin Beristain et al.-en aipatua 2015: 110).*

- Lan horren garrantzia hainbat sariren bidez aintzatetsia izan da: Kolonbiako Bakearen Sari Nazionala eta Alemaniako Friedrich Ebert Stiftung Fundazioaren Giza Eskubideen 2016 Saria.

#### **4.4. Gobernuaren eta FARCen arteko negoziazio mahaiaren eragitea: aukera berriak markatzen dituen mugarrria**

Kolonbiako gerra-urte luze horiek gainditzeko funtsezko elementua da gatazka armatuaren negoziazioa, irtenbide negoziatua, hasieratik Ruta Pacificaren oinarrietako atal dena. Azkeneko lau urteetan, 2012tik 2016ra, Gobernuaren eta FARCen –herrialdeko erakunde matxinatu handiena– arteko Bake Akordio bat lortu da.

Ruta Pacífica de las Mujeresen metatutakoarekin eta esperientziarekin, lortu da emakumeen eskubideak eta genero-ikuspegia akordio horretan txertatzea. Emakumeen plataformen arteko aliantza sendo baten bultzadari esker lortu zen, Cumbre de Mujeres y Paz<sup>17</sup> izeneko. Habanan adostutako negoziazio-mahaiari eta bake-agendari egindako ekarpenak honela labur daitezke:

- Gobernuaren aldetik, negoziazorako emakumeak izendatzeko eragina.
- Negoziatio-mahaiaren erabakia 2014an Genero Azpibatzerdea sortzeko, hitzartuta zeuden akordioaren lehenengo hiru puntuak ikuskatzeko eta falta ziren agendako gainerako puntuetarako ekarpenak egiteko.
- Genero-ikuspegia txertatzea, bereziki azpimarratuz biktimei buruzko akordioan emakumeen kontrako indarkeriak, bai Egia Argitzeko Batzordeari dagokionez, bai Bakerako eta erreparazio neurrietarako Auzitegi Bereziari dagokionez.
- Emakumeak bake eraikitzaile gisa duten egitekoaren eta lurraldeetan haien antolamendu-ehunak duen garrantziaren soslaiak nabarmentzea.
- Akordioa ezartzeko sortutako instantzietan eragiten jarraitzen dute, batez ere bertan onartutako Egiaren Batzordean ekarpenak egiteko.
- Herrialdeko emakumeen mugimenduarekin aliantzan, negoziatio-prozesu batean lehenengoz lortu da bake-akordioak emakumeen eta LGTB biztanleen eskubideak jasotzea<sup>18</sup>. Lorpen horiek ahulak dira oraindik, eta eutsi ahal izateko, emakumeen mobilizazioaren premia dago oraindik.

---

17 Emakumeen eta Bakearen aldeko Goi Bilera bederatzi plataformak eta izaera nazionalako emakumeen milatik gora erakundek osatzen dute, eta hamarkada asko eman dituzte lanean gatazka armatuari irtenbide negoziatua emateko. Horren kide dira: Bakearen aldeko Emakumeen Ekimen Aliantza (IMP), Emakumearen Etxea, 1325 Koalizioa, Emakumeak, Bakea eta Segurtasuna Pentsamendu eta Ekintza Kolektiboa, Erakunde Afrokolonbiarren Nazio Konferentzia, Kolonbiako Emakume nekazari, beltz eta indigenen Nazio Elkarte (ANMUCIC), Bakearen aldeko Emakumeak, Emakumeen Sare Nazionala eta Ruta Pacífica de las Mujeres.

18 Bake-akordioari buruzko plebiszituaren “ezetzaren” alde zeuden pertsonen artean, argudioetako bat zen bertan “genero-ideologia” agertzen zela. Argudio horren aurrean, plebiszituaren ondoren akordioa berrikusi zenean, emakumeen mugimenduak mugak jarri zizkion emakumeen eta LGTB pertsonen eskubideei kalte egin zieziaieketen edukien moldaketei.

## 4.5. Herrialdean bakea eta justizia lortzeko bestelako ekintza batzuk

*“Ahalegin berezia egiten dute nagusien, estatuen, gobernuen zapalkuntzaren mendean hiltzen ari diren emakumeen agoniazko isiltasuna senti ez dezagun, eta gauez, desagertuen bila trostan doan oihua entzun ez dezagun, eta soldaduekeuren burua jasaten ez duelako elkar hiltzen doazenarmaden hileta-martxa senti ez dezagun”.*

Martha Cecilia Velez, 2004.

Irtenbide negoziatuaren bilaketa etengabea, hainbat ekintza bultzatu dira emakumeen esperientzia eta protagonismoa biltzea eta emakume biktimak herrialdeko agendan kokatzea ahalbidetu dutenak. Jarraian, Rutak bultzatu eta beste emakumeen erakunde batzuekin eta giza eskubideen aldeko erakundeekin bat egiten duten ekintza horietako batzuk jasoko ditugu.

### 4.5.1. Zigorgabetasunaren aurkako auzitegi sinbolikoak

Ruta Pacificak bi auzitegi sinboliko gauzatu ditu emakumeen kontrako indarkeria salatzeko; lehenengoa 1999an, eta bigarrena 2007an. Auzitegi horietan testigantzak eman zituzten hainbat indarkeriaren biktimek: desplazamendua, mehatxuak, nahitaezko errekrutatzea, sexu-indarkeria eta indarkeria matxista talde armatu guztien aldetik, eta garrantzitsuak izan dira, horiei esker emakumeen kontrako indarkeriaren gaia kokatzea lortu zelako eta salaketari indarra eman zitzaiolako.

### 4.5.2. Kasuen dokumentazioa

Kasuen dokumentazioa beste emakumeen erakunde batzuekin indarrak batuz egin da, eta hainbat helburu izan ditu: esaterako, emakumeen aurkako indarkeriari eta sexu-indarkeriari buruzko Nazio Batuen Erreloretza Berezien aurrean aurkezteko, Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrari aurkezteko eta Kolonbiako Konstituzio Gorteari aurkezteko. Dokumentazio horri esker, gatazka armatuaren ondoriozko emakumeen aurkako indarkeriak ikusaraztea lortu da, eta instantzia horiek emakumeek bizi duten errealitate gordin horri buruzko txostenak egin ditzaten lagundu du (Nazio Batuak, 2003; CIDH, 2006; Kolonbiako Konstituzio Gortea, 2008).

### 4.5.3. Emakumeen babesa

Hogei urtean, Rutak emakumeak gatazka armatuaren testuinguruan babesteko estrategiak garatu ditu zigorgabetasunaren aurkako mekanismo gisa. Babes-planak dira: gaitzea, arriskuen azterketa, kasuen larritasunaren araberako zuzeneko esku-hartzea, salaketa, gobernuko eta nazioarteko instantzietan eragitea, eragile armatuentzako agiriak, pertsonak eta erkidegoak babesteko mobilizazioak eta, kasurik larrietan, herrialdetik irteteko edo herrialde barruan lekualdatzeko erraztasunak eta laguntza. Beste emakumeen erakunde batzuekin batera egindako ekintza politiko iraunkor horren ondorioz, emakumeak babesteko politika bereziak lortu dira eta kasuei arreta egiteko, gobernu nazionalako instantziak sortu dituzte.

### 4.5.4. Laguntza psikosozial eta juridikoa

Jarduteko estrategien barruan, Ruta Pacíficak, 2.000 emakume baino gehiago lagundu ditu oneratzeko psikosozialean. Laguntza hori funtsezkoa izan da duintzeko eta autoestimua eta gizarte-ehunarekiko harremana berreskuratzeko prozesu pertsonalean. Emakumeak indartu egin dira, antolatu egiten dira eta euren esperientziaren berri ematen diote gizarteari. Laguntza hori oso garrantzitsua zian da sexu-indarkeriaren kasuetan eta gatazka armatuaren ondoriozko bestelako indarkeria kasuetan emozionalki oneratzeko (Montealegre *et al.*, 2011).

### 4.5.5. Emakumeen eskubideen aldeko legeen eta politika publikoen sustapena

Emakumeen giza eskubideen urraketan zigorgabetasunaren aurkako lanean, berebizikoa da eskubide horiek babesteko dituzten lege eta politika publikoak bultzatzea. Beste erakunde batzuekin batera, Rutak emakumeen mesederako lege eta politikak bultzatu ditu, bereziki zuzenduta daudenak urrakortasun handiena duten emakumeen babesa lortzera, hau da, mota guztietako indarkeria pairatzeko arrisku handia dutenak. Hona hemen lege eta politika horietako batzuk:

- 1257 Legea, indarkeriarik gabeko bizimodu askearen aldekoa (2008). Emakumeen babesarako legea da, indarkeria pribatu eta publikoen ikerketa, zigorra eta haien aurreko babesa eskaintzen duena.
- Konstituzio Gortearen 2008ko 092 Autoa, Emakumeen aurkako indarkeriaren neurrigabeko ondorioei buruzkoa.

- Biktimen eta Lurren Itzulketarako Legea. Biktimen erreparazioarako Lege horretan, emakumeen mugimenduak genero-ikuspegia txertatzea eta emakumeei erreparazio erabatekoa eskaintzeko mekanismo zehatzak lortu zituen.
- 2012-2022 Politika Publiko Nazionalaren eragina, ahalduntze ekonomikoa, osasun integrala, hezkuntza arloetan emakumeek dituzten eskubideei garrantzia emanez, bereziki gatazka armatuaren biktima diren emakumeen kasuan. Bizitza-baldintzak hobetzeko funtsezko elementuak dira horiek.

#### **4.5.6. Emakumeen mobilizazio soziala**

Ruta Pacifica, sufragisten mugimenduaren ondoren, herrialdean emakume gehien mobilizatu duen mugimendua da. Nazio mailan 20 mobilizazio antolatu ditu, eta beste horrenbeste erregioetan, eta guztira, 100.000 emakume inguru mobilizatu dira. Ekintza horiek hainbat helbururekin egin dira, baina beti gatazka armatuari irtenbide negoziatua ematea ardatz izanik. Mobilizazioen gaiak hainbat izan dira: lurraldeetan emakumeei babes ematea, herrialdeko hainbat tokitako krisialdi humanitarioak salatzea, fumigazioen aurka agertzea, sexu-indarkeria eta emakumeen aurkako bestelako krimenak salatzea, biktimentzako egia, justizia eta erreparazioa eskatzea, negoziazio-mahaiaren alde agertzea, etab. Emakumeen mobilizazioa aintzat hartzen da, bakearen lorpena irtenbide politiko eta negoziatu batean oinarritu dutelako. Herri indigenek bezala, emakumeen mugimendua etengabe ari da mobilizazioak egiten herrialde osoan, erreibindikazio politiko nahiz sozialak eginez herrialdearen ondare bakezaleari laguntzeko.

### **5. Ondorioak**

Ondorio hauek, gomendio gisa azaldu direnak, ekarpena izan daitezke, edozein izaerako gatazka armatu izanik, emakumeen giza eskubideen urraketa larrien aurrean zigorgabetasun handia, legezko eta legez kanpoko talde armatu asko izateak sustaturiko militarismoa eta emakumeen gizarte-bazterketa eta diskriminazioa dagoen beste prozesu batzuetarako.

Zigorgabetasuna posible da emakumeen aurkako indarkeria ikusezin bihurtua delako eta gatazka armatuetan bizirik irautea lortu dutela onartzen ez zaielako; gizarte-ehunari eusten diotenak dira, harremanak berregiten dituztenak eta erresistentzian berebiziko egitekoa betetzen dutenak. Hala ere,

ez dira aintzat hartzen, eta ez zaio baliorik ematen haien protagonismoari, ez gatazketan ez gatazken ostean. Etengabeko zeregina da, oro har emakumeek bultzatuta, bakea behetik eraikitzeko bideak badirela defendatzea, onartzea, posizionatzea eta ikusaraztea.

1. Zigorgabetasunari aurre egiteko eta trantsizio-prozesuei aurre egiteko, funtsezkoa da eredu patriarkalak eta egiturazko indarkeriak kontuan hartzea, emakumeen aurkako giza eskubideen urraketak eta bestelako indarkeria moduak aztertzean.
2. Emakumeen erakundeen lanetik, sufritu zituzten kalte larriak onar daitezen bultzatzea.
3. Emakumeen erreparazioa eta babesa bultzatzea, Estatuaren eta gizartearen aurrean, emakumeen aldeko neurriak hartzeko ikuspegiaren parte gisa.
4. Erresistentzian izandako eginkizunagatik emakumeei ordaina eta onarpena eta gatazka armatuaren testuinguruan erreparazioa eskaintzea, Kolonbian, emakumeak direlako gerrak suntsituriko gizarte-ehuna berreraikitzen dutenak.
5. Legeetan aurrerapenak egitea oso garrantzitsua da; hala ere, emakumeak adi egongo diren eta legeak bete daitezen eskatuko duen gizarte zibila existitzen ez bada, legeak paper hutsean gera daitezke eta aplikazio praktikorik gabe. Hortaz, beharrezkoa da hezkuntza, emakumeek eska dezaten funtzionario publikoek legeaz jabetu eta aplikatu ditzaaten, bai eta legeei ahalik eta hedapen handiena eman diezaieten ere.
6. Prozesu jasangarriagoak lortzeko, funtsezkoa da oinarrizko antolamendu indartsua edukitzea; emakume feministak konexio organikoa eduki behar du oinarrizko erakundeekin, eta emakumeak antolamenduaren bidez eta norbanako gisa adieraz daitezen ahalbidetzeko gaitasunak eta trebetasunak sortu behar dira.
7. Mobilizazio sozial eta politikoak subjektu soziala indartzea eragiten du, eta oinarrizko erakundeen elementu eranskaria da. Ruta Pacificaren hogeituro urteko esperientzian oinarrituta, gerraren kontrako eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko mobilizazioak mugimendua bera indartu zuen agenda bat ekarri zuen.
8. Emakumeen laguntzeko prozesuetan berebiziko garrantzia dauka arreta psikosozialak. Giza eskubideen urraketek ondorio larriak

dituzte emakumeen bizimoduan eta gorputzean, bereziki haien osasun fisiko, sexual eta psikologikoan, eta erkidegoan, inguru sozialean eta familian bertan. Beharrezkoa da norbanako gisa osatzea ahalbidetuko dion laguntza, horrek bere gizarte-ehuna berreraikitzea ahalbidetuko diolako.

9. Emakumeen erakundeek gauzatutako prozesuak sistematizatu egin behar dira, gure ezagutza soziala metatzeko. Bestela, prozesu horietako ikaskuntzak, aplikatutako metodologiak eta ezagutza kudeatzeko trebetasunak galdu egiten dira.
10. Ruta Pacificak eratutako Egiaren Batzordean erabilitako metodologia antolamendu-ehuna indartzeko ikuspegiarekin hautatu zen, emakume biktimen egia indarkeria eragin dutenen egiatik oso urrun dagoela jakitun. Garrantzitsua da emakumeen mugimenduak tresna eraldatzaileak sortzea, oinarrizko erakundeak sustatzeko, eta ekintza publikoek eragin handiagoa izateaz batera, indarkeria eta etsaitasun gehiagotatik babestuta egon daitezen.
11. Ruta Pacificak egin zuen Egiaren Batzordearen plangintza, erabili beharreko metodologia eta egin beharreko urratsak kontuan hartuta. Prozesuaren ikuspegi globala oso garrantzitsua da honakoen moduko ezaugarriak dituen ikerketa-ekintza baten koherentzia eta emaitzak bermatzeko.
12. Egiaren Batzordeak egindako lanak feminismoaren agenda globalagoari laguntzen dio, gizartean txertatuta dauden eredu patriarkalak haustea helburu duelako. Finean, bakearen aldeko eta indarkeriarik gabeko kulturari ekarpena egiten dio horrek. Kolonbiako egungo testuinguru zalantzakoan, eraldaketan egin beharreko lanak, besteak beste, honako hauek dira: emakumeen egitekoa eta protagonismoa erreibindikatzeko, bultzatzen eta onartzen jarraitzea, esperientzia positiboak ikusaraztea eta eztabaidarako eta parte-hartzeko espazioak hartzea, prozesuaren ikuspegiari eta lurraldetasunaren garrantziari eutsiz.
13. Emakumeen bake-eraikitzaile direla onartzea errealitatea da, eta aipatutako zereginetan lorpen berriak erdiesteak trantsizio-prozesuan haien egitekoa ezinbestekoa izatea ekarriko du. Erronkak itzelak diren arren, oraingo Bake Akordioak bide-orria utzi du.

## Bibliografia

- Bautista, Myriam (2014): “La única mujer en la Comisión Histórica del Conflicto”, *El Tiempo*, irailaren 17an, <<http://www.eltiempo.com/politica/proceso-de-paz/maria-emma-wills-clave-en-la-comision-historicadel-conflicto-armado/14545056>>.
- Centro Nacional de Memoria Histórica (2013): *¡Basta ya! Colombia: memorias de guerra y dignidad*, Bogota, <<http://www.centrodememoriahistorica.gov.co/micrositios/informeGeneral/descargas.htm>>.
- Comisión Histórica del Conflicto y sus Víctimas (2015): *Contribución al entendimiento del conflicto armado en Colombia*, <[https://www.mesadeconversaciones.com.co/sites/default/files/Informe%20Comisi\\_n%20Hist\\_rica%20del%20Conflicto%20y%20sus%20V\\_ictimas.%20La%20Habana,%20Febrero%20de%202015.pdf](https://www.mesadeconversaciones.com.co/sites/default/files/Informe%20Comisi_n%20Hist_rica%20del%20Conflicto%20y%20sus%20V_ictimas.%20La%20Habana,%20Febrero%20de%202015.pdf)>.
- Comisión Interamericana de Derechos Humanos (2006): *Las mujeres frente a la violencia y la discriminación derivadas del conflicto armado en Colombia*, OEA/Ser.L/V/II, 67 Dokumentua, urriaren 18an, <<http://www.cidh.org/countryrep/colombiamujeres06sp/informe%20mujeres%20colombia%202006%20espanol.pdf>>.
- Congreso de la República de Colombia (2011): *Ley 1448 de 2011, por la cual se dictan medidas de atención, asistencia y reparación integral a las víctimas del conflicto armado interno y se dictan otras disposiciones*, ekainaren 10ean, <[http://www.centrodememoriahistorica.gov.co/descargas/ley\\_”Victimas/ley\\_Victimas\\_completa\\_web.pdf](http://www.centrodememoriahistorica.gov.co/descargas/ley_”Victimas/ley_Victimas_completa_web.pdf)>.
- Congreso de la República de Colombia (2005): *Ley de 975 de 2005, por la cual se dictan disposiciones para la reincorporación de miembros de grupos armados organizados al margen de la ley, que contribuyan de manera efectiva a la consecución de la paz nacional y se dictan otras disposiciones para acuerdos humanitarios*, uztailaren 25ean, <[https://www.cejil.org/sites/default/files/ley\\_975\\_de\\_2005\\_0.pdf](https://www.cejil.org/sites/default/files/ley_975_de_2005_0.pdf)>.
- Kolonbiako Konstituzio Gortea (2008): *Auto 092 referente a la Protección de los derechos fundamentales de las mujeres víctimas del desplazamiento forzado por causa del conflicto armado, en el marco de la superación del estado de cosas inconstitucional*, apirilaren 14ean.
- El Tiempo (2015): *Resumen de los ensayos presentados [por la Comisión Histórica del Conflicto Armado y sus Víctimas]*, <<http://www.eltiempo.com/contenido/politica/proceso-de-paz/ARCHIVO/ARCHIVO-15228175-0.pdf>>.



- El Tiempo (1982): *Turbay dicta polémico Estatuto de seguridad*, <<http://www.eltiempo.com/archivo/documento/MAM-4169210>>.
- FAO (2011): *El estado mundial de la agricultura y la alimentación 2010-2011*, Organización de las Naciones Unidas para la Agricultura y la Alimentación, Erroma, <<http://www.fao.org/docrep/013/i2050s/i2050s.pdf>>.
- Grau, Elena (2014): “*Saber que alguien lo escucha*. El método de la narrativa en la investigación *La verdad de las mujeres. Víctimas del conflicto armado en Colombia*”, Mendía Azkue, Irantzu et al.: *Otras formas de (re)conocer. Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista*, Hegoa Institutua (UPV/EHU) eta SIMReF, Bilbo, 147-160, <[http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/269/Otras\\_formas\\_de\\_reconocer.pdf?1488539836](http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/269/Otras_formas_de_reconocer.pdf?1488539836)>.
- Guzmán Rodríguez, Diana Esther eta Nina Chaparro González (2013): *Restitución de tierras y enfoque de género*, Centro de Estudios de Derecho, Justicia y Sociedad, Bogota.
- Haraway, Donna J. (1995): *Ciencia, Cyborgs y mujeres. La reinención de la naturaleza*, Cátedra, Madril.
- Martín Beristain, Carlos, Mazo, Clara, Echeverry, Kelly, Gallego, Marina eta Ruta Pacífica de las Mujeres (2015): *El camino de vuelta de la memoria*, Ruta Pacífica de las Mujeres, Bogota.
- Montealegre, Diana María, Bautista, Ana Jimena, Castaño, Adriana, Betancur Marín, Nidia eta Ángela María Jaramillo Burgos (2011): *Verdad, justicia y reparación. Una deuda pendiente con las mujeres víctimas de las violencias*, Ruta Pacífica de las Mujeres, Bogota, <<http://rutapacifico.org.co/descargas/publicaciones/Verdadjusticiayreparacion.pdf>>.
- Nazio Batuak (2003): *Integración de los derechos humanos de la mujer y la perspectiva de género. La violencia contra la mujer*, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren Giza Eskubideen Batzordea, 59. saio-denboraldia, urtarrilaren 6an, <<http://www.acnur.org/t3/fileadmin/Documentos/BDL/2005/3398.pdf?view=1>>.
- Portilla Benavides, Ana Cristina eta Cristián Correa (2015): *Estudio sobre la implementación de la reparación individual en Colombia*, Centro Internacional para la Justicia Transicional (CIJT), Bogota.
- Quintero, Beatriz (2005): *Las mujeres colombianas y la Asamblea Nacional Constituyente de 1991 – Participación e impactos*, Seminario Internacional

“Reformas Constitucionales y Equidad de Género, Comisión Económica para América Latina el Caribe (CEPAL), Santa Cruz de la Sierra, Bolivia, otsailaren 21etik 23ra, <[http://www.cepal.org/mujer/reuniones/Bolivia/Beatriz\\_Quintero.pdf](http://www.cepal.org/mujer/reuniones/Bolivia/Beatriz_Quintero.pdf)>.

Ruta Pacífica de las Mujeres (2013a): *La verdad de las mujeres del conflicto armado*, I eta II Liburuki, Bogota.

Ruta Pacífica de las Mujeres (2013b): *La verdad de las mujeres del conflicto armado*, I eta II Liburuki (laburpena), Bogota.

Ruta Pacífica de las Mujeres (2003): *No parimos hijos e hijas para la guerra*, Bogota.

Ruta Pacífica de las Mujeres, Afonso, Carla eta Carlos Martín Beristain (2013): *Memoria para la vida. Una Comisión de la Verdad desde las mujeres para Colombia*, Ruta Pacífica de las Mujeres eta Hegoa Institutua (UPV/EHU), Bogota eta Bilbo.

Sánchez Gómez, Olga Amparo (2003): *Las rutas del feminismo. El pacifismo y las resistencias*, Ruta Pacífica de las Mujeres.

Tobón Olarte, Gloria eta Yuli Otero (1997): *Mujeres y desplazamiento: una realidad en la ciudad de Montería*, Corporación María Cano, Montería, Cordoba.

Vélez, Martha Cecilia (2004): *Desafíos del feminismo en tiempos de guerra*, argitaratu gabeko dokumentua.

Vitale, Laura (2009): *Guía para emprender la ruta educativa: marco conceptual y pedagógico*, Ruta Pacífica de las Mujeres, Bogota.

Young, Iris Marion (2000): *La justicia y la política de la diferencia*, Cátedra, Madril.



**VI. Kapituluua.**

**Emakume aktibistak  
Mendebaldeko Sahara okupatuan**

*Irantzu Mendia Azkue eta Gloria Guzmán Orellana*



## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Azken berrogei urte baino gehiagoan, Maroko eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aurrez aurre dituen gatazkan emakume sahararrek duten parte-hartze soziopolitikoak hainbat agerbide ditu. Aztertu eta onartuena Tindufen (Aljeria) dauden iheslarien kanpamentuen antolamendua eta kudeaketa da. Ez da horren ezaguna gerrak iraun zuen bitartean emakumeek Fronte POLISARIOko borrokalari gisa izan zuten parte-hartzea; erakunde horretan hainbat erantzukizun militar eta logistiko izan zituzten eta. Hala ere, are gutxiago dakigu Espainiaren kolonizazioak iraun zuen bitartean eta, ostean, Marokok legez kanpo okupatu zuenean emakumeek izan zuten militantzia politikoari buruz.

Jakina, ezjakintasun horren arrazoietako bat Marokok herritar sahararrei pairarazten dien errepresio eta isolamendu politiko eta informatiboa da; horrek eragiten du inguru hartan bizi diren emakumeen bizi-baldintzei, aktibismoari eta giza eskubideen urraketari buruz nazioartean ia ezer ez jakitea. Horrekin batera, ezjakintasuna azaltzen duen beste arrazoi bat izan daiteke emakumeek gauzatzen duten aktibismoa sarritan “ezkutukoa” dela, egunerokotasuneko edo “etxekotzat” jotzen den espazioan gauzatua, inola ere ekarpen garrantzitsu edo «heroikotzat» balioetsi edo onartua izan gabe, kontzeptu hori ulertu ohi den terminoetan hartuta. Gizonen aktibismoak, aldiz, proiektzio eta onarpen sozial eta politiko handiagoa izan ohi du.

Hori dela eta, lurralde okupatuetakoko emakume sahararren aktibismo politikoa eta giza eskubideen defentsa aztertzen ditu lan honek. Mendebaldeko Sahararen duela gutxiko historian, lurralde okupatuetakoko emakume sahararrek hainbat modutan hartu izan dute parte gizarte eta politika arloetan, eta horiek, adin askotako milaka emakumeren eguneroko zereginak edukiz jantzi dituzte. Lan aktibista zabala, askotarikoa eta belaunaldiz belaunaldi babestua da, hari buruz eta haren garrantziari buruz dagoen ezagutzarekin bat ez datorrena.

Aldi berean, duela hamarkada askotatik hona, egunero, aurre egin behar izaten dieten giza eskubideen urraketak dokumentatzen ere lagundu nahi izan dugu, Marokoko Estatuaren indarkeriaren biktima sahararren egia, justizia eta erreparazio-eskaerak genero-ikuspegitik kontuan hartuak izan daitezen.

---

1 Kapitulu hau argitaratu berri den *En tierra ocupada. Memoria y resistencias de las mujeres en el Sáhara Occidental* egile berberen lanean oinarrituta dago, Hegoa Institutua, Bilbo, 2016.

Abiapuntu gisa, feminismoak ematen digun ulermen eta analisi kritikorako esparrua geure egiten dugu, emakume sahararrek aurre egin behar izan duten indarkeria armatu eta politikoaren eragina modu berezian lantzen eta, bertako subjektu politiko diren aldetik, bere herriaren oraintsuko historiaren interpretazioetan sakontzen laguntzen digulako.

Bigarren abiapuntu gisa, indarkeria guztiak eta emakumeen bizimodu pertsonalean, familian eta inguru sozialean dituzten ondorioak giza-eskubideen esparrutik lotzen dira lan honetan, gure iritziz ikuspegi hori ezin baita saihestu Mendebaldeko Saharako egoeraren azterketa politikoa egitean. Hala ere, jakitun gara esparru hori ez dagoela Zuzenbidearen ezaugarri orokor diren eurozentrismo eta androzentrismotik kanpo. Alde batetik, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa “baztertzailea da izatez, gizonak eta bereziki gizon borrokalariak lehenesten dituen erregimen juridikoa baita, eta sarritan, emakumea biktima mailan uzten du edo zilegitasuna ematen die soilik hauren hazkuntzarekin zerikusia daukaten zereginak betetzen dituztenean (Durham eta O’Byrne, 2010: 4-5). Beste alde batetik, Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Zuzenbideak eskubideak “pertsona guztienak” (Guillerot, 2009) direla onartu zenetik hartzen du izaera berdinkidea formalki, nahiz eta praktikan egiazta daitekeen giza eskubide horietako oso gutxi bermatzen zaizkiela baldintza berdinetan pertsona guztiei eta une oro.

Marokoko errepresioaren biktima saharar guztiek pairatzen dituzten zigorgabetasun-baldintza orokorretatik abiatuta, jakitun gara aldatu ahal izateko, estrategikoa dela emakumeek egia, justizia eta erreparaziorako eskubidea gauzatzeko unean aurre egin behar dioten zigorgabetasun-faktore gehigarriak aztertzen laguntzea.

Lan honen oinarria emakumeei taldean nahiz bakarka (bi kasu) egindako elkarrizketetan jasotako lekukotzak eta gogoetak eta bibliografian eta ikus-entzunezko iturrietan egindako analisiak dira. Lekukotza gehienak 2015eko urtarrilean, bost egunez Aaiuneko Emakumeen Etxean egindako lantaldeetan jaso ziren; Emakumeen Etxea ahalegin handiarekin eta poliziaren etengabeko mehatxupear emakumeek eurek sortutako espazioa da. Guztira, lurralde okupatueta bizi diren 40 emakumek hartu zuten parte, 20 eta 70 urte artekoak. Emakume aktibistak ziren, gehienak ere giza eskubideen urratze larrien biktimak –atxiloketa bidegabeak, desagertze behartuak, kartzela, tortura–hirurogei eta hamarreko hamarkadatik gaur egunera. Horrek esan nahi du, emakume horiek Marokoko Estatuaren indarkeriaren zuzeneko biktima gisa eman dituztela lekukotza horiek. Era berean, emakume horiek guztiak giza eskubideen urraketen biktimen senitarteko edo hurbileko pertsona ere badira.

Saio guztiak grabatu egin ziren, emakumeek hala nahi izan zutelako eta euren aktibismoaren memoria kolektiboa berreskuratzeko borondatearen adierazgarri. Saioetan erabilitako hizkuntza hassania izan zen, eta gaztelaniarako itzultzaile baten laguntza izan genuen. Badakigu itzuli behar izateak kontatutakoa zehatz-mehatz ulertzea galarazten duela hein batean. Parte hartu zuten emakumeen aurkako errepresio-testuingurua kontuan hartuta, erabaki genuen ez zela izenik aipatuko lekukotza horietan, haien egoera ez larriagotzeko. Hori dela eta, testuan, letra etzanaz eta komatxo artean agertuko dira lekukotzak, baina iturria aipatu gabe. Aldi berean, kontsultaturiko dokumentazio bibliografikoan aurretiaz aipatu izan diren lekukotza batzuk ere jaso ditugu lan honetan; halakoetan bai agertzen dira izen propioak oin oharretan, bai eta banaka egindako bi elkarrizketetatik ateratako aipamenen kasuan ere. Saioetan egindako grabazioak eta hartutako oharak dira lan hau itxuraz eta edukiz janzteko azterketarako oinarrizko materiala.

Jakitun gara sistematizazio horrek mugapenak dituela: alde batetik, lurralde okupatueta normaltasunez lan egiteko oztupoek elkarrizketa gehiago egitea eragotzi digute, bai Aaiunen bai Mendebaldeko Saharako beste hiri batzuetan; beste alde batetik, parte hartu zuten emakumeekin beste saio batzuekin lanari jarraipena ematekotan geratu ginen arren, Marokok bi aldiz eragotzi digu Mendebaldeko Saharako lurretan sartzea. Mugapen horien ondorioz, trataera lasai eta sakona behar duten indarkeria eta horren ondorioekin zerikusia duten gaiak, nahiz emakume sahararren egia, justizia eta erreparazio eskaerekin loturiko beste batzuk ere ezin izan ditugu nahi bezala garatu.

## **2. Testuinguraketa laburra**

Mendebaldeko Saharako gatazkaren testuinguru historiko eta politiko laburra egiteko, ezinbestean aipatu behar da 1976ko azaroaren 6an hasitako Ibilaldi Berdea. Ibilaldi horretan, 350.000 marokoar, zibil nahiz militar, joan ziren Mendebaldeko Saharara, Espainiako estatua bere administraziopeko kolonia izan zena ematera behartzeko Marokok erabilitako presio-neurri gisa. Egun batzuk geroago, emateko ekintza hori gauzatu egin zen 1975eko azaroaren 14an, Nazioarteko Zuzenbideari jarraikiz, legez kanpokoak diren Madrilgo Hiruko Akordioen bidez; akordio hori dela bide Espainiako estatuak Mendebaldeko Sahara utzi, eta Maroko eta Mauritaniaren artean bana zezaten ahalbidetu zuen lurraldea deskolonizatu gabe, Nazio Batuek xedatua zutenaren aurka.


Marokok lurraldea indarrez hartu izanak, herritar saharar gehienak basamorturantz ihes egin behar izatea eragin zuen lehenik eta behin, eta

ondoren, Tindufen (Aljeria) antolaturiko kanpamentuetan babes hartu behar izan zuten. Kalkuluaren arabera, biztanleen erdiak baino gehiagok hartu zuten babes kanpamentuetan, 165.000 lagunek gutxi gorabehera. Lurralde okupatueta eta Marokoren agindupean berriz, 40.000 lagun inguru geratu ziren (Hegoa eta Aranzadi, 2014).

Era berean, okupazioak gerra ekarri zuen; alde batetik, Fronte Polisarioaren eta Mauritaniaren artekoa, 1979an Mauritania erretiratu zen arte, eta beste alde batetik Fronte Polisarioaren eta Marokoren artekoa, 1991ra arte. Urte horretan, su-etena lortu zuten bi alderdiek, Nazio Batuek ikuskatuko zutena Mendebaldeko Saharako Erreferendumerako Nazio Batuen Misioaren bidez (MINURSO). Aginte horren baitan autodeterminazioari buruzko erreferenduma egingo zela bermatzea jasotzen zen arren, oraindik ez da egin. Laurogeiko urteen hasieratik, Marokok eraikitako 2.700 kilometroko luzera duen harresi militar batek sahararrak hiru lurraldetan banatzen ditu: lurralde okupatuak, lurralde liberatuak eta Tindufeko iheslarien kanpamentuak.

Gerra garaian hilketak, desagertze behartuak, torturak eta borrokan hildakoak izan ziren. Bereziki desagertze behartuak –bai eta emakumeekin ere– sistematikoki erabiliak izan ziren lurralde okupatueta eta sahararrek presentzia nabarmena zuten Marokoko hegoaldeko beste toki batzuetan. Saharako preso eta desagertuen senitartekoen AFAPREDESA (2008: 37) elkarteak zenbatutakoen arabera, 500 lagun daude desagerturik, inoiz gehiago ezer jakin gabe. Marokoko Estatuak ukatu egiten du inor desagertuta dagoenik, eta ez du haiek non dauden jakiteko inolako informaziorik ematen. Era berean, elkarte honek beste 378 lagun desagertu zenbatu zituen; horiek agertu egin ziren, ordea, Agdez, Kalaat Maguna, Shoura eta Aaiuneko kartzela sekretuetan 4 eta 16 urte artean bahituta egon ondoren. Gerra garaian atxilotu edo desagerrarazi zituzten eta Marokoko kartzelatan bizirik irautea lortu zuten pertsonak 321 izan ziren (horietatik 73 emakume) eta 1991ko su-etenen harira askatu zituzten; gainerako 57 pertsonak hil egin ziren atxilotze-gune sekretuetan, baina haien gorpuzkiak ez zaizkie inoiz senitartekoei itzuli.





Iturria: Nazio Batuak.

Maroko da Mendebaldeko Saharan etengabe eta oraindik orain gertatzen ari diren giza eskubideen urraketen erantzulea (atxiloketa bidegabeak, tortura, hilketak, adierazteko, bilerak egiteko, manifestatzeko, elkartzeko eta zirkulatzeko askatasunaren murrizketa, ekonomia, lan, gizarte eta hezkuntza alorretako diskriminazioak). Agintari politikoek Estatuko segurtasun indarren (polizia, armada eta paramilitarrez osaturiko indar osagarrien) bidez jarduten dute, eta horiek dira errepresio-tresna. Era berean, sahararren aurkako indarkeria kolono marokoar batzuen aldetik ere iritsi izan da; irain eta kolpeetatik hasi eta indarkeria armaturaino, tartean eskolako eta laneko diskriminazioa eta mediku-arreta ukatzea daudela. Estatuko segurtasun indarrek egindakoen kasuan bezala, honako kasu hauek ere ez dituzte ez ikertzen ez epaitzen; hau da, zigorgabetasun osoarekin egiten dituzte.

Marokok ez ezik, Espainiako estatuak ere zuzeneko erantzukizuna dauka gatazka honetan, nahiz eta beste izaera batekoak izan (historikoak, politikoak eta juridikoak). Erantzukizun horiek bere gain ez hartzeaz gain, Marokoren

okupaziotik hasi eta gaur egunera arte, Espainian izan diren gobernuak, ideologia zeinahi delarik ere, zirkinik ere egin gabe egon dira Mendebaldeko Saharan gertatzen den indarkeriaren aurrean. Are gehiago, Marokorekiko harremani eusteko eta etengabe hobetzen joateagatik kezka da oraindik ere Espainiako atzerri politikaren ardatz nagusia<sup>2</sup>.

### **3. Emakume sahararren giza eskubideen urraketa eta horren ondorioak**

Emakume sahararrak indarkeria mota askoren biktima izan dira Mendebaldeko Sahararen oraintsuko historian hainbat arrazoiengatik; besteak beste sahararrak direlako, Fronte Polisariokoak direlako edo badiren edo izatea leporatu izan zaien senitartekoak dituztelako, bai eta independentziaren aldeko mobilizazioetan parte hartzeagatik ere. Baina gainera, gatazka armatuko eta errepresio politikoko beste testuinguru batzuetan gertatu izan den bezala, indarkeriak genero-logika dauka; hortaz, emakume sahararrak indarkeria horren pean egon dira eta egoten jarraitzen dute emakume izate hutsagatik. Ondorioz, emakume saharar asko –oraindik ezin dugu zehaztu zenbat diren– hil dira okupazioan zehar: populazio zibila bonbardatu zutenean, basamortuan zeharreko ihesaldian edo kartzeletan. Indarkeria horretatik bizirik irten diren emakume sahararrek, ordea, ondorio fisiko eta psikologikoak dituzte, eta horietako askok haien osasunean eragin eta kalte larriak sortu dizkiete. Era berean, emakume horiek kaltea jasan dute euren bizimodu afektibo eta sexualean, familiako eta gizarteko harremanetan, bai eta ekonomiarekin, lanarekin, kulturarekin eta hezkuntzarekin zerikusia duten alderdietan ere.

---

2 Alde batetik, Marokok hainbat hertsapen-bide erabiltzen ditu Espainiako Estatuaren aurka, honako hauek bereziki: a) Ceuta eta Melillaren gaineko erreibindikazio historikoa; b) mugen kontrola eta Espainiako Estatura iritsi nahi duten Magrebeko eta Saharaz hegoaldeko herrialdeetatik datozen pertsonen gainekoa; c) “terrorismo islamikoa” deiturikoaren mehatxua kontrolatzeko Marokok beretzat hartu duen zeregina, zeina dela bide mendebaldeko potentzien lehentasunezko aliatu bihurtu den. Beste alde batetik, Espainiako Estatuaren eta Marokoren arteko konplizitatea azaltzen duen beste faktore bat da bi herrialdeen agenda ekonomikoa eta komertziala, bai Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen ustiapenerako akordioei dagokienez (batez ere, baina ez bakarrik fosfatoak eta arrantza-eremuak) bai armen salmentaren Espainiako negozioari dagokienez (Delás Ikerketa Zentroa, 2010).

### 3.1. Eskubide zibil eta politikoak

#### 3.1.1. Atxiloketa bidegabea, desagertze behartuak eta tortura

Inolako adin bereizketarik gabe, haur izan nahiz adineko izan, Mendebaldeko Sahara okupatuko emakumeek pairatu dituzte bahiketak, desagertze behartuak, atxiloketa bidegabeak, kartzelatzea, tortura, sexu-indarkeria, mehatxuak, esetsaldia, beldurraraztea, jazarpena, egoitzaren bortxatzeak, jipoiak, mugitzeko, elkartzeko, adierazteko eta manifestatzeko askatasunaren murrizketak eta abar. Indarkeria hori hainbat tokitan gauzatu da: batez ere kuarteletan eta polizia-etxeetan, kartzela eta atxiloketa-gune sekretuetan, kaleetan eta emakumeen etxeetan bertan.

Emakume saharar asko desagertze behartuen biktima izan dira atxiloketa-gune klandestinoetan eta iraupen desberdinarekin, hilabete batzuek nahiz urte asko. Kasu batzuetan behin baino gehiagotan desagerrarazi zituzten. Den denek pairatu zituzten torturak denbora horretan: gorputz osoan ostikoak eman zizkieten, buruan kolpeak konortea galdu arte, deskarga elektrikoak jarri zizkieten oinetan eta belarrietan, azazkalak erauzi zizkieten, burua urpean sartu zieten behin eta berriz itotze-atalasera heldu arte, eta abar.

*“Torturatzeko moduetako bat da: mahai estu batean lotzen gaituzte, eta lotuta zaudenean, jarlekua kentzen dizute. Erori egingo zarela iruditzen zaizu, baina ez zara erortzen. Oraindik ondorioak pairatzen ditut bizkarrean, lepoan eta sorbaldeetan. Oinetan kolpeak ematen dizkizute odoletan jarri arte, eta konortea galtzen duzunean, ur oso hotza botatzen dizute. Beste batzuetan, makila batetik zintzilik jartzen zaituzte, buruz behera...”*

*“Tortura fisikoa [sufritu genuen], umiliazioa, begiak estalita, ez dizute lorik egiten uzten, jatekorik gabe...”*

*“1980ko irailean atxilotu ninduten fosfatoen portuan, Fost Bucraa-n egiten bainuen lan. Orduan lodi samar nengoen. Eskuak atzetik lotu nahi zizkidaten eta ezin zuten, militar batek belaua bizkarrean sartu zuen eta besoak lotzea lortu zuen baina sorbalda hautsi zitzaidanean. Land Rover batean sartu ninduten, lurrean botata eta haiek hankak nire gainean zituztela... PCCMIra<sup>3</sup> eraman*

---

3 Esku-hartzeko Konpainia Mugikorren Aginte Postua. PCCMI (Aaiuneko) Espainiako armadaren antzinako kuartela zen, eta Marokoren okupazioaren lehenengo hemezortzi urteetan atxiloketa-zentro klandestino gisa erabili zuten. Atxiloketa-zentro klandestinoei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi hemen: <[http://www.hegoa.ehu.es/mapa\\_sahara/index.html](http://www.hegoa.ehu.es/mapa_sahara/index.html)

*ninduten eta han torturatu egin ninduten, ur gazi eta zikina botatzen zidaten, oinetan kolpeak eman zizkidaten konortea galdu nuen arte. Geroago, askatu egin ninduten, eta iletik tira zidaten zer gertatzen ari zen konturatu nintzen arte. Berriro ere nire kordean nengoenean, gauza berbera errepikatu zuten. Geroago ziega batean... Erdi hilik geratu nintzen arte..."*

Atxilotu eta desagerrarazitako emakumeen giza eskubideen urraketaren beste dimentsio bat da kartzelatuta egon ziren bitartean haietako batzuek lan egitera behartuta egon zirela. Emakumeetako batzuek etxeko lanak egitera behartu zituzten ahitu arte.

*"1985. urtean [kartzelan desagertu gisa nengoela], irin-zaku handi batzuk ekartzen hasi ziren eta bi emakume utzi gintuzten esanez egunean 50 kiloko bi zaku eho behar genituela, goizeko 4retatik ihultzeko 8ak arte... Oso nekagarria izan zen, jasanezina..."*

Torturak emakumeen osasunean izan dituen ondorio fisikoak asko dira: zauriak, hausturak eta gorputzeko oinaze kronikoak, buruan, lepoan, sorbaldetan, bizkarrean, eskuetan... Indarkeria fisikoak hainbat arrasto ezabaezin utzi ditu emakumeen gorputzean, jasandako sufrimenduaren isla ukaezina.

Era berean, tortura fisikoa ezin da biktima menderatzea, ezeztatzea eta gizatasunak kentzea bilatzen duen tortura psikologikotik bereizi. Emakumeek ondorio zehatza izan zuten tortura psikologikoko moduak kontatu dituzte. Esaterako, haietako askorentzat bereziki traumatikoa izan zen familiako, adiskidetasun edo elkartasun politikoko loturak zituzten beste pertsona batzuek nola torturatzen zituzten entzutea eta/edo ikustea. Gainera, emakume asko euren seme edo alabekin –bai eta bilobekin ere– atxilotu eta desagerrarazi zituzten, eta horrek biderkatu egiten zuen familia osoaren sufrimendua. Kasu horietan, adingabeak ere ez zituzten torturatik libratu.

Eragin psikologikoei dagokienez, emakumeek behin eta berriz aipatzen dute beldurraren bizipena: *"Beldurra zurekin doa beti"*. Era berean, larritasuna, kezka eta ziurgabetasuna sentitu izan zituzten bai atxilotu eta/edo desagerrarazi gisa, bai egoera horretan zeuden pertsonen senitarteko gisa. Emakumeek aipatzen duten beldurraren beste ondorio bat dira pentsamendu negatibo errepikakorrak, medikazioa behar izatera iritsi artekoak.

Oso modu berezian, atxiloketa behartua edo hilketagatik zuzeneko senitartekoak galdu dituzten emakumeek eragin psikologiko sakona pairatzen

dute. Haien oinazearen historia ezin izan da itxi, ez baitakite senitartekoa non dagoen, eta oraindik ere sufritzen jarraitzen dutelako zigorgabetasuneko testuinguru batean. Denboran asko luzatzeaz gain, dolua kroniko bihurtzen da ezin dutelako hileta-erritualik ez agurtzeko zeremoniarik egin modu duinean.

*“Oinaze handiegia daukat, ez dut lorik egiten... Egoera hau ez da amaituko nire seme erailaren autopsia egitea lortu eta behar bezala, duintasunez lurperatzen ez dudan bitartean”.*

Amaitu gabeko doluez gain, beste eragin bat horrek dakarren familia-desegituraketa, eta elkarrizketatutako emakumeek hainbat ikuspegitatik jorratu zutena. Lehenik eta behin, senitarteko bat hilketagatik edo desagerrarazia izan delako galtzea jasan behar duten egoerarik mingarri eta konponezinena da. Emakumeak eurak zuzeneko biktima izan diren kasuetan, familiaren ezegonkortasunak haien etxeokak era kaltetu ditu, eta haien osasun mentalean ere eragin izan du horrek.

*“1983an desagerrarazi zutenean, berak [bere senitartekoak] urte eta erdiko alaba zeukan, eta etxean geratu zen. Hiru ahizpa eta neba bat zituen. Gertaera haien ondorioz, nebak memoria galdu zuen, depresioak jo zuen eta orduz geroztik gaixorik dago”.*

Bigarrenik, Marokoren okupazioa eta populazio sahararraren ehuneko handi bat Tindufeko kanpamentuetara kanporatua izana ia emakume guztiak ukitzen dituen familia-bereizketaren funtsezko arrazoa izan dira, eta dira oraindik ere. Okupaziotik 40 urte baino gehiago igaro diren arren, ez da aldaketarik gertatu okupaturiko gunean, Tindufeko kanpamentuetan eta diasporan barreiaturik dauden familia sahararrak berriz elkartzea ahalbidetzeko baldintza politiko eta militarretan.

Hirugarrenik, emakume askorengan oso nabarmenak diren eta sarritan adierazi dituzten ondorioen artean amatasunarekin loturikoak daude. Emakumeetako batzuek seme-alabengandik bereizi zituzten atxilotutakoan, eta hilabeteak eta urteak ere eman zituzten elkar ikusi gabe. Beste emakume batzuk seme-alabekin batera atxilotu zituzten, eta seme-alaben aurrean galdekatu eta jipoitu zituzten, eta ondoren kartzelatu. Esperientzia horien berri eman zuten emakumeen artean egoera hori ama izanik pairatu zutenak eta atxiloketa gertatu zenean alaba zirenak daude. Seme-alabengandiko bereizketarekin batera, berriro elkartzeko unea ere gertaera traumatiko gisa agertzen da, elkartze hori gertatu izan denean. Esaterako, urte askoan

desagerraraziak egon diren emakume batzuk, askatu eta etxera itzuli direnean, horrenbeste denbora izanik, seme-alabak ia ezezagunak direla ikusi dute.

*“Lau seme-alaba dauzkat, kartzelatu nindutenean [1980] bakar bakarrik geratu ziren... Askatu nindutenean, 1991ko ekainean, ama oso gaixorik aurkitu nuen... Eta nire alaba bakar bat ere ezin izan nuen ezagutu... Elkar agurtu ondoren galdetu nuen: Eta nor dira neska horiek?’ Nire alabak zirela esan zidaten... ‘Ezin da izan, emakumeak dira dagoeneko...’ Aste bat edo bi behar izan nituen nire alabak zirela onartzeko. Haietako batek zauri bat zuen, eta zauri horri esker ezagutu nuen...”*

Emakume sahararren aurkako indarkeriak eragin handia izan du amatasunaren inguruko erabakiak hartzerakoan, eta ama izateko aukeretan ere. Esaterako, kartzelan urte asko eman dituzten emakume batzuek diotenez, ezin izan dute ama izan ugalkortasun handieneko sasoian preso izan zituztelako.

Azkenik, indarkeriak zuzenean eragiten die emakumeen harreman afektibo eta sexualei; hala ere, gai horri buruzko informazioa oso mugatua da zuzeneko azalpenak oso gutxi izan zirelako. Aipatu zuten beste gai bat indarkeriak emakume askoren bikoteko bizitza-proiektua zapuztu izana da; bai emakumeari bikotekidea erail, desagerrarazi edo kartzelatu diotelako, bai emakumea bera izan delako desagerrarazia eta geroago aske utzia. Azken horien artean, gatibualdian izan duten kezka nagusietakoa izan da kartzelan bizirik irautea lortuz gero, askatzen zituztenean zer egoera aurkituko ote zuten.

*“Lau urte baino gehiago eman nituen desagerrarazia. Aske utziko gintuzten uneak bereziki kezkatzen gintuen, ez dakizulako zer gertatuko den, familiak nola dauden, senarrak hor egongo ote diren, edo besteren batekin ezkondu ote diren...”*

### 3.1.2. Sexu-indarkeria

Beste herrialde askotan bezala, Mendebaldeko Saharan ere emakumeak sexu-indarkeriaren biktima izan dira eta izaten jarraitzen dute genero-identitateagatik, haien identitate kultural eta nazionalagatik eta haien aktibismo politikoagatik. Emakume sahararrak jakitun dira haien aurkako sexu-indarkeria gainerako emakume guztiei izu-mezua bidaltzeko erabiltzen dela, parte hartzeari utz diezaioten edo parte hartzen has ez daitezen lortzeko. Batzuen gorputza zigortzen dute, eta horrekin, beste guztien gorputz soziala izutu nahi dute: *“Bortxaketarekin emakumeak makurrarazi nahi dituzte, ahuldu”*.

Hala ere, oso zaila da gatazkaren eta okupazioaren esparruan gauzatu den sexu-indarkeriaren hedadura zein den jakitea. Alde batetik, ez da egon gertaera horiei buruzko informazioa sistematikoki jasotzeko bitartekorik, eta bestetik, indarkeria horretatik bizirik irten diren pertsona gehienek isilik egotea hautatzen dute. Jorrazteko oso zaila da gai hori, pertsona mailan, familian, gizartean eta kulturalki ere oso inplikazio sendoak dituelako.

*“Hemen ere gertatzen dira [bortxaketak] baina ez dugu horretaz hitz egiten, beldur garelako. Isilik geratzen dira, gertatutakoaren erantzule egingo dituztela uste dutelako. Garrantzitsua da erabakitzea nola ikusaraziko dugun hori hemen, gure historian, ahanzturan gera ez dadin. Eta teknikoki ere, dokumentu gisa, eta ondo egitea gainera”.*

*“Hemen ezin da sexu-indarkeriaz hitz egin. Ezin dugu guri buruz edo halako gauzei buruz hitz egin, gure erlijioa eta gure kulturagatik”.*

Marokok 1975ean Mendebaldeko Sahara okupatu zuenean ikaragarritzko indarkeria erabili zuen sahararren aurka, eta emakumeen kasuan, berariazotasun sexista eduki zuen. Okupazioaren ondorengo lehenengo urteetan, Saharako Ilargi Erdi Gorriak (1976) egindako txosten batean honela aipatzen zuen sexu-indarkeria: “Zenbait *jeep* iristen dira Alminarren oinetara. Ibilgailuetan doazen ofizialek atzamarraz hautatzen dituzte emakume gazteak, eta soldaduak haiengana joaten dira korrika ofizialen geletara eramateko”.

Lan honetarako elkarrizketatu genituen emakumeek hainbat aldiz aipatu zuten emakumeak biluztera behartzen zituztela, hainbat adinetakoak eta hainbat garaitan, atxilotuta edo bahituta zeudenen, eta sistematikoki, torturatzen zituztenean. Sexu-indarkeriaren modu horren inguruko bizipenen deskribapenean umiliazioa, urrakortasuna eta pertsonaren duintasunaren aurkako eraso bortitza aipatzen dituzte. Gainera, Marokoko segurtasun indarren ohiko jarduna da emakumeak biluztera behartzeaz gain argazkiak egitea, eta horrek larriagotu egiten du umiliazioa eta emakumeen gaineko presioa, gertatutakoa sala ez dezaten.

Sexu bortxaketak behin eta berriz agertzen dira atxilotetetan eta kartzelatzelaldietan, eta emakumeen kasuan ankerkeria bereziarekin gainera.

*“Bortxaketa izugarriak egiten dizkiete emakumeei nahiz gizonei. Maguna, Agdezeko kartzeletan eta PCCMIIn, ase arte abusatzen da emakumeez modu basatian. Leku horietan, emakumeak modurik*

*anker eta umiliagarrienean bortxatzen dituzte, plastikozko hodiekin, metalezko barrekin, kristalezko botilekin edo ogi-barra lehorrekin. Gauza imajinaezinak, giza kontzientziarako onartezinak. Hori desohorea da sahararrentzat”.*

2000.eko hamarkadatik aurrera, manifestazio eta protesten errepresioan ere emakumeen aurkako sexu-indarkeriako gertakariak izan dira. Esaterako, 2005eko Intifadan, etxeak arpilatzen zituzten bitartean bortxaketak izan zirela salatu zuten, eta horien arduradunen artean zibil marokorrek gongo lirateke.

*“‘Sahararraren ehiza’ hasi zen, eta [maiatzaren] 24an eta 25ean errepikatu ziren, balantze izugarriarekin. Kolonoek, gutxienez hamahiru etxe inbaditu eta arpilatu zituzten, eta neska asko bortxatu zituzten. Eserialdian Saharako banderarekin agertu zen mutil gazte bat ere bortxatu zuten”.*

Sexu-indarkeriari buruz emakume sahararraren zuzeneko lekukotza gutxi dauden arren, Hayat Erguibi gaztearena nabarmendu nahi dugu. Hayatek, 19 urte zituela, gertatu eta hurrengo egunean salatu zuen 2009ko otsailaren 22an Marokoko poliziako kideek bahitu egin zutela. Marokoko poliziak zelatatu, jazarri eta atxilotu egin zuen eskola partikularretara zihoala, eta indarrez sarrarazi zuten auto batean.

*“Gertatutakoa oso mingarria da, etorri ziren eta biluzi egin ninduten, ez zidaten ezer utzi, ezertxo ere ez, arropa guztia erantzi zidaten, biluzik geratu nintzen, erabat biluzik, nire gorputzeko atal sentiberak ere bai, eta eurenak hemendik [aho ingurua adierazten du] jartzen hasi ziren... ez naiz izena aipatu ere egitera ausartzen... Gero ni musukatzen hasi ziren, eta nirekin sexua egiten, egia esan aipatzen ere ausartzen ez naizen gauza asko egin zizkidaten, nire baitarako ere ahoskatu ezin ditudan gauzak dira, bakarrik nagoenerako... Hainbat tokitan ukitzen hasi ziren... aipatzen ausartzen ez naizen nire gorputzeko tokietan, nirekin praktikatzen zuten, musuak... eta hemendik [garondoa adierazten du] zetorkidan, gero hemen, eta esaten zidaten... esaten zidaten... nik.. gauza asko ezin ditut esan, gauza asko esateak ez dit balio... alkohol usaina zerien ahotik.. Zer esango dut...?».*

Sexu-indarkeriaren eraginei dagokienez, gatazka armatu eta indarkeria politikoko beste egoera batzuetan egindako ikerketen arabera, badakigu horren ondorioak askotarikoak direla –fisikoak, psikologikoak, gizarte eta familia



arlokoak, kulturalak, ekonomikoak– eta gehien gehienak iraunkorrak dira. Heriotza eragiten ez duen kasuetan, oso eragin gogorra dauka emakumeen osasun fisiko eta mentalean.

Mendebaldeko Saharan, sexu-indarkeria pairatzen duten emakumeentzat arretoa medikorik –berehalakoa eta segimendukoa– ez dagoenez, ez dago txostenik indarkeria horrek eragin dizkien kalte fisikoen eta epe labur eta luzera eragindako gaixotasunen berri jasotzeko. Eragin fisikoei gehitu behar zaizkie emakumeari gertatutakoaren eta horren beraren bizitzan dauzkan ondorioen lekukotza ematea eragozten dioten eragin psikologiko eta sozialak.

*“Erakutsiko banizue zer gertatu zitzaidan, jasanezina da... Bakarrik esan nahi dizuet ezin okerrago gaudela, ezin dugula gehiago jasan, eskoletan eraso egiten digute, etxeetan ere bai, edozer egiten dugula ere eraso egiten digute, ezin dugu jasan, gazte nahiz haur izanik gertatzen zaigu, gauza asko aipatu ere ezin ditut egin, nire buruaz lotsatuta sentitzen naizelako... Hori kontatzera ere ez naiz ausartzen...”*

Aurreko adierazpenetan ikusi dugun lotsa-sentipen horrez gain, emakumeentzat oso larriak diren ondorio sozialak gertatzen dira, sexu-indarkeriari loturiko estigmaren ondorioz.

*“Ezin gara isilik geratu egiten diguten horren aurrean, niri hori egin zidaten [sexu-indarkeria]. Beste batzuei are gauza gogorragoak egin zizkieten, eta mehatxatu egin zituzten denak. Beste edonork, nire egoera berean, beldurra sentituko luke, ziur nago ez lukeela hitz egingo beldurrak eraginda, ez luke jasango horrek ekarriko dion ospe txarra, mundu guztiak esango duelako bortxatu egin zutela, eta hau eta hori egin zizkiotela...”*

Azkenik, garrantzitsua da aipatzea sexu-indarkeriak emakumeen bizimodu afektibo eta sexualean izan ditzakeen ondorioak, nahiz eta ez dugun horri buruzko zuzeneko lekukotzarik. Esaterako, indarkeria mota horren ondorioen artean, “oso ohikoa da sexu nahasmendu edo disfuntzioak izatea, eta koitoan min hartzea” (Griese, 2012: 95), eta horrek eragin zuzena eduki dezake emakumeen osasun sexualean eta haien bikoteekiko harremanetan. Sexu-indarkeriak, gainera, emakumeen ernalezintasuna eragin ahal izan duen kasuetan, horrek bikotea aurkitzeko edo iraunarazteko eragozpenak handi ditzake, bereziki emakumeen ugaltzeko gaitasuna bikotea osatzeko irizpide gisa balioesten den inguru kulturaletan.

### **3.1.3. Elkartzeko, adierazteko, manifestatzeko eta ibiltzeko eskubideen murrizketa**

Azkeneko urteetan gero maizago egiaztatu ahal izan dira lurralde okupatueta kalean manifestatzen edo protesta egiten duten emakumeen aurkako jazarpena, beldurraraztea eta tratu txarrak, eta inguratzeak, irainak, mehatxuak eta kolpeak ohiko bihurtu dira. Manifestatzeko eta askatasunez adierazteko eskubideen urratzeak lurralde okupatuetatik kanpo dauden emakume sahararrak ere kaltetzen ditu, Marokok haien familien aurka mendeku har dezakeelako. Era berean, antolatzeke eta bilera egiteko eskubidea ere guztiz mugatua dago lurralde okupatueta. Sahararrek osatutako elkarreak legez eratzeko eragozpenak etengabeak dira; bereziki giza eskubideen, baliabide naturalen babesa eta autodeterminazioa helburu dutenak. Hori dela eta, ezkutuan jardun behar izaten dute, eta gutxieneke segurtasun-baldintzarik gabe.

Elkartzeko eta adierazteko askatasunaren urraketa lotuta, emakumei libre ibiltzeko eskubidea ere mugatzen zaie. Esaterako, ohikoa da Marokoko poliziak emakumei bilera-guneetara sartzeko eragozteke, Emakumeen Etxera, adibidez. Eskubideen etengabeko urraketa horretan beste bat da lurraldetik irteteko baimenak ukatzea, batez ere giza eskubideen defentsarekin edo antzeko jarduerekin –elkartasuna, formazioa eta sentsibilizazioa– loturiko nazioarteko ekitaldietara joan nahi duten emakume aktibisten kasuan.

## **3.2. Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak**

### **3.2.1. Bazterketa ekonomikoa eta lanekoa**

Okupazio-politikaren eta hari aurre egiten diotenen errepresioaren parte gisa, Marokok diskriminazio ekonomikoa eta lanekoa eragiteko estrategia erabiltzen du sahararren aurka, pobrezia egoeran eta langabezian jarrai dezaten lortzeko. Emakume sahararren egoera bereziki aztertzen badugu, zenbait iturriren arabera, “pobrezian eta analfabetismoan bizi dira, haietako gehienek ez dute enplegurik” (Omar *et al.*, 2008: 24).

Lehenik eta behin, beharrezkoa da esatea lanaren zatiketa sexualak etxean egotera eta etxeko lanak eta haurren zaintza lanak egitera konfinatzen dituela emakume gehienak, eta gizonen esku uzten ditu ordainduriko lan-aukerak. Horren ondorioz, mundu osoan, eta, jakina, Mendebaldeko Saharan ere bai, pobrezia feminizazioa areagotu egiten da. Bigarrenik, hainbat alderdi identifikatu ditugu Marokok sahararren aurka darabilen bazterketa eta diskriminazio politikan emakumeen egoera larriagotu egiten dutenak. Une

honetan lanean ari ez direnen artean, gazteenak eta ikasketadunak batez ere, aipatzen duten alderdietako bat da profesionalki jarduteko baldintzaren politikoena da.

*“Zuzenbidean lizentziatu nintzen Marokoko unibertsitate batean, baina profesionalki jarduteko, erregimenarekiko atxikimendua adieraztera behartzen nau Marokok. Eta ez dut halakorik egin”:*

Baldintzaren horrek, goi mailako prestakuntza daukaten emakume sahararren kasuan, atxikimendu hori ez erakusteak *de facto* lurralde okupatueta lanik egin ezina dakar, eta egoera horrek ondorio ekonomiko larriak eragiten dizkie emakumeei eta haien familiei. Enplegua duten emakumeen artean, ohikoa da laneko eskubidea urratzea, hala nola, osasun-estaldurarako eskubidea. Gainera, nagusien laneko jazarpena ere salatzen dute; hots, lanbide-garapenari eta lanean sustatzeari eragozpenak jartzea, eta herrialdetik irteteko edo porretarako baimenak ukatzea.

Marokok emakume sahararren militantzia zigortzeko maiz erabiltzen duen beste estrategia ekonomiko bat da Babes Nazionalerako Txartela izenekoa kentzea da; txartel horren bidez, haien jabeek gizarte-laguntza jasotzen dute hilerok.

*“Duela lau hilabete eten zidaten txartela manifestazio batean parte hartzeagatik eta kartzelatik irten ziren presoeri harrera egiteagatik”.*

Disuasio-neurri horiek batzuetan parte-hartzea murriztea eragiten dute, batez ere ekonomikoki urrakortasun handiena duten emakumeengan, edo senitarteko gehiagoren ardura dutenengan. Hala ere, laneko merkatuan txertatzea gizonena baino kopuru txikiagoan eta baldintza txarragoetan gertatzea Marokoren presioei men ez egiteko prestutasun handiagoa azaltzen duen faktorea da akenean. Bestela esanda, emakumeen egoera ekonomikoa behin-behinekoagoa izanik, emakumeek sentitzen dute galtzeko gutxiago daukatela.

*“Marokoaurrek kudeatzen dituzten finantza-iturri guztiak. Lan egiten duten gehienak gizonak dira, eta ezin dira horrenbeste inplikatu. Emakumeek ez dute ez daukaten lana galtzeko beldurrik. Gainera, errazagoa da emakume baten soldatari uko egitea; gure soldatak hileko 75 edo 100 euro ingurukoak izan daitezke, eta gizonenak, aldez, 140-150 euro ingurukoak”.*

Hortaz, lurralde okupatuetakoko emakume sahararrak haien identitatea eta iritzi politikoa agertzen badituzte ekonomikoki edo lanean zigortuko dituztelako mehatxupearan bizi dira. Deskribatu dugun bezala, emakumeak dira Babes Nazionalerako Txartelaren onuradunak parte hartzeko mugatuak daude; izan ere, identifikatuak izateko eta aipatuakotako diru-laguntzarako eskubidea ukatzeko arriskua baitute. Enplegu bat dutenentzat, batez ere administrazio publikoan lan egiten badute, zigorra izan daiteke soldata etetik hasi eta lanetik kanporatzeraino. Hori dela eta, emakumeek oso oreka-ariketa konplexuak egin behar dituzte euren lan eta ekonomia egoeraren eta aktibismo politikoaren artean, eta horrek eragin psikologiko handia dauka emakume horiengan. *“Nahasmendu egoera bizi dugu, bizimodu paraleloekin”*.

Lanerako aukera eskasak eta eskubideak babesten dituzten emakumeen aurka Marokok erabiltzen dituen zigor-mekanismoek zuzenean eragiten dute emakumeen bizi-baldintzetan. Egoera hori are traumatikoagoa da familiaren euskarri bakarra diren emakumeen kasuan. Gainera, eraildako, desagertutako edo kartzelatutako senitartekoak dituzten emakumeek horren ondoriozko eragozpen ekonomikoei egin behar diete aurre, batez ere zuzeneko biktimaren mendekotasun ekonomikoa dagoenean.

### 3.2.2. Eskolako diskriminazioa eta indarkeria

Marokorekiko gatazkaren esparruan, herri sahararrak garrantzi estrategiko handia eman dio hezkuntzari, identitate kolektiboari, kide izatearen sentipenari eta erreibindikazio-espirituari eusteko izan dezakeen zereginagatik. Arrazoi berberagatik, baina alderantziz, Marokorentzat ikastegiak eta eskola-curriculum bera, herri sahararra kulturagabetzeko edo mende hartzeko eta horrekin haien identitate-ezaugarriak desagerrarazteko estrategia sendotzeko tresna dira.

Lurralde okupatuetakoko ikastegietan ohikoak dira diskriminazio eta indarkeriako jarduerak ikasle sahararren aurka; aldi baterako edo behin betiko kanporatzea, edo poliziak berak zuzenean eraso egitea, sarritan eskolan bertan egoten baitira. Ohikoa da irakasle marokorrek poliziarri laguntzea informazioa emanez eta erreibindikazio politikoak, sozialak eta nazionalak aurrez aurre adierazten dituzten ikasle sahararrak salatuz. Emakume batzuek salatu zuten lan eta azterketetako notak trukatu egiten dituztela ikaskuntzan kaltea eragiteko, saharar gisa identifikatu izanagatik mendeku gisa.

*“Batxilergoko lehenengo urtean nengoela irakasleak oso gaizki tratatzen ninduen, diskriminatu egiten ninduen, eta ikasketak utzi behar izan nituen matematikan oso trebea izan arren”*.

*“Gogoan dut 1988. urtean 6.000 ikasle saharar gazte ikasketak uztera behartu zituztela Aaiunen Marokoko barnealdera eramateko. Ikastea gustuko zuen belaunaldia izan zen eta itxaropen handia geneukan, etorkizun profesionalean, zientifikoan pentsatuz. Gazte-espazio horren arrazoia kultura sahararra desagerraraztea eta haiena ez den kulturaren halabeharrez txertatzea zen. Marokok esan zuen lana eskainiko zuela, eta hobe zela lan egitea ikasten jarraitzea baino... Nik ez joatea erabaki nuen, horregatik utzi behar izan nion ikasteari”.*

Erregimenarekin bat egiten ez dutenen hezkuntza-jazarpen eta bazterketako Marokoren estrategiak emakume sahararren garapen pertsonal eta kolektiboaren eragozten du. Halako baldintzetan, eskola etsai-eremu bihurtzen da ezagutzarako, pentsamendu eta adierazpen aserako, eta emakumeentzat guztiz desmotibagarria da. Era berean, eskola-diskriminazioak eta horren ondorioek lotura zuzena dute emakumeek lanerako eta parte-hartze sozialerako aukera gutxiago edukitzearekin, eta ondorioz, bizi-baldintza ezegonkorragoak edukitzearekin.

### **3.2.3. Identitate kulturala ukatzea**

Mendebaldeko Sahararen lurraldea eta herritarrak kontrolatzeko Marokoren estrategiaren helburuen artean dago saharar izatearen ezaugarri bereiztaileari ahalik eta adierazgarritasun txikiena ematea edo desagerraraztea. Modu zuzen eta ikusgarriagoan esateko, okupaziotik, Marokoko agintariak sahararren identitate eta kultura-adierazpen oro zapaldu dute (hizkuntza, janzkera, tradizio nomadaren elementuak, ikurrak, etab.).

Identitatearen gaia bereziki sentibera da emakumeentzat, horientzat, jarduteko ardatz garrantzitsuenetako baita Saharako kultura babestea eta belaunaldi gazteagoenganako transmisioa bermatzea. Azkeneko urteetan, Saharako kulturarekin tolerantzia handiagoarekin jarduteko ahalegina ikusten dute emakume batzuek Marokoko erregimenarengan, baina keinu horiek mesfidantzaz jasotzen dituzte, eta kritikatu egiten dute:

*“Duela gutxi, Saharako herriarekin adiskidetzeko edo, foroak eta erakusketak antolatzen ahalegindu da, diotenez, Saharako kultura eta ondarea balioesteko. Baina ekimen hori ez da segurua, kultura mistifikatua delako. Ildo horretan, agintariak Majzenen soldatapean dauden sasi-intelektualak kontrolatzen dituzte eta marko folkloriko moduko bat eraikitzen ahalegintzen dira, baina*

*hassaniaren funtsari berari, eta kulturaren eta ondarearen balioari kalte egiten dio”.*

Ukazioaren edo “folklorizazioaren” aurrean, emakumeek eutsi egiten diote ezagutza kolektiboak, eta Saharako kultura eta ondarea mantentzeko helburuari. Gainera, oso lotura argia ezartzen dute Marokok berriki eta itxuraz Saharako kultura balioetsi nahi izatearen eta giza eskubideen urraketak ezkutatu nahi izatearen artean.

## **4. Emakumeen erresistentzia politikoa lurralde okupatuetan**

Euren lurraldearen okupazioaren aurkako erresistentziari atxikitzeko emakume sahararren erabakia guztiz politikoa da, eta Mendebaldeko Sahara askean bizitzeko nahiari lotuta dago. Gainera, haien parte-hartzea estu lotuta dago, zuzenean, euren norbanako historian nahiz familiarenean eragin zuten indarkeriako gertakariekin. Hau da, errepresioaren biktima izateak, eurak eta/edo euren familiak, beste elementu garrantzitsua da politikoki partaide izateko erabakia hartzeko.

### **4.1. Parte-hartzea gatazkan**

Indarkeriaren aurkako sahararren erresistentzia eta independentziaren aldeko borroka etengabeak izan dira hamarkada hauetan, lehenengo Espainiaren kolonizazioaren kontra eta ondoren Marokoren okupazioaren kontrako aktibismo-olde jarraituetan. Hirurogeiko eta hirurogei eta hamarreko hamarkadetan, 1973an Fronte Polisarioaren sorrera eragingo zuen iraultza-prozesua sortzen eta heltzen ari zela, emakume askok egin zuten bat koloniaren aurkako borrokan eta aktibismo politikoa ezkutuan gauzatu zuten.

*“60.eko hamarkadan, Frontea sortzen hasi zen, Espainiaren kontra, 1970 edo 1973ra arte. Emakume guztiak altxatu ziren kolonialismo espainiarraren aurka, eta lehenak izan ziren borrokari lotzen eta koadroak eratu zituzten, eta kolonialismoaren aurka borrokatzeko egindako deiari erantzun zioten, eta ia zelula guztietan, hasieran, emakumeak ziren gehienak! (Julianon aipatua, 1998: 83-84).*

Marokok Mendebaldeko Sahara okupatzeak 1975ean, eta Fronte Polisarioa Maroko eta Mauritaniarekin gerran hasi izanak militarizatu egin zuten ia guztiz

sahararren bizimodua. Okupazioak eta gerrak emakumeen bizitza-aukerak eta erabakiak zeharkatu zituzten guztiz. Gizon askok bat egin zuten borroka militarrekin, eta emakume batzuk ere Fronte Polisarioan borrokatu ziren arren, familien iraupenez, zaintzaz eta sostengu ekonomiko eta emozional izateaz arduratu ziren gehienbat. Hala ere, emakume askok, genero-agindu tradizionalari erantzuteaz batera, borroka klandestinoari lotuta jarraitu zuten, eta arrisku handiko lan politikoa egin zuten. Parte-hartze horretan bizia galdu zuten emakume askok, eta bizirik iraun zutenengan azterna mingarriak utzi zituen.

Okupazioaren ondorioz, saharar gehienek ihes egin zuten basamorturantz. Sahararren basamorturantzko desplazamendua, Marokoren abiazio militarren bonbardaketek eragin zuten batik bat, fosforo zuria eta napalma erabili baitzituzten. Gerra-krimen horrek bereziki eragin zien emakumeei, okupaziotik ihesi joan ziren pertsona gehienak emakumeak zirelako. Gainera, kontuan hartu behar da migrazio behartuak –honako kasuan bezala, esetsaldia, jazarpena eta zuzeneko erasoak eragiten dituztenak– gertatu ohi diren baldintza gogorren ondorioz pertsona asko hiltzen direla, ahituta, goseak edo desplazamenduak eragin edo/eta beste egoera batzuetan sendagarriak izango lirakeen gaixotasunen ondorioz.

Basamorturantzko ihesean bizirik iraun zuten emakume sahararrek ezegonkortasun pertsonal, familiar eta sozial gogorra pairatu behar izan zuten, gainera, etxeak eta bizi-baliabideak galtzea eta zaintza-arduren gaitzera. Horren guztiaren aurrean eta baldintza ezin gogorragoen pean, gaitasun itzela erakutsi zuten kanpamentuetan bizimodu kolektiboa berregin eta hari eusteko. Tindufen aterpe hartutako errefuxiatu gisa, kanpamentuen antolamendu eta mantentzean protagonismo handia hartu zuten; izan ere, denborarekin, emakume errefuxiatuen antolakuntza-esperientzietako eredu aztertu eta azpimarragarrien izatera iritsi ziren nazioartean.

Lurralde okupatueta, gerra garaian kontzientziazte eta prestakuntza politikoko lan tinkoa egin zuten emakumeek gainerako herritarren artean, kaleetan barrena ibiltzea ezinezkoa zen testuinguru batean. Aldi horretan tortura eta desagertze behartua pairatu behar izan zuten emakume askok. Esaterako, 1987an, Nazio Batuetako ordezkariak batek eta Afrikar Batasunerako Erakundearen (OUA) ordezkariak batek Mendebaldeko Saharara autodeterminaziorako erreferenduma antolatzeko aukerak aztertze egindako bisita baten harira, saharar herritarrek manifestazio handi bat antolatu zuten okupazioarekiko desadostasuna erakusteko eta autodeterminazio-eskubidea erreibindikatzeko. 1987ko Intifada gisa ezagutzen den abagune

horretan, Marokoko indarrek areagotu egin zuten errepresioa eta hainbat eta hainbat atxiloteta eta desagertze eragin zituzten, beste batzuen artean, lan honetarako elkarriketatutako aktibistetako batzuk.

Gerra amaitutakoan, 1992ko Intifada oso une garrantzitsua izan zen ikasleen mugimenduan parte hartzearen bidez borroka politikoari atxiki zitzaizkion emakumeentzat. Urte hartan, sahararrek mobilizazio baketsuak egin zituzten, eta horiek prestatzen ikasleen zelula klandestinoek hartu zuten parte. Zelula horiek emakume gazte askok osatzen zituzten, eta haietako asko atxilotu, torturatu eta kartzelatu egin zituzten.

Aurrerago, 2000ko hamarkada inflexio-puntua izan zen lurralde okupatueta emakumeen parte-hartze politikoaren ikusgarritasunari dagokionez, bai eta haien aurkako errepresioan, “berun urte”<sup>4</sup> deiturikoen aldean. Hamarkada horretan, 2005eko Intifadako mobilizazioak eta geroago 2010eko Intifada Gdeim Iziheko kanpamentuaren antolamenduarekin, emakume gazteentzat aukera historikoa izan ziren sahararren erresistentzian emakumeen parte-hartze politikoaren *continuum* horren parte izateko.

Lurralde okupatueta emakume sahararren aktibismoaren ezaugarri azpimarragarria da pairatzen duten errepresio gogorraren gaintik, erresistentzia ez-biolentoaren estrategiaren aldeko aukera argiari eusten diotela. Adierazpen bideak manifestazioak, gose-grebak, kalean egindako eserialdiak, bideoak zabaltzea, sinadurak biltzea etab. dira. Azkeneko bi hamarkadetan haien ekintza politikoari ikusgarritasun eta protagonismo handiagoa eman dion ez-indarkeriaren aldeko aukera izan da. 2005. urtetik aurrera, Internet erabiltzea izan da lurralde okupatueta isolamendua hausteko aktibista sahararrek gero eta gehiago erabili duten estrategia. Hortaz, ikus-entzunezko baliabideek eta sare sozialek lurralde okupatuetan egunero gertatzen diren indarkeria-egoerak dokumentatzeko eta hedatzeko balio dute. Marokok Mendebaldeko Saharako egoerari buruz tokian bertan eta nazioartean hedatzen dituen berrien aurrean herritar sahararrek egiten duten kontra-informazio lan handia da.

Aktibismo horren edukiaren adibide batzuk jasoko ditugu ondoko orrietan, bai eta Marokok emakumeen aurka eragiten duen indarkeriari aurre egiteko emakume aktibistek erabiltzen dituzten mekanismoetako batzuk ere.

---

4 Marokoko Estatuak edozein disidentzia politikoren aurka indarkeriaren sasoirik bortitzena aipatzeko erabiltzen den adierazpena, 1970, 1980 eta 1990 hamarkadetan. Sasoi horrek eragin berezia izan zuen lurralde okupatueta herritar sahararengan.



## 4.2. Borroka politikoaren dimentsioak

### 4.2.1. Bizirik irautea eta taldeko lana

Emakume sahararrak familiaren eta erkidegoaren iraupenari egiten dion ekarpena izaten da sahararren kausa komunean parte hartu izanaren aintzatespen ohikoena, batez ere errefuxiatu-bizimoduarekin lotuta. Aintzatespen hori emakume sahararren artean ere gertatzen da, bai eta gazteen artean ere. Konbentziturata daude beren aurretikoek egindako lan guztia herentzia gisa jaso dutela.

*“Bizi izan ez dudan arren, ezagutza badut kanpamentu guztiak emakume sahararrek antolatu zituztela: jaimak, eskolak, osasunaren zaintza... Dena emakumeek egindako lana izan zen”.*

Historikoki emakumeei esleitzen zaizkien zaintza-lanak berebiziko bihurtzen dira indarkeria-egoera orokorra denean eta giza eskubideen urraketa larriak gertatzen direnean; egia esan, giza taldeen iraupenari berari lotuta daude. Tindufeko kanpamentuetan bezala, lurralde okupatuetan ere, emakumeek beren gain hartu dituzte beste pertsona batzuek zaintzeko ardurak, egoera material oso gogorretan.

*“Emakumeek ardura asko gureganatu behar izan genituen gizonak borrokara joan zirenean. Senarrek seme-alabak, beren amak utzi zituzten... eta muturreko pobrezia egoeran. Jasan daitekeena baino askoz ere gehiago. Horregatik uste dut oso garrantzitsua dela emakumeen memoria historikoa”.*

*“15 urte nituela konturatu nintzen nire aitona-amonak oso zaharrak zirela, eta ez zutela haiek zainduko zituen inor, seme edo alaba. Nik ikasketak utzi, eta haiek zaintzeko ardura hartu nuen”.*

Beharrezkoa da azpimarratzea, lehenengo, lan hori dela bizitza jasangarri bihurtzen duena eta, kasu honetan, herri saharararren bizitzak jarraitzerik izan dezan eragiten duena; eta bigarren, emakumeentzat kostuak dituela; hala nola pertsona gisa garatzeko eta hazteko aukerak gutxitzea, hezkuntzan, lanean edo parte-hartze sozial eta politikoan, kasu.

### 4.2.2. Autodeterminazioaren erreibindikazioa eta okupazioa salatzea

Elkarrizketaturiko emakumeentzat autodeterminaziorako eskubidea ezin utzizko helburua da. Erreibindikazio hori denaren muina da haientzat eta, hala denez, haien jarduna bera ardazten du. Marokok autodeterminazio-eskubidea

ukatzean duen erantzukizunarekin batera, zuzenean inplikaturik dauden beste herrialde batzuen erantzukizun historikoa ere aipatzen dute emakumeek: Espainiako estatua eta Frantzia, kasu, zeinek bere interes ekonomiko eta geopolitikoak lehenesten jarraitzen du, Marokorekin elkar hartuta jardunez.

Autodeterminazio-eskubidea gauzatzea, besteak beste, Mendebaldeko Saharako lurraldearen okupazioak baldintzatuta dago. Horrek esan nahi du bi erreibindikazioak, autodeterminazioa eta okupazioaren amaiera, elkarrekin doazela emakumeen ekintzetan. Espainiako kolonialismoaren aurka egoteaz gain, 1975. urteaz geroztik, emakume aktibistek okupazioa eta horrek oraindik ere haiengan dituen ondorioak etengabe salatzen jarraitzen dute.

Emakumeek euren erreibindikazioak lurralde okupatueta ez ezik Marokoko unibertsitate eta ikastegietan ere egiten dituzte, emakumeetako batzuk bertako ikasle direlako goi mailako ikasketan edo ikasketa espezializatueta. Aktibismoa lurraldean zehar hedatzen dute eremu okupatutik kanpo daudenetan, eta jatorrian besteko indarkeriari egin behar izaten diote aurre han ere.

#### 4.2.3. Identitate kulturala eta nazionala babestea

Ekintza-ardatz hori behin eta berriz agertzen da aktibisten diskurtsoan eta borroka-agendan. Garrantzi handia ematen zaio, Marokok sahararren ezaugarriak desagerrarazteko ahaleginen aurrean haien identitatea babestu beharra dagoelako. Marokoren ahalegin horien artean dago Mendebaldeko Sahararen osaera demografikoa aldatzea, Ibilaldi Berdearekin eta haren osteko migrazio-oldeekin; bai eta hezkuntzako *curriculum*a ezartzea eta komunikabideen, eremu eta kanal ideologikoen manipulazioa ere, zeinen bidez sahararren identitate-ezaugarriak desitxuratu nahi dituzten. Eta horrez gain, nomadismoan guztiz errotuta dauden sahararren bizimoduaren eta adierazpen kulturalen errepresio zuzena.

Sahararren identitate kulturalaren aldeko jarduera politikoa 1970. eko hamarkadatik dator, osagai sinboliko garrantzitsua dauka eta sarritan adierazi izan dute Fronte Polisarioaren eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) banderen erreibindikazioarekin. Emakume gazteenek ere bandera nazionalan fokalizatutako identitate-erreibindikazio horrekin jarraitu dute, euren erresistentzia-testuinguruetan.

*“1974. urtean bakarrik geratu nintzen hiru seme-alabarekin. Sentsibilizazio-lan asko egin nituen. [bizimodua ateratzeko]*

*soinekoak saltzen nituen, baina josteko makinarekin banderak egiten nituen jai nazional eta manifestazioetarako. Gero atxilotu egin ninduten, eta makina ere eraman zuten... 8 urte eman nituen desagertuta”.*

*“[Rabaten] ikasle nintzela, beste neska batzuek eta nik izara handi batzuk hartu genituen eta bandera margotu genuen; arteari buruzko biltzar bat egiten ari ziren lekuaren aurreko eraikin batean eskegi genuen”.*

#### 4.2.4. Giza eskubideen aldeko erakundeetan parte hartzea

Mendebaldeko Saharako giza eskubideen aldeko mobilizazioak indarra hartu du azkeneko hamarkadan, arlo horretan diharduten hainbat elkarte sortu direlako. Mendebaldeko Saharako giza eskubideen aldeko mugimendua Giza Eskubideen aldeko Elkarte eta Batzorde Sahararren Koordinakundearen inguruan antolatzen dira, eta hainbat erakunde biltzen ditu<sup>5</sup>. Giza eskubideen aldeko mugimenduan, emakumeek funtsezko zeregina betetzen dute, bai erakundeak sortzen bai erakunde horietan militatzen; nahiz eta xehetasun hori ez den beti islatzen kanpora begirako aitzindarietzan eta ordezkaritza instituzionaleko espazioetan.

Koordinakundeko erakundeen artean badira batzuk presidente edo presidenteorde emakumeak dituztenak. Esaterako, horietako bat da Giza Eskubideen Defendatzaile Sahararren Kolektiboa (CODESA), 2007. urtean sortua eta Aminatou Haidar zuzendari duena. Era berean, Marokoko Estatuak egindako Giza Eskubideen Urraketa Larrien Biktimen Saharako Elkarteak (ASVDH) El Ghalia Djimi du zuzendariorde, 2005ean erakunde horren sortzaileetako bat izan zen<sup>6</sup>.

---

5 Honako erakunde hauek dira koordinakundeko partaide: Giza eskubideen aldeko sahararren kolektiboa, CODESA; Marokoko Estatuak eragindako giza eskubideen urraketa larrien biktimen elkarte sahararra, ASVDH; Emakume Sahararraren Etorikizuna Foroa, FAFESA; 15 desagerrarazien Amen Batzordea; Emakumearen eta haurren Behatoki sahararra; Autodeterminazio Eskubidearen Defentsarako Batzordea, CODAPSO; NBERen bake-planaren aldeko eta baliabide naturalak babesteko batzordea; Kultura eta Ondarea Babesteko eta Hedatzeko Elkarte sahararra; Gdeim Izikeko Plataforma; Memoria kolektiboa gordetzeko zentro sahararra; Nazionalitate marokorra utzi zuten 19en taldea.

6 Aminatou Haidar eta El Ghalia Djimi 1987ko azaroan atxilotu eta desagerrarazitako 17 emakumeetako bi izan ziren, Marokok legez kanpo izan zituen kartzela sekretuetan ia lau urtez, 1991an askatu zituzten arte, eta denbora horretan hainbat tortura jasan behar izan zituzten.

Emakume Sahararraren Etorbizuna Foroa (FAFESA) Sukeina Yedehlu<sup>7</sup> presidente duena, 2009an sortu zuten batik bat emakume preso politiko ohiek eta tortura gainditu zutenek, eta herri sahararraren eskubideak borroka baketsuaren bidez erreibindikatzeko du xede. Foroak hainbat jarduera egiten ditu “*zuzenean nahiz hurbileko senitartekoek kartzela pairatu duten emakumeentzako laguntza morala eta ekonomikoarekin*” lotuta. (...) *Erkidegoan diru-bilketa egiten dugu kaltetuei laguntzeko, emakumea delako beti gehien sufritzen duena, bai bera atxilotzen dutenean bai senitartekoren bat atxilotzen dutenean, haiek dira familiari eutsi behar izaten diotenak, senarrek edo senarrik gabe*”. Gainera, erakunde horrek lan-saioak egiten ditu emakume gazteekin Saharako kultur transmisioari buruz, Marokok lortu nahi duen bereganatze kulturalaren aurkako erresistentzia abiapuntu hartuta. Horren ildoan, hainbat gertaera salatzen dituzte; hala nola, jaima tradizionalak muntatzeko edo jaioberriei Saharako pertsonaia historikoekin zerikusia duten izenak jartzeko debekua.

15 desagertuen Amen Batzordea zenbait emakumek sortu zuten 2005ko abenduaren 25ean, urte horretan herri sahararraren autodeterminazioa erreibindikatzeko Intifadaren baitan euren senitartekoak bahitu ondoren. “*Batzorde horrek sentsibilizazio-kanpaina zabala antolatu zuen emakume horien seme-alaben aurka ordainarazpenen errealitatea agerian jartzeko: eserialdi baketsuak eta gose-grebak egin zituzten. Gauregunera arte, Marokoko erregimenak ez entzunarena egiten du, eta gure informazio-iturrien arabera, Rabatetik hurbil dagoen atxilotza-zentro sekretu batean bahituta dauden hamabost gazteak aske uzteari uko egiten dio*”. Amen Batzordeak Marokoko sistema juridikoaren borondate politikorik, neutritasunik eta gardentasunik eza kritikatu du, eta salaketa aurkeztu du haren aurrean senitartekoen bahiketa eta desagertzeagatik; hala ere, ez dute egundaino erantzunik jaso. Aitzitik, ama horiek dira egiten dutenagatik errepresioa eta beldurraraztea pairatzen dutenak.

#### 4.2.5. Baliabide naturalen defentsa

Azkeneko urteetan, herri sahararrak lortu du agerian jartzea ez dutela onartzen Marokok Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak aztertzeko eta ustiatzeko akordioak sinatzeko eta akordio horietatik onura ateratzeko beretzat hartzen duen nazioarteko legitimitatea, ezein eratakoa, ez Estatuarekin (alde bietara), ez Europar Batasunarekin edo enpresa multinazionalarekin ere.

---

7 Aktibista hori desagerrarazita eduki zuten hamaika urte baino gehiagoan, Marokoko bost kartzela sekretutan, eta torturak jasan behar izan zituen bertan.

Esaterako, fosfato-ustiapenak eta Saharako kostaldeko arrantza-industriak diru-sarrera handiak uzten dizkie Marokori eta inplikaturiko atzerriko enpresei.

Marokok erabili ohi duen argudioa da ustiapen horrek lurraldeari mesede egiten diola; baina egia bestelakoa da, herritar sahararrek baztertuta jarraitzen dute ekonomikoki eta sozialki. “Marokok 1975ean Mendebaldeko Sahara inbaditu zuenetik, agintari marokorrek legez kanpo ustiatu dituzte hainbat eta hainbat baliabide natural, eta horren etekinak okupazioari eusteko erabili dituzte. Lurraldea ustiatzetik ondorioztatzen diren lan-aukerak, zergamurrizketak, diru-laguntzak eta etxebizitza-programen pizgarriek erakarrira joan diren kolono marokorrenzat dira” (WSRW, 2010). Hortaz, lurraldea desokupatzeko eskakizuna baliabide natural, itsasokoak eta meatzetakoak, ustiatzeari uzteko eskaerarekin lotuta doa; azken finean, herri sahararra baztertzen eta txirotzen eta hurrengo belaunaldien etorkizuna hipotekatzen ari baita horren erruz.

Horren testuinguruan, emakume sahararrak aktiboki parte hartzen ari dira Marokoren okupazio-politikaren interes ekonomikoa agerrarazteko eta salatzeke. Baliabide naturalen koloniajearen eta espolioazioaren aurka agertzea euren lurraldearen eta saharar diren aldetik euren bizimoduaren desjabetzearen *continuum* baten parte gisa kokatzen dute.

#### 4.2.6. Preso politikoekiko elkartasuna

Okupazioaren hasieratik eta atxiloketa bidegabean eta desagertze behartuen aurrean, emakumeek –atxilotu edo desagerrarazitakoen senitarteko izan zein izan ez– lan etengabe eta arriskutsua egin dute gertaerak argitzeko eskatzeko, eta kartzelatu eta non dauden jakin ahal izan duten pertsoneri laguntzeko. Preso politikoekiko elkartasuna protesten, baraualdien, nazioarteko salaketan eta abarren bidez erakutsi dute.

Gaur egun, Marokoko kartzelatan dauden preso politiko guztiak gizonak dira<sup>8</sup>. Horri dagokionez, emakume batzuek iradokitzen dute aldaketa izan dela Marokok emakumeen aurka darabilen errepresio-politikan. Emakume saharar desagertu eta kartzelatutakoen patuari buruz arreta erakartzea lortu duten giza eskubideen aldeko erakundeen eta komunikabideen lanari esker, azken

8 Berriki kartzelatutako presoen artean “Gdeim Izikeko taldea” izenarekin ezagutzen dena da. 25 saharar dira; 2013ko otsailaren 1 eta 17 artean Rabaten epaitu zituzten auzitegi militar batean kanpamentu horrekin zerikusia duten gertakariengatik, eta kartzela-zigor gogorrek ezarri zizkietan, tartean biziarteko kartzela zigorrak.

urteetan emakume gutxiago epaitu eta kartzelatu dituztela diote. Horren ordez, emakumeak atxiloketa-zentro edo polizia-etxeetara eramaten dituzte, eta han torturatu egiten dituzte hainbat egunez, aske utzi aurretik (Christian Allan eta Lkhal, 2015: 29). Era berean, lan honetarako elkarrizketaturiko emakumeen artean, asko poliziak bahituak izan dira eta, begiak estalita, hiritik urrun dagoen eremu bakarti batera eraman izan dituzte ibilgailu batean, eta han, kolpatu, laidotu, mehatxatu eta, ondoren, lekuan bertan bakarrik utzi dituzte. Jarduteko modu horrek adierazten du Saharako eta nazioarteko giza eskubideen aldeko erakundeen eragin politikoaren lorpenen aurrean, Marokoko Estatuak ez duela emakumeen aurkako errepresioa baztertzen, mekanismoak aldatu baizik, horren ikusgarria ez den indarkeria erabiltzeko helburuarekin.

### 4.3. Indarkeriari aurre egiteko moduak

Egoera sozial eta politikoan aldaketa nabarmenik ez dagoenez, eta biktimei apurka oneratzeko eta erreparazioa ahalbidetuko liekeen osasun arreta fisiko eta mental egokirik ezean, sahararrek hamarkada asko daramatzate indarkeriaren eraginei ia bakarrik aurre egiten, eta are gehiago lurralde okupatuetan.

Ondokoetan, gure interes-guneak lurralde okupatuetakoko emakume sahararren esperientzia izaten jarraitzen du, eta zehazkiago, indarkeriari aurre egiteko erresistentzia moduak.

#### 4.3.1. Kaltea kolektiboa bezala onartzea eta elkarri laguntzea

1975. urteaz geroztik, Mendebaldeko Saharan indarkeria politikoa horren hedatuta dago eta hain handia da, ezen ohikoa baita emakumeek horrek kolektiboari eragiten diolako kontzientzia sendoa erakustea. Halako baieztapenek: *“Ez da kasu bakana, familia saharar gehienei gertatzen zaizkie halakoak”*, *“Nire drama ez da beste familia saharar askorenaren desberdina”*, *“Mendebaldeko Saharan egunero bizitzen denaren adierazpen bat baino ez da”* argi erakusten dute zeinek bere indarkeria-bizipena testuinguru sozial eta politiko zabalago baten barruan kokatzeak lagundu egiten diela kalte kolektibo horretan emakumeek euren burua onar dezaten eta gertatutakoaren esanahia hobeto koka dezaten. Elkarri laguntzea emakumeek indarkeriaren erdian eutsi ahal izateko sortutako beste jardun bat izan zen eta da oraindik ere.

*“Kartzelan Saharako jai nazionala ospatzen genuen, ikasi egiten genuen eta beste kide batzuei, gizon eta emakume, irakurtzen irakasten genien... Triste ez egoten ahalegintzen ginen, eguzkia ez*

*ikusirik arren, torturak pairatu arren, garbitzeko aukerarik ez izan arren, eta kartzelako poliziengandik jasotzen genuen tratua basatia izan arren, depresioan ez erortzen ahalegintzen ginen”.*

*“Esan nien hori guztia niri egiteko, ea horrela bera torturatzeari uzten ote zioten...”*

*“Mehatxu asko egin zizkidaten honen berri [sexu-indarkeria] inori ez emateko, baina nik kontatzea erabaki dut, badakidalako emakume askok sufritu zuela gauza bera, eta ezin izan zutela azaldu. Ez naiz hau sufritu duen bakarra, emakume saharar askok, lotsagatik ezin izan du kontatu. Kontatzea erabaki dut, egin zidatena ez delako erraza”.*

Halako jarrerak eta portaerak indarkeriako muturreko egoeren aurrean emakumeek dituzten elkartasun-mekanismoen parte dira.

#### **4.3.2. Belaunaldien arteko aliantza**

Nabarmentzeko beste erresistentzia modu bat da emakume gazte eta helduen artean ezarri duten belaunaldien arteko aliantza gisakoa; bizi izandako esperientziak elkarri onartzean eta okupazioaren aurrean erresistentziari lotuta egotean oinarritzen dena. Gazteenek miresmenez balioesten dituzte amak, izebak, ahizpak... kausa sahararra babestu dutelako, indarkeria-egoera larrien aurrean tinko iraun dutelako edo senitarteko errepresaliatuak azkeneraino lagundu dituztelako.

Familia-loturetatik harago, miresmen berbera pizten du gazteengan ibilbide politiko garrantzitsua izan duten emakume helduen ereduak, gatazkaren hasierako garaikoak nahiz gaur egungoak izan. Mbarka Boujmajrouta, Aminatou Haidar, El Ghalia Djimi edo Zahra Bousaoula emakumeak gazteek errespetatzen eta jarraitzen dituzten aitzindariak-eredu batzuk dira. Batzuetan, gazteek kategoria modukoak ezartzen dituzte helduen esperientzien eta euren esperientzia propioen artean, aurre egin behar izan dieten errepresio mailaren eta giza eskubideen urraketan larritasunaren arabera. Kideen aurrean hitz egiterakoan nolabaiteko lotsa agertzean islatzen da hori. *“Nire historia garrantzi txikikoa da beste batzuenaren aldean...”*

Emakume heldu eta nagusiek, gazteentzat eredu eta erreferentzia direla jakitun, kausaren eta borroka-espirituaren legezketasuna belaunaldiz belaunaldi transmititzeko ardura hartzen dute beren gain, hura higatu eta bazter ez dadin.

*“Garrantzitsuena da gure garaian independentzia lortzen ez badugu, hurrengo belaunaldiak lekukoa hartu eta borrokan jarraitzea... Iraultza sahararraren oinarria belaunaldi belaunaldi igarotzea da, lortu arte. Honen oroimena geratzea da garrantzitsuena, [iraultzak] bizirik iraun dezan, historia ahaztu eta ezezagun honen berri ez duten beste herri batzuek ezagut dezaten.*”

### 4.3.3. Identitate eta konpromiso politikoa

Sufrimendu fisiko eta emozionala eragitea Marokoko Estatuaren indarkeria-tresna izan den arren, horren ondorioek ez dute emakume aktibisten borondate politikoa eta mobilizaziorako gogoia desbideratzea lortu. Emakumeek dimentsio politikoaren barruan interpretatzen dituzte errepresioaren ondorioak. Kontatzen dutenez, oso gaztetatik sentitu zuten euren buruari galderak egiteko eta errealitatea zalantzan jartzeko premia, inguruan gertatzen zena ulertzen ahalegintzeko modu gisa.

*“Nik 6 urte nituen, eta abesti bat abesten nuen lata bat danbortzat erabiliz. Sahara matulá – Sahara ez dago salgai. Ez nekien zer esaten nuen, ez nuen ulertzen, baina amak beti eskatzen zidan abesti hori abesteko, asko gustatzen zitzaion eta. Eta nik halako galderak egiten nituen: ‘Zergatik bizi dira hemen marokoarrak inork ez ditu maite eta? Zergatik gustatzen zaio amari horrenbeste abesti hori? Zergatik atxilotzen dituzte gure auzoko lagunak? Zergatik ezin dugu kausari buruz hitz egin?’”*

Oso gaztetatik barneratuta eduki dute Marokoko segurtasun indarrek nola jarduten duten eta, hein batean, horri aurre egitearen arriskuak eta kostu pertsonalak beren gain hartu dituzte. Emakumeek bizipen horiek kudeatzea lortu dute geldirik geratzeko aukera uxatzeko; oso bestela, gaitasun handia erakutsi dute sufrimendua erreibindikazio-ekintza bihurtzeko, eta horri eduki politiko eta etikoa esleitzen diote, eta adoretu egiten ditu:

*“1991z geroztik, emakume horiek [urte askoan atxilotuta-desagerrarazita egon ondoren aske utzitakoak] izan ginen kalean hasten ari zen borrokaren bandera eramanez. Guri gertatutakoari buruz hitz egin behar genuela erabaki genuen, eta gure desagertuak bilatzeko betebeharra ere bageneukan”.*

*“Kolpeak hiltzen ez bazaitu, indartsuago bihurtzen zaitu. Orduko hartatik indartsuago irten ginen, ausardia handiagoarekin.*”



*Horregatik naiz autodeterminazio-eskubidearen aldeko Batzordeko kide”.*

*“Nire zeregin sozialak betetzen ari naizela sentitzen dut, eta horrek ondo sentiarazten nau”.*

Eraildako edo desagertutako senitartekoak dituzten emakumeentzat konpromiso politikoa duintasuna ematen dien mekanismo bihurtzen da. Emakume horientzat zigorgabetasunaren aurkako borroka berez da gertatutakoari aurre egin eta erresistentzia erakusteko modu bat.

*“Martiri baten azkeneko ama izango nintzela egiten nuen amets, baina nire semearen [eraila] ondoren gehiago izan dira. (...) Nik gogor dihardut justiziaren bila. (...) Greba egin genuenean, gosea sentitu nuen lehenengo hiru egunetan, baina gero ez. Nire burua nire semearen kausan zentratuta zegoen, haren gorpua berreskuratu behar nuen, eta justizia egin. (...) Justizia lortzeko nire esku dagoen guztia egiten jarraitzen dut, eta ezer lortzen ez badut, gose-greba egingo dut berriro ere, baina oraingoan urik ez azukrerik gabe”.*

*“Nire familiak, desagertuen familia gehienek bezala, non dauden, edo haien gorpuk non dituzten esateko eskaera eginda daukagu. Zigorgabetasunaren aurka borrokatzen gara”.*

Indarkeria politikoaren aurrean erresilientzia handia erakutsi duten emakumeak dira. Haientzat adierazezin bihurtzen diren oso esperientzia traumatikoak izan arren (“Bizi izan dudana jasan daitekeena baino askoz gehiago da”; “Kartzelan bizi izan eta ikusi nuena ulertaraztea oso zaila da”; “Zaila da hitzekin azaltzea”), esperientzia horiek birkokatze gai izan dira, oinazea normaltasun bihurtzen utzi gabe, bakoitzak bere bizitzaren kontrola berreskuratzeko eta identitate politikoan sendotzeko.

#### 4.3.4. Emakumeen espazioa sortzea

Elkarrizketatutako emakumeentzat, etengabeko tentsioa, adi egon behar izatea, polizia-jazarpena, erantzukizun politikoak, familiakoak eta/edo lanekoak, oinaze fisikoa, beldurra, larritasuna eta abar gogorki baldintzatzen dituzten eta euren esperientziaz hitz egiteko eta partekatze behar besteko denbora hartzea eragozten dieten testuinguru eta pertsona alorreko faktoreak dira. Eurentzako denbora-premiaz gain, elkartzeko eta eurak erabakitako gaietan lan egiteko espazio fisikoa edukitzea estrategikotzat jotzen dute.

*“Espazio hau [Emakumeen Etxea] amets baten modukoa da; kanpamentuetan badaude, baina ezinezkoa zirudien okupaziopean edukitzea... Ametsa balitz bezala bizi dut oraindik ere, guretzat oso lorpen handia da”.*

Emakumeen Etxea, euren espazio- eta denbora-esparru gisa, memoria kolektiboa aktibatzen eta berreskuratzeko baliabide garrantzitsua izan daiteke: *“Gainerakoei entzunda gauza asko gogoratu ditut...”*. Emakumeen artean sorturiko konfiantzazko giroari esker azaleratutako testigantza batzuk lehenengoz entzuten zituzten batzuek besteengandik kasu batzuetan, elkar oso ondo edo aspalditik ezagutu arren. Oroitzapen kolektiboa nahita eragindako testuinguru terapeutiko batean gertatu ez arren, haientzat agerikoa izan zen *“kontaketa botika lasaigarria da”*, eta hori hainbat modutan agertu zuten:

*“Gure buruari buruz ezagutzen ez genituen esperientzien berri izan dugu, nire ikuspegia handitu egin da. Bileretan lanari buruz hitz egiten dugu beti, baina ez guri buruz, ahaztu egiten gara gutaz. Hemen gaudenei buruzko gauza asko ez nekizkien”.*

*“Zer garrantzitsua izan den partekatzea; barre egiteko aukera ere izan dugu, sufrimendua kanpoan uzteko...”*

Elkarriketatuak izan ziren emakumeek balio berezia eman zioten elkarri entzuteko eta Marokoren okupazioak zeharkatutako igarotako historiari eta egungoari buruzko esperientziak trukatzeko aukerari. Indarkeriari aurre egiten laguntzen die eta norbanakoaren eta taldearen ahalduntzea lortzeko tresna izan daiteke, honako arrazoi hauengatik: a) emakumeen arteko loturak indartzen ditu eta haien identitate kolektiboa indartzen laguntzen du; b) pairatutako bidegabekeriaren kontzientzia eta bizi izandako adierazteko gaitasuna handitzen du; c) emakume horien aurkako indarkeria-eredu komunak identifikatzen laguntzen du, nahiz eta esperientzia bakoitza errepikaezina den eta halakotzat tratatu behar den; d) emakumeak politikoki parte hartzeko erabakian berresten ditu, indarkeriak bilatu nahi duen horren ahultzearen aurrean, eta e) haien indarrak, balioak eta zeregin estrategikoak jabearazten ditu, bai eta egin duten sakrifizio izugarriak ere.

## 5. Ondorioak

Orain arte azaldutako guztia kontuan hartuta, azken gogoeta hauek genero-ikuspegiaren aldetik inklusiboa izango den egia, justizia eta erreparazio-

agendarantz aurrerapausoak emateko eta emakume sahararren indartze kolektiboa materialki eta sinbolikoki sustatzeko ekarpena egiteko xedearekin eginak dira.

Egiarako eskubideari dagokionez, gaur egunera arte ez da inolako Egiarako Batzorderik ez eta antzeko bestelako mekanismo ofizialik sortu sahararren aurka denbora honetan guztian (1975etik gaur egunera arte) eragindako krimenak zorroztasun eta zehaztasunez eta biktimekiko gutxieneko errespetu eta duintasunarekin ikertzeko. Are gutxiago, ez da inolako ikerketa ofizialik egin Marokoko Estatuak emakume sahararren kontra eragindako giza eskubideen urraketak modu serio eta adituan aztertzeko. Ikusi dugun bezala, emakumeak indarkeria-modu larrien biktima zuzenak izan dira. Emakume askori sufrimendurik lazgarrienak pairarazi zizkieten Marokoko atxiloteta-zentro klandestino eta kartzeletan, non tortura fisikoak, psikologiak eta sexualak eragin zizkieten.

Emakumeei dagokienez, Marokoko Ekitate eta Adiskidetzeko Instantziaren (IER)<sup>9</sup> Txostenak onartzen du, aztertutako aldian, emakumeak, eta gizonak “giza eskubideen hainbat urraketaren biktima izan zirela; hala nola atxiloteta bidegabeak, desagertze behartuak, erbesteratzeak eta bahiketetan edo kaleko istiluetan hiltzea”. Gainera, are sufrimendu handiagoa eragin zieten “umiliazio eta errepresio modu bereziak” aipatzen ditu; hala nola, atxilotuta zeuden bitartean oinarrizko higiene-baldintzarik ez edukitzea (sufrimendu psikikoa eragiten zuen horrek, batez ere hilekoarekin zeudenean); erditze edo abortu kasuetan medikuaren urgazpena ukatzea; torturatzailleen aurrean biluzi behar izatea; bortxatuko zituztelako mehatxuak eta bortxaketak (IER, 2005: 69-70). Hala ere, erreferentzia horietako bat

---

9 2004an Marokok Ekitate eta Adiskidetze Instantzia (IER) eratu zuen, eta “Afrika Iparraldeko eta Ekialde Hurbileko Nazioz gaindiko lehenengo Justizia mekanismo” (Garcia-Luengos, 2005) gisa aurkeztu zuen. Herrialdean, independentzia lortu zenetik, 1956az geroztik, 1999ra, Hassan II Erregea hil zen arte, gertaturiko giza eskubideen urraketak ikertzea zegoen. 2006an argitaratutako azken txostenean, IERek adierazi zuen artxibategietan zituen 22.000 espedienteetatik 742 kasu argitu zituela, izaera sistematikoa eta/edo masiboa izan zuten giza eskubideen urraketetan zentratuta (IER, 2005). Biktimen eta giza eskubideen aldeko Saharako elkarleen arabera, IERek hasieran nolabaiteko itxaropena piztu zuen arren (bai eta Marokoko giza eskubideen aldeko erakundeetan ere), berehala geratu ziren mugak agerian. Saharako erakundeek IERek erabilitako metodoekiko desadostasuna agertu zuten jendaurrean, eta giza eskubideen urraketa larrien espedientea ixteko, gertaeren alde bakarreko ikuspegia ezartzea eta zigorgabetasuna indartzeko egia mutilatzea leporatu zioten (AFAPREDESA, 2005). Besteak beste, IER eta beraren emaitzak deslegitimatzeke iturri nagusietako bat 1999tik aurrera Estatuaren indarkeria ikertzea omititu izana da.

ere ez da testuinguru batean kokatzen eta ez dira zuzenean erlazionatzen emakume sahararren eskubide-urraketekin.

Giza eskubideen aldeko erakundeak ahalegin handia egiten ari dira indarkeria-gertaeren oinarritzko inguruabarrekin eta horien arduradun diren erakundeekin lotuta Marokok egindako omisioak sailkatzeko eta agerrarazteko. CODESAk, esaterako, IERen Segimendu Batzordearen Txostenean aipatzen diren eta oraindik ere non dauden jakin ez den hamaika emakume desagerturi dagozkion omisioak salatu ditu, bai eta beste emakume saharar batzuen kasua ere, bahitu eta desagerraraziak izan arren, txosten horretan jasotzen ez direnak.

Emakume sahararren aurkako azken lau hamarkadako indarkeria politikoari buruz egiteke dauden ikerketez gain, litekeena da, beste leku batzuetan gertatu den bezala, emakumeak biktimen senitarteko gisa soilik kokatzen dituen gizarte-imaginarioaren indarra indarkeria horri buruzko informazio-hutsak egoten jarraitzeko faktoreetako beste bat izatea. Horren ondorioa da, alde batetik, emakumeen aurkako krimenen dokumentazioaren azpi-erregistroan eta dokumentaziorik ezan sakontzen dela. Eta bestetik, emakumeak berezko subjektu politiko gisa desagerrarazten dituen narratibak indarra hartzen duela. Lan honetan jaso ditugun emakumeen testigantzak aktibismo kontzienteari lotzen zaizkio eta lehenengo pertsonan eginda daude; eta horrek kontraesanean jartzen du emakumeak "...ren senitarteko" bakarrik direlako ikuspegi estereotipatua; hau da, militante politikoen ama, emazte, alaba eta, oro har, senitarteko soil direla.

Era berean, ezin dugu bazterrean utzi biktimen senitarteko izateak ere emakume askori lotura familiarrean oinarrituriko estigmatizazioa ekarri diela eta, horregatik, indarkeriaren aurrean ageriago geratu direla. Hala izan da Marokoko agintariek emakumeak familia-harremanengatik edo atxilotuta, torturatuta eta kartzelan zeuden senitartekoak non dauden informazioa eskatzeagatik zigortu izan dituztenean.

Justiziarako eskubideari dagokionez, Saharako giza eskubideen aldeko elkarteek behin eta berriz eskatu diote Marokori Mendebaldeko Saharan indarkeria geldiarazteko eta indarkeria horien egile material eta intelektualak zigortzeko; baina gaur egunera arte, Marokoko Estatuak ez du urratsik egin, ez alde batera ez bestera. Lan honetan oinarrituta, uste dugu eskaera horren baitan jaso behar dela emakume sahararrek haien aurka eragindako krimenengatiko justiziarako irispide berdina izango dutela bermatzea.

Esaterako, sexu-indarkeriari dagokionez, egiteke dagoen ikerlanaren ibilbidea izugarria den arren, Nazioarteko Zuzenbidearen esparruan badira gaur egun emakumeen justizia-eskaerak orienta ditzaketen tresna juridikoak, beste herrialde batzuetan egiten ari diren bezala. 1990.eko hamarkadan, lehenengoz hartu zen sexu-indarkeria gerra-krimen gisa, gizateriaren aurkako delitu eta genozidio gisa Nazio Batuek Jugoslavia ohian (TPIY) eta Ruandan (TPIR) eragindako krimenak epaitzeko *ad hoc* ezarritako nazioarteko epaitegietako estatutueta. 1998an, Nazioarteko Zigor Gorteak (CPI) ere sexu-indarkeria jaso zuen bere Estatutuan, eta bortxaketa, sexu-esklabotza, prostituzio behartua, haurdunaldi behartua, esterilizazio behartua edo beste edozein sexu-indarkeria mota, gizarte zibilaren aurkako eraso orokor edo sistematikoaren parte direnean, gizateriaren aurkako krimenak direla onartu zuen.

Indarrean dagoen nazioarteko marko juridikoa kontuan hartuta, Mendebaldeko Saharan, gertaerak ikertzea ez ezik, okupazioaz geroztik, Marokoko Estatuak emakume sahararren aurka eragindako sexu-indarkeria errepresio-estrategia planifikatu eta sistematiko orokor baten parte dela egiaztatzeko erronka daukagu aurrean.

Azkenik, emakume sahararrek pairatutako kalteen erreparazioa lortzeari dagokionez, neurriak edozein direla ere, indarkeriaren kausak eta eragin desberdinak generoaren arabera hartu behar ditu abiapuntu. Emakumeen nazioarteko mugimenduak behin eta berriz egindako eskaera da hori, eta berriki jasoa izan da torturari eta bestelako tratu eta zigor ankerrei, krudelei edo laidogarriei buruz Errelatore Bereziak egindako txostenean, 2016ko urtarrilaren 5ean (66. paragrafoa.): “Erreparazioa zehazteko genero-osagaien eta pairatutako oinazearen ondorioen erabateko ulermena hartu behar dira oinarri, eta dauden genero-desberdintasunak hartu behar dira kontuan neurri horiek berak diskriminatzaileak izan ez daitezen”. Bestela esanda, ezein erreparazio-neurriri ezin zaio aurrez jo genero-neutraltasunik, eta ezin da espero modu berean konpentsatzea indarkeria sufritu duten emakumeak eta gizonak eta mesedegarria izatea batzuentzat eta besteentzat berdin; izan ere, batzuen eta besteen bizimoduak, eta gatazkan izandako esperientziak, desberdintasun politikoek, sozialek eta ekonomikoek zehazten dituzte. Emakume eta neskek salaketak jartzeko eta erreparazioa jasotzeko eskubideari buruz Nairobiko Adierazpenean jasotzen den bezala (Zenbait Egile, 2007: 5), horiek “emakumeen eta nesken bizimoduan eragiten duten bidegabekeria soziokulturalek eta desberdintasun politiko eta egiturazkoen aldaketa sustatu behar dute”.

Berriro hemen, ildo horretako erronka garrantzitsua da, nahiz eta ez den bakarra, emakume sahararren aurkako krimen sexualen ingurukoa. Ikusi dugun bezala, orokorrean, emakume horiek modu periferikoan ekiten diote eskubideen urraketa larri horri, nahiz eta indarkeriarik traumatizatzaileenetakoa den. Saharako kasuan hori azaltzeko ohiko argudioa da haien kulturaren aipamena, erlijioa barne; hori izanik sexu-indarkeria pairatzen duten emakumeek jasaten duten estigma sozialaren eta salatzeke eragozpenen jatorria. Hala ere, ez da kultura sahararraren eta musulmanen ezaugarri eksklusiboa. Hein batean edo bestean, mundu osoan, emakumeen zehapen edo zentsura soziala krimen horren ondorioetako bat da.

Genero ikuspegitik, beharrezkoa litzateke erreparazioari modu zabalago eta konplexuagoan ekitea kasu horietan, abiapuntu hartuta emakumeei erreparazioa eskaintzeko, lehenengo, sexu-indarkeria jasateko arrisku handiagoa eta bigarren, lotsak eragiten duen ber-biktimizazio handiagoa, errudun sentiaraztea eta ondoriozko isolamendu soziala dakartzaten gizarte-desberdintasuneko faktoreak aldatzeko ekintza positiboak egin behar direla. Bizirik iraun duten emakumeei laguntzeko, babesteko eta onarpen soziala emateko familiako eta erkidegoko prozesuak bultzatzeko erronka da hori. Izan ere, familiaren eta sare sozial hurbilenaren laguntza daukatelako ziurtasunak eta haien konbentzimendu politikoak ahalbidetu dute emakume saharar batzuk hitz egitera ausartu eta jasan duten sexu-indarkeria jendaurrean salatu izana.

Erreparazioaren inguruan, gehitu nahi dugu emakume horiek ez dutela inolako aukerarik izan indarkeriaren biktima diren aldetik haien esperientzia halako egoerek eskatzen dituzten gutxieneko prozesu psikosozialetatik lantzeko. Emakume horien erresistentziak eta aktibismo politikoak ez dute ordeztzen, ez osotasunean ez automatikoki ere, galerekin eta sufrimendu fisiko eta psikologikoekin loturiko traumak prozesatzeko premia. Horretarako, eta kontuan hartuta Mendebaldeko Saharako gatazka zabalik eta etengabeko errepresiopean dagoela, uste dugu beharrezkoa dela laguntza psikosozialerako espazioak aktibatzea, indarkeriaren eraginak prozesatzen laguntzeko, bai zuzeneko biktima gisa bai erail, desagerrarazi eta kartzelatutako pertsonen senitarteko gisa. Horren ildotik, elkarriketatutako emakume sahararrek egindako balorazioak adierazgarriak eta argigarriak izan ziren, euren antolamenduaren jardunean beti lanari buruz aritzen direla eta inoiz ez euren buruari buruz adieraztean. Emakume batzuek bi alderdien arteko orekari eutsi beharra nabarmendu zuten, osasun mentala, harremana eta elkarrekiko laguntza zainduz. Horrek balio izango luke bai okupazioaren

eta horren ondorioen aurrean indarra hartzeko bai emakume gisa identitatea lantzeko eguneroko bizitza- eta borroka-testuinguruetan.

Azkenik, eta eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalen urraketaren gainean, Mendebaldeko Saharan genero-ikuspegian oinarritutako erreparazio-agenda batek indarkeriaren ondorioz, iraganean eta orainaldian, emakumeei ukatu zaizkien hezkuntzarako eta lanerako aukerak berrezartzea jaso beharko luke. Marokoko Estatuaren hezkuntza eta enplegu politika diskriminatzaileak bereziki kaltetu ditu emakumeak. Emakume asko eta asko ikasketak uztera behartuak izan dira, askoz laneratze-tasa txikiagoa dute eta behin-behineko enpleguetan presentzia handiagoa; emakumeen eskubide sozial eta ekonomikoak larriki urratuak izan dira. Eta horrek guztiak hezkuntza eta lan-helburuetan eragiten du eta, ondorioz, haien garapen pertsonalean eta segurtasun ekonomikoan. Emakume batzuek Marokoko arauzko hezkuntza-sistematik kanpo saiaturen dira ikasten jarraitzen (klase partikularrekin, hizkuntzak ikasten, etab.), baina haien kontura eta ahalegin pertsonal handiarekin egin behar izaten dute; beste batzuek ezin dute egin, gehiegizko familia-ardurek eragozten dietelako. Formazioa interes estrategikoa da emakumeentzat, eta lagundu egin beharko litzateke eta erreparazio integraleko agendan txertatu.

## Bibliografia

- Asociación de Familiares de Presos y Desaparecidos Saharaus (AFAPREDESA) (2008): *Sahara Occidental: persistencia de las violaciones de los derechos de un pueblo*, Gakoa, Donostia-San Sebastián.
- Asociación de Familiares de Presos y Desaparecidos Saharaus y Unión de Juristas Saharaus (UJS) (2005): *La Instancia “Equidad y Reconciliación” marroquí (IER). ¿Nueva utilización engañosa de los derechos humanos por el Majzén de Marruecos?* <<http://www.arso.org/afaujs170205.htm>>.
- Centro de Investigación Delás (2010): *España vende y regala armas a Marruecos*, azaroaren 19an, <<http://www.centredelas.org/es/industria-ycomercio-de-armas/1838-espanya-ven-i-regala-armes-al-marroc-3>>.
- Christian Allan, Joanna eta Hamza Lkhal (2015): *Acting with impunity. Morocco’s Human Rights Violations in Western Sahara and the Silence of the International Community*, SAIH-Norwegian Students’ and Academics’ International Assistance Fund, apirila, <<https://saih.no/assets/docs/Acting-With-Impunity-Western-Sahara-report.pdf>>.

Civieta, Óscar F. (2015): “Cada noche me dormía sin saber si despertaría”, Sukeina Yedhlu-ri egindako elharrizketa, *eldiario.es*, uztailaren 7an, <[http://www.eldiario.es/aragon/politica/noche-dormia-saber-despertaria\\_0\\_404560414.html](http://www.eldiario.es/aragon/politica/noche-dormia-saber-despertaria_0_404560414.html)>.

Colectivo de Defensores Saharais de los Derechos Humanos (CODESA) (2013): *La verdad es difícil de ocultar. Respuesta de CODESA al “Informe del comité de seguimiento de la activación de las recomendaciones de la Instancia Equidad y Reconciliación marroquí – anexo 1 casos de desapariciones forzadas 2010”*, urtarrila, <[http://codesaso.com/es/pdf/rapportCODESA/CODESA\\_vs\\_IER\\_Esp.pdf](http://codesaso.com/es/pdf/rapportCODESA/CODESA_vs_IER_Esp.pdf)>.

Durham, Helen eta O’Byrne, Katie (2010): “El diálogo de la diferencia: el Derecho Internacional Humanitario y las perspectivas de género”, *Revista Internacional de la Cruz Roja*, 877, 1-24, <<https://www.icrc.org/spa/assets/files/other/irrc-877-durham.pdf>>.

Ferrer, Jordi eta Pablo Vidal (2010): *El problema. Testimonio del pueblo saharai*, dokumentala.

García, Alejandro (2010): *Historia del Sáhara y su conflicto*, Catarata, Madril.

García Fachal, Sonia (2015): *Sahara Occidental: situación de jóvenes y manifestantes*, CEAR Txostena, Madril, otsaila, <<http://www.cear.es/wp-content/uploads/2013/08/S%20C3%A1hara-Occidental.2015.J%20C3%B3venes-y-Manifestantes.pdf>>.

García-Luengos, Jesús (2005): *Argelia y Marruecos: dos formas diferentes de enfrentar el pasado*, Instituto de Estudios sobre Conflictos y Acción Humanitaria-IECAH, <[http://www.iecah.org/web/index.php?option=com\\_content&view=article&id=734:argelia-y-marruecos-dos-formasdiferentes-de-enfrentar-el-pasado&catid=15:articulos&Itemid=9](http://www.iecah.org/web/index.php?option=com_content&view=article&id=734:argelia-y-marruecos-dos-formasdiferentes-de-enfrentar-el-pasado&catid=15:articulos&Itemid=9)>.

Gardam, Judith (1998): “La mujer, los derechos humanos y el Derecho Internacional Humanitario”, *Revista Internacional de la Cruz Roja*, irailaren 30ean, <<https://www.icrc.org/spa/resources/documents/misc/5tdmg8.htm>>.

Griese, Karin (2012): “Peritaje médico”, Mendia Azkue, Irantzu eta Gloria Guzmán Orellana (arg.): *Ni olvido, ni silencio. Tribunal de Conciencia contra la violencia sexual hacia las mujeres durante el conflicto armado en Guatemala*, Hegoa Institutua (UPV/EHU) eta UNAMG, Bilbo eta Ciudad de Guatemala, 93-103, <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/279>>.



- Guillerot, Julie (2009): *Reparaciones con perspectiva de género*, Oficina del Alto Comisionado de las NNUU para los Derechos Humanos, México D.F.
- Haidar, Larosi (2008): “Intifada: causas y repercusiones”, AFAPREDESA: *Sahara Occidental: persistencia de las violaciones de los derechos de un pueblo*, Gakoa, Donostia-San Sebastián, 55-80.
- Hegoa eta Aranzadi (2014): *Voces del desierto. La resistencia frente al olvido*, <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/317>>.
- Instancia Equidad y Reconciliación (IER) (2005): *Informe final. La verdad, la equidad y la reconciliación*, 1. Liburuki, Comisión Nacional para la Verdad, Equidad y Reconciliación, Rabat.
- Juliano, Dolores (1998): *La causa saharai y las mujeres. “Siempre fuimos tan libres”*, Icaria, Bartzelona.
- Lakhlifi, Lalla Nhabouha (2012): “Derechos humanos y territorios ocupados”, Martínez Lillo, Pedro *et al.*: *Memoria y tiempo presente del Sáhara Occidental. Política, cooperación y cultura*, Cuadernos Solidarios, 8, Universidad Autónoma de Madrid, 307-332, <<http://www.ocud.es/es/pl61/recursos/id1312/cuaderno-solidario-dela-uam-n-8-memoria-y-tiempo-presente-del-sahara-occidental-politicacooperacion-y-cultura.htm>>.
- Macías Martín, Jonathan (2013): “Las mujeres saharauis sufrimos la violencia del Gobierno de Marruecos”, *Diagonal*, El Ghalia Djimi-ri egindako elkarhizketa, Asociación Saharai de Víctimas de Violaciones de Derechos Humanos Elkartearen presidenteordea, apirilaren 9an, <<https://www.diagonalperiodico.net/global-movimientos-entrevistas/mujeres-saharais-sufrimos-la-violenciadel-gobierno-marruecos.html>>.
- Martín Beristain, Carlos (Zuz.), Martínez Torres, Antonio, Valencia Villa, Alejandro eta Sergio Campo Lladó (2015): *Los otros vuelos de la muerte. Bombardeos de población civil en el Sáhara Occidental*, Hegoa Institutua eta Asociación de Amistad con el Pueblo Saharai de Sevilla, Bilbo eta Sevilla, <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/331>>.
- Martín Beristain, Carlos, Gil, Alonso eta Federico Guzmán (2013): *Dolor y resistencia en el Sáhara Occidental*, Icaria, Bartzelona.
- Martín Beristain, Carlos eta Eloísa González Hidalgo (2012): *El oasis de la memoria. Memoria histórica y violaciones de Derechos Humanos en el Sahara Occidental* (I. eta II. Liburukiak), Hegoa Institutua, Bilbo, <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/281>>.

- Martínez Lillo, Pedro *et al.* (2012): *Memoria y tiempo presente del Sáhara Occidental. Política, cooperación y cultura*, Cuadernos Solidarios, 8, Universidad Autónoma de Madrid, <<http://www.ocud.es/es/pl61/recursos/id1312/cuaderno-solidario-de-la-uam-n-8-memoria-y-tiempo-presentedel-sahara-occidental-politica-cooperacion-y-cultura.htm>>.
- Medina Martín, Rocío (2014): “Mujeres saharauis, colonialidad del género y nacionalismos: un acercamiento a partir de los feminismos decoloniales”, *Relaciones Internacionales*, 27, 13-34.
- Nazio Batuak (2011): *Informe de la Experta independiente en la esfera de los derechos culturales, Farida Shaheed, sobre su Misión a Marruecos* (2011ko irailaren 5etik 16ra), 2012ko maiatzaren 22an (A/HRC/20/26/Add).
- Nazio Batuak (2016): *Informe del Relator Especial sobre la tortura y otros tratos o penas crueles, inhumanos o degradantes, Juan E. Méndez, sobre la aplicabilidad de la prohibición de la tortura y otros tratos o penas crueles, inhumanos o degradantes en el derecho internacional a las experiencias propias de las mujeres, las niñas y las personas lesbianas, gais, bisexuales, transgénero e intersexuales*, 2016ko urtarrilaren 5ean (A/HRC/31/57).
- Omar, Sidi M., Murphy, Jennifer M., El Jalil Aali, Linam eta Embarka Hamoudi Hamdi (2008): *El papel de la sociedad civil en la construcción de la paz en el Sáhara Occidental*, Documentos de Trabajo, 3, Universidad Jaume I eta CEIPAZ, Castellón eta Madril, <<http://www.ceipaz.org/images/contenido/3.%20Sahara%20y%20sociedad%20civil-%20Sidi%20M.%20Omar.pdf>>.
- Organización Mundial Contra la Tortura (OMCT) (2009): *Arresto arbitrario, intimidaciones y violación sexual de una joven saharauí por miembros de la policía marroquí*, <<http://www.omct.org/fr/violence-against-women/urgent-interventions/morocco/2009/02/d19885/>>.
- Oskoz, Josu eta Arantza Chacón (koords.) (2008): *La situación de los derechos humanos en los territorios ocupados del Sahara Occidental. Responsabilidades de Marruecos, responsabilidades de la comunidad internacional y responsabilidades corporativas*, Asociación de Amigos y Amigas de la RASD de Álava, <[http://biblioteca.hegoa.ehu.es/system/ebooks/17174/original/Derechos\\_Humanos\\_en\\_el\\_Sahara\\_Occidental.pdf](http://biblioteca.hegoa.ehu.es/system/ebooks/17174/original/Derechos_Humanos_en_el_Sahara_Occidental.pdf)>.
- Perregaux, Christiane (1999) (2. edizioa): *Guilili. Mujeres del desierto saharauí, Txalaparta*, Tafalla (Nafarroa).

Randa, Farah (2011): “‘Knowledge in the Service of the Cause’: Education and the Sahrawi Struggle for Self-Determination”, *Refuge*, 27(2), 30-41, <<http://refuge.journals.yorku.ca/index.php/refuge/article/view/34720>>.

Saharako Ilargi Erdi Gorria (1976): *Un pueblo acusa*, Departamento de información del Frente Polisario.

Western Sahara Resource Watch (WSRW) (2010): *Graduados saharauis sin trabajo protestan en Rabat*, uztailaren 22an, <<http://www.wsrw.org/a197x1542>>.

Zenbait Egile (2007): *Declaración de Nairobi sobre el derecho de las mujeres y las niñas a interponer recursos y obtener reparaciones*, <<https://www.fidh.org/IMG/pdf/DeclaraciondeNairobi-es.pdf>>.

Zurutuza, Karlos (2015): “Las mujeres saharauis toman la calle”, *Europress*, Europar Batasuneko berrien ataria, uztailaren 20an, <[www.euroxpress.es/noticias/las-mujeres-saharauis-toman-la-calle](http://www.euroxpress.es/noticias/las-mujeres-saharauis-toman-la-calle)>.



The background of the page is a detailed, light-colored illustration of a public square. In the center, there is a large, ornate fountain with multiple tiers and water spraying upwards. Surrounding the fountain is a large crowd of people, many of whom are wearing traditional or ceremonial hats and clothing. The scene is set in an open, paved area with some architectural details visible in the background, suggesting a significant public gathering or event.

## **VII. Kapituluua.**

### **Trantsiziozko justizia Kongoko Errepublika Demokratikoan.**

### **Bakearen aldeko eta zigorgabetasunaren aurkako emakumeen erakundeak Ipar Kivun eta Hego Kivun**

*iker zirion landaluze*



## 1. Sarrera

Kapitulu honetan, Kongoko Errepublika Demokratikoan eta, hain zuzen ere, bere ekialdean dauden Ipar Kivu eta Hego Kivuko probintzietan, emakume talde antolatuek bakegintzaren eta trantsiziozko justiziaren esparruetan garatu dituzten erresistentzia eta aktibismo modu nagusiak azpimarratu nahi ditut. Testuinguru horretan, 1990ko hamarkadaz geroztik, gatazka armatuak, segurtasun eza eta giza eskubideen urraketak etengabe gertatu izan dira. Azken urteotan, trantsiziozko justizia mekanismo desberdinak ezarri badira ere, horrek ez ditu herritarren justizia eskaerak asebeste; aitzitik, inpunitate orokorreko testuinguru bat sortu du.

Feminismoak eskaintzen duen ikuspegi kritiko eta eraldatzailetik abiatuta, gatazka armatuak gizon eta emakumeengan duen inpaktuaren izaera desberdina aztertzen dut, baita gizon eta emakumeen parte hartzearen izaera desberdina ere. Era berean, herritarren eta, bereziki, emakumeen giza eskubideen urraketan aurrean nagusi den inpunitateari aurre egiteko asmoz emakume taldeek martxan jarritako ekintza kolektiboen ugaritasuna eta aniztasuna azpimarratzen dut.

Lan hau bi iturri hauetan oinarritzen da: alde batetik, iturri bibliografikoak; bestetik, 2014ko uztaila eta abuztua artean, Ipar Kivuko (Goma, Butembo, Beni) eta Hego Kivuko (Bukavu) zenbait hiritan, 40 pertsona baino gehiagorekin izandako elkarrizketa erdiegituratu bidez jasotako lekukotza eta iritziak<sup>1</sup>. Elkarrizketatutako pertsonak erakunde hauetako kideak dira: Kongoko Errepublika Demokratikoko NBEren Egonkortze Misioa (MONUSCO), Kongoko gobernuaren erakunde desberdinak eta, gehienbat, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren, bakearen, giza eskubideen eta garapenaren esparruetan lan egiten duten tokiko –kasu batzuetan nazioarteko– erakundeak. Elkarrizketatuak 25 eta 65 urte arteko pertsonak dira, ia guztiak kongoarrak eta, gehienak, emakumeak. Pertsona horiek, gatazken inguruan egiten duten lanaren ondorioz duten eskarmentuaz gain, azken bi hamarkadetan RDCn izan diren indarkeriaren eta giza eskubideen urraketan ondorioak ere bizi izan dituzte pertsonalki; bakoitzak era desberdin batean.

---

1 Elkarrizketa horiek 2016. urtean defendatu nuen doktoretza tesiaren kasu ikerketaren eremuan egin nituen. Honako hau da tesiaren izenburua: *Políticas internacionales de construcción de la paz y de desarme, desmovilización y reintegración en Kivu Norte y Kivu Sur; República Democrática del Congo. Un análisis basado en el enfoque de género y las masculinidades (2004-2015)*.

Elkarrizketak frantsesez izan ziren eta elkarrizketatutako pertsonen baimenarekin grabatu ziren. Gainera, pertsona guztiak aipatuak izateko baimena eman zuten. Hortaz, testuan horietako inoren ideiak aipatzen ditudanean bere izena zehaztuko dut eta, aipatzen dudana lehenengo aldian, pertsona horren lotura profesionala ere adieraziko dut. Horren ondorioz, testua irakurtzen duenak nortzuk diren eta nondik hitz egiten duten jakin ahal izango du, haien hitzak hobeto interpretatu ahal izateko. Aipatutako pertsonak, elkarrizketatutako guztien zati bat baino ez dira. Hala ere, testu honek pertsona guzti horiei zor die; izan ere, ideia eta hausnarketa guzti horiek lagundu dute aztertutako elementuak egituratzen.

Hitzazurre honi amaiera ematearren, kapitulu honen edukia laburki azalduko dut. Bigarren atalean, Kongoko Errepublika Demokratikoan azken bi hamarkadetakoa gatazka armatuak testuinguruan jarriko ditut. Era berean, izandako gatazka armatuen ezaugarri eta dinamika desberdinak azpimarratuko ditut. Beste alde batetik, Ipar Kivu eta Hego Kivuko inpunitate giroa testuinguruan jartzeko asmoz, gaur arte ezarritako trantsiziozko justizia mekanismoak era kritikoan aurkeztuko ditut. Hirugarren atalean, gatazka testuinguru horretan genero harreman desberdinen inpaktua aztertuko dut, bereziki, Kongoko gizartean emakumeek pairatzen duten indarkeriaren *continuum-a*, indarkeriaren izaera generizatua eta, azkenik, gatazketan emakumeek duten parte hartze desberdinetako batzuk. Laugarren atalean, bakegintzari eta trantsiziozko justiziarri dagokienez, emakumeen ekintza kolektiboko estrategietan sakonduko dut. Horretarako, honako hauek aurkeztuko ditut: aktibismo horren ezaugarrietako batzuk, horien oinarri teorikoak, lehentasunezko ekintza estrategiak (intzidentzia politikoa, sentsibilizazioa, salaketa eta emakumeen boteretzea), beste eragileekiko aliantzak eta aurrean dituzten oztopo eta zailtasun nagusiak. Azkenik, bosgarren atalean, testuan adierazitako ideia nagusiak bilduko ditut.



## 2. Gatazka armatuak eta trantsiziozko justizia Kongoko Errepublika Demokratikoan

### 2.1. Gatazka armatuen sorburua eta garapena

Belgikar kolonizazio predatzailearen ostean<sup>2</sup>, 1960ko ekainaren 30ean Kongok independentzia lortu zuen. Istiluen, matxinaden eta herrialdearen hego-ekialdean dagoen Katangako eskualdearen sezesio gerraren ondorioz, ahultasun politikoak eta indarkeriak iraun zuten. Ezegonkortasun politiko horrek ondorioak izan zituen, besteak beste, Patrice Lumumba Kongoko lehen ministroaren hilketa, 1961. urtean. Ezegonkortasun horrek zenbait urtez iraun zuen, hain zuzen, 1965ean, Mobutu armada nazionalako Teniente Jeneralak, estatu kolpe baten bitartez<sup>3</sup>, boterea hartu eta erregimen diktatoriala ezarri zuen arte.

1996. urtean, Laurent-Désiré Kabila buru zuela, *Alliance des Forces Démocratiques pour la Libération du Congo* (AFDL) mugimendu matxinoak herrialdearen ekialdean altxatu eta Mobutu uzkaile zuen. Matxinada horren atzean inguruko zenbait herrialde izan ziren, baina beste elementu hauek ere lagundu zuten: Estatu kleptokratikoaren beraren kolapsoa (orduan Zaire izenekoa<sup>4</sup>), barneko oposizio mugimenduak eta erregimenak herritarren artean zuen babes urria. Izan ere, erregimenak uste askoz sistema politiko eta ekonomikotik biztanle talde handiak baztertu zituen.

Mobutu uzkaile ostean, gatazka armatu berri bat piztu zen. Horretan, eskualdeko herrialdeen inplikazioa handiagoa izan zen. Ugandak, Ruandak eta Burundik aurre egion zioten Kabilaren erregimen berriari. Bestalde, erregimen berriak Angola, Namibia eta Zimbabweren babesa izan zuen eta, neurri txikiago batean, Txad eta Sudanena ere (horietako bakoitzak politika, ekonomia eta segurtasun interes desberdinak defenditzen zituelarik). Guztira, bigarren gatazka armatu horretan atzerriko 14 armadak parte hartu zuten,

---

2 1885 eta 1908 artean, Belgikaren kolonia bilakatu aurretik, Belgikako Leopoldo II erregeak zuen Kongoko Estatu Librearen (*État Indépendant du Congo*) jabetza. Berak, esklabotzaren bitartez, bertako biztanleen eta herrialdeko baliabide naturalen esplotazio bortitza egin zuen.

3 Estatu kolpe hori eta Patrice Lumumbaren hilketa AEBk eta Belgikako metropoliak sustatu zuten. Horiek -eta bloke kapitalistako beste zenbait Estatuk- Mobuturen aliatuak izan ziren Gerra Hotza bukatu zen arte.

4 Independentziarekin batera herrialdeak “Kongo” izena hartu zuen. Mobutuk izen horren ordeztu “Zaire” izena ezarri zuen 1971ean eta, azkenik, 1997an, Laurent Désiré Kabilak berriro aldatu zuen, gaur egungo izena jarriz, hau da, “Kongoko Errepublika Demokratikoa”.

askotan talde armatu kongoarrak bitartekari zirela. Horregatik, gatazka horri “Afrikar Lehenengo Mundu Gerra” deitu ohi zaio.

Gatazka armatu bi hauek (1996-1997 eta 1998-2003) ondorio latzak izan zituzten biztanle zibilentzat, gehienbat, herrialdearen ekialdean. Iturriaren arabera datuak aldatzen badira ere, gatazka horietan 3 milioi pertsona inguru hil zirela kalkulatu da. Aldi berean, beste hainbat milioik etxea utzi eta desplazatu behar izan zuten, herrialdean bertan zein atzerrira.

2003an, Bake Akordio Global eta Inklusiboaren Azken Akta sinatu zen eta, horrekin batera, 2006. urtera arte iraungo zuen trantsiziozko gobernu bat ezarri zen. Horren ondorioz, ordea, ez ziren talde armatu asko desagertu; aitzitik, talde berriak ere sortu ziren. Era berean, herriaren ekialdean eta, bereziki, nire analisiaren muinean dauden Ipar Kivu eta Hego Kivuko probintzietan<sup>5</sup> biltzen diren gatazka armatuek gaur arte iraun dute.


2003ko Bake Akordio Global eta Inklusiboaz geroztik, nazioarteko erkidegoak Kongoko errealitatea “gatazka osteko testuinguru” eta indarkeriazko gertakari larrienak “krisi” gisa definitzen hasi zen (Auteserre, 2010: 37). Baina, besteak beste, honako elementu hauek gatazka armatuek pizturik jarraitzen dutela erakusten dute: geroagoko bake akordioak; aktibo jarraitzen duten dozenaka taldeak; giza eskubideen urraketen iraupena; edo Kongoko Errepublika Demokratikok NBERen Misioa (MONUC) handitzea. Azken horrek, 2010. urtean, izenaz aldatu eta gaur egungo izena hartu zuen, hau da, Kongoko Errepublika Demokratikoko Nazio Batuen Egonkortze Misioa (MONUSCO) eta 20.000 kide inguru ditu. Sorburu, eragile eta dinamika aniztasunaren ondorioz, gatazka armatuaz hitz egin beharrean gatazka armatuez hitz egin behar dugu. Gatazka horiek bera eta bakarra ematen dute, eta askotan hala aurkezten da; baina asko dira, desberdinak eta etengabeko bilakaeran. Ezaugarri komunak dituzte, baita desberdintasun garrantzitsuak ere.

Eudoxie Nziavake Emakumeen Mundu Martxaren ordezkaria da Ipar Kivun. Bere esanetan, Kongoko Errepublika Demokratikoan gupil zoroa

---

5 Kongoko Errepublika Demokratikoaren banaketa administratiboaren arabera, Estatua Probintzietan (*Province*) banatzen da eta probintziak Lurraldetan (*Territoire*). 2008an onartutako Deszentralizazioko Lege Organikoa 26 probintzia onartzen ditu aldez aurretiko 11 probintzien ordez. Aurreko legean eta gaur egungo legean Ipar Kivu eta Hego Kivu Probintziak dira. Ipar Kivukoa sei lurraldek osatzen dute: Beni, Lubero, Rutshuru, Masisi, Walikale eta Nyiragongo. Hego Kivukoa zortzi lurraldek osatzen dute: Fizi, Idjwi, Kabare, Kalehe, Mwenga, Shabunda, Uvira eta Walungu.

ematen da. Izan ere, gerra bakoitza alderdien arteko bake akordio batekin bukatzen da eta, horren bitartez, botereak eta administrazioa eta segurtasun indarretako karguak banatzen dituzte. Ondoren, banaketa horren oreka aldatzen da, bai adostutakoa betetzen ez delako bai “euren zatia” eskatzen duten aktore berriak agertzen direlako. Horren ondorioz, talde armatu zaharrak biziberritu edo berriak sortzen dira eta gatazka armatuak berpizten dira.



Iturria: Nazio Batuak.

Gizarte zibilaren arabera ere, ez da bakerik. Kongoko Errepublika Demokratikoan, bakearen, justiziaren eta gizartearen berreraikuntzaren inguruko *Living with Fear. A Population-Based Survey on attitudes about Peace, Justice and Social Reconstruction in Eastern Democratic Republic of Congo* ikerketak hori erakusten du<sup>6</sup>. Horretan, herrialdearen ekialdeko biztanle

6 Ikerketa hori AEBko zenbait ikerketa zentrok eta unibertsitatek osatutako partzuergoak argitaratu zuen 2008an. 2007ko iraila eta abendua artean egin zen 2.000 pertsona elkarrizketatuz, 1.081 Ipar Kivukoak eta 815 Hego Kivukoak (Vinck *et al.*, 2008: 15). Ez ditu datuak sexuaren arabera banatzen, hortaz, ezin dira gizon eta emakumeen ikuspegi eta interes desberdinak ezagutu.

zibilek euren lehentasunen artean bakea<sup>7</sup> (elkarrizketatutako pertsonen %50) eta segurtasuna (%34) jarri zituzten, diruaren (%27), hezkuntzaren (%26) eta elikadura eta uraren (%26) aurretik (Vinck *et al.*, 2008: 23-24).

## **2.2. Gaur egungo gatazka armatuen ezaugarriak eta dinamikak**

Jarraian, Ipar Kivu eta Hego Kivuko gatazkek komunean duten zenbait dinamika aztertuko ditut. Horretarako, lehenik, gatazka horiek eskualdean bertan (Laku Handietan) eta nazioartean dituzten ondorioak aztertuko ditut.

Sarritan, ikerketa nagusiak probintzia hauetako gatazken tokiko edo nazio mailako alderdietan zentratzen dira eta eskualdeko eta Afrikaz kanpoko eragileen erantzukizunari ez ikusia egiten diote. Eskualdekoen artean Uganda eta Ruanda ditugu. Horiek, maiz, esku hartu dute, batzuetan era zuzenean, euren armaden bitartez eta, besteetan, zeharka, kongoar talde armatuen bitartez. Ruandaren esku hartzea bereziki etengabea eta nabaria izan da. 2003ko Bake Akordio Global eta Inklusiboaz geroztik, mugimendu politiko-militar desberdinak lagundu ditu Kivuetan. Horrek, Kinshasa eta Kigaliren arteko harreman diplomatikoa tenkatu du eta bertako biztanleengan ondoko herriaren kontrako gorrotoa piztu du. Eskualdeko tentsioak gorabehera, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Ruanda, Burundi eta Uganda interkonexio sakona duen eskualde bateko kideak dira. Horren ondorioz, bakea, justizia eta adiskidetzeari eskualde mailako hurbilketa batetik interpretatu behar dira. Parte hartzen duten aktoreen artean hauek kontinenteaz kanpokoak dira: Belgika, AEB, Frantzia eta Erresuma Batua; baita hainbat enpresa transnazional ere. Horiek guztiek euren interes politiko, ekonomiko eta geostrategikoak babesten dituzte eta, gertatzen ari denari dagokionez, ez dituzte euren iraganeko eta egungo erantzukizunak onartzen.

Bigarrenik, aktore armatuen aniztasuna eta pribatizazioa eskualdeko gatazken ezaugarri dira, gehienbat, estatuz kanpoko talde armatuena. Kongoko gobernuak 2016ko urtarrilean egindako kalkuluen arabera, “dozenaka

---

7 Elkarrizketatutako biztanleentzat bakea hau zen: “beldurraren amaiera” (%46), “elkarrekin eta adiskidetasunean bizi” (%45), “indarkeria eza” (%42) eta, neurri txikiago batean, “justizia” (%22), “oinarrizko beharrianak asetzeari” (%15) edo “etxera itzultzea” (%13).

talde armatu” nazional eta atzerritar aktibo daude Kivuetan. Haien osaera heterogeneoaren eta helburu, dinamika eta interes desberdinen ondorioz, euren artean aliantzak edo liskarrak pizten dira testuinguruaren arabera. Izaera publikoa duten aktore armatuek, besteak beste, Armada Nnazionalak (*Forces Armées de la République Démocratique du Congo*, FARDC) edo MONUSCoko tropek gatazka hauetan funtsezko rola baldin badute ere, gutxi dira parte hartzen duten aktore armatuen artean.

Hirugarrenik, nahiz eta haien hasierako helburuen artean ez egon, talde armatu gehienek baliabide naturalen esplotazio ilegalaren bidez edo gizarte zibilaren ondasunen arpilatzearen eta lapurretaren bidez lortu dute sostengu ekonomikoa. Alde batetik, haien kontrol eta jarduera eremuak bat datoz baliabide mineralak, animaliak edo kontrabando bideak dituzten eremuekin. Bestetik, Kivuetako biztanleak aktore armatu gehienek (Armada Nazionala barne) esplotatzen dute baliabideetako bat bilakatu dira.

Izan ere, laugarrenik, biztanle zibilen esplotazio dinamika hori orokortu da eta horrek Ipar Kivun eta Hego Kivun indarkeria hedatu izanaren zergatia ulertzen laguntzen du. Hilketak, torturak, esklabotza, bahiketak eta sexu indarkeria, besteak beste, eguneroko mehatxuak dira biztanle askorentzat. Hortaz, ondoko herrialdeetan aterpea bilatzea eta barne desplazamenduak ohikoak dira Kongoko Errepublika Demokratikoan.

Bosgarrenik, biztanle zibilen kontrako ekintzek eta beren izaera sistematikoak, orokorrak eta bereizi gabeak Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen arauak urratzen dituzte (esaterako, gatazka testuinguruetan borrokalariak eta biztanleak bereiztea).

Azkenik, Kivuetako gatazka armatuak etengabe errepikatzen dira eta, horren ondorioz, kronifikatu dira. Eudoxie Nziavakeren eta literaturaren zati baten arabera (Kabunda, 2009; García Mingo, 2015), “errepikapenezko gerra” testuinguru batez ari gara. Hala, bada, gatazka armatua eta bakea bereiztea ez da erraza -ezta bake akordioak sinatu ondoren ere- bietako bat ere ez baita argi eta garbi adierazten. Izan ere, “ez gerra ez bake” (*no war no peace*) egoera bat sortzen da eta segurtasun eza eta biztanle zibilen kontrako indarkeria etengabeak dira (Vlassenroot eta Raeymaekers, 2007: 5).

### 2.3. Trantsiziozko justizia mekanismoak eta Ipar Kivun eta Hego Kivun haien inguruan duten iritzia

Gatazka armatuen osteko testuinguruetan, nagusi den “bake liberalaren” ikuspegia<sup>8</sup> lau esfera hauetan garatzen da: demokratizazioa eta instituzioen indartzea (estatuaren eraikuntza); ekonomia egituren liberalizazioa; segurtasunaren sektorearen erreforma; eta, azkenik, errehabilitazio soziala. Azken horretan kokatzen da trantsiziozko justizia. Irantzu Mendia Azkueren arabera (2012: 7-8), agenda zabal horretan, azken arlo hau bigarren maila batean geratzen da, beste guztien aurrean. Beraz, ulergarria da, gaur egun, trantsiziozko justiziak bakegintzarako nazioarteko agendan duen garrantzi urria.

Kongoko Errepublika Demokratikoaren kasuan, gatazka armatuak eta indarkeria etengabea gorabehera, giza eskubideen urraketen aurrean justizia lortzeari dagokionez, bertako gizarte zibila baikorra da. Vinck *et al.*-ek egindako ikerketaren arabera (2008: 44) Ipar Kivun eta Hego Kivun elkarrizketatutako pertsonen %80k iritzi berekoa da. Pertsona horiek horrela interpretatzen dute justizia: egia berrezartzea (%52), legea aplikatzea (%47), arduradunak zigortzea (%21), arduradunak epaitzea (%12), biktimei konpentsatzea (%7) edo barkatzea (%2,6). Justizia lortzeko modu egokiaren inguruan hau erantzuten dute: justizia sistema nazionala (%47), Nazioarteko Zigor Auzitegia (%23), auzitegi militarrek (%20), egiaren mekanismoak (%19), tradiziozko edo ohiturazko justizia (%13), GKE, eliza eta abarren bitarteko gatazkek konpontzeko proiektuak (%16) edo amnistiak eta barkamena (%6) (*Ibid.*: 46).

Ikerketa berean gerra krimenak egin dituzten pertsonekin zer nahiko luketen gertatzea galdetzen zaienean (*Ibidem*: 44), elkarrizketatutako pertsona gehienek errudunak zigortuak izatea nahiko luketela erantzun zuten (%70). Ehuneko txikiago baten ustez, kartzelatuak (%33), epaituak (%22) edota exekutatuak izan beharko lukete (%19). Beste erantzun batzuek ehuneko baxuagoak izan zituzten, besteak beste, biktimak konpentsatzera (%17), barkamena eskatzera (%9), haien krimenak aitortzera (%9) eta, soldaduen kasuan, desmobilizatzerara (%8) behartuak izatea, amnistia ematea (%4) edo

---

8 “Bake liberala”ren ereduak, gatazka osteko testuinguruetan egonkortzeko eta bakea eraikitzeko Mendebaldeko herrietako printzipio liberalen –demokrazia ordezkatzailea, merkatu ekonomia, eskubide zibil eta politikoen nagusitasuna eta gatazken konponbide formala eta Estatuaren bidezkoa eta gatazkaren eraldaketan oinarritzen ez dena– instituzionalizazioan konfiantza du.

birgizarteratzea (%3) (*Ibid.*). Erantzun hauek erakusten dutenaren arabera, herritarrek justizia sarritzailea edo zigortzailea (zigorra, kartzela, exekuzioa) nahiago dute justizia leheneratzailearen aurrean (barkamena eskatzea, erreparazioa eta beste batzuk).

Erantzun horietariko asko Virginia Rodríguez Bartolomé (2013: 49) identifikatutako trantsiziozko justiziaren hiru eredu hauei dagokie: “barkamenezko” eredu, maiz, egiaren eta adiskidetzearen batzorde batek ezarrita; “ahantzurazko” eredu, zeinetan egonkortasunaren alde “orrialdea pasatu” eta amnistiak eta boterea partekatzeak akordioak eskaintzen diren; eta “justiziazko” eredu, nazio mailako eta nazioarteko auzitegien (iraunkorrak eta *ad hoc*) eta auzitegi mistoen jarduketan oinarrituta. Kongoko Errepublika Demokratikoan, 2003ko Bake Akordio Global eta Inklusiboaren ostean hiru ereduekin lotutako trantsiziozko justizia mekanismo hauek jarri ziren martxan: Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea (barkamenezko eredu), amnistia lege desberdinak (ahantzurazko eredu) eta, azkenik, gehienbat nazioartean, gerra krimenen eta gizadiaren kontrako krimenen arduradunak epaitzeko prozesu jurisdikzionalak (justiziazko eredu).

### 2.3.1. Barkamenezko eredu: Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea

Egiaren eta Adiskidetzearen Batzordea (EAB) 21 pertsonak osatu zuten<sup>9</sup> eta 1960ko ekainaren 30a (Kongoren independentzia eguna) eta 2006ko abendua artean izandako giza eskubideen urraketa larriak ikertzeko ardura izan zuen.

Alabaina, honako arrazoi hauengatik, hori porrotzat hartu ohi da (Ngoma-Binda, 2008: 48-75). Lehenik, bere osaeragatik; izan ere, bertan gatazka armatuetan parte hartzen zuten aktore nagusietako ordezkariak zeuden. Pablo Mukeren (*Coalition Congolaise pour la Justice Transitionnelle*) hitzetan, EAB “hilda jaio zen” (*mort-née*), bere lana krimenen eta giza eskubideen urraketan ustezko arduradunek zuzendu baitzuten. Bigarrenik, kontuan hartuta gatazkaren denbora eta geografia eremua eta eremu materiala (giza eskubideen urraketan kopurua eta larritasuna), oso lan laburra izan zelako (urtebete baino luzetxoago) horren misio handirako. Hirugarrenik, bere jardura segurtasun eza eta tentsio politikoa nagusi ziren momentu batean eman zelako. Izan ere, herriaren zati bat ez zegoen gobernuaren kontrolpean. Laugarrenik, ekimen

9 Zortzi emakume eta hamahiru gizon, beraz 2004ko 04/018 Legearen 9. artikulua bete zen, EABren antolaketa, eskuduntza eta jardunbideari buruzkoa. Artikuluaren arabera, gutxienez batzordearen %30k emakumeak izan behar zuten.

honek hasiera batean izandako nazioarteko babesa desagertuz joan zelako, neurri batean, emandako finantzamendua kontu pribatuetara zihoala frogatu zenean. Bosgarrenik, krimenen egileak gobernu berriako botere eta ardurazko karguetan edo segurtasun indarretan zeudelako eta, EABk amnistiak emateko eskumenik ez zuela ikusita, horretan parte ez hartzea eta haien krimenak ez aitortzea erabaki zutelako. Eta, azkenik, EABk biztanleei bizkarra emanez lan egin zuelako eta gehienentzat ezezaguna izan zelako.

Vinck *et al.*-ren ikerketan (2008: 49-50) elkarrizketatutako pertsonen %88k Kongoko Errepublika Demokratikoko ekialdean gertatutakoaren inguruan egia ezagutzeari garrantzitsua zeritzon. Hala ere, beharbada lehen aipatutako faktoreen ondorioz, egiaren batzorde berri bat sortzeko aukera ez zen aintzat hartzen (%23) eta bai, ordea, beste aukera batzuk, bereziki, sistema judiziala (%53).

### 2.3.2. Ahanzturazko eredia: amnistia legeak

Bake akordio desberdinak sinatu ostean gobernuak lau amnistia lege onartu ditu (2003, 2005, 2009 eta 2014)<sup>10</sup> eta haien aplikazio eremua gerrako ekintzak, matxinadak, arau hauste politikoak eta iritzizko arau hausteak izan dira. Teorian, oso larriak diren krimenak (genozidioa, gerrako krimenak eta gizadiaren kontrako krimenak) horietatik kanpo geratu badira ere, azkenean, amnistia legeak oso era orokorrean eta krimen horien arduradunak identifikatu gabe aplikatu dira eta, hortaz, praktikan amnistia osoa ekarri dute. 2014ko amnistia legea eskaera indibiduala exijitzen zuen bakarria izan zen. Horri esker, onuradunak identifikatzea eta euren aurrekariak konprobatzea posible izan zen, krimen horien arduradunak amnistiatic baztertzeo asmoz.

Orokorrean, amnistia trantsiziozko justiziaren tresna polemiko bat da, bereziki, biztanle zibilen artean. Kongoko Errepublika Demokratikoan ere Vinck *et al.*-ren ikerketaren arabera (2008: 40-41), elkarrizketatuen %85k garrantzitsua deritza gerra krimenen errudunek horiengatik erantzuteari. Izan ere, %82ren arabera, kontuak ematea “beharrezkoa da bakea bermatzeko”. Erantzuna eskatzen duten krimenak identifikatzeari dagokionez, bi dira nagusi: hilketak (%91) eta sexu indarkeria (%70). Askoz urrunago aurkitzen

---

10 Hauek dira: 2003ko apirilaren 15eko 03-001 Dekretu Legea, gerra ekintzen eta politika eta iritzizko arau hausteen behin-behineko amnistia; 2005eko abenduaren 19ko 05/023 Legea, gerra ekintza eta politika eta iritzizko arau hausteen ingurukoa; 2009ko maiatzaren 7ko 09/003 Legea, 2003ko ekainetik 2009ko maiatza artean Ipar Kivun eta Hego Kivun gerra eta matxinada ekintzen amnistia ematen duena; eta 2014ko otsailaren 11ko 14/006 Legea, gerra ekintzen eta politika eta iritzizko arau hausteen amnistia ematen duena.



ditugu abereen lapurreta (%26), biztanleen desplazamendua (%27), haurren errekrutatze behartua (%23), tortura (%16) eta helduen errekrutatze behartua (%6).

Kongoko kasuan, tresna honen erabilera oso eztabaidagarria izan da, amnistia beragatik eta hori boterea partekatzeko eta segurtasunaren sektorea erreformatzeko akordioekin uztartu delako. Akordio horien ondorioz, askotan, armak uzteko sustagarri gisa, pertsona borrokalariei administrazio publikoan eta Estatuaren segurtasun indarretan sartzea eskaini zaizkie.

### **2.3.3. Justiziazko ereduak: justiziaren sektorearen erreforma, Nazioarteko Zigor Auzitegia eta justizia leheneratzailea**

Vinck *et al.*-ren ikerketan (2008:47) elkarrizketatutako pertsonen aukeratzera ematen zaie auzitegien bidezko bakearen eta barkamenaren bidezko bakearen artean. Lehenengo aukera (%59) bigarrena (%41) baino pertsona gehiagok aukeratzeko dute. Kivuetan auzitegi nazionalak dira gehien aukeratzeko direnak (elkarrizketatuen %45k) gatazketan egindako krimenak ezagutzeko. Bigarren, Kongoko Errepublika Demokratikoan bertan ospatutako nazioarteko auzitegiak ditugu (%38) eta askoz ere babes gutxiagorekin atzerrian dauden auzitegiak, esaterako, Nazioarteko Zigor Auzitegia (%7). Datu hauen arabera, auzitegien kasuan, Kongoko herritarrek herrian bertan dauden auzitegiak nahiago dituzte, nazionalak zein nazioartekoak (%83).

Kongoko Errepublika Demokratikoan, auzitegi nazionalen bidezko justiziazko ereduak epai sistemaren erreformaren arazoa mahaigaineratzen du. Justizia militarrek eta zibilak baliabide eta ahalmen eskasak dituzte, ahulak dira eta ustelak dira. Arazo estruktural hauez gain, agintariek ez dute auzitegi hauek erabiltzeko borondaterik gatazka armatuetan egindako krimenengatik justizia egiteko. “Boterea partekatzeko” akordioek eta amnistia legeek gobernu nazionalaren jarreraren erakusgarri dira. Gobernu historikoki uzkur izan da talde armatuetako kideek kontuak ematearen aurrean eta, horrek zigorgabetasunaren arazoa larriagotu du.

Nazioartean, Nazioarteko Zigor Auzitegiak (NZA) gizadiaren kontrako krimenen eta gerra krimenen susmagarriak diren zenbait pertsonari -oso gutxirerantzukizuna bere gain hartzea exijitu dio. 2002an Kongoko Errepublika Demokratikoak NZAren eskumena onartu zuen. Horrez geroztik eta 2016ko abendura arte, NZAk, sei kasu zeuzkan zabalik Kongoko ekialdean (lau, orain Ituri izeneko Probintzian eta bi, Kivuetan) gerra krimenen edo gizadiaren

kontrako krimenen ustezko arduradunen kontra<sup>11</sup>. Zalantzarik gabe, erantzun hori mugatua da gertatutako giza eskubideen urraketen hedapena eta larritasuna kontuan hartuta. Hala ere, erantzun sinboliko bat da inpunitatearen aurka.

Beste alde batetik, Pablo Mukek azpimarratzen duenez, giza eskubideen urraketen garrantzia eta kriminalen kopuru handia kontuan hartuta, beharbada, Kongoko Errepublika Demokratikoan, egintza penalean oinarritutako justizia eredu ez da egokiena. Era berean, epai prozesu horiek Mendebaldean nagusi diren justizia ereduak lehenesten dituzte, hain zuzen, justizia eredu saritzaile eta zigortzaileak. Horiek, krimenen arduradunei zuzenduta daude. Justizia leheneratzailea, ordea, zerikusi handiagoa du afrikar kulturarekin, oinarri komunitarioa du, biktimei zuzenduta dago eta erreparazioa eta adiskidetzea du helburu.

### 3. Gatazka armatuen genero-ikuspegia

#### 3.1. Emakumeen kontrako indarkeriaren *continuum*-a

Kongoko Errepublika Demokratikoan emakumeen kontrako indarkeria ez da gerra testuinguruaren monopolioa eta sexu indarkeria ez da emakumeen kontrako indarkeria bakarra. Haatik, hedabide gehienek, tokiko eta nazioarteko GKEek eta NBEk eta gobernu arteko nazioarteko beste zenbait erakundek ematen dioten trataerak hori ematen du aditzera.

Kongoko emakumeek pairatzen duten indarkeria, mota (fisikoa, estrukturala, sinbolikoa), esparru (politikoa, soziala, ekonomikoa), testuinguru (gatazka armatuak dituzten lekuak eta horietarik kanpo) eta momentu (gatazka aurretik, bitartean eta ostean) desberdinetakoa da. Hortaz, zentzua du indarkeriaren *continuum*-aren kontzeptua berreskuratzea (Moser, 2001; Rehn eta Sirleaf, 2002: 9-10; Cockburn, 2004: 43). Horrek, prozesu konplexu, etengabe eta integral gisa ulertzen du indarkeria eta zentzu horretan, gatazka armatua egoteak zein ez egoteak ez dakar hainbeste aldaketarik emakumeen bizitzetan. Cynthia Cockburn-ek era generikoan dioenaren arabera (2004: 43), Kongoko emakumeek honako hau esan zezaketen ere: “Gerra? Ez hitz egin niri gerraz. Nire eguneroko bizitza bada bataila eremu nahikoa”.

1990ko hamarkadako gatazka armatuen aurretik, Kongoko Errepublika Demokratikoan emakumeen eta gizonen arteko harremanak ez ziren

---

11 Informazio gehiago, NZAren web orrialdean: <<https://www.icc-cpi.int/drc?ln=fr>>.

berdintasunezkoak. Baina, aurretiko genero desberdintasun horiek aldatu eta, askotan, areagotu dira gatazka armatuen eraginagatik. Marie Honorine Chiribagula-ren arabera (*International Rescue Committee*), askotan ematen da honako oker hau: gatazka armatua pizten denean, emakumeen kontrako indarkeria gatazkaren ondorioztat jotzen da eta ahaztu egiten da indarkeria hori beti izan dela. Bere ustez, gatazka testuinguruetan indarkeria handitzen da (lehen ez ziren beste forma batzuk sortzen dira) eta areagotzen da (nabarmenagoa eta ankerragoa da). Hortaz, biktima kopurua handiagoa da. Patient Bashombe (*Fondation Panzi*<sup>12</sup>) eta Eudoxie Nziavake bat datoz ideia horrekin. Bashomberen ustez, “gatazka armatuek testuinguru horretan emakumeen eskubideek pairatzen duten atzerakada azaltzen dute, neurri handi batean”. Nziavakek, bere aldetik, “errepikapenezko gerra” egoerak, Kivuetan, emakumeen kontrako indarkeriaren adierazpenak larriagotu dituela uste du.

Gatazka armatuei lotutako indarkeriaz gain, herrialdean, emakume eta nesken egunerokoan ohikoak diren beste indarkeria asko daude; esaterako, sozio-ekonomikoa, kulturala, etxekoa, instituzionala, eta ohiturei lotutakoa (Eriksson Baaz eta Stern, 2010: 42; CEDAW/C/COD/6-7, 2011: 21). Emakumeak “bigarren mailako herritarrak” dira eta hortik, hain zuzen, sortzen dira indarkeria horiek guztiak (Sadie, 2015: 454). Chantal Kambibiren esanetan (Ipar Kivuko *Programme de Stabilisation et de Reconstruction des Zones sortant des conflits armés-Programme STAREC*), “emakumeak beti daude atzean”. Jarraian, Kongoko emakumeak egunero pairatzen dituzte indarkerien adierazpen desberdinak ikertuko ditut.

Kongoko gobernuak berak Emakumeen kontrako diskriminazio forma guztiak ezabatzeko konbentzioaren (CEDAW)<sup>13</sup> Batzordeari igorritako seigarren eta zazpigarren txostenetan azpimarratzen duen bezala, eremu pribatuan, emakumeen eta gizonen arteko familia harremanak “funtsezko desberdintasun honetan oinarritzen dira; gizona, aita eta senarra, familiaburua eta emakumea, ama eta emaztea, etxearen administratzailea”(CEDAW/C/COD/6-7, 2011: 20). Izan ere, familia gehienetan “emakumearen eta gizonaren arteko harremana ez da adiskidetasunezkoa edo berdintasunezkoa, nagusi eta

12 *Fondation Panzi* fundazioa Denis Mukwege doktoreak sortu zuen Bukavun (Hego Kivu) Kongoko ekialdeko egoera aldatzeko behararen inguruan sentsibilizatzeko. Fundazioaren helburu nagusia emakumeen kontrako indarkeriaren amaiera sustatzea da. Informazio gehiago, hemen: <<http://www.panzifoundation.org>>.

13 1994az geroztik, Kongoko gobernu desberdinek 7 txosten aurkeztu diote CEDAWren emakumeen egoeraren inguruko Batzordeari. 2011n azkena aurkeztu zuten eta Batzordeak 2013an aztertu zuen.

mendeko baten artekoa baizik” (CEDAW/C/ZAR/2, 1997: 41-42), eta horietan etxeko indarkeria araua da (Lwambo, 2011: 19).

Etxean emakumeen eta gizonen artean ematen den desberdintasun hori gizartera zabaltzen da eta klase, etnia edo erlijioan oinarritutako desberdintasunen gainera dago<sup>14</sup>. Izan ere, “talde etniko guztiek, sinesmen eta praktika desberdinak gorabehera, emakumeen eta gizonen rol desberdinaren ikuspegi bera dute” (CEDAW/C/COD/6-7, 2011: 20). Desberdintasunaren orokortze horrek ez du esan nahi emakume guztiek era berean pairatzen dutenik. Anne Marie Uboyoren arabera (MONUSCOKo “Genero” unitatea Ipar Kivun), genero aldagaia eta beste aldagai batzuk, esaterako, etnia, gizarte klasea, erlijioa, landan edo hirian bizitzea edo egoera zibila gurutzatzen direnean, emakumeen desberdintasun maila ere aldatzen da.

Eremu publikoan, 1967ko Konstituzioa onartu zenetik emakumeek aukeratzeko (sufragio aktibo) eta aukeratuak izateko (sufragio pasibo) eskubidea dute. Baina eskubide horien erabilera ez da erraza. Alde batetik, sarritan, emakumeen alfabetatze tasa baxua dela eta, ez da bozkatzeko eskubidea erabiltzen. Horrez aparte, Anne Marie Uboyok azpimarratzen duen bezala, aurreiritzi eta estereotipo sexistek eragin handia dute auzi horretan. Izan ere, gizon askok ez dituzte emakumeak bozkatuko emakume izate hutsagatik eta, era berean, emakume askok barneratu dute ez dagokiela boterearekin eta agintarekin zerikusia duen ezer. Hortaz, haiek ere ez dute beste emakumerik bozkatuko. Ondorioz, erabakitze postuetan ez dago emakume askorik<sup>15</sup>. Aldi berean, oso emakume gutxi dago enbaxadetan, kontsulatuetan, foruetan eta nazioarteko erakundeetan<sup>16</sup> eta, gehienetan, baldin badaude, emakumeen eskubideekin zerikusia duten erakunde espezifikoean daude.

Emakumeek nazio mailako instituzioetan ere duten presentzia urriak kontraste handia sortzen du tokiko eremu informalekin; horrako

---

14 Elkarrizketatutako zenbait emakumek, besteak beste, Levanne Musike-k (*Solidarité Féminin pour la paix et le Développement Intégral*-SOFEPADI) eta Rose Vive-k (CARE) sinesmen erlijioso sakonak azpimarratzen dituzte (kristauak -gehienak- zein musulmanak) dagoen desberdintasuna azaltzen laguntzen duten elementu gisa.

15 2014an 448 diputatutik 55 emakumeak ziren (%10,8); 22 ministrotik 3 (%12); 102 senadoretik 6 (%5,5); eta 11 probintziago gobernadoreetatik emakume bat ere ez (GNWP, 2015:6).

16 2011ko datuen arabera, 13 emakumek (5 enbaxadore, kontsul bat, eta 7 negozio arduradun) baino ez zituzten herrialdeko kargu diplomatikoak, hau da, guztien %20,3 (CEDAW/C/COD/6-7, 2011: 12).

egunerokoa emakumeak oso agerpen handia baitute eta gizartearen egitura sozioekonomikoaren parte oso garrantzitsua baitira (Solhjell *et al.*, 2012: 24). Horrez gain, herrialdearen egoera ekonomikoak eta ekialdeko gatazka testuinguru iraunkorrak emakumeen ardurak handitu dituzte eta, gero eta gehiago, emakumeek beren familiak sostengatzen dituzte, gehienbat, ekonomia informalean lan egin bitartez. Iturri desberdinen arabera (CEDAW/C/COD/6-7, 2011: 15; Bjorkhaug eta Boas, 2014: 15-16; Roger Buhendwa, *Fondation Panzi*), gaur egun, Kongoko Errepublika Demokratikoko familien %80k emakumei esker irauten du eta emakumeak dira, nagusiki, diru sarrerak dituztenak. Hala, herrialdean, tradiziozko genero rola aldatzen ari dira.

Aldi berean, emakumeak jarduera ekonomiko desberdinetan hasi dira familientzat diru sarrerak bilatu nahian baina, edonola ere, etxeko lan guztiak egiten jarraitzen dute. Zentzu horretan, Kongoko gobernuak berak onartu duenez, etxeko lan hori “familiaren garapenari laguntzeaz gain, gehienbat, ekonomia nazionalari laguntzen dio” (CEDAW/C/ZAR/2, 1997: 38). Hala ere, gizarteak etxeko lana gutxiesten du.

Landa eremuan emakumeen betebeharra etxeko eta nekazaritza lanetara mugatzen dituen ikuspegi tradizionalak irauten du eta, bertan desberdintasuna are handiagoa da<sup>17</sup>. Alde batetik, Kongoko emakumeen %86k landan egiten du lan (CEDAW/C/COD/1, 1999: 33) eta landa eremuko elikagaien %75 ekoizten du (CEDAW/C/COD/6-7, 2011: 18). Baina, Anne Marie Uboyoren arabera, emakumeek elikagaiak erein, uztatu eta merkaturatzen badituzte ere, ez dute irabazitako dirua kudeatzen eta zailtasun handiak izaten dituzte lurren jabetza eskubidea lortzeko. Beste alde batetik, gehiegizko lanak duen eragin fisikoez gain -lanaldiak 14 edo 16 ordura artekoak dira-, bizi baldintzak tamalgarriak dira: etxeek ez dute segurtasun eta osasun baldintzarik, komunik edo edateko urik eta ez dago hurbileko mediku zerbitzurik<sup>18</sup>.

Hezkuntzari dagokionez, eskolatzeko tasak altuagoak dira mutilen artean<sup>19</sup> eta eskola uzteko tasak altuagoak nesken artean, lehen zein bigarren hezkuntzan. Hauek dira, besteak beste horren arrazoiak: haurdunaldi goiztiarrak;

17 Ekialdeko Kasai Probintziako esaera baten arabera “emakumea etxetik oso gertu lotu beharreko ahuntza da” (*mukaji mbuti wa kuswikila pa bwipi*). Esaera horrek gizonen erresistentziak erakusten ditu emakumeek etxetik kanpo lan egiteari dagokionez.

18 Hiru emakumetik batek 15 kilometro egin behar ditu hurbileneko osasun zentzora joateko (CEDAW/C/COD/4-5, 2004: 41; CEDAW/C/COD/6-7, 2011: 20).

19 2011n lehen hezkuntzan neska bakoitzeko 1,2 mutil zeuden; bigarren hezkuntzan 1,9; goi ikasketak publikoetan 3,5 eta goi ikasketak pribatuetan 1,6 (CEDAW/C/COD/6-7, 2011: 14).

emakumeak menpeko egoeran jartzen dituzten aurreiritzi soziokulturalak (esaterako, ikasketak ordaintzeko arazoak dituzten familietan mutilen ikasketak lehenesten dira); edo neskei egokitzen zaien etxeko eta nekazaritza lan karga (CEDAW/C/ZAR/1, 1994: 13; CEDAW/C/COD/1, 1999: 28; CEDAW/C/COD/4-5, 2004: 32-33).

Osasunari dagokionez, 2003ko gatazkaz geroztik, herrialdeko bizi itxaropena apur bat hazi da. Nazio Batuen Garapen Programaren giza garapenari buruzko txostenen arabera, 2003an bizi itxaropena 43,1 urtekoa zen; 2011an 48,4 urtekoa; eta 2013an 50 urtekoa. Hala ere, datu horiek Kongoko biztanleria osoa hartzen du kontuan eta ez ditu gatazka armatua duten Kivuen eta herrialdeko gainontzeko lekuen arteko desberdintasunak erakusten; ezta emakumeen eta gizonen artekoak ere. Ekialdean, biztanleen osasun fisiko eta mentalaren narriadura handiagoa da eta arreta zerbitzuak eskasagoak. Izan ere, osasun sistema publikoak okerrera egin du eta nazioarteko lankidetzak ez da beharrak asetzeko gai izan. Testuinguru horretan, biztanleen zaintza fisiko eta mentala emakumeek egiten dute, eremu pribatuan. Era berean, ekialdeko emakumeek, aktore armatu desberdinen eraginez dauden bortxaketa kopuru eta prostituzio altuaren ondorioz, GIB/HIESA izateko arrisku handiagoa dute<sup>20</sup>. Ondorio fisikoez gain, GIB/HIESAk estigmatizazio latza dakar emakumeentzat. Izan ere, gaixotutako emakume horiek gizon eta fetuentzako infekzio iturritzat eta mehatxutzat jotzen dituzte eta euren familien eta senarren beren arbuioa jasan dezakete.

Azkenik, emakumeek zailtasun espezifikokoak dituzte euren eskubideak justiziaren aurrean defendatzeko. Besteak beste, honako elementu hauek salatzen adorea kentzen diete emakumeei: euren eskubideak ez ezagutzea, indarkeria mota batzuk ezereztea, baliabide ekonomiko eza, instantzia judizialen urruntasun geografikoa, poliziaren eta epaileen ustelkeria eta zigorraren edo estigmatizazioaren beldurra. Era berean, horiek salatzaren diren kasuen jarraipen legala ere zailago bihurtzen dute. Hala, baldintza haiek emakumeen giza eskubideen urraketak duten zigorgabetasuna azaltzen laguntzen dute.

### 3.2. Indarkeria generizatua gatazkaren testuinguruan

Gatazka armatuak “sakabanatu” diren neurrian (ez dago fronte eta atzeguardia zehatzik), indarkeria biztanleen egunerokoaren parte bihurtzen da.

---

20 Gatazka armatuek eta pobrezia -eta bere feminizazioa- prostituzioaren gorakada eragin dute herrialdearen ekialdean. Horrek eragin handia du emakume nerabe eta neskenengan.

Aktore armatuen ugaritasunaren eta informaltasunaren ondorioz segurtasun gutxiago dago eta gerrako taktikak biztanleei zuzenduta daude eta ankerragoak dira. Biztanle zibilentzat eta, bereziki, emakumeentzat gerraren kostua handitu da. Neurri handi batean, hori desberdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeria *continuum*-aren ondorio da.

Emakumeen desberdintasun sozioekonomikoa egoera ahulean jartzen ditu gatazka armatuen pribazio eta inpaktuen aurrean. Adibidez, haiek lurra lantzen dute, elikagaiak merkatuan saltzen dituzte eta egur edo ur bila joan behar dute. Hala, bada, eginkizun horiek betetzeko beren komunitateetatik urrundu behar dute eta, hortaz, erasoak jasateko arrisku handiagoa dute (Solhjell *et al.*, 2012: 24). Era berean, Anne Marie Uboyoren arabera, familiak borrokalariai laguntzen dituzte talde armatuetan eta ustekabeko erasorik badago borrokalariak ihes egin dezakete baina emakumeak pertsona nagusiekin, gaixoeekin, zaurituekin eta hurrekin geratzen dira eta, beraz, zigorrak jasateko arrisku handiagoa dute.

Testuinguru horretan ematen diren indarkeria modu asko generizatuta daude. Izan ere, haien kausek eta ondorioek generoko esanahi garrantzitsuak dituzte. Dyan Mazuranaren arabera (2005: 33), askotan, gatazka guneetan ematen diren indarkeriazko ekintzak kontuan hartzen dute biktimen generoa, bai emakumeak bai gizonak ere, horri erasotu nahi baitiote, hain zuzen ere. Krime generizatuen sexu indarkeria da. Alde batetik, arduradunak ia kasu guztietan gizonak direlako; bestetik, emakumeen kontra (kasu gehienetan) zein gizonen kontra, helburua feminitatearen eta maskulinitatearen eraikuntzari erasotzea delako. Emakumei erasotzen zaie euren “ohorea” eta “garbitasuna” gordetzeko agindu femeninoa erasotzen delako; gizona, euren burua babesteko eta emakumeak zaintzeko agindu maskulinoa erasotzen delako; eta baita komunitateari ere bere osotasunean.

### 3.3. Emakumeen parte hartzea gatazka armatuetan

Emakumeek gatazka armatuan duten parte hartzeari ezikusia egin izan zaio denbora luzez (Pankhurst, 2004: 13; Alexievitch, 2015: 13). Hori maila ikusgai jarri denean honako hau azpimarratu da: emakumeak gatazka horien biktimak direla eta, bereziki, sexu indarkeriaren biktimak. Horrek emakumeek gatazketan dituzten beste rolak estali ditu (Mackenzie, 2010: 153). Dena den, emakumeek ez dute ahots bakarra bakeari eta gatazkei dagokienez; aitzitik, gizonak bezala, identitate politiko eta leialtasun desberdinak dituzte eta oso modu desberdinetan pentsatzen eta aritzen dira (El-Bushra, 2008: 130).

Beraz, ez dira biktimak bakarrik; bakearen eta adiskidetzearen eragileak ere badira eta, jakina, indarkeria eta segurtasun eza ere sor dezakete (Pankhurst, 2004: 13; Mendia Azkue, 2009a eta 2009b). Emakumeen rol aniztasun hori funtsezko pieza da bakegintzaren “puzzlean” (Hudson, 2010: 260).

Jarraian, Ipar Kivu eta Hego Kivuko gatazketan emakumeek izan dituzten hiru parte hartze mota hauek aztertuko ditut: biktimarena, bakearen aldeko aktibistarena eta talde armatuetako kidearena. Kategoria hauek errealitatea ulertzen lagun dezakete baina, hala ere, onartzen dut erredukzionistak direla<sup>21</sup>.

### 3.3.1. Emakume biktimizatuak

Bakearen eta gatazken inguruko azterketetan, askotan, gizon eta emakumeen artean ezaugarri biologikoen arabera rol desberdinak identifikatzen dituen ikuspegi esentzialista agertzen da<sup>22</sup>. Jacqui Trueren arabera (2009: 254), bereizketa esentzialista horiek ez dira neutroak; aitzitik, jatorri zehatz bat dute eta honako erabilgarritasun hau dute: botere eta menpekotasun sexistaren formak naturalizatzea. Ildo beretik, Laura Sjoberg-ek adierazten duen bezala (2006: 895, 2013: 144), gerra, ugaltzeko, pertsona borrokalaria eta zibilen irudi generizatuak behar dituen instituzioa da. Errealitate hori “gizon babesle/emakume biktima” eraikuntza dikotomiko paradigmaticoan ageri da berriro ere. Ideia hori oso errotuta dago nagusi den imajinarioan.

Kongoko emakumeen irudi ikonikoaren arabera, emakumeak biktima pasiboak eta babesgabeak dira, babesa behar dutenak eta, bereziki, sexu indarkeriaren biktimak. Izan ere, sexu indarkeria Kongoko gatazken bistako alderdi bilakatu da (Bjorkhaug eta Boas, 2014: 22). Zalantzarik gabe, sexu indarkeria honako hauetan nagusi den emakumeen kontrako indarkeriaren

---

21 Clara Murguialday-k azpimarratzen duen bezala (2000: 39), sarritan, gerrak emakumeengan duen inpaktuen inguruan azterketa manikeo eta sinplista agertzen dira, zeinetan guztia den galera edo irabazia. Egile horren arabera, gatazka armatuen ez dute oinazea emakumeentzat bakarrik sortzen; era berean ez dira “emakumeen askapenerako panazea”. Emakumeen esperientziak kontraste handiak dituzte adinaren, klasearen, arrazaren, jatorri nazional eta etnikoaren, erlijioaren eta abarren arabera (Pankhurst, 2004: 15). Emakume askok neurririk gabe sufritzen dute gatazka armatu batean eta beste batzuek etekina ateratzen diote (Hudson, 2010: 260). Izan ere, gatazkek ondorio kontraesankorrak izan ditzake emakumeentzat eta, emakume bera, egoeraren eta momentuaren arabera bakearen eragile edo indarkeriaren eragile izan daiteke (Pankhurst, 2004: 14).

22 Ikuspegi esentzialista horren aurka, feminismoaren arabera, gizonen eta emakumeen egokitutako jarduerak, ezaugarriak eta jokaerak ez dituzte desberdintasun biologikoek bereiz sortzen; aitzitik, sozialki eta kulturalki eraikitzen dira eta, hortaz, alda daitezke (Tickner, 2001: 15).



adierazpena da: hedabideak, tokiko eta nazioarteko GKEak eta NBERen eta gobernu arteko beste erakundeen jarduera eta literatura.

Maiz, honelako kontuak aztertzen dira: tamaina, biktimen (etnia guztietakoak, adin espektro zabalekoak, haurtxoak eta adinekoak barne) eta egileen heterogeneotasuna (estatur kanpoko borrokalaria, FARDCko kideak, MONUSCoko kideak, senideak eta auzokoak) eta tokien heterogeneotasuna (etxean, basoan, eskolan, desplazatu eta errefuxiatuen kanpamentuetan); ankerkeria (botilez, labanez edo beste objektuez egindako mutilazioak, fistulak eta urraketak eragiten dituztenak; senideak begiratzera edo parte hartzera behartzen dituzte, etab.); motibazio desberdinak (biztanleak kontrolatzea eta menperatzea, “etsaia” zigortzea, gorrotoa, lizunkeria, gizon “babesleen” umiliazioa, sinesmen mistikoak<sup>23</sup>; edo ondorioak (kalte psikologikoak, lotsa eta estigmatizazio soziala).

Kongoko Errepublika Demokratikoko sexu indarkeria hedabideetan gehiegizko presentzia duen fenomeno da baina, hala ere, azterketa gehienak oso erredukzionistak izaten dira. Orokorrean, gatazka armatuan kokatzen dute sorburua (“bortxaketa gerrako arma bat da”) eta bazterrean uzten dituzte beste kontu batzuk, esaterako, hori ez dela emakumeen kontrako indarkeria modu bakarra, edo gizonen dominazio egoeraren ondorio dela -indarkeriaren *continuum*-, Kongoko gizartearen esparru guztiak iragazten dituena. Hedabideek gutxitan saiatzen dira beste kontu hauek azaltzen: aktore gehienak gizonak direla; isiltasuna eta zigorgabetasuna “estatu maskulinoak” eta aktore armatuek emakumeei inposatzen saiatzen den diziplinaren mekanismo gakoak direla (Leatherman, 2012: 161). Zentzu horretan, bistan jartzeaz gain, bistan jartzeko modua ere garrantzitsua da. Beste edozein indarkeria edo, asko jota, indarkeriarik txarrena da ala bere eduki politikoa kontuan hartu eta genero harreman desberdinen muturreko adierazpena da?

### 3.3.2. Bakearen aldeko aktibistak diren emakumeak

Ipar Kivun eta Hego Kivun, gatazka armatuen bukaeraren alde eta emakumeen giza eskubideen babeserako lan egiten duten emakume erakunde ugari dago. Elisa García Mingoren arabera (2015: 37-38), erakunde horiek urte hauetan zehar sortu eta garatu dira, “tokiko emakumeen alde zaurerako

---

23 Kambake Mughanyiriren arabera (NBEko Giza Eskubideen Unitatea Butembon), zenbait borrokalarientzat, bereziki *mai-mai*-entzat, fetitxeek, amuletoek eta sorginkeriek garrantzi handia dute. Besteak beste, emakume askorekin edo birjinekin sexua izateak indarrarekin, zortzarekin edo ezin zauritzearekin zerikusia duten naturaz gaindiko botereak ematen ditu.

kontzientzia"-n oinarrituz. Emakumeen kontrako eraso etengabeen ondorioz eta nazioarteko esku hartzearen eta bere genero-ikuspegiaren estimuluaren laguntzaz kontzientzia hori areagotu da.

Izan ere, nazioarteko aktoreen generoko agenda (MONUSCO eta GKEak, gehienbat), Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenaz (2000) geroztik, bakearen esparruko emakumeen parte hartzean zentratu da. Horri esker ulertzen da herrialdearen ekialdean emakumeen erakundeek izan duten bultzada eta babesa. Laugarren atalean honako hau aztertuko dut: nazioarteko aktoreek sustatu duten generoko *mainstreaming*-ak, Kivuetako emakume erakunde hauentzat, aldi berean, babesa eta muga bat izan da; gehiegizko eragina izan baitute haien agenda eta ekintzetan.

### 3.3.3. Emakumeak talde armatuetan

Alde batetik, gatazka armatuetako sexu indarkeriaren azterketa izan duen lehentasunak emakume-biktima ikuspegia sendotu du. Bestetik, emakumeek bakearekin duten harremanaren azterketa esentzialistek emakume/bakearen aldeko aktibista ikuspegia indartu dute. Eraikuntza bi horiek egitura militar desberdinetan borrokalariak diren emakumeak estali dituzte. Horietan emakumeak, borrokatzeaz gain, egitura horiek mantentzeko funtsezkoak diren oso lan desberdinak egiten dituzte.

Kongoko kasuan, talde armatuetan dauden emakumeen kopurua handia da eta hauek rol desberdinak dituzte. Horietako gehienak, normalean ez dute borrokatzen; zaintza, sukalde eta ur eta egur biltze lanak egiten dituzte eta borrokatzen duten gizon eta mutilen behar sexualak asetzen dituzte (askotan, behartuta). Zenbait eginkizun militar ere egiten dituzte, adibidez, armak eta munizioa eraman edo informazio eta espioitza lanak. Emakumeek talde armatuetan duten esperientzia ez da homogenea eta aldagai askoren menpe dago (adina, etnia, jatorria, egitura militarren izaera, borondatezko edo behartutako adskripzioa, egindako rola, egonaldia, etab.). Kongoko testuinguruan betetzen dituzten rol gehienak gizartean nagusi den sexuaren araberako lan banaketan eta horretan emakumeek duten menpeko egoeran oinarritzen dira<sup>24</sup>. Aldi berean, emakumeak egitura militarretan egoteak erronka egiten die instituzio militarren oinarri maskulinoei eta maskulinitate eta feminitateen eraikuntza kultural nagusiari (Steans, 2013: 102).

---

24 Gainera, talde armatuetan dauden emakumeek askotan bortizkeria sexuala jasan behar izan dute gizon borrokalarien partetik.

## 4. Emakumeen ekintza kolektiboa bakea eraikitzearen eta trantsiziozko justiziaren alde

### 4.1. Emakumeen aktibismoaren karakterizazioa

Desberdintasuna, gatazka armatuak eta inpunitatea nagusi diren testuinguru horretan, bakearen esparruan lan egiten duten emakume talde antolatu gehienek agenda bera dute, hau da, sentsibilizazioari eta emakumeen eskubide sozial, ekonomiko eta politikoak sustatzeari zuzendutako agenda.

Erakunde ugari eta anitzak daude eta horiek etengabeko koordinazioan edo adostasunean lan egiten dute irizpide desberdin hauetan oinarrituta: geografikoak (Ipar Kivun eta Hego Kivun, nazio mailan edota Laku Handien eskualdean)<sup>25</sup>, profesionalak (juristen edo kazetarien elkarteak)<sup>26</sup> eta/edo tematikoak (bakegintza, sexu indarkeria, justizia erabiltzeko aukera, etab.)<sup>27</sup>. Orokorrean, Anne Marie Uboyoren adierazten duen bezala, talde horiek emakumeen arteko elkartasun harremanak sortu dituzte, haien desberdintasun politiko edo etnikoak gorabehera.

Elkarren arteko lotura sendo hori Ipar Kivuko eta Hego Kivuko mugimendu feministaren indar bat da. Aldi berean, lotura hori elkarri laguntzeko eta bizirik irauteko estrategia bat da, tokiko eta nazio mailako botere publikoengandik jasotzen duten utzikeriaren aurrean. Haien indarra kolektiboan datza; izan ere, Bernadette Muongoren esanetan (*Programme d'Appui aux Femmes Victimes des Conflits*, PAFEVIC), “entzun gaitzaten, emakumeok egitura baten parte izan behar dugu”.

Emakume erakunde horien lana, urte askoz, administrazio publikoaren jardueratik kanpo egin da. Justine Masikaren (*Synergie des Femmes pour les Victimes de Violences Sexuelles*), Julienne Mushagalusharen eta Gillaine Nawezaren (*Association des Femmes Juristes du Congo-AFEJUCO*) arabera,

---

25 Besteak beste: *Caucus des Femmes Congolaises du Sud-Kivu pour la Paix, Concertation de Collectif des Association des Femmes aux Grands Lacs* (COCAFEM) edo *Synergie des femmes pour la Paix et la Réconciliation des Peuples des Grands Lacs d'Afrique* (SPR).

26 Esaterako: *Collectif de Femmes Journalistes, Femmes Juristes pour la Défense des droits des Femmes, Réseau des Associations des femmes Juristes de l'Est* (RAFESJE) edo *Association des Femmes Juristes du Congo* (AFEJUCO).

27 Besteak beste: *Synergie des Femmes pour les Victimes de Violences Sexuelles, Solidarité des Associations féminines pour le Droit de la Femme et de l'Enfant* (SAFDF), *Conseil des Organisations féminines Agissant en Synergie* (COFAS) edo *Collectif des Associations Féminines pour le Développement* (CAFED).

tokiko eta nazio mailako botereak axolagabe edota mesfidati agertu dira talde horien aldarrikapenen eta jardueraren aurrean. Hala, praktikan, talde horiek Kongoko instituzioek emakume taldeen agendaren aurrean izan duten ahultasuna, gaitasun eza eta interes falta gainditu dituzte. Hau da kasu horietako bat: Kongoko Ekintza Nazionalako Planaren inguruan, tokiko ekimenak egin ziren Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena aplikatzeko eskatzeko. Justine Masikaren arabera, gehienbat, emakume erakundeek ekimenari eta interesari esker, tokiko ekintza planak Ipar Kivu eta Hego Kivuko zenbait lekutan nazio mailan baino gehiago aurreratu eta garatu dira.

1325 Ebazpenaz (2000) eta ondoren, NBEk emakumeen, bakearen eta segurtasunaren inguruan egindako ebazpenez geroztik, emakume taldeen jarduera eta herrialdean dauden nazioarteko eragileen agenda estutuz joan dira<sup>28</sup>. Maila guztietako esku hartze plan eta programetan genero ikuspegia txertatzeko estrategiak -arrunki, generoko *mainstreaming* izenez ezagutzen dena- feminismoaren berdintasun aldarrikapen historikoei erantzuten die, bereziki, joera liberalekoei.

Bakea eraikitzeke politiken markoan, ikuspegi feminista liberala hauetan zentratu da: emakumeek erabakitzeke espazioetan duten parte hartzea eta ordezkartza handitzea eta gatazka armatuetan emakumeen babesa eskatzea. Lehenik eta behin, parte hartzeari dagokionez, nazioarteko aktoreen generoko agendaren helburua Kongoko Errepublika Demokratikoan emakumeek espazio hauetan berdintasunez sartzea izan da: bake eta segurtasun egitura eta prozesuak, bakegintzaren inguruan egindako jarduerak, NBEren misioaren kontingente militarrek, estatuaren segurtasun indarrak eta ordezkartza politikoko egiturak (gubernua, parlamentua, tokiko instituzioak, etab.). Bigarrenik, agenda hori emakumeen babesean zentratu da baina, modu erredukzionista batean, babes hori “babes fisikotzat” jo da eta, bereziki, sexu indarkeriari zuzendu zaio. Izan ere, sexu indarkeria azpimarratzean -horren garrantziak eta larritasunak ez dute zalantzarik sortzen- emakumeek Kongoko gizartearen diskriminazio orokorraren ondorioz pairatzen duten beste indarkeria mota batzuei ez ikusia egin zaie.

Kongoko emakume erakunde gehienek beste ezaugarri bitxi hau dute: ez dute haien burua feministatzat hartzen. Izan ere, Joséfine Kusinza (*Programme de Stabilisation et de Reconstruction des Zones sortant des conflits armés- Programme STAREC* en Kivu Sur), Roger Buhendwa eta Catherine Katungu

---

28 Konkretuki, NBEren Segurtasun Kontseiluaren hurrengo ebazpenak: 1820 (2008); 1888 eta 1889 (2009); 1960 (2010); 2106 eta 2122 (2013); eta 2242 (2015).

Furaharen (*Femmes Juristes pour le Défense des droits des Femmes*) arabera, emakume taldeek izendapen hori errefusatzeko dute, bertako kulturaren “muturrekotzat” jotzen baita eta konnotazio negatiboak baititu<sup>29</sup>. Hori dela eta, *groupes féminins* edo *groupes de femmes* (emakume-taldeak edo emakumeen taldeak) erabiltzen dute haien buruari dagokienean.

## 4.2. Lehentasunezko ekintza estrategiak

Bakerik eta justizia sozialik eta segurtasunik ez dituen testuinguru batean, giza eskubideen urraketak behin eta berriro gertatzen dira. Horren aurrean, azken bi hamarkadetan Ipar Kivu eta Hego Kivuko emakumeen erresistentzia eta aktibismo modu ugari eta anitz izan dira. Horiek eremu publikoan (haien komunitateetan eta nazio mailan, eskualdean eta nazioartean) zein pribatuan (etxean bertan) eman dira.

Emakume erakundeen agenda lehentasunezko ardatz hauetan oinarritzen da: bakegintza eta desmilitarizazioa; segurtasuna; egia eta justizia bilatzea; eta emakumeen eskubideak sustatzea.

Emakume taldeek bakearen eta segurtasunaren inguruan erabakitzekeo espazio garrantzitsuetan, esaterako, bake negoziatioetan parte hartzekeo eskubidea aldarrikatzen dute. Hau da, normalean haien jarduera espazio informalean garatzen da eta hori gaintzekeo eta espazio publikoetan parte hartzekeo borrokatzen dira, beti izan baitira horietatik baztertuak. Euren jardueretan erakusten duten bezala, emakume taldeek gatazka eta gatazka osteko testuinguruetan bakearen aldeko emakume aktibisten ohiko rolak gaintzekeo borondatea dute. Lehenik, esparru honetan ematen den tradiziozko lan banaketari erronka egiten diote. Banaketa horren arabera, alde batetik, laguntza emaileak (nazioarteko gobernuarteko erakundeak eta estatuak) bake eta segurtasun lan nagusien arduradunak dira eta, bestetik, tokiko eta nazioarteko GKEak berreraikuntzaren alderdi sozialetara mugatzen dute euren lana (Mateos, 2013: 151). Bigarrenik, “bakearen aldeko lanaren sexuaren araberrako banaketa” (Mendia Azkue, 2014: 142) zalantzan jartzen dute. Banaketa horren arabera, emakumeak bakegintzarako espazio informaletan

---

<sup>29</sup> Rose Kahambo-ren arabera (*Collectif de Femmes Journalistes*), hau da feminismoaren ideia errefusatzeko beste arrazoi bat: testuinguru kultural horretan, mendebaldeko feminismoa emakumeek eta emakumeentzat egindako lan bat dela uste da. Ikuspegi hori ez dator bat berdintasunaren inguruan bertan dagoen ikuspegiarekin, hau komunitarioagoa baita eta gizonak borroka kideztat jotzen dira.

aritzen dira, hauei garrantzi gutxiago ematen zaielarrik, eta espazio formalak gizonentzat gordetzen dira.

Jarraian Ipar Kivu eta Hego Kivuko emakume taldeen estrategia nagusi hauek aztertuko ditut: intzidentzia politikoa, sentsibilizazioa, salaketa eta emakumeak laguntzea eta boteretzea. Lehentasuna emandako ardatz tematikoei (bakea eta desmilitarizazioa; segurtasuna; egia eta justizia; eta emakumeen eskubideak) elkarrekiko lotura handia dute eta, hortaz, haien ekintza estrategiek ardatz horietako zenbait edo guztiak dituzte helburu.

#### 4.2.1. Intzidentzia politikoa

Lehenik eta behin, emakume erakundeek Kongoko Errepublika Demokratikoko botere publikoekin konektatzeko izan dituzten zailtasun historikoen aurrean, tokiko eta nazio mailako intzidentzia politikoen estrategiari lehentasuna eman diote. Hala, bada, emakumeen interes eta beharrak agenda politikoan onartu eta sartzeko klase politikoen eta agintarien erresistentziak gainditu nahi dituzte. Bigarrenik, Kongoko ekialdeko gatazka armatuak eskualdeko izaera dute (inguruko hainbat herrialderen esku hartzearekin, bereziki, Ruanda, Uganda eta Burundirena) eta horren ondorioz intzidentzia lan horiek beste herrialde horietan, edo Estaturuburu eta Gobernu buruen arteko topaketetan edo Nazioarteko Erakundearen aurrean egin dira, adibidez, Laku Handien Eskualdearen inguruko Nazioarteko Konferentzian. Azkenik, emakumeek nazioarteko aktoreen artean ere intzidentzia politikoa egiten dute; esaterako, hauek: Kongoko Errepublika Demokratikoan dauden atzerriko enbaxadak edo inguruko herrialdeak, beste herrialde batzuk (AEB, Erresuma Batua, Belgika, Frantzia, etab.), eta NBE, Europar Batasuna eta gobernu arteko beste zenbait erakunde.

Estrategia horri dagokionez, haien esakerak bake akordio desberdinetan sartzeko emakume taldeek presioa egiteko ekintzek (*lobbying*) egiten dituzte, bai herrialdean bertan bai atzerrian. Eudoxie Nziavakeren esanetan “emakumeak ez gaituzte informatzen ezta bake negoziazioetan parte hartzera gonbidatzen ere”. Horien bazterketa bistakoa izan da; ez dute haien ahotsa entzun eta ez dituzte haien interesak kontuan hartu, ez negoziazioetan ez hartutako erabakietan. Horrek ondorioz latzak izan ditu haientzat, gatazka osteko bakea eraikitzeari eta, espezifikoki, egia eta justizia bilatzeari dagokienez.

Egoera horren aurrean, nazio mailan, eskualdean edo nazioartean bake akordioak negoziatzeko topaketak izan direnean, Ipar Kivu eta Hego Kivuko

emakumeek foro paraleloak egin dituzte honako helburu hauekin: alde batetik, topaketa horietako parte hartzaileen artean (ia guztiak gizonak) bakearen, segurtasunaren eta justiziaren inguruan duten ikuspegia ezagutzera ematea eta, bestetik, euren aldarrikapenak kontuan hartzen dituzten konponbideak bilatzeko presioa egitea. Era berean, emakumeen bazterketa salatu dute, kuantitatiboki (ez egotea edo presentzia eskasa) eta kualitatiboki (parte hartu duten emakume urriak Kinshasako elite politikoko kideak dira eta Kivuetako emakumeen aldarrikapenetatik urrun daude, geografikoki eta, bereziki, politikoki)<sup>30</sup>. Bazterketa horri erantzuteko akzio desberdinak egon dira. Esaterako Hego Kivuko emakume talde baten militante batek bere burua M-23 talde armatuko (*Mouvement 23 Mars*) kideztat aurkeztu zuen 2013an Addis Abeban (Etiopia) izandako bake konferentzia parte hartu ahal izateko.

Emakume taldeen intzidentzia politikoko estrategiak honako helburu hau ere izan du: bere lan agendarekin lotura duten tresna juridiko nazional eta internazionalen aplikazioa, jarraipena eta hobekuntza behar bezala egiteko presionatzea. Hauek dira tresna juridiko horietako batzuk: sexu indarkeriaren lege nazionala (2006)<sup>31</sup>; Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena eta Kongoko Errepublika Demokratikoak hori aplikatzeko Akzio Plan Nazionala (2010); eta amnistia lege berriena (2014)<sup>32</sup>. Azken horri dagokionez, Marie Louise Balagizi eta Jean Pierre Musimwa (*Pax-Christi*) azaltzen dutenez, tokiko GKE desberdinak sinadurak bildu zituzten gobernuari lege hori hobe zezan eskatzeko. Aldi beran, legea hobeto kontrolatzearen, aplikazio, segimendu eta ebaluazio batzorde bat eratzeke eskatzen zioten.

#### 4.2.2. Sentsibilizazioa

Sentsibilizazioari dagokionez, emakume taldeek helburu bikoitza dute. Alde batetik, herrialdean hartutako bake akordioen inguruan sentsibilizatu eta dibulgatzea, biztanle zibilek eta talde armatuetako kideek edukia ezagut dezaten eta horiek akordioak aplikatzeko ardura duten aktoreengan presioa

---

30 Eudoxie Nziavakeren esanetan, “urrunetik datozen eta errealtatea ezagutzen ez duten emakumeak dira, Kinshasako instituzioetatik datoz eta gatazka zeharka baino ez dute ezagutzen (irradi eta telebista bidez), baina ez dute herrietan edo landa guneetan bizi diren emakumeen ikuspegi bera, azken hauek, errealtateari lotuta baitaude eta gatazken inpaktua pairatu baitute haien egunerokoan”.

31 2006ko uztailaren 20ko 06/018 Legeak Kongoko Errepublika Demokratikoko zigor kodean jasotzen den 1940ko urtarrilaren 30eko Dekretua aldatu eta osatu egiten du.

32 2014ko otsailaren 11ko 14/006 Legeak gerra ekintzen, politika eta iritizko arau hausteen amnistia jasotzen du.

egin dezaten (agintari publikoak, talde armatuetako buruak eta borrokalariak, tokiko agintari tradizional eta erlijiosoak, jendarte zibila, etab.).

Bestetik, emakume taldeek honako hauei zuzendutako etengabeko sentsibilizazio ekintzak egiten dituzte: biztanle zibilak, tokiko eta probintzia mailako agintariak, ohiturazko agintariak, kazetariak, epaileak, politikoak eta estatuaren segurtasun indarretako kideak. Sentsibilizazio horien bidez, gai desberdinak jorratzen dituzte, gehienbat, emakumeen eskubideak (parte hartzeko eskubidea barne); bakea, segurtasuna eta desmilitarizazioa (adibidez, 1325 Ebazpena eta bere tokiko aplikazioa); gatazkek emakumeengan dituzten inpaktuak; eta inpunitatearen kausak eta ondorioak.

Sentsibilizazio eta dibulgazio ekintza horiek hauen bidez egiten dira: topaketa formal eta informalak, tailerrak edota bertako irratiak<sup>33</sup>. Azken horiek, komunitateko ahotsak entzuteko espazioak sortzen dituzte eta horrek, García Mingok (2013: 32) nabarmentzen duen bezala, garrantzi handia du gatazka testuinguruetan. Hala, bada, Anne Marie Uboyo eta Eudoxie Nziavakeren arabera, emakume taldeek talde armatuetako kide diren pertsonen desmobilizazioa eta zibilek eta komunitateek armak ematea erraztu dute, besteak beste.

Sentsibilizazio ekintzen artean, Kongoko armada nazionalaren (FARDC) aldeko manifestazioak eta diru bilketak aurkitzen ditugu. Alabaina, hori biztanle zibilen eta emakumeen giza eskubideen urraketa askoren erantzulea da. Adèle Safi (*Action pour le Développement Intégrale de la Jeunesse et de la Femme*, ADIJF) hori azaltzen saiatu da. Berarentzat gizarte zibila oso kritikoa izan da FARDCrekin horrek jokabide desegokia izan duenean (borroka errefusatu eta frontetik ihes egitean, biztanleei zergak kobratzean edo sexu bortxaketak egitean). Baina horren jokabidea zuzena izan denean, gizarte zibila “bertan egon da, haiek biztanleak eta herrialdearen osotasuna defendatzen jarraitzera animatzeko”.

#### 4.2.3. Salaketa

Amnistiak emateko eta boterea banatzeko itunen ondorioz sortutako zigorgabetasun mailak biztanle zibilengan eta, bereziki, emakume taldeetan polemika eta desadostasun handia sortu du. Amnistia hiltzeagatik, bortxatzeagatik eta abarregatik ematen den saritzat jotzen dute. Eudoxioe

---

33 Kivuetako emakumeek irratiairen bidez bakearen eraikuntzan izandako intzidentziari buruzko ikerketa baterako, ikus García Mingo (2015).



Nziavakeren hitzetan, “Norbaitek pertsona asko hil dituenan, eskerrak ematen zaizkio eta Jeneral izendatzen da? Ez, hori anormala, zentzugabea eta gizagabea da. Bere lekua kartzela da. Baina testuinguru honetan amnistia ematen zaio eta, gainera, boterezko eta ardurazko karguekin saritzen zaio. Eta biztanleak? Eta giza eskubideak?” Horregatik, emakume taldeek, aipatutako sentsibilizazio estrategiaz gain, hau salatzen dute: bake negoziazioetatik emakumeak baztertzea eta, ondorioz, zigorgabetasuna eta emakumeen kontrako indarkeria betiketzea.

Kongoko gobernuaren diskurtsoan bakea eta justizia elkarrezineko helburuak dira. Horren arabera, gobernuak amnistia eta boterea partekatzekeo estrategiak “bakearen izenean” justifikatzen ditu. Eudoxie Nziavakek, Adèle Safik eta beste hainbat aktibistak behin eta berriro kritikatu dute diskurtso hori. Alabaina, horren aurrean jaso duten erantzuna hau izan da: “bakeak ez du preziorik”; “bakeak dena merezi du”; hori guztia “negoziarioari laguntzeko” egiten da; “bakeak sakrifizioak behar ditu”. Praktikan, ordea, gobernuaren eta talde armatuen arteko negoziatioak inpunitate orokorra sortu du (Ndaywel è Nziem, 2010: 289). Elkarriketatutako pertsona asko bat dator iritzi horrekin. Horien ustez “amnistiak zigorgabetasuna ematen du” (Thomas d’Aquin Muiti, Ipar Kivuko *Société Civile*) edo, gutxienez, “zigorgabetasun espazioak sortzen ditu” (Pablo Muke). Aldi berean “hasierako laukira itzultzea” eta “indarkeriaren zikloa errepikatzea” dakar (Milka Kavira, *Programme de Promotion des Soins Sanitaires Primaires-PPSSP*) “atzoko amnistiak gaur borrokan jarraitzen dutenak” baitira (Chantal Kambibi).

Baina amnistien inguruko iritzia ez da unibokoa eta etengabeko ñabardurak izaten ditu. Anne Mari Uboyok, adibidez, bereizketa bat egiten du krimenak agindupean egin dituztenen eta aginduak eman dituztenen artean. Bere ustez, azken horiek ezin dira zigorrik gabe geratu: “Hau da Kongoko herritarren iritzia: ezin dela mundu guztia amnistiatu”. Hori da, antza denez, Kivuetako biztanle gehienek iritzia. Vinck *et al.*-ren (2008: 43) ikerketaren arabera, %38k bakarrik uste du soldaduek talde armatuen buruen tratua jaso behar dutela. Herritarren arabera, azken horiek krimenen ardura handiagoa dute eta hori kontuan hartu behar da kontuak ematerakoan. Eudoxie Nziavake iritzi berekoa da: “Amnistiak ez dira txarrak, berez, baina neurritz erabili behar dira. Milaka pertsona hil dituenari ezin zaio amnistiari eman. Bestela biztanleek ez lukete inolako baliorik izango”.

Azkeneko amnistia legearen arabera (2014ko 14/006 Legea), interesa duen pertsonen indibidualki eskatu behar dute amnistia eta gobernuak erabakiko du ematea ala ez ematea. Lehenik, horri esker, gobernuak pertsona

horiek identifikatu eta bere aurrekariak egiaztatu ahal izango ditu eta, horren arabera, amnistia ematea ala ez ematea erabakiko du. Marie Honorine Chiribagularen esanetan, “amnistiak ez du esan nahi ez denik zigortuko”. Bere ustez, amnistia lortzen duten pertsona horien krimenak ere identifikatu eta ezagutzera eman behar dira, jendeak ezagut ditzan. Horrez gain, amnistia eman aurretik, gobernuak babesteko ardura bete behar du, pertsona horiek etorkizunean krimen berak egingo ez dituztela bermatuz. Hau da, ez errepikatzeko bermeak izan behar dira. Zentzu horretan ere, Ghislain Bafunyembakak (*Interfaith*) salatzen duenez, gobernuak trantsiziozko justiziaren inguruan hartutako erabakiak legeen bitartez inposatzen dira eta hori beste indarkeria mota bat da. Bere hitzetan, “amnistia inposatzea biztanleen kontrako indarkeria da, hau da, ez dela egongo ez zigorrik errudunentzat eta ez erreparaziorik biktimentzat”.

Emakume taldeek salaketa estrategia ekintza ugariren bitartez garatzen dute, besteak beste, hauen bitartez: aginte publikoen egoitzen aurrean edo NBEaren Misioaren baseen aurrean eserialdiak (*sitting*) eta manifestazioak egin, horiek etengabeko indarkeriaren eta segurtasun ezaren aurrean duten pasibotasuna salatze<sup>34</sup>; “manifestazio oinutsak” non emakumeak oinutsik edo beltzez jantzita manifestatzen dira (kolore askoko arropak erabiltzen diren testuinguru batean); “Emakumeen nazioarteko eguna” ez ospatzeko erabakia, emakumeak hiltzen eta bortxatzen jarraitzen dituztelako; edo “Emakumerik gabeko emakumeen nazioarteko eguna” ospatzea, non emakumeak ez diren kalera irteten, ez dituzten euren eguneroko lanak egiten, neskak ez diren eskolara joaten eta “kalea isiltzen” den, “emakumeak guztiaren erdia” direla frogatzeko, Adèle Safik komentatzen duen bezala.

#### 4.2.4. Laguntza eta boteretzea

Emakumeen eskubideak urratzen diren testuinguru batean, emakume talde eta erakundeen estrategien artean indarkeria mota desberdinak jasan dituztenak laguntzea dago. Horren inguruan egiten dituzten ekintzen artean hauek topatzen ditugu: arreta mediko eta psikosoziala, ostatu eta elikadura beharrak asetzea, birgizarteratze sozioekonomikoa, aholku juridikoa, etab. Helburua, Joséfine Kusinza-ren esanetan, “haien tristura botere bihurtzea” da; izan ere, “emakumeak berregitea mundua berreraikitzea” da.

---

34 1999. urtean sortu zenetik, MONUCek, lehenengo, eta MONUSCok, gero, Kongoko biztanle zibilen kritika gogorak izan dituzte biztanleak babesterakoan adierazi duten geldotasun edo gelditasunagatik.

Aldi berean emakumeak boteretzeko eta haien ahultasun egoera hobetzeko jarduerak garatzen dituzte. “Indarkeria desberdinen biktima garen heinean, ezin gara besoak antxume geratu”, dio Eudoxie Nziavakek. Jarduera horien artean haiek aurkitzen ditugu: alfabetatze programak, diru sarrerak lortzeko jardueretan trebatzea, birgizarteratzerako laguntza (sexu indarkeriaren biktimen kasuan, familien eta komunitateen estigmatizazioa edo gaitzespena saihesteko) eta (auto)defentsa eta norberaren segurtasunari lotutako gaitasunak indartzea.

### **4.3. Beste eragile sozial eta politikoekiko aliantza**

Kongoko Errepublika Demokratikoko emakume erakundeen lan agenda zabalak tokiko eta nazioarteko eragile desberdinekin aliantzak lortzen laguntzen die esparru desberdin hauetan: giza eskubideak, hezkuntza, osasuna eta elikadura burujabetza. Izan ere, tokiko eta nazio mailan emakume taldeek jendarte zibila koordinatzen duten erakunde sare trinko baten bitartez antolatzen dira. Horrek batasuna eta jardueraren koherentzia handiagoa sustatzen du. Erakunde horiek ez daude Kivuetara edo Kongora mugatuta; aitzitik, aipatutako gatazken eskualde dimentsioan oinarrituta, beste herrialde batzuetako erakundeak ere biltzen dira, gehienbat, Ruanda, Uganda eta Burundikoak. Eskualdean duten sostenguaz gain, Kongoko emakume taldeen elkartasunak eta lankidetzak beste adierazpen batzuk dituzte nazioartean. Izan ere, euren aldarrikapenek tokian eta nazio mailan duten babes urriaren aurrean Kongoko Errepublika Demokratikoaz kanpoko aktoreekin dituzten aliantza anitzak aurkitzen ditugu.

Alde batetik, nazioarteko mugimendu feministak Kongoko emakume taldeei adierazten dien elkartasunaren une gogoangarriena 2010eko urriaren 13a eta 17a artean izan zen, Emakumeen Mundu Martxak (EMM) Hego Kivuko Bukavu hiriburuan izandako topaketarekin. EMMren Nazioarteko Hirugarren Ekintzari amaiera emateko gatazka testuingurua duen herrialde bat aukeratzeak helburu hau zuen: emakumeen kontrako indarkeriaren, gatazka armatuen eta militarizazioaren arteko lotura azpimarratzea. Emakumeen arteko elkartasun internazionalistako ekintza horrek Kongoko emakume taldeak ere indartu zituen. Ekintzak lau ardatz tematiko hauen inguruan garatu ziren: emakumeen autonomia ekonomikoa; guztion ona eta zerbitzu publikoak; emakumeen kontrako indarkeria; eta bakea eta desmilitarizazioa. Kongoko Errepublika Demokratikora EMMko nazioarteko ordezkari bat bertaratu zen, 41 herrialdeko 220 emakumek osatuta. Jardueretan munduko leku guztietatik etorritako 3.000 pertsona inguruk parte hartu zuten (gehienak

emakumeak). Horren ondorioz, Kivuetako emakume taldeen jarduerak agerpen eta babes handiagoa izan du nazioarteko mugimendu feministan.

EMMren topaketa horretan memoria historikorako espazioa ere egon zen. Urriaren 16an “Gerrako biktimak izandako emakumeen memoriala” (*Mémorial aux femmes martyres de la guerre*) egin zen Mwenga herrian (Hego Kivu). Memorial horrekin 1999an eskualdeko gatazka armatuan (1998-2003) izandako gertakariak gogoratu nahi izan ziren: Estatz kanpoko talde armatu bat herrira heldu zen eta biztanleei bertako defentsarako talde bati babesa ematea leporatu zien. Herriko buruzagia hil egin zuten, bikiez haurdun zegoen bere emazteari erraiak atera zizkieten eta 14 emakume eta gizon bat torturatu, bortxatu, biluztu, piperrautsaz gorputz osoa (genitalak ere) igurtzi eta, azkenik, bizirik lurperatu zituzten. Ankerkeria horren arduradunak Indar Armatu nazionaletan (FARDC) sartzeko aukera aprobeztatu zuen eta ez du inoiz krimen horientatik kontuak eman behar izan (Emakumeen Munduko Martxa, 2010: 21-23).

Bestalde, 1325 Ebazpenaz geroztik, Kongoko Errepublika Demokratikoan, nazioarteko zenbait aktorek nazioarteko bakegintza politiketan txertatu den genero agenda aplikatu dute, bereziki hauek: NBek herrialdean duen Misioa, Munduko Bankuak eta garapenerako, giza eskubideen aldeko, bakegintzarako edo feminismoaren inguruko nazioarteko GKE asko. Agenda horrek eragin handia izan du Ipar eta Hego Kivuko emakume taldeetan. Nazioarteko eragile horien genero agendak Kivuetako emakume taldeen aldarrikapenei eta ekintzei tokian, nazio mailan eta nazioartean oihartzun handiagoa izaten lagundu diete. Aldi berean, finantzamenduaren bitartez, horiek iraun eta garatu ahal izan dute. Dena den, aldi berean, tokiko emakume taldeen jarduerak nazioarteko agenda horrekin bat egin du. Hala, mailaka, haien misioa eta ikuspegia agenda horretara egokituz joan dira. Bereziki, talde horien jarduerak 1325 Ebazpenak emakumeek bakean eta segurtasunean duten rolaren inguruan biltzen dituzte ideietara egokitu dira; konkretuki, emakumeen babesean eta parte hartzean jartzen duen enfasiari dagokionez.

Neurri handi batean, NBek emakume horiek bakegile gisa sostengatu ditu. Erakunde horretako kide den Jean Marie Uboyoren esanetan, emakumeak gizonak baino hobeto “erabil” daitezke bakearen eta elkarbizitzaren inguruko sentsibilizazioan, aktore armatuek neutrotzat hartzen baitituzte. Eudoxie Nziavakeren arabera, emakumeen artean sortzen diren elkartzunezko harremanak desberdintasun erlijioso, politiko, kultural eta etnikoak gainditzen dituzte eta bakegintza lanean laguntzen dute. Ikuspegi beretik, El Hadji

Bara Dieng-ek (MONUSCOko DDR/RR<sup>35</sup> Unitatea Bukavun) aipatzen duen proiektu baten bitartez, Estatuko Indar Armatueta (FARDC) zenbait soldaduren eta talde armatu desberdinetako kideen emazteek euren senarren arteko bitartekari lanak egin zituzten. Bere hitzetan, “talde armatueta borrokalariaren emazteak eta FARDCko soldaduen emazteak elkarrekin lan egiten jartzen baditugu baliteke, bihar, talde armatu horiek FARDCri ez erasotzea”. Emakumeek bakegintzan izan dezaketen rola ikuspegi horrek hainbat auzi ekartzen du, besteak beste, emakume taldeei egokitzen zaien izaera instrumentala. Horren atzean, emakumeek bakearen alde duten berezko joera aurreuposatzen duen ikuspegi esentzialista dago (Mendia Azkue, 2014).

Horrez gain, Kongoko Errepublika Demokratikoan emakumeen eta gizonen identitateen eraikuntza eta ugalketari eta emakumeen eta gizonen arteko botere harremanei dagokienez, orokorrean, nazioarteko aktoreek sustatzen dituzten jarduerak, alde aurretiko inolako diagnostikorik gabe garatzen dira.

Azkenik, ikuspegi kuantitatiboak -bakearen jardueran parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea- arrisku hau du: emakumeen ordezkatzeara era sinplista batean ulertzea, dauden egituretan berdintasuneko benetako eraldaketa bat sortu gabe. Zentzu horretan, bakegintzan, generoko *mainstreaming*-eko estrategia liberalak emakumeen parte hartzea eta babesaren uztartzen ditu baina ez dio generoko desberdintasunen jatorriari erreparatzen eta, hortaz, arazoak sortzen ditu. Alde batetik, “agente/biktima” dikotomia sortzen du emakumeen roletan eta hori ez dator errealitatearekin bat (Mendia Azkue, 2012: 19). Bestetik, “parte hartze/babesa” artean tentsio bat sortzen du; izan ere, bake eta segurtasun ekintzetan emakumeen parte hartzea sustatu nahi du baina, aldi berean, emakumeak, batez ere, biktimatzat jotzen ditu, gehienbat, indarkeria sexualaren biktimatzat.

Azkenik, emakume taldeen aldarrikapenen aliatuen artean “gizon generizatuak” (*hommes genrés*) ere aurkitzen ditugu. Joséfine Kusinzak horrela deitzen die Ipar Kivu eta Hego Kivun dauden berdintasunaren aldeko gizon taldeetako kideei. Tokiko eta nazio mailan ildo horretako hainbat ekimen dago, esaterako, COMEN (*Congo Men's Network*) edo *Foundation Panziko V-Men* ekimena. Horiek honako helburu hauek dituzte: maskulinitate positiboa edo arduratsua sustatzea; gizonak sentsibilizatzea, berdintasunaren aurkako maskulinitate ereduak bazter ditzaten eta emakumeen kontrako

---

35 MONUSCOko Desarme, Desmobilizazio eta Gizarteratze/Aberriratze eta Birkokatze unitateak Kongoko Errepublika Demokratikoan dauden Estatuz kanpoko talde armatueta borrokalari ohiak bizitza militarretik bizitza zibilera igarotzea laguntzeko helburua du.

indarkeria deuseztatzeko ardura beren gain har dezaten. Roger Buhendwak azpimarratzen duen bezala, emakumeen borrokentzat gizonak aliatu gakoak dira; izan ere, eurek dira gizartean boterea dutenak eta emakumeen kontrako indarkeria erabiltzen dutenak.

#### 4.4. Oztopo eta zailtasun nagusiak

Kongoko Errepublika Demokratikoan hau da emakume taldeek aurkitzen duten lehenengo oztopo bat: “errepikapenezko gerra” egoera eta etengabeko indarkeria eta segurtasun eza. Haien jarduera zalantzazko, mehatxuzko eta oso militarizatuta dagoen inguru batean kokatzen da. Tartean sartutako talde armatu ugariak kontuan hartuta, haien lana oso arriskutsua da (bereziki, landa eremuan) eta jazarpena eta zigorrak jasotzeko arrisku handia dute. Izan ere, azken urteotan, giza eskubideen aktibistek, kazetariak eta gizarte zibileko liderrek<sup>36</sup> mehatxu eta hilketa ugari pairatu dituzte (Turner, 2007: 140).

Herrialdean dagoen desberdintasun instituzional eta soziala beste oztopo handi bat da. Azpimarratu bezala, maila formalean berdintasuna aitortzen bada ere, emakumeen diskriminazioa Kongoko estatuaren ezaugarri nagusi bat da. Horrez gain, Justine Masikaren ustez, Kongoko politikariek ez dute genero auziengatik inolako interesik adierazten. Agintariak, gehienak gizonak, honelako adierazpenak egin ohi dituzte: “Horiek emakumeen kontuak dira”. Adèle Safiren arabera, ez da ezjakintasun kontu bat, borondate politiko falta baizik. Hala, Justine Masika, Julienne Mushagalusha eta Gillaine Nawezaren ustez, emakume taldeen erronka nagusietako bat tokiko eta nazio mailako agintarien interesa lortzea da.

Urte askoz, talde horiek besterik ez dute egin berdintasunaren aldeko eta zigorgabetasunaren kontrako lana. Horiek euren eskubideak defendatzen eta aldarrikatzen dituzten emakumeen mugimendua sortzea lortu dute. Kambale Mughanyiriren esanetan, “gizon gehienak ez dira kontzientziatuak izan gai horren inguruan eta berdintasunaren diskurtsoa emakumeen munduan geratu da”. Izan ere, emakume taldeek errezeloak eta aurkakotasuna sortzen dute gizonengan. Haiei berdintasunaren diskurtsoa entzutea kostatzen zaie, bereziki, emakumeengandik datorrenean: Zer kontatuko dit niri emakume horrek? “Horiek emakumeen kontuak dira”. Orokorrean, gizonak euren pribilegioei,

---

36 Vincent Machonzirena azkenaldiko adibide bat da. *Nande* etniako lider hori 2016ko martxoaren 23an hil zuten, Vithungwe herrian (Beni Probintzia, Ipar Kivu). Era berean, Denis Mukwege (*Fondation Panzi*) doktorea bere etxean sufritutako atentatu batetik bizirik atera zen, 2012ko urriaren 25ean.

hau da, genero harremanetan duten menperatze posizioaren onurei eusten diete (Lwambo, 2011:16). Hori dela eta, askotan, ez dituzte garrantzitsutzat edota zilegitzat jotzen emakumeek genero berdintasunaren alde gizonentzat egiten dituzten ekintzak. Izan ere, gizonen ikuspuntutik, ekintza horiek ez dira eurentzat, emakumeentzat baizik.

Azkenik, Kongoko Errepublika Demokratikoko gobernuaz eta gizarteaz gain, literatura adituak ere, maiz, ez ikusia egin dio Kivuetako emakume taldeek egindako lanari. Paul Higate eta Marsha Henryk azpimarratzen duten bezala (2004: 486), gatazkako testuinguruetan emakumeek menperatze modu maskulino eta militarizatuak negoziatu, desafioa egin eta eutsi egin diete, baina literaturak ez du horren inguruan interes handirik adierazi. Kongoko kasua ez da salbuespen bat. Kasu horretan ere ikerketa nagusiek ez ikusia egiten diote auzi horri eta oso gutxi dira Kongoko emakume erakundeek bakearen eta justiziaren alde betetzen dute rola eta eragina aztertzen dutenak.

## 5. Ondorioak

Aipatu bezala, Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdean hainbat gatazka armatuk aktibo jarraitzen dute (bereziki, Ipar Kivun eta Hego Kivun). Beraz, emakume mugimenduak egiaren, justiziaren, erreparazioaren eta memoria historikoaren inguruan egindako lana aztertu nahi badugu kontuan hartu behar dugu etengabe militarizatutako lurralde batez ari garela. Horretan, indarkeria, segurtasun eza eta biztanleen giza eskubideen urraketak bi hamarkadaz ugalduta dira.

Hala eta guztiz ere, Kongoko ekialdean, emakumeen kontrako indarkeria ezin da gatazka armatuen ondorioztat hartu. Aitzitik, haien kontrako indarkeria *continuum* bat dago, modu eta esparru desberdinetan adierazten dena, hau da, gatazka armatuko testuinguruetan zein horietatik kanpo. Aldi berean, emakumeen kontrako indarkeria modu horiek desberdinak dira izaerari eta inpaktuei dagokienez. Izan ere, generoa beste faktore batzuekin gurutzatzen da, besteak beste, hauekin: etnia, klase soziala, erlijioa, izaera landatar ala hiritarra eta egoera zibila. Edonola ere, gatazkek emakumeen kontrako indarkeriak areagotu eta larriagotu dituzte, haien eskubideak atzeratuz. Mehatxuak ez datoz estatuko zein estatuz kanpoko aktore armatuengatik soilik; zibilengatik ere. Izan ere, zibilek (askotan emakumearen ingurukoek) egindako bortxaketa sexualak aktore armatuek egindakoak baino ugariagoak dira.

Hala, bada, emakumeek oztopo handiak izaten dituzte beren giza eskubideen urraketengatik justizia lortzeko eta, zenbait delitutan -esaterako, sexu bortxaketan-, zigorgabetasun maila eskandaluzkoa da. Aplikatu izan diren trantsiziozko justiziazko mekanismoek porrot egin dute, ezin izan baitiete erantzun biktimen egia, justizia eta erreparazio eskaerei. Alde batetik, Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordeak ez zituen 1960 eta 2006 artean gertatutakoak argitu, ezta aurkako alderdiak adiskidetu ere. Bestetik, baliabide eta ahalmen falta, ahultasuna eta ustelkeria dela eta, zigor justizia nazionala (zibila zein militarra) ez da eraginkorra. Nazioarteko justiziak eta, bereziki, Nazioarteko Zigor Auzitegiak garrantzi sinbolikoa du baina, izandako giza eskubideen urraketan garrantzia eta hedapena kontuan hartzen badugu, oso jarduera mugatua izan du. Azkenik, ez da aplikatu izaera leheneratzailea duen justizia komunitarioa. Beste alde batetik, emakume erakundeek gobernuak aplikatutako lau amnistia legeak zalantzan jarri dituzte. Izan ere, formalki krimen larriak (gerrako, gizadiaren kontrako eta genozidio krimenak) horietatik kanpo geratzen dira baina, praktikan, amnistia orokortu eta inpunitate maila altua sortu dute.

Testuinguru horretan zigorgabetasuna eta mehatxu etengabea nagusi dira. Hala, emakumeen arteko antolakuntza eta elkartasuna beren burua babesteko eta boteretzeko mekanismo bilakatu dira (entzutean, enpatian eta konfiantzan oinarrituta). Gainera, borrokarako eta eskubideak aldarrikatzeko espazioak sortu dituzte. Sarritan, elkartasun horrek Estatuaren mugak gainditzen ditu eta eskualdera zabaltzen da. Emakume erakundeek ziur daude gatazka armatuek eskualde mailako konponbidea behar dutela eta horrek jarduera koordinatua sortu du ekialdeko mugaz haragoko emakumeekin, gehienbat, Ruandako, Ugandako eta Burundiko lagunekin.

Tokiko eta nazio mailako botereek emakume taldeen aurrean erakusten duten pasibotasunaren eta mesfidantzaren ondorioz, Kongoko Errepublika Demokratikoan lan egiten duten nazioarteko aktore desberdinek (MONUSCOK, Munduko Bankuak eta nazioarteko GKEek, besteak beste) emakume taldeak euren generoko eta bakegintza agenda aplikatzeko aliatutzat hartu dituzte. Nazioarteko agenda hori ikuspegi feminista liberalarekin bat dator eta, ondorioz, NBEko Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena aplikatzea du helburu nagusia. Nazioarteko babes horrek oihartzun handiagoa eman die emakume taldeen eskaera eta jardueri eta, neurri batean, horiek gizartean duten onarpena eta haien garapena sustatu du. Baina, aldi berean, euren agenda bideratu eta baldintzatu du. Emakumeek gatazka armatuetan dituzten rolei dagokienez, orokorrean, nazioarteko sostengu horrek “bakearen eragile/biktima” dikotomia



erredukzionistan sakondu du. Era berean, horren ondorioz, nolabaiteko kontraesana sortu da 1325 Ebazpenaren zenbait helbururekin. Izan ere, askotan emakumeak babes behar duen biktimatzat (bereziki sexu indarkeriaren biktimatzat) hartzean ez dira bakegintzaren subjektu aktibotzat hartzen.

Kongoko Errepublika Demokratikoan, sexu indarkeriak agerpen handia izan du hedabideetan. Literaturak hori gatazka armatuarekin lotu ohi du. Baina sexu indarkeria bertako desberdintasun egoeraren muturreko adierazpen bat besterik ez da. Izan ere, desberdintasun egoera horrek bertako emakumeen bizitzaren esparru guztietan du eragina. Zentzu horretan, arreta zuhaitz bakar batean jartzean (hori oso handia bada ere) ez dugu basoa ikusten. Babes ekintza guztiak ondorio horretan ardazteak ez du gizonen eta emakumeen berdintasuna lortzeko eraldaketa bultzatuko, gehienbat, dauden botere harremanen inguruan hausnarketa sakona egiten ez badugu.

Ipar Kivu eta Hego Kivuko emakume taldeek aurrean duten egoeraren diagnostiko oso zehatza egiten dute eta oso argi dituzte haien eskaerak. Haien agendak elkarrekin lotutako aldarrikapenak uztartzen ditu honako esparru hauetan: bakea eta desmilitarizazioa; segurtasuna; egia, justizia eta erreparazioa; eta emakumeen eskubideak. Horien artean nagusi da bakearen, segurtasunaren eta justiziaren inguruan erabakitzeke espazioetan, bereziki, gatazka osterako neurri estrategikoak erabakitzen diren bake negoziazioetan parte hartzeko eskaera. Emakume erakundeen interesak espazio horietatik sistematikoki baztertu dituzte eta, ondorioz, gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna areagotu da. Era berean, beste alde batetik, indarkeria zikloak errepikatu dira eta inpunitatea orokor bihurtu da. Parte hartzea eskatuz, emakumeek bakegintzan egokitu zaizkien espazio informalak gainditu nahi dituzte eta, gehienbat, bakea eta justizia soziala Kongoko Errepublika Demokratikora hurbiltzeko ikuspegi alternatiboak proposatu nahi dituzte.

## Bibliografia

Autesserre, Séverine (2010): *Trouble with the Congo. Local Violence and the Failure of International Peacebuilding*, Cambridge University Press, New York.

Alexievitch, Svetlana (2015): *La guerra no tiene rostro de mujer*, Debate, Bartzelona.

- Bjorkhaug, Ingunn eta Morten Boas (2014): *Men, women and gender-based violence in North Kivu, DRC*, FAFO Institute for Applied International Studies, <<http://www.faf.no/~faf/images/pub/2014/20386.pdf>>.
- Cockburn, Cynthia (2004): “The Continuum of Violence. A Gender Perspective on War and Peace”, Giles, Wenona eta Jennifer Hyndman (arg.): *Sites of Violence. Gender and Conflict Zones*, University of California Press, Berkeley, 24-44.
- Connell, Robert W. (1995): *Masculinities*, Polity Press, Cambridge.
- El-Busha, Judy (2008): “Feminism, Gender, and Women’s Peace Activism”, Cornwall, Andrea, Elizabeth Harrison eta Ann Whitehead (arg.): *Gender Myths and Feminist Fables: The Struggle for Interpretative Power in Gender and Development*, Blackwell Publishing, Oxford, 127-143.
- Emakumeen Munduko Martxa (2010): *Tercera Acción Internacional de la Marcha Mundial de las Mujeres-2010. Solidaridad feminista internacional en acción*, <[http://www.world-governance.org/IMG/pdf\\_book-2010-ES-2.pdf](http://www.world-governance.org/IMG/pdf_book-2010-ES-2.pdf)>.
- Eriksson Baaz, Maria eta Maria Stern (2010): *The Complexity of Violence: A critical analysis of sexual violence in the Democratic Republic of Congo*, Sida y Nordic Africa Institute, <<http://nai.diva-portal.org/smash/get/diva2:319527/FULLTEXT02.pdf>>.
- García Mingo, Elisa (2015): *Micrófonos de Paz. Conversaciones con Caddy Adzuba*, Los Libros de la Catarata, Madril.
- Global Network of Women Peacebuilders (2015): *Security Council Resolution 1325 Civil Society monitoring report. Democratic Republic of Congo. Women Count*, <[http://www.gnwp.org/sites/default/files/resourcefield\\_media/ICR\\_2014\\_DRCongo%207.27.15\\_0.pdf](http://www.gnwp.org/sites/default/files/resourcefield_media/ICR_2014_DRCongo%207.27.15_0.pdf)>.
- Higate, Paul eta Marsha Henry (2004): “Engendering (In)security in Peace Support Operations”, *Security Dialogue*, 35(4), 481-498.
- Hudson, Heidi (2010): “Peace building through a gender lens and the challenges of implementation in Rwanda and Côte d’Ivoire”, Sjoberg, Laura (arg.): *Gender and International Relations. Feminist Perspectives*, Routledge, Abingdon, 256-279.
- Kabunda, Mbuyi (2009): “La République Démocratique du Congo postcoloniale: du scandale géologique au scandale des guerres à répétition”, Kabunda, Mbuyi eta Toni Jiménez Luque (koords.): *La*

*République Démocratique du Congo. Les droits humains, les conflits et la construction/destruction de l'État*, Fundació Solidaritat UB et Inrevés, Bartzelona, 30-57.

Leatherman, Janie I. (2012): *Sexual Violence and Armed Conflict*, Polity Press, Cambridge.

Lwambo, Desiree (2011): *'Before the war, I was a man': men and masculinities in the Eastern Democratic Republic of Congo*, HEAL Africa, <<http://www.heal africa.org/wp-content/uploads/2011/10/men-and-masculinities-ineastern-dr-congo.pdf>>.

Mackenzie, Megan (2010): "Securitization and de-securitization: female soldiers and the reconstruction of women in post-conflict Sierra Leone", Sjoberg, Laura (arg.): *Gender and International Relations. Feminist Perspectives*, Routledge, Abingdon, 151-167.

Mateos, Óscar (2013): "Desfragmentando el 'consenso de la construcción de paz liberal'. Un análisis a partir de Sierra Leona y de la Reforma del Sector de Seguridad", Ruiz-Giménez, Itziar (arg.): *El sueño liberal en África Subsahariana. Debate y controversias sobre la construcción de la paz*, Los Libros de la Catarata, Madril, 150-187.

Mazurana, Dyan (2005): "Gender and the Causes and Consequences of Armed Conflict", Mazurana, Dyan, Angela Raven-Roberts eta Jane Parpart (arg.): *Gender, Conflict and Peacekeeping*, Rowman&Littlefield Publishers, Lanham/Maryland, 29-42.

Mendia Azkue, Irantzu (2014): *La división sexual del trabajo por la paz. Género y rehabilitación posbélica en El Salvador y Bosnia-Herzegovina*, Tecnos, Madril.

Mendia Azkue, Irantzu (2012): "Justicia transicional: dilemas y crítica feminista", *Lan-Koadernoak Hegoa*, 59, <[http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/236/Cuaderno\\_de\\_trabajo\\_Hegoa\\_59.pdf?1488539793](http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/236/Cuaderno_de_trabajo_Hegoa_59.pdf?1488539793)>.

Mendia Azkue, Irantzu (2009a): "Aportes sobre el activismo de las mujeres por la paz", *Lan-Koadernoak Hegoa*, 48, <[http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/197/Cuaderno\\_de\\_trabajo\\_48.pdf?1309420694](http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/197/Cuaderno_de_trabajo_48.pdf?1309420694)>.

Mendia Azkue, Irantzu (2009b): "Género y rehabilitación posbélica. El caso de Bosnia-Herzegovina", *Lan-Koadernoak Hegoa*, 51, <<http://>>

publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/73/G\_nero\_rehabilitaci\_n\_posb\_lica.pdf?1488539215>.

Moser, Caroline O. N. (2001): “The Gendered Continuum of Violence and Conflict: An Operational framework”, Moser, Caroline O. N. eta Fiona Clark (arg.): *Victims, Perpetrators or Actors? Gender, Armed Conflicts and Political Violence*, Zed Books, Londres, 31-51.

Murguialday, Clara (2000): “La construcción de la ciudadanía de las mujeres después del conflicto”, Zenbait Egile, *Guerra y Desarrollo. La reconstrucción post-conflicto*, UNESCO-Etxea, Bilbo, 38-44.

Ngoma-Binda, Phambu (2008): *Justice transitionnelle en R. D. Congo*, L’Harmattan, Paris.

Pankhurst, Donna (2004): “‘The sex war’ and other wars. Towards a feminist approach to peacebuilding”, Afshar, Haleh eta Deborah Eade (arg.): *Development, Women and War. Feminist Perspectives*, Oxfam International, Oxford, 8-42.

Rehn, Elisabeth eta Ellen Johnson Sirleaf (2002): *Women, War and Peace: The Independent Expert’s Assessment on the Impact of Armed Conflict on Women and Women’s Role in Peace-Building*, UNIFEM, New York.

Rodríguez Bartolomé, Virginia (2013): “Justicia Transicional en África Subsahariana: política y justicia internacional en escenarios de posconflicto”, Ruiz-Giménez, Itziar (arg.): *El sueño liberal en África Subsahariana. Debate y controversias sobre la construcción de la paz*, Los Libros de la Catarata, Madril, 48-79.

Sadie, Yolanda (2015): “Sexual and gender-based violence in the Democratic Republic of Congo”, *African Security Review*, 24(4), 450-457.

Sjoberg, Laura (2013): *Gendering Global Conflict. Towards a Feminist Theory of War*, Columbia University Press, New York.

Sjoberg, Laura (2006): “The Gendered Realities of the Immunity Principle: Why Gender Analysis Needs Feminism”, *International Studies Quarterly*, 50(4), 889-910.

Solhjell, Randi, Marcela Donadio, Ancil Adrian-Paul, Niels Nagelhus Schia, Juan Rial eta Renata Giannini (2012): *Turning UNSC Resolution 1325 into operational practice. A cross-country study on implementing Resolution 1325 in peacekeeping and military operations*, NUPI, <<http://brage.bibsys>.

no/xmlui/bitstream/handle/11250/276442/NUPI%2BReport-SIP-11-12-Solhjell%2Bet%2Bal.pdf?sequence=3&isAllowed=y>.

Stears, Jill (2013): *Gender and International Relations. Theory, Practice and Policy*, Polity Press, Cambridge.

Tickner, Ann (2001): *Gendering World Politics. Issues and approaches in the post-Cold War era*, Columbia University Press, New York.

True, Jacqui (2009): "Feminism", Burchill, Scott *et al.*: *Theories of International Relations*, Palgrave Macmillan, Basingstoke/Hampshire, 237-259.

Turner, Thomas (2007): *Congo Wars. Conflict, Myth, Reality*, Zed Books, Londres.

Vinck, Patrick, Phuong Pham, Suliman Baldo eta Rachel Shigekane (2008): *Living with Fear: A Population-Based Survey on Attitudes about Peace, Justice, and Social Reconstruction in Eastern Democratic Republic of Congo*, Human Rights Center, Payson Center for International Development e International Center for Transitional Justice, <<https://www.ictj.org/sites/default/files/ICTJ-DRC-Attitudes-Justice-2008-English.pdf>>.

Vlassenroot, Koen eta Timothy Raeymaekers (2007): *¿El retorno del leopardo? Patrimonialismo y crisis post-transición en la República Democrática del Congo*, Komunikazioa, Gaztazken inguruko Jardunaldiak, Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren Ikasketa Afrikarren Taldea, <<http://www.relacionesinternacionales.info/ojs/article/view/73.html>>.

### **Emakumeen kontrako diskriminazio mota guztiak ezabatzeko Hitzarmenari buruzko (CEDAW) dokumentuak**

CEDAW/C/ZAR/1: *Examen des rapports présentés par les États parties en vertu de l'article 18 de la Convention sur l'élimination de toutes les formes de discrimination à l'égard des femmes. Première Rapport périodique d'États parties. Zaïre, 1994ko azaroaren 14ean.*

CEDAW/C/ZAR/2: *Examen des rapports présentés par les États parties en vertu de l'article 18 de la Convention sur l'élimination de toutes les formes de discrimination à l'égard des femmes. Deuxième Rapport périodique d'États parties. Zaïre, 1997ko otsailaren 10ekoa.*

CEDAW/C/COD/1: *Examen des rapports présentés par les États parties en vertu de l'article 18 de la Convention sur l'élimination de toutes les formes*

*de discrimination à l'égard des femmes. Troisième Rapport périodique d'États parties. République Démocratique du Congo, 1999ko ekainaren 18koa.*

*CEDAW/C/COD/4-5: Examen des rapports soumis par les États parties en vertu de l'article 18 de la Convention sur l'élimination de toutes les formes de discrimination à l'égard des femmes. Rapport unique d'États parties regroupant des rapports périodiques (quatrième et cinquième rapports). République démocratique du Congo, 2004ko azaroaren 30ekoa.*

*CEDAW/C/COD/6-7: Examen des rapports soumis par les États parties en vertu de l'article 18 de la Convention sur l'élimination de toutes les formes de discrimination à l'égard des femmes. Rapport unique d'États parties valant sixième et septième rapports périodiques. République Démocratique du Congo, 2011ko abenduaren 21ekoa.*

Emakumeen eta, oro har, gizarte zibilaren aurka eragindako giza eskubideen urraketa larrien zigorgabetasunaren aurka antolaturiko emakumeen ekintza politikoaren esperientziak aurkezten dira liburu honetan; zenbait herrialderen kasuak jaso dira, gatazka armatu eta zapalkuntza-giroetan egon direnak edo oraindik ere bizi dituztenak. Kasu guztietan, euren erreibindikazioak egia, justizia, erreparazio eta berriro gertatuko ez delako berme-prozesuetatik kanpo uzteari uko egiten dioten emakumeen mugimendu bat dago.

Gehien-gehienak ere indarkeriaren biktima diren eta euren burua halakotzat hartzen duten arren, ezaugarri hori gainditu eta bakeranzko, suntsituriko gizarte-ehuna berreskuratzeko, gatazkei irtenbide negoziatua bilatzeko, justizia eskaera eta giza eskubideen defentsaranzko trantsizioetan ezinbesteko subjektu politikotzat berresten dute euren burua, eta ez soilik euren hurbileko erkidegoetan soilik, bai eta estatu eta nazioartean ere. Ekintza kolektiboa da, antolatua eta kontzientea, gatazka armatuetan emakumeen biktimizazioari buruzko ikuspegi estereotipatuak gainditzen dituen eta erresistentzia eta bizitzen jarraitzeko, indarkeriaren aurrean bere buruaz jabetzeko eta gizarte justu eta berdinkideagoak eraikitzeko borroka-ibilbide luzeetatik datorrena.